IAZKO HEZURRAK

UNAI ELORRIAGA

UNAI ELORRIAGA

Iazko hezurrak

narratiba Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 2014 Unai Elorriaga
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 2014ko azaroa
Edizio hau: 2014ko azaroa

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

LEHEN ATALA

Irene Arriasek ia zentimetro eta erdiko urratua egin zion amari jaio zenean, Algortan, 1971ko urtarrilaren 25ean. Odol asko eta desberdinak nahastu ziren amaren izterretatik, likido lodi batzuk ere bai beharbada. Gauza da medikuak uste baino denbora gehiago behar izan zuela gero amaren haragiak berriro josteko. Odol tanta batzuk jausi ziren orduan gelako zorura, solidoak ia, eta medikuaren laguntzaile batek zapaldu zituen konturatu barik, apur bat barreiatu ere bai, gehiegi ere ez. Alfredo Borreguero bera, mediku herrena, izan zen Irene Arrias besoetan hartu zuen lehena, garbitu ez bazuen ere. Hori guztia Algorta erdierdian, trenbidetik oso hurbil, Avenida del Ejército esaten zioten kalean, Bilboko Basurtuko ospitaleari Hospital Civil del Generalísimo esaten zioten bezala, urte bi geroago Eustakio Mendizabal *Txikia* hara hiltzera eraman zutenean, bala zulo bat bizkarrean eta beste bat buruan, frontalean sartu eta okzipitalean kanporatu zena.

Irene Arriasen amari orduan etorri zitzaizkion neke guztiak kolpera, gau osoko nekeak, giharretakoak, biriketakoak. Minbera zeukan joskura eta ohe-jantziak odolez eta orban beilegiz zeudela zikin, horretaz ohartu zen, ia beste ezertaz ohartzen ez zen une batean. Begiak behin eta berriro ixten zitzaizkion, segundo gutxiko tarteekin, umea gainean zeukan arren, bularrei begira. Irene Arrias umearen buruak gora eta behera egiten zuen, amaren titimuturra aho barruan sartzeko, baina ez zuen topatzen, begiak itxita oraindik. Kolpeak hartzen zituen umeak titi-sagarraren kontra, sudurrean eta kokotsean batez ere. Baina lortu egin zuen halako batean, amak ikara bat sentitu zuen, eta une horretan bertan, 1971ko urtarrilaren 25ean, Irene Arriasek amaren titiburua aurrenekoz harrapatzen asmatu zuen unean bertan, abiatu zuen estatu-kolpea Idi Amin Dada jeneralak Ugandan, Milton Obote presidentea atzerrian zela.

Lehen orduetan, Irene Arriasen ama lehen lo txikiak egitea lortzen ari zen bitartean, armadaburu gehienak hil zituen Idi Aminek. Hurrena, abokatu, irakasle, mediku ugari atxilotu eta hil zituen. Auzitegi goreneko presidenteari, Benedicto Kiwanukari, esate baterako, hankak eta besoak ebaki zizkion hasteko,

sexu-organoak erauzi gero eta ahoan sartu. Odolusten ari zela, bizirik artean, erre egin zuen.

Susmoa beti izan da Idi Amin jenerala kanibala izan zela. Hala eman zuten aditzera *Rise and fall of Idi Amin* filmean, hala deklaratu zuen sei urte geroago John Kibukamusokek, agintariaren mediku pertsonalak, Ingalaterrako ganberan. Esan zuen Michael Ondaga ministroa Nilo ibaiko uretan topatu zutela, ebakia ikusi ziotela sabelaldean eta gibela falta zuela. Azaldu zuen gero Idi Aminek berak jan zuela ministroaren gibela, ohitura zela haren herrian, etsaien haragi zatiak irensten zituztela, espiritu gaiztoak uxatu eta aldeko zorteari eusteko. Beste ugandar batek, Henry Kiembak, *Daily Monitor* egunkarian idatzitakoaren arabera, ohikoa zen orduko Ugandan, horregatik egin zuen Londresera ihes, ez zuelako Victoria lakuan agertu nahi, esan zuen, laurdenduta.

Ugandan bertan, mende bat lehenago, europarrak sartu aurretik eta kartografoak lehen saiakerak egiten ari zirela, Mutesa erregeak egunero hiltzen zuen hainbat pertsona, gorteko zerbitzariak batez ere, zentzuzko arrazoirik gabe, orkatila erakusteagatik, erregearen arropa konturatu gabe ukitzeagatik. Ezagutzen ez zuen gizon bat tirokatu zuen Mutesa erregeak behin,

John Hanning Speke esploratzaileak oparitutako karabina probatzeko. Sasoi bertsuan, gorputz-atal guztiak ebaki zizkion emakume gazte bati apurka-apurka eta putreei jaten eman. Emakumea ez hiltzeko agindu zien zerbitzariei ordea, jaten eta edaten emateko, bizirik eusteko ahalik eta luzaroen. Putreak bere besoei haginka ikusi zituen emakumeak.

Herrialde handia da Uganda, zabala, Hungaria, Eslovakia, Kroazia eta Belgika batuko balira baino zabalagoa, eta Victoria lakuaren ipar partea dauka eta oihan zati batzuk; gorpu asko desagerrarazteko moduko herria da. Ugandak Ruanda du ondoan, herrialde minimoa, euskal herriak baino apur bat handiagoa, apur bat baino ez, baina gorpu asko eragin dituena, Ugandak bezala, Idi Aminek eta Mutesa erregeak bezala, mutilatu asko, Sierra Leonak bezala. Tutsiak milaka hil zituzten Ruandan 1994an, milioia ere bai, hutuak ere milaka noski. Tirokatuta hil ziren batzuk, baina asko, gehienak, mailu kolpez eta aihotz kolpez, odol askorekin seguruenik, garun zatiekin eta kiratsarekin; ospitaleetan, Mugoneron esate baterako, edo eliza adbentistetan... Kristauak dira ruandarrak.

1994ko genozidio ahaleginaz gauza asko esan izan da, askok hitz egin du, gutxigatik libratu zirenek

batez ere. Cassius Niyonsaba ruandarra, esaterako, Nyamatako elizan gorde zen masakreak hasi zirenean, artean ume-umea zela, eta kontatzen du eguerdia baino apur bat lehenago sartu zirela *interahamwe* taldeak hara, kantuan eta algaraka, eta aldarte horrekin hasi zirela jendea hiltzen, aihotz kolpez, lantzaz ere bai, eta berari, Cassiusi, mailukada bat eman ziotela odol artean, baina hesi baten atzean ezkutatu ahal izan zela arrastaka.

Arratseko lehen orduetan ume txiki batzuk erre zituztela kontatzen du, eliza atarian, eta ondo gogoan daukala usaina, haragiarena eta petrolioarena. Ume txiki gutxi libratu izan zela esan da beti... Jeannette Ayinkamiyek ere hala kontatzen du: ama tutsiak ikusi zituela sasoi hartan seme-alabak besoetan hartu eta ibaian itotzen... Esaten da ez zutela milizianoak etorri arte itxaron nahi izan.

Gazte batzuek hartu zuten gero Cassius Niyonsaba umea lepoan, nekez jar zitekeen zutunik, eta sasi artean ezkutatu zuten. Baina han ere topatu zuten *interahamweek*, txakurrak zituzten. Burua ireki zioten aihotzaz, konortea galdu zuen, hilda zegoela pentsatu zuten.

Mathilde andreak topatu zuen umea gutxira eta *umunzenze* zuhaitz erraldoietan zaindu. Cassiusek pentsatu zuen, halako batean, burua usteltzen ari zitzaiola eta zizareak zeuzkala garun barruak jaten. Zizareen zarata entzuten ari zela pentsatzen zuen, barrenak jaten, garun barruan... Mathilde andrea senar hutuak hil zuen gero labankadaz, Rwaki-Birizi urmaelaren ertzean, ume tutsia zaintzen aritu zela jakin zuenean.

Cassius Niyonsabak esaten du: «Elizako patiora joatea da orain gehien gustatzen zaidana, hilketei ihes egin nien lekura. Egunero joaten naiz, eskolarako bidean dago. Larunbatetan eta oporretan ere han egoten naiz. Batzuetan izekoren ahuntzak eramaten ditut, beste batzuetan adiskide batek laguntzen dit pilota batekin edo jesarrita geratzen naiz, bakarrik».

Eguna zala eguna zala
bart irargia zanean
neure maiteak bota egin eustan
lantzea bentanarean
hiru letratxu beharko ditu
sepultureak ganean.

Eta hori da Ruanda eta hori da 1994ko genozidio ahalegina, Irene Arrias unibertsitateko azken urteko azterketak prestatzen ari zenekoa, apirilean eta maiatzean. Horrela hil ziren ruandarrak, milioia baino askozaz gehiago, Europako egunkariak arduratzen hasi zirenean: «Atzo atera zituzten Kigalitik lehen 43 frantziarrak, laster hasiko dira belgikarrak ere Bruselara ekartzen».

Philip Gourevitch kazetariak esaten du 1995erako ez zegoela Ruanda osoan txakur bakar bat ere, RFPko tropek hil zituztela, giza gorpuak jateko ohitura hartu zutelako. Bideoak ere badaudela esaten da.

Une jakin batean lotan geratu ziren ama-alabak, Irene Arrias eta Begoña Sasieta. Amaren arnasa baino ez zen entzuten gelan, apur bat behartuta. Umearen amamek zertxobait lehenago alde egin zuten, denbora zen medikua eta laguntzailea ez zirela agertu. Minutu batzuk geroago, amak izaretan zirkin egin zuen une berean, bonba batek egin zuen eztanda Glasgowko agintari baten etxean. Angry Brigade taldekoek leherrarazi zuten.

Hainbat atentatu egin zituzten Angry Brigadekoek 1971n, Londresen batez ere: South African Airways, Barclays Bank, Scotland Yardeko ordenagailu sistema... *If you»re not busy being born, you»re busy buying* esaldi ezaguna jaurti zuten taldearen zortzigarren komunikatuan. Atxilotu zituztenean, Ingalaterrako historiako epaiketarik luzeenera behartu zituzten.

Aste batzuk lehenago, Begoña Sasieta zazpi hilabeteko zegoela, Espainiako enbaxada tirokatu zuten metrailetaz Londresen. Euskal neba-arreben alde egin zutela, hori esan zuten gero, non eta euren historiako lehen komunikatuan, aurkezpen-komunikatuan: *We machine-gunned the Spanish Embassy last night in solidarity with our Basque brothers and sisters*. Burgoseko prozesua antzezten ari zen orduan.

Stuart Christie eskoziarrari ere leporatu zizkioten Angry Brigadeko atentatuak, beharbada urte batzuk lehenago, 1964ko abuztuan, Madrilen atxilotu zutelako Francoren hilketa prestatzen ari zela. Hogei urteko kartzela-zigorra eman zioten baina 67an atera zen, mundu osoko presioak egon zirelako, Bertrand Russell eta Jean-Paul Sartrerenak tartean. Sartrek idatzita utzi zuen: «Erreformarako tentazioa erabat baztertuta geratu da, eta Euskal Herriak erradikalizatu beste erre-

mediorik ez du: orain badaki borroka armatuaren bidez baino ez duela independentzia lortuko».

Irene Arriasek hilabete egin eta egun batzuk geroago, otsailaren 27tik 28rako gauean, aurrenekoz egin zuen lo sei orduz jarraian, gurasoei sosegu apur bat emanez. Eta hiru hilabete egiteko zegoela, apirilaren 21ean, François Duvalier hil zen, ohean noski, baina semea utzi zuen agintean Haitin beste hamabost urtez, Jean-Claude Duvalier.

Papa Doc esaten zioten François Duvalierri, medikua zelako, Jean Etxepare bezala, António Lobo Antunes bezala, baina, guztiarekin ere, jende asko atxilotu zuen, eskuak eta hankak lotzen zizkien eta zulo handietara bota nahasian. Porlana botatzen zuten gero *Tonton Macoute* polizia sekretukoek atxilotuen gainean, artean bizirik. Lehortzen utzi eta lisatu egiten zuten, zehaztasun handiz tarte batzuetan. Ez da erraza imajinatzea nola ustelduko den gorpu bat porlanetan, ustelduko ote den, ze jarrera hartuko duen... Badirudi kontuan hartzeko modukoak direla batzuetan hildakoen jarrerak... Ruandan badira gorpu ustelduen adibide batzuk, porlanaren gainean, lokatzetan, belarretan, argazkiak ere badaude, asko tutsiak eta txaku-

rrak; euskal herrietan zailagoa da gorpu ustelduak lurrazalean ikustea.

Papa Doc Duvalierrek torturetako aretoa eraikitzeko agindu zuen bere etxeko sotoan bertan. Zuloak egin zituen hormetan gero, hartara zikindu barik ikusten zituen torturatuak, medikua zelako beharbada. Esteban Muruetagoiena medikua ere torturatu zuten hainbat egunez, baina Oiartzunen atxilotu zuten, ez Port-au-Princen. Poliziak libre utzi eta hirugarren egunera hil zen. ETAko kide bat artatu zuelako atxilotu zuten 1979an, baina hiru urte geroago hil zuten, Irene Arriasek kalean jausi eta petril baten kontra aurreko hortzetako bat apurtu zuen egunean bertan. Ezpainak handitu zitzaizkion, goikoa batez ere, odola ere bota zuen apur bat. Espainian munduko futbol txapelketa jokatzen ari zen urtean hori.

Algortako Tamarises hotelean egon ziren Ingalaterrako selekziokoak munduko futbol txapelketaren hasieran, lehenengo hiru partiduak San Mamesen jokatu zituztelako, Bryan Robson, Kevin Keegan. Hogeita zazpigarren segundoan sartu zion Robsonek gola Frantziari, munduko kopen historian golik goiztiarrenetako bat San Mamesen. Azpimarratu egiten da oso nazio-

nalista gutxi dagoela munduan, baina asko estimatzen dira selekzioak gero.

Irene Arriasek Algortako María Cristina parkean ikusi zituen aurrenekoz ingeles zaletuak, mozkortuta noski, kamiseta gabe asko, lurrean etzanda, lotan edo konorterik gabe, oihuka. Hiru urte geroago jakin zuen, gauzak modu askozaz koordinatuago batean ulertzen hasi zenean, futbol talde ingeles guztiak kanporatu zituztela Europako lehiaketetatik bost urtez, Belgikako Heysel estadioan 39 lagun hil zirelako, itota, italiarrak gehienak, Juventus eta Liverpool jokatzen ari ziren finalean. Hildakoen izenak ere jakin ditzakegu, Giancarlo Gonnelli, Giovanni Casula, Gianfranco Sarto. Askoz nahasgarriagoak dira Ruandan hildakoen izenak, edo kanbodiarrenak, Ipar Koreakoak... Turkiarrek ere ezabatu zituzten izen armeniar batzuk 1915ean.

Algortako María Cristina parkean biltzen ziren ingelesak partidu egunetan, han ikusi zituen Irene Arriasek askotan. María Cristina Austriakoa bera ere hildakoa zen ordurako, eta horren gauza garbiak ere ez zituen egin bizi zela, baina haren izena inprimatuta geratu da, parkeetan eta hoteletan, euskal herrietan ere bai, etxe jakin bateko alaba, emaztea eta ama zelako.

François Duvalierren ama zoroetxe batean sartu zuten, Papa Docek medikuntza ikasketak hasi baino askozaz lehenago, artean ume-umea zela.

Urtea eta lau hilabete egin zituenean hasi zen Irene Arrias ibiltzen, normala batzuen ustez, beranduegi beste batzuentzat, ekainaren 1ean. Hitz batzuk esaten ere hasita zegoen aste batzuk arinago... Egun horretan beraz, ekainaren 1ean, hiru pauso eman zituen laguntzarik gabe, sofa marroikara batetik aitaren belaunetara, Frankfurten Andreas Baader atxilotu zuten une berean, tiroketa luze baten ondoren.

Jan-Carl Raspe eta Holger Meins harrapatu zituzten Baaderrekin batera. Atxiloketaren grabazio bat ere badago, ez lar ona agian, baina ezta eskasegia ere. Momentu jakin batean pantailan hamabost polizia ikus daitezkeen arren, pentsa liteke kameraren enkoadraketatik kanpora beste asko daudela: etzanda ikusten dira batzuk, autoen atzean babestuta, hiru-lau metraileta zenbatzen dira erraz, pistolak beste guztiak, tanketa bat, hiru anbulantzia. Atxilo bi baino ez dira irudietan ikusten, erdi biluzik, nabarmen zauritua bietako bat. RAFeko kideak ziren, Rote Armee Frak-

tion, baina hedabideek Baader-Meinhof izena asmatu zieten, Ulrike Meinhof kazetariak lagundu ziolako Baaderri kartzelatik ihes egiten.

28 lagun hil zituzten RAFekoek, 39 zauritu. 1977an, esate baterako, Siegfried Buback hil zuten, Alemaniako fiskal nagusia, eta urte berean bahitu eta exekutatu zuten Hanns-Martin Schleyer, Daimler Benz enpresako eta Alemaniako patronaleko presidentea.

Hiru hilabete geroago, Israeleko hamaika kirolari bahitu zituen Irail Beltza talde palestinarrak Municheko Olinpiar Jokoetan. Guztiak hil ziren gero, Alemaniako Polizia erreskatean ahalegintzen ari zela. Esaten du T. Judt historialari britainiarrak RAFekoek lagundu zietela palestinarrei atentatua prestatzen, harreman estua zeukatela, urte batzuk lehenago elkarrekin entrenatu zirela Jordaniako kanpamentuetan. Esaten du Judtek IRAko irlandarrak ere egon zirela Jordanian, ETAkide batzuk ere bai. Andreas Baader bera, Ulrike Meinhof eta Gudrun Ensslin ere bertan entrenatu ziren, baina badirudi kanporatu egin zituztela, portaera arazoak... Sexua aipatzen da.

Baina ematen du buelta etorri zela, beti da gauza bera, akzioa-erreakzioa, inork ez du pentsatu gabe ezer asmatzen. Olinpiadetako bahiketaz arduratu

ziren Irail Beltzeko arduradun asko Israeleko Mossadekoek hil zituzten gero, munduko puntu askotan. Erratu ere egin ziren, zerikusirik ez zeukan marokoar bat hil zuten, esate baterako, Norvegiako Lillehammer herrian, palestinar batekin nahastuta. Steven Spielbergek ere filma estreinatu zuen 2005ean Municheko bahiketaz, ondorengo urteez, Irail Beltza, Mossad, Irene Arriasek ospitalean bost egun egin behar izan zituen hilabetean. *Munich* izena eman zion.

Bertsio ofizialak esaten du, bestetik, Ulrike Meinhofek bere burua urkatu zuela Stuttgarteko ziega batean, eta Baader, Raspe eta Ensslin ere hilda aurkitu zituztela kartzelan hurrengo urtean, baina ematen du ia inork ez duela bertsio hori sinetsi. Urte batzuk geroago, Meinhofen alabak, Bettina Röhlek, salatu zuen amaren gorpuari burmuina atera ziotela burezurretik, familiari baimenik eskatu gabe, zertarako eta Ulrike Meinhofen portaeraren arrazoiak aztertzeko. Hala dio orduko *The Times* egunkariak: *As Frau Röhl told it yesterday, her mother»s brain was removed for closer examination by Jürgen Peiffer, of Tübingen University*.

Ulrike Meinhofen garuna erauzi eta hamazortzi urtera, gizon batek lankide tutsia hil zuen, Ruandan. Etxe ondoko zulo batean lurperatu zuen, atzeko par-

tean, etxetik oso hurbil. Handik zortzi hilabetera, hildakoa deika zuela sentitu zuen ametsetan... Ohetik jaiki, etxe ostera joan eta lurrean hasi zen aztarrika. Atera ere atera zituen gorpuzkiak, hezurrak batez ere, oihal zati batzuk. Ikusi egin zuten auzokoek, nola ez zuten ikusiko, beti dago begiren bat, eta kartzelara sartu zuten. Kartzela barruan plastikozko poltsa batean ibiltzen zuen zulotik ateratako burezurra, batera eta bestera, sekula ez zuen eskutik askatzen, ezta bazkaltzeko ere, sexu bakarrekoan ere ez, oso hurbil uzten zuen lotan zegoela.

Quim Monzó idazle katalanaren testuetan ere agertzen dira halako plastikozko poltsak. Ipuin batean kontatzen du nola ibiltzen duen aitaberri batek hilda jaiotako semea Bartzelonako kaleetatik *El Corte Inglés*eko poltsa batean. Nola erakusten dizkion seme hilari aitaren umetako tokiak, nola sartzen duen umearen gorpua etxeko hozkailuan inoizko ondoen garbitu ondoren, nola egiten duen lo hozkailuaren ate aurrean, goizeko bostak arte, sukaldeko aulki batean.

Askotan nahasten dira burezurrak eta plastikozko poltsak beraz: Tübingengo Unibertsitatean, Ruandan, printzipioz naturala ez dena... Polizia-etxe batzuetan ere bai... Garuna ateratzeko hautsi egin behar da bu-

rezurra lehenago, baina hezurra nahita puskatu arren, ez da inolako asmorik batzuetan garuna handik ateratzeko. Barruan usteltzen da, kiratsarekin, betiko moduan, eta zarata txiki batzuekin, Cassius Niyonsabaren kasuan bezala.

Fikzioan ume hilak ere ager daitezke plastikozko poltsetan, Monzóren ipuinean bezala, fikziotik kanpora zaborrontzietan agertu izan dira. Nyamatako elizaren ate aurrean erre ere egin zituzten ume jaioberriak; Cassiusek berak ikusi zuen burezurra hautsi baino ordu batzuk lehenago.

Innocent Rwililizak ere kontatzen du ume erreena, baina ezin da jakin sutan ikusi zituen ala ez, litekeena da ezetz. Emakumeak, umeak eta gizonik ahulenak baino ez zirelako elizara gordetzera joan masakreak hasi zirenean; Innocent basoan ezkutatu zen, eukaliptо artean. Kontatzen direnetatik gutxi dira bertatik bertara ikusitakoak, ezin izan zituen Innocentek ume erreak ikusi basotik, herritik bi edo hiru kilometrora. Izan ere, oso gutxitan ikus daiteke indarkeria hurbiletik, ez bada grabazio batean, Samuel Doeren torturasaioa eta exekuzioa bezala, Irene Arriasek, esate baterako, hamarkada bi geroago ikusi zuena, bere bule-

goko ordenagailuan, Zamudioko industrialde batean, 2011ko ekainaren 9an.

Irene Arrias jaio baino zortzi urte lehenagotik bizi ziren gurasoak, Begoña Sasieta eta Abel Arrias, Telletxe kalean, 1 zenbakian, Algortako tren-geltokiaren aurre-aurrean. Telletxe kaleari ez zioten beste izenik eman, Algortako printzipalenetako bat izan arren, Borreguero klinika zegoen kaleari Avenida del Ejército eman zioten bezala, calle Hispanidad jarri zioten bezala beste bati, edo Capitán Morga.

Abel Arriasen aitak egin zuen Telletxe kaleko lehen etxe hori, eta bertan bizi ziren Ireneren izekoosaba gehienak. Hiru solairu zituen, ganbarak, atikoa, igogailurik ez. Irene Arriasen etxeko leihoetatik ez zen geltokia ikusten, ez ziren trenak ikusten, entzun egiten ziren, barrura begira zegoelako, ikaztegi bati begira eta mojen ikastetxe bati. Baina izekoren balkoitik bai, aurre-aurrean ikusten zen tren-geltokia, manifestazioak ere bai. Telletxen egiten ziren Algortako manifestazioak, eta pertsianak itxi behar izaten ziren, Guardia Zibila, grisak zetozenean ere bai. Esaten zen

tiro egiten zietela leihoei, pertsianetako zuloak erakusten ziren orduan.

Begoña Sasietak koinatari esaten zion, lobei esaten zien, ez irteteko balkoira, ez ibiltzeko kaletik mesedez gomazko pilotak hartzen... Begi galduak gogorarazten zizkien, kolpe txarrak buruan. Esaten zuen, beti esaten zuen, polizia bi igo zirela behin etxeraino, grisak, zarata handiarekin egurrezko eskaileretatik, manifestazioko jendea ikusi zutelako etxe hartara sartzen, Telletxe kaleko lehen etxe hartara. Etxeetako atariak zabalik egoten ziren beti orduan, marmolezkoa Telletxekoa.

Begoña Sasietaren ama, Marina Zabala, Sarrene baserrikoa, 1905ean ekarri zuten Algortara. Marina Zabalak ere ordu txarrak pasatzen zituen manifestazio egunetan, eta asko izan ziren hirurogeita hamarrekoetan eta laurogeikoetan. Ez zituen grisak ikusi nahi, arrosarioa esaten egoten zen atzeko geletan. Behin ikusi zituen grisak, ez zituen gehiago ikusi nahi.

Kontatzen zuen Marina Zabalak, beti kontatzen zuen, korrika egin behar izan ziola behin ihes soldadu marokoar bati, gaztetan, ezkondu eta gero. Esaten zuen atzetik hasi zitzaiola San Ignacioko eliza atarian, «intentzioz» esaten zuen Marina Zabalak. Korrika egin

behar izan zuela Basagoiti etorbidetik Casinoraino, etxeraino, etxeko eskailerak launaka igo zituela, eta atzetik jarraitu ziola gizonak etxeko atea itxi zuen arte, zarata handiarekin egurrezko eskaileretatik.

Kontatzen zuen Marina Zabalak umea zekarrela barruan, itota heldu zela etxera. Eta Irene Arrias, gauzak askozaz modu koordinatuagoan ulertzen hasi zenean, konturatu zen Francoren tropak 1937ko ekainean sartu zirela Bilbora. Tropekin etorritako marokoar batzuk Basagoiti kaleko 5 eta 7 zenbakietako sotoetan sartu zituzten, Algortan, San Ignacio elizatik berrogeita hamar metrora. Irene Arrias konturatu zen ama, Begoña Sasieta, urte hartako abenduan jaio zela. Amama barruan zetorren Begoña Sasieta beraz, Basagoititik korrika, eskaileretatik, launaka, zarata handiarekin. Konturatu zen, halako batean, ama hiltzeko egon zela gizon hura, Marina Zabala amama harrapatu izan balu, edo eskaileretatik jausi izan balitz. Irene Arriasek heriotza propioari ere begiratu zion tarte batez, jaio aurrekoari, jaio baino hogeita hamalau urte lehenago izan zenari, Francok tropak ekarri zituenean. Uda edo udazkena behar zuen, eta marokoarrak asko mugitzen ziren Algortatik.

Begoña Sasietak Usategira eramaten zuen Irene Arrias urte bi eta hilabete batzuk zituenean, María Cristinara ere bai, udan batez ere, Villamontera ere inoiz, ahizparen etxera, baina Telletxen bertan geratzen zen askotan, tren-geltokiaren inguruan, espaloia zabalagoa zen. Apirilaren 19an, goizean, edadeko andre bat hurreratu zitzaion Begoña Sasietari, familiako ezaguna, arreta handia eskatzen ziona. Irene Arrias umeak amaren eskua askatu eta pauso batzuk eman zituen espaloitik. Utzi egin zion amak, ona umea.

Tren-geltokira sartu zen gero Irene Arrias, nasetara. Zabalik egoten ziren orduan, ez zen konturatu ama; itxarongelan sartu-irtena egin zuen umeak, nasatik ibili zen. Geldirik zegoen Plentziarako trena, zain, merkantzia-trena, eta barrura sartu zen Irene umea. Zoroen moduan bilatu zuen amak ohartu zenean, espaloitik lehenengo, geltokitik, ikaratu ere egin zen, gizon batzuek lagundu zioten bilatzen, geltokiko langileek ere bai. Iskanbila apur bat ere sortu zen, mugimendu handia, jende asko ibili zen umearen bila, larritu ere egin ziren batzuk minutu batzuen buruan. Ama zorabiatu egin zitzaien, itxarongelako bankuetako batean eserarazi behar izan zuten. Zaku artean aurkitu

zuten Irene Arrias umea, tren barruan oraindik eta lasai; korrikaldi txikiak egiten ari zen zaku batetik bestera. Garrasi egin zion amak aurpegitik zentimetro gutxira, negar batean hasi zen umea.

Eustakio Mendizabal *Txikia*, ETA(V)eko fronte militarreko arduraduna, Itsasondon jaio zen 1944an, baina Algortako tren-geltokian itxaron zion Poliziak 32 urte geroago. Informeak zituzten, bazekiten han elkartu behar zuela Jose Manuel Pagoaga *Peixoto* arrasatearrarekin, «gazte ilehori batekin» esan zuen orduko egunkari batek.

Eustakio Mendizabal *Txikia* eguerdian edo arratsaldean sartu zen Algortako tren-geltokiko itxarongelara, ez dago oso argi, Irene Arriasen etxetik hamalau metrora, Telletxe kalean. Lagunarekin elkartzera egin zuen Txikiak, baina berehala ikusi zituen poliziak, bere zain zeuden. Tiroka hasi zela esaten dute batzuek.

Nasatik abiatu zen korrika gero, eskailerak jaitsi zituen, Villamonterantz, tunela, hurrengo eskailerak, hiru tarte. Eguzkiak gogorrago jotzen du Villamonten normalean, eguzkirik ez bada ere, beroagoa da tenperatura Algortan baino. Herrikoek esaten dute Txikiak ez zuela Algorta ezagutzen, mendirantz jo zuela, Berangoko berdea ikusi zuela geltokitik eta hara. Ezin da

jakin, Lazkaoko beneditarrekin ikasi zuen, sistematizaziorako joerari eutsiko zion seguruenik, eta ikasita ekarriko zuen lekua beharbada, ihes egiteko bidea ere bai, ez zuen guztiz txarto egin.

Jende asko zegoen Villamonten ETAkidea handik pasatu zenean, Irene Arriasen lehengusu batzuk ere bai, hamabi urte nagusiagoak; Eustakio Mendizabal *Txikia* ikusi zuten pasatzen, kalean jolasten ari zirela... Txikia bera ez zuten ikusi beharbada, baina poliziak bai, baten baten atzetik, korrika. Asko ziren atzekoak, ez da erraza esatea zenbat. Askoz geroago jakin zuten korrika ikusi zituztenak poliziak zirela, baina ez zuten gehiegi ere sinistu, ile luzea zeukatelako, luzeegia, eta poliziak ordenaren aldekoak zirela pentsatzen zen orduan.

Hesi asko saltatu behar izan zituen Txikiak, alanbrezkoak batzuk seguruenik sasoi hartan, harrizkoak eta zuhaixkez eginikoak ere bai seguru, Villamonteko etxeetako lorategiak pribatuak zirelako orduan ere. Fadurako errepidera heldu zen: «Areetarako errepidea» esan zioten orduko egunkari batzuek.

Biharamuneko *ABC* egunkariak esan zuen eguerdian ikusi zutela poliziek Eustakio Mendizabal *Txikia* Algortako tren-geltokian eta iluntzean heldu zela Fa-

durako errepidera. Zazpi minutu dago oinez leku batetik bestera, korrika askozaz gutxiago noski. Herriko batzuek kazetariek orduan idatzi zutena errepikatzen jarraitu dute hala ere... Esaten da geroago idatzi ziren txostenetan, artikuluetan ere bai, poliziak hankan jo ziola tiroa Txikiari korrika ari zela, baina Basurtuko ospitaleko mediku-taldeak garbi utzi zuen burukoaz aparte bizkarrean zekarrela bala-zauria ebakuntza-gelara sartu zutenean, ez hankan. Hankarena logikoa da beharbada, ihesi doala, edo epikoagoa: herren eta odoletan, korrika...

Esaten dute orduko egunkariek, Fadurako errepidera heldu zenean, auto batera hurbildu zela Txikia, geldirik zegoela baina senar-emazteak barruan. Emakumea indarrez atera zuela eta pistolaz agindu ziola gizonari abiatzeko. «Hori bai» esaten du Algortako jendeak, «hori hala izan zen», ia inork ikusi ez bazuen ere. Autoaren jabeek kontatuko zuten beharbada... Ematen du horretan ez dagoela beste bertsiorik.

Autoaren jabeak ez zuen abiatzeko astirik izan ordea, berehala heldu ziren poliziak, autoa inguratu zuten. Bertsio diferenteak hasten dira berriro hemen: Poliziak esan zuen tiroka atera zela Eustakio Mendizabal autotik, eta hor galdu zela, bala bat sartu ziotela

bekokian. Kronikariek esaten dute Francoren erregimenak ez zuela Burgoseko epaiketa gehiago nahi, nahaste handia ekarri ziela, nazioartean batez ere, *We machine-gunned the Spanish Embassy last night*. Ez zuten, esaten dute kronikariek, ETAko kiderik bizirik harrapatu nahi, errematatu behar zuten Eustakio Mendizabal *Txikia*, hurbiletik, tiroketarik gabe, *la bala ha penetrado por el frontal y salido por el occipital, provocando una gran pérdida de masa encefálica*.

Basurtuko ospitalera eraman zuten Eustakio Mendizabal *Txikia*, Hospital Civil del Generalísimo. Ebakuntza-gelan sartu eta hogei minutura hil zen; «esan liteke», esan zuen medikuetako batek, «hilda ekarri dutela». Eskuma-eskumako egunkari batek esan zuen, Sevillako edizioan, ahalegin handia egin zuela mediku-taldeak Txikiaren biziari eusteko, baina ez zutela, zoritxarrez, lortu: *los esfuerzos por salvarle del equipo médico resultaron, por desgracia, inútiles*.

Polizia asko bidali zuten Basurtuko ospitalera bertara eta inguruetara, Txikiaren kideek ez zekitelako oraindik bizirik ala hilda zegoen. Handik bi egunera, gaueko ordu txikietan, auto bat ikusi zuten guardia zibilek ospitaleko gorputegiaren ondoan geldirik, argiak itzalita eta gizonezko bi barruan. Identifikatzera hurre-

ratu zirenean, abian jarri zuten autoa. Agenteetako bat harrapatu zuen autoak ia, abiada handia hartu zuen... Egun batzuk geroago jakin zen nortzuk ziren autoan zeuden gizonezko biak eta zer ari ziren prestatzen. Hilabete batzuk geroago jakin zen Luis Carrero Blanco almirantea hil zuenari «Txikia komandoa» izena eman ziotela.

Basurtuko ospitalea Manuel María Smith arkitektoak diseinatu zuen, jatorri irlandarrekoa, Algorta eta Neguriko erresidentzia asko egin zituena. Neguriko lehen etxeetako batean bizi izan zen Manuel María Smith, baina asko ibili zen Algortatik, Francoren tropekin etorri ziren marokoarrak bezala, Basagoiti etorbideko 5 eta 7 zenbakietako sotoetan sartuta egon zirenak. Askotan ikusten zituen arkitektoak kaleetatik, Marina Zabalaren atzetik abiatu zena ere bai beharbada.

Bordelera alde egin behar izan zuen familiarekin Manuel María Smithek Gerra Zibila hasi zenean, eta arkitektoari buruzko tesia egin zuen María Teresa Paliza Monduate doktorearen arabera, 1937ko ekainean itzuli zen erbestetik, *regresaron a Bilbao tras la liberación de esta ciudad el diecinueve de junio de 1937*. Bizkaiko Foru Aldundiak argitaratu zuen tesia 1988an.

Hiru urte zituenean sumatu zuen Irene Arriasek pieza batzuk falta zituela familian, amama bi zeudela baina aitite bakarra, aitari galdetu zion. Aitak erantzun beteago bat eman nahi zion, baina ezin izan zuen, ezin izan zuen arinago pentsatu. Kristaua zen, elizan jarraitzen zuen, nola ez zuen jarraituko, ia mundu guztiak jarraitzen zuen, baina Joan XXIII.a, Paulo VI.a, Vatikanoko gauzak... Seguru ere ez zegoen, ez zekien. Hala ere, falta zen aitite hori «zeruan» zegoela esan zion umeari, hori izan zen erantzuna, ez zuen gehiago pentsatu, ezin izan zuen. Irene Arrias umea ulertzen hasi zen, isilik geratu zen tarte batez, galdetu zuen gero: «Hori da erderaz *Ha muerto*?». Hor umearen lehen espasmo diglosikoa, Algortan, normala ere bai, gaztelaniaz egiten zion jende gehienak.

Aitak amari kontatu zion gero umearen galdera, osaba bati ere bai, harrituarekin barre apur bat ere egin zuten, kalean hitz egiten ari zirelako, koloreak, mugimendu gehiegi, ez zutelako esaldia pentsatzen jarraitu, esate baterako loberritan esnatu zirenean gau horretan bertan.

Marcello Caetano, Salazar diktadorearen ondorengoa Portugalen, sasoi horretan kendu zuten agintetik, Irene Arriasek esaldi hori bota baino lau egun geroago. *Revolução dos Cravos*, ez zuten inor hil, agintariei hegazkinez alde egiten utzi zieten, Madeirara lehenengo, Brasilera gero. Umeen heriotza-tasa, ordea, Europako altuena zen Portugalen, hori da erderaz *Ha muerto*, Eça de Queirozen portugesez, *Morreu*.

Mozambike, Cabo Verde, Angola, beste koloniak batzuk ere usteltzen ari ziren bien bitartean, «probintziak» ere esaten zieten. Portugaleko ehun mila soldadu baino gehiago bidali zituzten hara, eta lau urte egin behar zituzten gutxienez Afrikan mobilizatuek. António Lobo Antunes idazlea ere eraman zuten Angolara. Soldadu talde bi ikusi zituen futbolean han, Angolako ume baten burua baloia, Ruandan bezala. Ruandan plastikozko poltsa batean zegoen burua, Alemanian Tübingengo Unibertsitatean, Angolan baloia zen; ematen du beti bilatzen dela bestearen burua. Belarriz eta sudurrez eginiko lepokoak ere ikusi zizkien Lobo Antunesek soldadu batzuei Angolan.

António Oliveira Salazar 1889ko apirilaren 28an jaio zen, Hitler baino zortzi egun geroago. Hitlerren jaiotzetako bat idatzi zuen Roald Dahlek, Salazarrena

idatziko zukeen bezala, hurbilago jaio izan balitz, Salazarrek Hitlerrena eragin izan balu. Salazarrek tarte bat eman zuen agintean, hala ere, 36 urte: pobretu egin zuen Portugal, pobreziatik salbatu zuen Portugal, hori da ekonomia... Baten batek pentsa dezake haren omenez eman ziotela izena António Lobo Antunes idazleari, 1942an. Egas Monizen omenez eman zioten, ordea, António hura ere, neurokirurgialaria, Nobel sariduna, lobotomia saiatu zuen lehenengoetakoa. Esaten du internetek Egas Monizen «kolaboratzaile estua» izan zela Lobo Antunesen aita, João Alfredo de Figueiredo Lobo Antunes, *close collaborator of Egas Moniz*. Internetek halako gauza asko ematen ditu... Esaten du sareak, esate baterako, Jean Cocteau literaturgileak Rolland Garrosekin egin zuela hegan gerrahegazkinetan Lehen Mundu Gerran. Baina nekez sinesten da, izen ezagun bi elkartzen dira askotan, elkartzen ditu internetek... Lauaxetak ere ez zuen Rudolf Hessekin bilera egin Baionako zinema-areto batean, esate baterako.

Gauza da Marcello Caetano jarri zuela Salazarrek agintean, baina armadak kendu zuela 1974an, Irene Arrias heriotzari buruz hizketan hasi zen sasoian. Ofizial gazteak ziren orduko armadakoak, ezkerrekoak,

komunistak, erradikalak. Esaten dute historialariek demokratizazioa nahi zutela Portugalerako... Deskolonizazioa eragin zuten hilabete gutxiren buruan, baina zer den herentzia, zer den Salazar 36 urtez, fadoak debekatzeko puntuan egon ziren, ofizial gazteak, ezkerrekoak. Esaten zuten fadoek «sumina eta ezkortasuna» sustatzen zutela, aurrerapen sozial eta kulturalaren aurkakoak zirela, ofizial gazteek hori, ezkerrekoek. Independentziak sinatu zituzten, hori bai, Cabo Verde, Mozambike, Angolan petrolioa topatu arren. Cabo Verden bostehun mila lagun eskas bizi dira gaur egun ere, hiriguneetatik kanpoko lurretara ez da ura behar bezala heltzen, baina 30.000 soldadu bidali zituen Portugalek hara eta Ginea Bissaura, Salazarren garaian, independentzia sinatu aurretik. Mozambikeko banderan arma bat agertzen da gaur egun ere, fusila dela pentsa dezake baten batek agian, baioneta, kalashnikova da, metraileta izan zitekeen, *We machinegunned the flag of Mozambique.*

Urte hartan bertan, Irene Arriasek hiru urte zituela eta ikastolan hasteko zegoela, argitaratu zuen Stanley Milgram ikerlariak *Obedience to Authorithy; An Expe-*

rimental View liburua. Hamar urte luze lehenago Yale Unibertsitatean egindako esperimentua xehatu zuen hor, autoritateari arrazoitu gabe men egitea zer den, horren arriskuari begiratu zion. Halaxe deitu zion urte berean *Harper»s Magazine* aldizkarian argitaratu zuen artikulu bati, «The Perils of Obedience».

Gaur egun ere erroak ditu Milgram esperimentuak: Thomas Blass Psikologian doktorea da aditu handienetakoa. Budapesten jaioa Blass, Bigarren Mundu Gerran, judua, Torontora alde egin zuen amarekin, familiako asko hil zizkioten Auschwitzen. Jatorri judua zuen Stanley Milgramek berak ere, aita hungariarra, errumaniarra ama. Thomas Blass, Stanley Milgram eta beste judu asko egon ziren sasoi hartan Adolf Eichmann SS-Obersturmbannführerrari Israelen 1961ean egin zioten epaiketari begira, Stanley Milgram bera oso adi... Izan ere, hori izan zela diote Milgram esperimentuaren hasiera.

Adolf Eichmann holokaustoaren arduradunetako bat izan zen, handienetakoa entzun izan da: logistika gidatzen zuen, garraioa, heriotza-esparruak. Kartzelari ihes egin zion gerra amaitu zenean, inork ez zuen ezagutu, Genoara heldu zen 1950ean. Argentinara alde egin zuen gero, Buenos Aires hegoaldera, Gari-

baldi kalean bizi izan zen. Joseph Mengele medikua ere halatsu ibili zen, 1979ra arte, Brasilen Mengele. Martin Bormann bera ere, Hitlerren idazkari pertsonala, *in absentia* epaitu zuten Nurembergen, sumatzen zutelako nazi asko bezala Hego Amerikan zegoela. Txilen beti esan izan da han ikusi duela lekuko batek baino gehiagok, herritartasuna lortzeko Ruth Mundacarekin ezkondu zela, jatorri euskaldunekoa. Baina Berlinen bertan topatu zuten Bormannen hezurdura 1972an, Invalidenstrasse kalean hiri-lanak egiten ari zirela. 1945ean bertan hil zuen errusiarren obus batek, haginak tratatu zizkion medikuak baieztatu zuen lehenengo, DNA frogak gero.

Adolf Eichmann Israelgo Mossadekoek deskubritu zuten Buenos Aires hegoaldean, Garibaldi kalean. Bahitu behar zutela erabaki zuten, alferrik itxarongo zioten Argentinako Gobernuari, ez zien emango. Gaueko autobusetik jaitsi zenean joan ziren Eichmannen enkontrura Mossadekoak, autoa matxuratu zitzaiela simulatu zuten, *Un momento, señor... ¿Puedo preguntarle algo?* Gaztelaniaz esan zioten, ikasita ekarri zuten, ez zekiten beste esaldirik hizkuntza horretan, etxe blindatu batera eraman zuten gero. Mossadeko agenteek aitortu zuten galdeketa egin ziotela

Eichmanni «xehetasunez» etxe hartan. Historialariek ere behin baino gehiagotan iradoki dute Mossad eta gainerakoak «xeheak» direla galdeketetan. Horregatik deklaratu zuen Eichmannek hasieran Ricardo Klement zela, Otto Henninger gero, horregatik aitortu zuen azkenean Adolf Eichmann zela, SS-zenbakia ere eman zien, benetakoa.

Jerusalemen egin zioten epaiketa 1961ean. Grabatuta dago hori ere, eta 2011n jarri zuten grabazio osoa interneten. Polizia artean jesarrita, isilik, gizon minimoa dirudi Eichmannek, lotsa ere ematen du, nazka kultural apur bat ere bai. Inpresioa da erraz akaba daitekeela pertsona hori, mengela, ostiko batzuk baino ez; igartzen da berehala lehertuko litzaiokeela aurpegia, likido beltzetan, zurietan, odol apur batekin ere bai. Besterik da hizketan hasi denean: aho zehatza dauka, ezpainak modu perfektuan batzen ditu, alemanez jakin barik ere adi jarraitzeko moduko ahoa da. Aldatu egiten da inpresioa orduan, ematen du ez litzatekeela horren erraza gizon hori hiltzea. SSetako ofizialen uniformea irudikatzen da gero aho horren azpian, esparruak, labeak. Baina urkamendirako sententzia irakurri zuen epaileak Jerusalemen, *laur quarto eguin eta / khentzeko bihotza / urkhaberat bideco / haiziaren*

hotza. Mediterraneoan barreiatu zituzten Eichmannen errautsak; ez zuten hilobirik nahi, ez zuten nahi neonazirik haren hilobi inguruan.

Epaiketa osoan aginduak aipatu zituen Eichmannek behin eta berriro, aginduei segika aritu zela esparruetan, besterik ez, *Befehl eines Vorgesetzten ist Befehl*. Gauza bera argudiatu zuten SSetako beste ofizial batzuek Nurembergeko epaiketetan, urte batzuk lehenago, aginduak obeditu baino ez zutela egin. Ematen zuen gidoi bati begira hitz egiten ari zirela guztiak, Jerusalemen eta Nurembergen. Askotan aipatzen dira gidoiak giro horietan, esku-liburuak, jarraibideak... Torturatu ez arren, torturak salatu behar direla dio gidoiak esaterako, hori esaten du poliziak beti. Baina begi galduak gero, desagertuak, kare bizia... Gauza da Nurembergen 16 urte lehenago esan zutena errepikatu zuela Eichmannek Jerusalemen, goikoek agindu ziotena baino ez zuela egin. Epaileek ez zioten sinetsi, urkabera bidali zuten. Stanley Milgramek, ordea, juduen jatorrikoak, zerbait ikusi zuen hor, zalantza-une bat izan zuen, laguntza eman zioten Yale Unibertsitatean, ez txikia, Milgram esperimentua abiatu zuen.

Iragarki bat eman zuen 1961ean Stanley Milgramek New Havengo egunkari batean: boluntarioak

behar zituela unibertsitateko esperimentu baterako, lau dolar ordainduko zituztela, *We will pay $ 4.00 for one hour of your time*.

Hiru lagun bildu behar ziren gela bitan: Milgram bera eta boluntarioa gela batean eta aktore bat bestean. Boluntarioa engainatuta zetorren: uste zuen aktorea bere moduko boluntarioa zela eta memoria ikertzeko esperimentua jarduera hura. Boluntarioak, gela batetik, Milgramen ondoan, galderak egin behar zizkion hormaren beste aldean zegoen aktoreari, «ikasleari», memoria lantzeko galderak, eta txarto erantzuten zuen bakoitzean, deskarga elektrikoa aplikatu behar zion. Txikiak hasieran, gero eta intentsitate handiagokoak galderak huts egin ahala.

Lehenengo deskarga 15 voltekoa zen, hogeita hamar maila zegoen gero, 450 voltera heldu arte. Deskargak ez ziren benetakoak noski, boluntarioa hala sinetsita zegoen arren. Baina aktoreak gero eta oihu handiagoak egiten zituen, hormei kolpeak ematen zizkien gero, bihotzeko gaixoa zela aipatzen zuen halako batean, gelditzeko mesedez esperimentua. 300 volteko deskargen ostean, erantzuteari uzten zion, konorterik gabe zegoela pentsatzen zuten ondoko gelan.

Guztiarekin ere, 450 volteko deskargak aplikatzera heldu zen boluntarioen % 65a, garrasien gainetik, bihotzeko arazoen gainetik, autoritate batek agintzen zielako, Yale Unibertsitateko irakasle batek, ikerlari batek. Boluntario guztiak gelditu ziren esperimentuaren punturen batean, puntu askotan, «Ezin dut egin», «Sufritzen ari da», baina 40tik 26 heldu ziren 450 voltera, «ikaslea» askozaz lehenago itzali arren.

Unibertsitateko ikerlariaren jarrera ere ez zen oldarkorregia gainera. Lau esaldi baino ez zituen behar boluntarioen zalantza-uneetan, mailakatuta: 1. *Jarraitu*, mesedez; 2. Esperimentuak zuk *jarraitzea* eskatzen du; 3. Ezinbestekoa da zuk *jarraitzea*; 4. Ez daukazu beste aukerarik, jarraitu *behar* duzu.

Antzeko saioak egiten izan dira gero ere, gaur egunera arte. Stanley Milgramek berak egin zituen esperimentuaren aldaki batzuk, baina antzeko emaitzak lortzen dira beti, autoritatea beti, obedientzia beti, *The Perils of Obedience*. Milaka lagun aritu dira beharbada, Eichmann bezala, autoritateari obeditzen, milioiak ere bai, jarraitzen dute obeditzen... Baina Milgramen saioan bada beste puntu deigarri bat: unibertsitateko ikerlaria zen autoritatea, ez zegoen meha-

txurik, ez zegoen gerra-kontseilurik, ez zegoen fusilatzerik, New Havenen, Connecticut.

Mircea Eliade da Errumanian prestigioa ondoen eraikita daukan pentsalarietako bat, filosofoa, erlijioen historialaria... Chicagoko Unibertsitatean irakatsi zuen 1986an hil zen arte. Askozaz lehenago argitaratu zituen esaldi hauek *Vremea* aldizkarian, 1938ko urtarrilaren 23an, Bukaresten: «Gizaki berriak *obedientzian* aurkitu du bere borondatea, bere helburua. Diziplinak eta obedientziak eman dizkiote duintasun berria, bere buruarengan, buruzagiarengan eta herriaren patu zorionekoan fede mugagabea».

Jaiotzean baino zaharragoa zen Mircea Eliade hil zenean, baina esaldi horiek idatzi zituenean ere ez zen umea, ondo zekien nora eraman nahi zuen Errumania... Milgram bera baino arinago heldu zen Milgramen ondorioetara beraz. Horregatik idatzi zuen urte bi lehenago «Demokrazia eta errumaniar arazoa» artikulua: «Herrialde makalak estatu boteretsu bihurtu dituzten tiranoak ezagutzen ditugu: Zesar, Augusto edo Mussolini. Bost axola niri Mussolini tiranoa den ala ez den».

Vasili Grossmanek ere sumatu zituen Milgramen ondorioak Errusian: «Eskarmentuak erakutsi du auto-

ritatearen agindu guztiak hipnotikoki obeditzeko prest dagoela jende gehiena halako egoera baten aurrean». Juduen pogromoez ari zen... Grossmanek jarraitu zuen esaten pertsona gehienek ez daukatela berez horretarako joera, erreparoa ematen diela biolentziak, nazka, era horretako biolentziak behintzat, baina obeditu egiten duela obeditu behar dela barrundatzen duenean.

Ematen du mundu guztiak sumatu duela gauza bera sasoi batean edo bestean. Izan ere, euskal herrietan ere, XIX. mendean esate baterako, Bigarren Karlistaldia amaitu ostean, 1876an, bertso zati hau eta beste batzuk idatzi zituen gerran egondako batek:

> Nerez ez zetorkidan
> barrendikan gaitzik,
> apaiz batek bi gizon
> hilerazi dizkit.

Obedientzia beti beraz, Milgram beti... Izan zitekeen Santa Kruz apaiza, izan zitekeen beste bat, izena ezagutzen ez diogun beste apaiz bat esate baterako, baina autoritatea noski: XIX. mendean, euskal herrietan, apaiza. Eta hilarazi zizkion bi gizonak ez ziren inor izango, pertsona ere ez: liberalak, arimagabeak...

Ruandan labezomorroak ziren bezala tutsiak, juduak bezala lehenago, edo ijitoak, musulmanak, terroristak, beltzak.

Idatzi izan da Butareko Unibertsitatean asmatu zuela irakasle talde batek labezomorroena, tutsiak izendatzeko. Beste izen batzuk ere asmatu ziren, okerragoak beharbada, baina labezomorroena izan zen gehien erabili zena, *inyenzi* hango hizkeraz, kinyaruandaz. Mila Muinoetako irratiak zabaldu zuen izena gero. Horretarako balio du irratiak ere, telebistak, internetek, horretarako balio du unibertsitateak batzuetan. Hori sentitu zuen Ruandako tutsi batek, 1994an hanka galdu zuenak, beste gauza asko galdu zituenak. Esan zuen genozidioak ez zuela zerikusirik heziketa faltarekin... «Heziketak», esan zuen, «ez du pertsona hobetzen, baizik eta eraginkorrago bihurtzen». Esaldi arrunta da beharbada, baina ez da gauza bera kazetari batek esaten badu, edo Kanomben jaiotako ruandar batek, genozidioan hanka galdu zuenak, ikusi zuenak muino batetik nola lehertzen zuten paramilitarrek eliza bat, emaztea eta semea barruan.

Claudine Kayitesi ikaslea zen 1994an, apirilean, genozidioa hasi zenean Ruandan. Kinkwiko basoan gorde zen hasieran, beste iheslari batzuekin. Harrika

defendatzen ahalegindu ziren, baina ulertu zuten alferrik zela, eta elizara bildu ziren azkenean jende gehiena bezala. Lehertu zuten eliza bera ere, granadak zituzten; *interahamweak* sartu ziren barrura gero, hiltzen hasi ziren. Berria zen hori, kristauak dira ruandarrak, kristauak diren bezala 2.000 milioi lagun baino gehiago munduan, kristauak ziren bezala karlistak, kapilau militarrak, kolonoak.

Lehen granada lehertu zenean, zortea izan zuen Claudine Kayitesik, elizako atzeko atetik gertu zegoen, alde egin ahal izan zuen, paduretara joan zen. Claudinek esaten du ez zituztela padurak ezagutzen, herriko inor ez zela hara hurbiltzen, sugeak zeudela, eltxoak. Neurrigabeak ziren urak, errespetua zieten, ez ziren fidatzen, baina apirilaren 11n basan etzan ziren, hostoekin estali. Hilabetea egin zuten han, maiatzaren 14ra arte, zingirako ura edaten zuten. Claudine Kayitesik dio gorputzerako ona zela ur hura, lokatzez gainezka egon arren, pertsonen odola ere bazekarrelako. Barkamena eskatu zuen hori esan eta hurrengo segundoan.

Iluntzean etxeetara itzuli ahal izaten ziren, bizirik zeudenak, harrapatu ez zituztenak, hildakoak lurperatu barik uzten ziren. *Interahamwe* taldeek ordutegi ze-

hatza zeukaten: goizeko 9:00etan agertzen ziren paduretara, arratsaldean txistua jotzen zuen baten batek, 18:00etan beharbada. Amaituta zeuden lanorduak, alde egiten zuten, mozkortzera askotan, sexura, etxera besterik gabe.

Ruandaz hitz egin izan duen bakanetan, Solomon Jarry-Bladic mediku eta semiologoak esan du «tutsien burezurretako ebakietan erloju bat sartzea» bezalakoa izan zela hori, ordutegiarena, hala adierazi zuen. Gero ahalegindu zen kazetariari azaltzen nola lorrinduko litzatekeen erloju bat burmuinetako likidoetan, nola geratuko zen erlojua gorpua usteldu eta gero. «A clock in skull» esan zuen ingeles iharrean, *Washington Post*eko gehigarrietako batean.

Claudine Kayitesi etxera itzultzen zen egunero beraz. Lasai mugitu ahal ziren orduan tutsiak, erlojurik gabe burmuinetako likidoetan, milizianoak erretiratuta zeudelako. Eguneko otordua egiten zuten tutsiek orduan, lo bostak arte, paduretara bueltatzen ziren biharamunean, etzan lokatzetan, estali. Bederatzietan itzultzen ziren *interahamweak*... Ia egunero topatzen zuten norbait, paduretan bertan hiltzen zuten. Hildakoak ez ziren lurperatzen gero.

Horregatik egin zien Claudine Kayitesik kontra Stanley Milgrami, Vasili Grossmani, Nurembergeko ofizialei... Ez zela egia *interahamweek* inork aginduta, inork mehatxatuta, hiltzen zutela. «Nekazari alferraren soroa», esan zuen, «ez delako ernatzen», «gidari arduragabearen kamioia matxuratzen delako». Paduretan, beraz, ez zela *interahamwe* alferrik egon, arduragaberik, hori arrazoitu zuen, ahal izan zuten guztiarekin hil zutela, ahalegindu zirela, bilatu zutela. Emakume batzuk bortxatzera eramaten zituzten batzuetan... Bortxatzen zuenak ezin zuen bortxatua hil gero; lagun bati eskatu behar zion. Emakume harekin lotura bat sortu zuela, hori sinesten zuen *interahamwe* horrek.

Carlo Collodi, Carlo Lorenzini pontean, 1826ko azaroaren 24an jaio zen, Florentzian. Pinocchioren abenturak desgogara idatzi zituen zati handi batean, ez zituen egin nahi, *Avventure di Pinocchio, Storia di un burattino* hasieran. Atalka argitaratu zizkioten egunkari batean, baina Collodik ez zituen astero bidaltzen testuak, asteak egiten zituen bidali gabe, hilabeteak ere bai.

Halako batean, istorioa amaitu nahi zuela erabaki zuen, hamabosgarren kapituluan; nekatuta zegoen, beste gauza batzuk idatzi nahi zituen. Pinocchiok ahoan sartu zituen lau urrezko txanpon orduan, Azeriak eta Katuak lapur ez ziezaioten. Lapurrek pentsatu zuten modu bakarra zegoela aho hura zabaltzeko: zuhaitz handi bateko adarretan urkatu zuten Pinocchio. Horrela amaitu nahi izan zuen Collodik testua, protagonista urkatuta, umeentzako ipuin batean, *urkhaberat bideco haiziaren hotza*. Baina gero eta irakurle gehiago zituen Pinocchiok, gero eta egunkari gehiago ari ziren saltzen, gutunak ere heldu ziren erredakziora, egunkariko editorea jarraitzeko eskatzen aritu zitzaion. Collodik berpiztu behar izan zuen Pinocchio, Sherlock Holmes berpiztu zuen bezala Arthur Conan Doylek.

Harrezkero ehunka edizio egin izan dira, imitatzaileak izan ditu, kopiak, istorioaren jarraitzaileak, animazioak egin dira, pelikulak, euskarri mota guztietan. Apokrifoak ere argitaratu dituzte, Collodiren tiradera batean agertu izan direnak, nola ez, idazlea hil eta gero. Esan da Biblia eta Koranaren ostean gehien itzuli den liburua dela, baina hirugarren posizio horretarako, Biblia eta Koranaren osterako, beste liburu asko

ere aipatu izan dira, Shakespeare, Homero, datu lausoekin bizi gara.

Pinocchioren lehen kapitulua bidali zionean Guido Biagi editoreari, ohar hau erantsi zuen Collodik: «Hemen doakizu umekeria hau; nahi duzuna egin testuarekin; baina argitaratzen baduzu, ondo ordaindu, idazten jarrai dezadan gogoa pizteko».

Hamar neba-arreba jaio ziren Collodiren etxean, Carlo bera zaharrena. Umetan hil ziren sei eta umea egin zuenean zazpigarrena. Hogei urte bete baino lehen hasi zen Carlo Collodi liburu-denda batean lanean, eta 1845ean liburu debekatuak irakurtzeko lizentzia eman zion elizak.

1848an, Collodik hogeita bat urte zituenean, Italiako hainbat eragilek erabaki zuten austriarrak kanporatu behar zituztela Lonbardiatik eta iparraldeko beste leku batzuetatik: Lehen Independentzia Gerra esan zioten. Piemonte eta Sardiniako erregeak ere, Carlo Alberto di Savoiak, laguntza eskaini zien, tropak bidaliko zituela agindu zuen, austriarren kontra.

Toscana harrotu egin zen orduan, puztu, sinetsi zuen bazela nor. Berehala bildu zituen 5.000 lagun, boluntarioak gehienak, militar gutxi: 5.000 «*brigante beltzak*» esan zieten, Carlo Collodi ere tartean. Monta-

narako batailara bidali zituzten boluntarioak orduan, Mantuatik hurbil, austriarrei eutsi behar zieten. Toscanako 5.000ak 35.000 austriarren aurrean... Carlo Alberto ailegatu artean eutsi behar zieten Montanaran... Eta eutsi egin zieten, nola ez, eta heldu zen Carlo Alberto di Savoia, Piemonte eta Sardiniakoa. Austriarrak garaitu zituzten Montanaran beraz. Eta bataila sona handikoa izan zen, nola ez, Montanarakoa, epikoa da hitza, soldadu amateurrak, hogeita bat urtekoak, heroiak. Kontakizun belikoak Toscanan gero, miresmenak hainbat urte geroago, ohorea da hitza, eta abar.

Gerra, ordea, austriarrek irabazi zuten. Joseph Radetzky mariskalak ordenatu zituen tropak; txekiarra Radetzky, laurogeita bat urteko mariskala hogeita bat urteko soldaduen kontra. Musika ere konposatu zuen Radetzky mariskalaren alde Johann Straussek, aitak, *Radetzky martxa*, sonatua hura ere, Montanarako bataila bezala. Radetzkyren kanpainei epiko ere esan izan diete, heroia laurogeita bat urtekoa, ausardia, ozartasuna, ohorea da hitza, eta abar.

Ematen du horrela fabrikatzen direla heroiak hurrengo gerretarako, beti behar direlako umeak hurrengo gerretarako, gerrari mira diotenak, uniformeei, armei, militarren dantzaldiei ere bai, zergatik ez. Sol-

dadu asko behar da, hogeita bat urtekoak, horregatik idazten dira musikak mariskalen izenekin, poemak, nobela osoak, telesailak egiten dira orain, *Ike* esate baterako, Eisenhower jeneralaren bizitzari buruzkoa. Normandiako lehorreratzea, sona handikoa hura ere, baina *Ike* jarri zioten telesailari, Dwight D. Eisenhowerren izen familiarra, lagunartekoa. Ez da kasuala: jeneral batek, militar prestatu batek, begirada garbikoak, dena dauka eskura, Estatu Batuetako presidentea ere izan daiteke gerra amaitu eta, demagun, zortzi bat urtera.

Horregatik estreinatzen dira *Band of Brothers* bezalako telesailak XXI. mendearen atarietan. Normandiako lehorreratzea berriz ere, Spielberg berriz ere... Shakespeareren poema batetik hartu zuten izenburua, ematen du literatura irakurleek egiten dituztela gerrak. Horregatik berrargitaratzen da atertu gabe Hans Christian Andersenen *Berunezko soldadutxoa*, horregatik Walt Disney, horregatik zine belikoa, Estatu Batuetakoa batez ere, Ingalaterrakoa, banderez beteta, *they want to machine-gun the flag of United States*. Horregatik ausardia, epikoa, ohorea da hitza, eta abar. Walt Disneyren bertsioan ikusi zituen lehenen-

goz Irene Arriasek, hain zuzen ere, Pinocchioren abenturak.

Carlo Collodi izan zen Montanarako batailan egon ziren 5.000 *brigante beltzetarik* bat, hogeita bat urterekin. Normala ere bada adin horretan, ausardia, ohorea eta abar. Ez da hain erraz ulertzen, ordea, zergatik eman zuen izena armadan hamaika urte geroago berriro, austriarren kontra egiteko berriz, hogeita hamahiru urte egiteko zituela, aurreko gerrako umetik ez zeukanean ezer ere. Egiazta daitekeen bakarra da Carlo Collodi, hezitzailea, didaktikaria, ironikoa, idazle deserosoa, birritan joan zela boluntario gerrara, hogeita hamahiru urte egiteko zituela bigarrena. Ematen du gerrara nahi zuela Collodik, William Faulknerrek nahi izan zuen bezala ia hirurogeita hamar urte geroago.

Urte horretan eskolatu zuten Irene Arrias, 1974an, Etiopiako Haile Selassie enperadorea agintetik kendu zuten egunean, irailaren 12an. Hiru urterekin eskolatu zuten Irene Arrias, beraz. Hori esaten zuen legeak, hiru urte, ematen du aspaldi diseinatuta daudela adinak.

Negar egiten zuen Irene Arrias hiru urtekoak lehen egunetan, ikastolara heldu baino metro batzuk lehenago, arrastaka eraman behar izaten zuen Begoña Sasietak, azken metroak, labain egiten zuten umearen zapata-zolek Bidebarriko harlauzetatik, dandarrez.

Bidebarri kaleko etxabe batean zegoen orduan ikastola: behin-behineko ikasgelak, etxabeetan, sotoetan, etxe partikularretan, behin-behinekoak beti. Patioa ere estuegia Bidebarrin hiru urteko umeak ateratzeko, atera egiten zituzten hala ere. Irene Arriasek lurretik hartutako harri xehe batzuk jan zituen behin Bidebarriko patioan, gelakideekin, arroza zela simulatu zutelako.

Irene Arriasen gurasoek ez zuten diru arazorik 1974an, ondo irabazten zuen Abel Arriasek, enpresa handia, ondo tratatzen zuten. Edozein ikastetxetan sar zezaketen Irene beraz, onenetan ere bai. Asko zeuden Algortan, Algorta inguruetan, Bilbon, irakaslerik onenak, prestigioa, baloreak ere katolikoak. Garestiak ziren baina ematen zien diruak, garestienetarako ere bai. Irene baino ez zeukaten; erabaki zuten ez zutela gehiago ekarriko... Jabetuta zeuden gainera zer diren ikasketak, norainoko balioa duten, ia beste ezeri baino garrantzi handiagoa ematen zieten ikasketei

Abel Arriasek eta Begoña Sasietak. Unibertsitatean nahi zuten alaba, Deustukoan beharbada. Baina, guztiarekin ere, Irene ikastolara joatea nahi zuten, San Nikolasekora, San Nicolás orduan, Franco bizi zela. Ikastola nahi zuen Abel Arriasek, Begoña Sasietak ere bai, ez zekiten arren, inork ez zekien arren, zer ikasi ahal izango zuten ume haiek gero, unibertsitatean ikasi ahal izango zuten eskola prekario haren ondoren, sotoetan, etxe partikularretan. Ikastoletako lehen ikasleak ez ziren unibertsitatera heldu artean, ez zekiten helduko ziren ere... Ikastola garbitzera joan behar izaten zuen Begoña Sasietak hilean behin, ez zegoen gehiagorako dirurik.

Urte batzuk lehenago guardia zibilak sartzen ziren ikasgela behin-behinekoetara, sotoetara, etxe partikularretara, normala zen orduan Guardia Zibila ikasgeletan. *No mire, señor, son hijos de amigos, me los dejan para que se los cuide*. Fitxak egiten zizkieten poliziek irakasleei, inspektoreak bidaltzen zituzten hirurogeiko hamarkadan Algortako ikastolara. Euskarazko liburu guztiak ezkutatzen zituzten umeek, auzokoen etxeetan batzuetan, gaztelaniazkoak atera. Eskola bat antzezten zuten gizonaren aurrean erdaraz; Francoren aurrean zeudela iruditzen zitzaien.

Aurreko hamarkadetan eskolan euskaraz hitz egiten zutenei gurutze bat eginarazten zieten mihiarekin lurrean, hautsetan, hondarretan, lokatzetan. Begoña Sasietaren etxekonekoa, Arregi, kartzelara sartu zuten, han zeukaten, euskaraz egin zuelako Algortako kasinoan. Heriotza-zigorra kartzelan, horren zain zegoen Arregi. Marina Zabalak egunero esaten zuen aitagurea haren alde iluntzean, Begoña Sasietak ere bai, Irene Arrias jaio baino askozaz lehenago. Gipuzkoako gobernadore zibilak sasoi horretan esan zion Nafarroakoari, *Ten cuidado, y si empiezan las ikastolas, no las dejes nacer, porque en Gipúzcoa pensábamos que iban a fracasar y han tenido un éxito fuerte; machaca desde el pricipio*. Hori zen giroa, *No, mire, señor...*

Eta ikastola horretara sartu zuten Irene Arrias, ez zekiten arren unibertsitatera ailegatu ahal izango zen, ez zekiten arren hilabete edo urte batzuen buruan itxi egingo zuten; hasieratik zanpatzeko gomendatu zuen Gipuzkoako gobernadore zibilak... Abel Arriasek suma zezakeen unibertsitaterako nahi zuen ume hori betiko atzeratuta geratuko zela ikasketetan, gizartetik aterako zuela, hasieratik zanpatuta, gobernadore zibilak nahi zuen bezala. Baina nazionalista zen Abel Arrias,

katolikoa ere bai... Nazionalista katolikoa baino apur bat gehiago beharbada... Nazionalista beharbada beste gauza gehienak baino apur bat gehiago, *No mire, señor, son hijos de amigos*.

Urte hartan bertan argitaratu zen Hendaian *Operación Ogro* liburua. Luis Carrero Blanco Espainiako Gobernuko presidentea nola eta zergatik hil zuten azaldu zuten ETAkideek eurek. «Exekutatu» hitza erabili zuten, indarkeria arautuak erabiltzen duen bezala: *cómo y por qué ejecutamos a Carrero Blanco*. Elkarrizketa moduan argitaratu zuten, Eva Forestek egin zituen galderak, Julen Agirre ezizenarekin.

Abel Arriasek urte hartan bertan edo hurrengoan lortu zuen ale bat, alaba eskolatu zutenean. Baten batek ekarri zion Hendaiatik edo inguruetatik, Ediciones Mugalde, troisème trimestre, 1974, Bd. De Gaulle, Hendaye. Entziklopedia atzean ezkutatu zuen: apalategia zabala zen, bigarren liburu ilara sar zezaketen atzean. Inozoa ezkutalekua, ordea, poliziarentzat eta edonorentzat, liburu zuriak aurrean, *Operación Ogro* atzean, Ediciones Mugalde, edo *De Carrero Blanco a Eva Forest*, liburu hori-horia, Editions André Balland, Rue Sant-André des Arts, Paris.

Irene Arriasek hogeita bat urterekin ikusi zituen liburu haiek aurrenekoz. Lehenago ere ikusita zeuzkan, hamalau urterekin, Antonio Tejerok estatu-kolpea jo eta lau urtera, baina ez zuen jakin zer ziren, zer esan nahi zuten... Batez ere zer esan nahi zuten bere etxean... Ez zuen ulertu nazionalista zela Abel Arrias katolikoa baino apur bat gehiago.

Hogeita bat urterekin ikusi zituen aurrenekoz, beraz, liburu haiek Irene Arriasek, Carlo Collodik Montanarako bataila ikusi zuen bezala hogeita bat urterekin, Ambrose Biercek ikusi zuen bezala Sezesio-gerra urte berberekin, Georgiako estatuan, Walker kondeerrian. Hala ere, hogeita hamasei urte ondo beteta izan arte ez zuen Irene Arriasek *Operación Ogro* irakurri, 2008ko urtarrilean. Aurretik egin zituen irakurtzeko ahalegin batzuk, baina desfasatua iruditzen zitzaion, hizkeran, moldeetan, orban horixkak zituen orrialdeetan. Aita zenari begira irakurri zuen Irene Arriasek *Operación Ogro* 2008an: ikusi nahi zuen zer izan zen aita, zergatik jarraitu zuen aitak tabakoa eskatzen hil eta gero Ireneren buruan, zergatik jarraitu zuen zinemara joaten, Irene joaten zen bakoitzean.

Irene Arrias bera ere katolikoa izan zen hamazazpi urtera arte, kristaua gero, unibertsitatea amaitu os-

tean ere bai, urte batzuk, baina *Operación Ogro* irakurri zuenerako ia egunero esnatzen zen loberritan erabateko heriotzaren kontzientziarekin, dardarka askotan. Bihotzak arraro erantzuten zion, ez zekien ondo azaltzen. Ohean ez zuen artean takikardiarik izan, zaila zen ohean. Beste leku askotan bai ordea: trenean behin, Algortarako metroa egin baino lehen, baziren urte batzuk, kirola egitean askotan, unibertsitatean...

Deskontrolatu egiten zitzaion bihotz-muskulua, 100 taupada baino askozaz gehiago minutuan, takikardia esaten zioten. Itomen sentsazio batekin hasten zen, ito egiten zen Irene Arrias segundo batez, eten egiten zitzaion barrua, arnasa, odola, orduan hasten zen bihotza abiadura anormalean. Takikardiak zirela azaldu zioten, hamahiru urterekin izan zuen lehena. Eta bere bihotzaren portaera horri begira bizi behar izan zuen Irene Arriasek handik aurrera, portaera anormal horri begira. Ez hamahiru urterekin; hilezkorrak hamahiru urteko pertsonak... Horri begira bizi behar izan zuen ohartu zenean zer den muskulu hori, zer den pertsona bat, zeinen erraz hiltzen den pertsona. Ez zuen segundo batez ito nahi, ez zuen azken batean segundo batez hil nahi, odola, arnasa etenda,

ahalik arinen berreskuratu nahi izaten zuen erritmo normala, taupadena. Ez zela gaixotasun bat, hori esan zioten medikuek, muskuluaren portaeretako bat zela, joera bat, egin zezala bizimodu normala. Baina bere bihotzaren joera horrek eman zion Irene Arriasi erlijioaren neurria, jainkoarena, segundo bateko itolarria hasten zitzaionean.

2008ko urtarrilean irakurri zuen Irene Arriasek *Operación Ogro* liburua, beraz, azken takikardiatik hiru egunera; horrela zenbatzen zuen denbora batzuetan. Hasi aurretik zekien zer irakurriko zuen, mundu guztiak zekien: nola lehertu zen auto barruan Luis Carrero Blanco, Espainiako Gobernuko presidentea, Francok izendatua, nola egin zuen autoak airean hogei, hogeita bost metro, gehiago ere bai, teilatuetaraino. Tunela egin zuten errepide azpian, dinamita jarri tunelean, Goma 2 ia guztia. Carreroren autoa gainetik pasa zenean eztandarazi zuten... Erraza ematen du, ikaragarri zaila ematen du.

Urtebete egin zuten Txikia komandokoek Madrilen Luis Carrero Blancori begira: eliza barruan, kanpoan, autoan, haren atzean jaunartu zuten, sorbalda ukitzeko moduan. Etxe asko alokatu behar izan zituzten Madrilen, almirantea bahitzea zelako hasierako ideia,

presoen amnistia nahi zutelako. Etxe horietako bat armadako ofizial batek alokatu zien, goi mailako ofiziala. Politikaz hitz egin zuen behin baino gehiagotan etxea alokatu zuen ETAkideak harekin. Bietako inork ez zuen esan buruan benetan zerabilena, militarrak bai beharbada, eta fidantza ere itzuli zien alokairua utzi zutenean. Behin eta berriro errepikatzen du ETAkideak elkarrizketan pertsona jatorra zela militarra, purua ere oparitu ziola behin, ez dutela kexarik, *era simpático, mantenía una buena conversación*.

Irene Arriasek nekez irudikatzen zuen zer zen hori, komandoaren Madrilgo bizimodua, zer zen gordean ibiltzea. Segurtasun neurriak askotan aipatzen dituzte... Ulertzen zuen Irenek hori, logikoa ere bada, egindako gauza asko kontatu ere ezin zuten egin... Baina gero, ostera, pistola sarritan galdu zutela esaten dute: ahaztuta uzten zuten, tabernetan batez ere, haren bila itzuli behar izaten zuten, Parabelluma, bederatzikoa, arma ikaragarri handia edonola ere. Iruditzen zitzaion Ireneri segurtasun neurriak maiztu egiten zitzaizkiela: tiro-ariketak ere, esaterako, etxe ondoan egiten zituzten batzuetan, Madrilen bertan, auzoan, zabalgune utziren batean.

Gauzak asko pentsatzen zituzten, asko eztabaidatu, birarazi, baina gehiegi pentsatu gabeko gauzak ere egin zituzten, ez sinesteko modukoak ere bai: armadako egoitza nagusian, esate baterako, metraileta lapurtu zioten ateko zaindariari behin. Capitanía General, palacio del duque de Uceda, Madril erdian, armadaren muinetako batean. Hogeita hamasei urteko Irene Arriasek pentsatzeko ahalegina egiten zuen eta pentsatzen zuen hogeitazak urteko pertsonak zirela Txikia komandokoak, hogeita hirukoak, hogeita bostekoak, eta liburuaren orri horituei begiratzen zien gero.

Dinamita Carrero Blancoren auto azpian lehertu eta gero erraz atera ziren Madrildik, Madril erditik, uste baino errazago. Gas leherketa izan zela pentsatu zuen Poliziak... Nahasita ibili ziren grisak, soldaduak, guardia zibilak, galduta. Tunela topatu zuten hala ere, komandokoek alokatutako sotoa ere bai. Soto barruan zaku batzuk, tuneleko lurra ateratzeko erabili zituztenak, letra ikaragarri handi batzuekin: USA. Poliziak esan zuen orduan CIA tartean zela, ETAk ez zeukala ahalmenik halako atentatu bat bakarrik egiteko. Esan zuten Franco deserosoa zela Estatu Batuetako Gobernuarentzat, haren ondorengoa ere bai, Luis Carrero Blanco almirantea. Henry Kissinger bera ere egun ba-

tzuk lehenago egon zen Madrilen: arrasto guztiek egiten zuten bat. Komandokoek erantzun zuten txepelkeriak zirela, zaku haiek *rastro*-an erosi zituztela, maiztuta. Bizirik egon daiteke oraindik zaku haien lehen erabilera ezagutzen duen pertsonaren bat.

Izan ere, Estatu Batuetako Gobernua ia inoiz ere ez zen gehiegi nahastu teorian nahastu beharko zukeen gauza askotan: isilik egon zen hiru urte lehenago Burgoseko prozesua egin zenean, isilik egon zen bezala hogeita hamar urte lehenago Gerra Zibila amaitu zenean, Bigarren Mundu Gerra amaitu zenean... Poliziek, ordea, argi utzi nahi zuten ETA ez zela kapaz magnizidioa egiteko, horregatik aipatu zuten CIA... Beste talde batzuk ere aipatu ziren: IRAko kideak, OAS bera, mertzenarioak, legionarioak, «Chacal» izena ere agertu zen argitalpenen batean, hura kontratatu zuela ETAk Carrero Blanco hiltzeko.

Carreroren autoa lehertu baino egun bi lehenago, 37 ordu lehenago, zinera joan ziren komandokoak, abenduaren 18an. Eginda zeuden gauza guztiak, tunela, lehergaiak, ez zuten beste ezer prestatu behar. Zine-aretora sartu eta *Chacal* filma ikusi zuten; hor lotura bakarra, lotura baragarria ere bai... Fred Zinne-

mann zuzendaria, Oscar sarietan muntaketa onenerako hautagaia.

Irene Arriasek nobela baten moduan irakurri zuen hori guztia, orrialdeen orban beilegien gainetik. Liburu gehiago bilatu zituen, erreferentzia gehiago... Imajinatu zituen gero Txikia komandokoen bidaiak Madrilera, komandoari «Txikia» izena ipini baino lehen, izena hartu eta gero, nola bitarte horretan hil zuten Eustakio Mendizabal *Txikia* Algortan. Algortako trengeltokian itxaron zioten Txikiari poliziek eta Irene Arriasen etxetik hamabost metro baino gutxiagora egon zen hil baino minutu batzuk lehenago.

Operación Ogro irakurtzen ari zela, aitaren irakurketa imajinatu nahi zuen Irene Arriasek, ia hogeita hamabost urte lehenagokoa, zer eragin zion liburu horrek, zerbait aldatu zion. Imajinatu nahi zuen nor zen aita hil baino sei urte lehenago. Gerta zitekeen, hala ere, liburua etxean egon baina Abel Arriasek sekula irakurri ez izana. Arkatzez markatutako hitz bat topatu zuen Irenek 120. orrialdean ordea: «cojer» aditza. Erdiko j hori zegoen arkatzez biribilduta... Ortografia-akats gehiago zegoen liburuan, azentu-markak batez ere, baina hori baino ez zuen Abel Arriasek markatu, «cojer». Ireneren obsesio bera aitak beraz.

Arkatzez biribildutako j hori izan zitekeen Irene Arriasek erabil zezakeen aitaren arrasto bakarrenetakoa, azkenetakoa. Pipa ingeles bat ere bazeukan aitarena, tabako usaina oraindik, azken errealdia, gaixorik zegoela beharbada, medikuak debekatu zion arren. Irenek ere erosi zion tabakoa inoiz amaren gordean. Alabak gorde zuen gero pipa, BBB markakoa, 667 modeloa, London, England. Iruditu zitzaion amak beste gauza batzuk zeuzkala.

Eltxo bat ere aurkitu zuen Irene Arriasek liburuaren orri artean zanpatuta. Abel Arriasek berak zanpatua beharbada, kasualitatez harrapatua beharbada; hilotz zaharra edonola ere, marroikara. Bizirik ikusi zuen beharbada eltxo hori Abel Arriasek... Horrek bete zion burua Ireneri une batez. 132. orrialdean zegoen eltxoa zapalduta, beste kasualitate bat: 133.ean kontatzen da Carreroren auto azpian dinamita leherrarazi zuten segundoa.

Luis Carrero Blanco hil zuten urte berean jo zuen estatu-kolpea Juvénal Habyarimanak Ruandan. Ordurako hainbat hilketa egon zen, hutuenak, tutsienak, 1963an, 1972an, baina askozaz geroago izan zen ge-

nozidio ahalegina, 1994an. Litekeena da ahaleginak izatea ia beti genozidioak, nekez konponbide finalak, juduak, kurduak, armeniarrak, eutsi egin zioten; juduek egiten dutenari begira bizi gara orain ere.

Juvénal Habyarimanaren hegazkina misil batek bota zuenean piztu zen genozidio ahalegina Ruandan 1994an, Irene Arrias unibertsitateko azken azterketak prestatzen ari zenean. Hori izan zen azken tanta, azken bultzada. Izan ere, urte asko eginak zituzten giro horrekin Ruandan, gerra giro horrekin, baina misil horrek eragin zuen azkenean masakrea.

Urteak egon dira ikertzen nork bota zuen misila hegazkinaren kontra, tutsiek, hutu erradikalek, Paul Kagamek berak, RFPko burua eta Ruandako presidentea urte askoan... Noren laguntzarekin, Estatu Batuak, Frantzia... Hegazkin horri begira egon dira ordutik ikertzaileak, epaileak.

Hamabi lagun zeuden hegazkin barruan: Ruandako presidentea, Burundiko presidentea ere bai, Arushako bake-ituna sinatzetik zetozenak, militar batzuk ere baziren, koronelak, komandanteak, politikari batzuk, presidentearen mediku pertsonala... Jacky Heraud zen pilotua, hori ere badakigu. Kopilotua Jean-Pierre Minaberri, euskalduna.

Sylvie Minaberrik, alabak, epaiketa abiarazi zuen Frantziako Gobernuaren aurka 1997an, aitaren heriotza argitu nahi zuelako. 2012ko urtarrilaren 27an bideo bat argitaratu zuen sarean Sylvie Minaberrik, Didier Tauzin Frantziako Armadako jenerala agertzen duena, genozidio garaian Ruandan egondakoa. Irene Arriasek erdizka ulertu zuen jeneralak bideoan frantsesez zioena... Inpresioa, baina, ez zen sinesgarriegia, hitz egiteko modua ere militarra beharbada... Lau minutu baino gutxiago behar ditu jeneralak Ruandako hogeita hamar urte baino gehiago azaltzeko.

Irene Arriasek mezu bat bidali zion Sylvie Minaberriri bideoa ikusi eta gero, euskaraz, ez zekien arren ulertuko zuen, frantsesez baino ez zuen egingo beharbada, ziurrenik. Mezua bidali zion hala ere, ez zekien ondo zertarako... Indarkeriei begira ari zen azken urteetan Irene Arrias, ETAren 2006ko su-etenetik beharbada, ez zekien zergatik, ez zuen zerikusirik bere bulegoko lanarekin, bere familiarekin, ez zekien zertarako. Baina Eustakio Mendizabal *Txikia*ri begira ari zen, torturak, armak, bahiketak, exekuzioak, Ruandako masakreei begira ere bai zerbait. Jean-Pierre Minaberri euskalduna topatu zuen orduan Ruandan, genozidioaren muinean. Juvénal Habyarimanaren hegazkina

gidatu zuen Jean-Pierre Minaberrik, masakreak abiatu zituen hegazkina bera, misil batek Kigaliko aireportutik hurbil lehertu zuenean. Bideo bat ere bada sarean, atentatua 3D formatuan berregiten duena.

Gustav Adolf von Götzen ere topatu zuen Irene Arriasek ezustean. Von Götzen kondea izan zen Ruanda zapaldu zuen lehen europarra, 1894an. Bederatzi urte lehenago pasa zen Ruanda Alemaniako kolonia izatera, Berlingo konferentzian Europako estatuek eta inperioek Afrika banatu zutenean, baina ruandarrek eurek ez zuten ezer jakin, harik eta Von Götzenek berak azaldu zien arte bederatzi urte geroago. Kagera ibaia zeharkatuta sartu zen Ruandara Von Götzen gizon multzo ez oso handi batekin.

Gustav Adolf von Götzen hori Maximiliam von Götzen-Iturbideren birraitona zen. Mexikoko tronuaren gaur egungo erregegaia da Maximiliam, 1944an jaioa eta Australian bizi dena. Mexikon ez dago gaur egun hartzeko tronurik, jakina, Maximiliamek ez du hortik bizibiderik aterako, baina haren arbasoetako bat Mexikoko enperadore ere izan zen mende bat arinago. Hamar hilabete eskas aritu zen enperadore Agustin I.a: Agustín Cosme Damián de Iturbide y Aramburu.

Aita nafarra, ama ere jatorri euskaldunekoa, Arambu-ru.

Mexikoko independentzia nahi zuten gerrillariei kontra egitera bidali zuen Espainiako koroak, baina erreboltariekin bat egin zuen Agustín Iturbidek eta independentzia aldarrikatu zuen 1821ean. Enperadore izendatu zuten, abdikatu zuen gero, 1824an fusilatu zuten mexikarrek eurek. Iturbide bat, Agustin I.aren arbasoa, Baztango agintaria izan zen XV. mendean. Oinetxea Irisarrin zeukala esan izan da, Nafarroa Beherean, hain zuzen Jean-Pierre Minaberri kopilotuaren jaiotetxetik aski hurbil.

Juvénal Habyarimana presidentearen hegazkina bota eta bost egunera hasi ziren hilketak Nyamata udalerrian, Kigalin baino beranduago. 59.000 tutsi bizi izan ziren han, 50.000 hil zituzten. Jeannette Ayinkamiyeren ama papiro artean ezkutatu zen, bi alaba txikienekin. *Interahamwe* talde batek topatu zituenean, dirua eskaini zien; ez bizirik uzteko, baizik eta kolpe bakar batez hiltzeko, aihotz kolpe batez. Biluzik jarri zuten orduan gizonek arropa barruan bilduta zeraman dirua kentzeko. Besoak ebaki zizkioten gero, hankak ondoren, odolusten utzi zuten. Alabei ere aihozkadak eman zizkieten: orkatilan bati, buruan besteari. Horre-

la aurkitu zituen Jeannettek. Ahizpak artatu zituen batez ere, amari ura ematen zion; ezin zuen besterik... Egunez bakarrik utzi behar zuen ama gainera, bederatzi eta erdietatik laurak arte, ezkutatzera itzuli behar zutelako.

Lehenengo egunean hitz ere egin zezakeen amak, odolusten egon arren, laurdenduta egon arren. Alabekin hitz egiten zuen: «Jeannette, esperantzarik gabe ari naiz hiltzen, badakidalako nire atzetik etorriko zaretela zuek guztiak». Hori errepikatzen zuen, alaba guztiak hilko zizkiotela, ez zela lasai joango. Bigarren egunean «Agur, umeak» esaten zien alabei, besterik ez, ahopeka. Ura ere eskatzen zuen, ezin zuen besterik; orduak ziren odolusten, hogeita zazpi baino gehiago... Hirugarren egunerako ezin zuen ura irentsi ere egin, oso motel kexatzen zen, ia ahots barik. Gauza bakarra egin zezakeela dio Jeannette Ayinkamiyek: begiratu. Hori baino ez zuela egiten, alde batera eta bestera begiratu. Hil zenean ere, ez zituen begiak itxi, hori esan zuen alabak... Asko kostatu zitzaion Jeannette Ayinkamiyeren amari, Agnès Nyirabuguziri, hiltzea; oso zaila izan zen, errazegia izan zela ematen du.

Irene Arriasek askotan erabiltzen zituen buruan aitari umetan entzuten zion kantu baten zatiak, aita hil eta gero ere, aita hil eta hamar urtera, hamabost urtera. Ez zekien aitak osorik kantatzen zuen edo zati horiek soilik, Irenek gogoratzen zituenak.

> Lo-bedartxu bet ipini neuntsen bular biaren erdian
> linde damea loak daroa bostehun legoa bidian.

Irene Arriasek hainbat urte geroago jakin zuen zer zen kantu hori, Europa osoan errepikatzen zela, Ameriketan ere bai beharbada, Asian. Kantuaren bertsio asko irakurri zituen gero, eta jakin zuen zerbait kontatzen zuela kantuak, narrazio bat zegoela han, hari argi bat. Kontatzen zuen nola dagoen dama bat edo neskatxa edo anderea etxean brodatzen edo leihotik begira, aita eta amaren etxean beti. Ulertu zuen Irenek brodatzen ari diren damentzat beti dagoela nahigaberen bat luze gabe... Irakurri zuen nola doan neska hori portura heldu berri den itsasontziaren ondora, zetaoihalak erostera, kapitaina afaritara gonbidatzera edo: *aitek eta amak bidaltzen neude hau kantatxu hau ikastera*.

Marinelek edo marinel bakar batek edo kapitainak berak ontzira sartzera gonbidatu dute dama, *erdu neurekin bordera* edo *jin ountsin barnea*. Baina neskak ez du nahi, inoiz ez du nahi izaten neskak... Horregatik hartu dute bortxaz, *mantoaz trozaturik* edo *marinelan kapapean*, horregatik eman diote lo-belarra edo urre-sagarra, ez dakigun arren zer zen urre-sagar hori XVII. mendean edo XVIII.ean, infusio bat izan liteke... Gauza da lo eraman dutela neska bahituta, *bostehun legoa bidian*, *mila legoa*; sexurako nahi dute esnatzen denean, horretarako eraman dute. Begiak zabaldu dituenean, ordea, etxera itzultzeko eskatu die damak.

Konturatu denean ez dutela aita eta amarekin atzera eramango, sexurako nahi duela kapitainak edo marinel batek edo marinel guztiek beharbada, arrazoibidea aldatu du: joskilea madarikatzen hasi da, soinekoa egin diona, *deabru gaiztoak eraman daiela dendari honen jostura* edo *maradika dakiola dendariari orratza*. Gerria estuegi josi diola esan du damak, neskatxak, andereak, eta jostura libratu nahi du. Artaziak eskatu dizkio marinel bati, tijeratxuak edo ezpata edo sabria edo saflea, frantsesezko *sabre*-tik datorrena, hungarierazko *szablya*-tik. Baina soinekoa konpondu

barik, jostura libratu barik, bihotzetik sartu ditu damak artaziak, ezpatak, safleak, ganibetak.

Bertutea begiratu nahi izan du beste ezeren gainetik, gorde eternitaterako, bizia galdu arren. Irene Arriasek bertute mota horretan pentsatu zuen une batez, nesken bertutea edo lorea edo lilia edo floria. Pentsatu zuen zenbat literatura egin den, eta zein gutxi fidatzekoak diren literatura gehiegi daukaten gaiak. Pentsatu zuen gauza bera dela gerrarekin, gerra literaturarekin, zeinen gertuko egiten diren tenienteak edo kapitainak edo koronelak, nola miresten diren ia ohartu gabe, pentsaeren aurka beti baina sistematikoki, umetarik, pelikuletan, liburuetan.

Sartu du damak, beraz, ezpata, ganibeta, saflea bihotzean. Marinelek ezin izan dute ezer egin, *une hatantxe hilotzitu zen linde damatxu gaztea*. Engainatu ditu neskak marinel guztiak, engainatu du bere burua ere. Hor amaitzen da kantua bertsio gehienetan: gorpua uretara bota behar dute, zer besterik, *belatxu bati amarradute ureri emon geineio*. Berehala abiatu nahi dute ontzia, izan ere *itsasoak ez diokek soporta arima desesperaturik*. Alde egin dute marinelek, uretan ustelduko da neska.

Baina bada bertsio osoagoren bat, guztia kontatzen duena. Marinelek ez dakite zer egin dama hil denean: hizketan hasi dira, eztabaidan seguru asko... Batek galdetu du zer egingo duten gorpuarekin, beste batek erantzun du:

> Intsentsoagaz intsentsatu te erainotzagaz lurrundu linde damia zazpi astian gurekin erabil daigun.

Erabili dute gorpua, bada, zazpi astean, marinel guztiek, txandaka. Intsentsua baliatu dute ez usteltzeko, usainari aurre egiteko beharbada, ereinotza ere bai. Beste kantu batean limoi-ura erabiltzen du andere batek ezkontza egun berean hil zaion senarrarentzat.

> Zazpi urthez atxiki dizut senharra hila etxian egunaz arrosapian eta gauaz bi besoen artian zitroin urez berekatuz astian egun batian.

Ematen du ez zela sasoi batean horren arraroa ere izango, zitroin-urez, intsentsuz, ereinotzez, erabili egiten zituzten hilotzak, gizonezkoek, emakumezkoek. Horrela lorrindu da azkenean damaren bertutea ere,

lilia, floria, errealitatea zikinagoa da beti. Erabili eta gero uretara bota dute, *emon deiogun zazpine musu, bota deiogun ureri*.

Baina batzuetan ez da itsasorik egoten... Itsasoa urrun egoten da leku batzuetan, eta bahiketak lehorretik egin behar izaten ziren. Esaten da Gaztelan mairuek bahitzen zituztela dama kristauak, baina aldrebes ere bai, *cristiano vino a mi puerta, cuitada por me engañar*. Europa iparraldean erregeen alabak bahitzen zituzten, Kudrun printzesa esate baterako. Ia leku guztietan kantatzen dira nesken bahiketak, Herbehereetan, Suitzan, herri eskandinaviarretan, eslaviarretan.

Saldu ere egiten ziren neskak batzuetan. Aitak eta amak saltzen zuten alaba, hori ere bazen, *saldu ninduzun dirutan, dirua ere urretan, pisu nuen bezanbat urretan eta zilar ezpata batetan*. Andre Emili saldu zuten horrela, negarrez eraman zuten mairuen artera.

Aita nuen saltzaile
ama diruen hartzaile
nire anaia Bernardo
moru-herrira entregatzaile.

Baina batzuetan salmenta egon arren, gehiago ziren bahiketak... Orduko kantuetan gehiago agertzen dira behintzat; pentsa liteke arruntak ere bazirela. Euskal herrietan sarriago kantatzen dira itsasokoak, marinelenak, baina bada lehorretik eginiko bat. Hiru soldaduk lapurtu dute neska, hiru kapitainek, arrosa xuriaren azpian lo dagoela, elorri xuria ere izan daiteke bertsio batzuetan... Elorriak hobeto ematen du...

Eraman dute kapitainek neska Pariseraino zaldiz, ostatu batean sartu dute. Damarentzako afaria zerbitzatzeko prestatzen hasi dira, baina afaria barik beste zerbait ulertu behar da. Orduan hil da bahitua edo hil zaie edo hil du bere burua, ez da esaten... Ez zuten soldaduek espero, ihesi joan dira, koldarra erne zaie, ostatuan utzi dute usteltzen.

Hor amaitzen da kantua... Asko jota neska hilotzaren oihu bat agertzen da azken ahapaldiren batean: aitari egin dio oihu, esan dio bertuteari eutsi diola, liliari, floriari.

Baina bada beste bertsio bat: gelditu egin dira ostatuan hiru kapitainak. Ez da koldarrik orain, ez da soldadu koldarrik inon, fusilatu egiten dira, are gutxiago kapitainak. Penatuta daude neskaren heriotzarekin, pentsa liteke maite ere maite zutela... Gorpuaren on-

doan daude, *ongi negar egiten zutela andereari dolu eginik*. Bihotz onekoak kapitainak noski; soldaduak zakarrak izan daitezke, baina bihotz onekoak beti. Batzuk zakarrak ere ez, ofizialak batez ere, tenientetik gora ia inoiz ez.

Modu gozoan tratatu dute kapitainek gorpua beraz, setioak antolatzen dituzten bezala, bonbardaketak, airetik, lehorretik. Anderea non ehortziko duten pentsatu behar dute, ohore guztiekin noski; ohorea da armadetako hitzetako bat, errepikatuena. Erabaki dute azkenean non lurperatuko duten, esateko modua ere ez da merkea: *aitaren baratzean, ezpela baten azpian, liho liliz inguraturik, tonba baten barnian*.

Kapitainek eurek eramango dute gorpua haraino, beharrizanik ez duten arren. Zeinen arima garbia soldaduena, zeinen desinteresatua, pelikuletan bezala, telesailak, eleberriak, zenbat lore hain espazio txikian, arrosa, lihoa, elorri zuria, lorrinduta asko.

Irene Arriasen amama, Marina Zabala, auto batek harrapatu zuen 1975eko azaroaren 8an, goizeko lehen orduetan, Irenek lau urte zituela, Franco hiltzeko hamabi egun falta zirela. Marina Zabala pintorea

kontratatzera joan zen goizetik, Alango kalera. Txiskiñetik jaitsi zen gero, Algortako etorbidera heldu, Avenida del Ejército esaten zioten orduan, Francoren tropak sartu zirenetik 1937an. Errepidearen beste aldeko harategira joan behar zuen Marina Zabalak, hala esaten zuten izan zela.

Begoña Sasietak beti esan izan du obsesionatuta zegoela ama autoekin, inguruan umeak zeudenetan batez ere, ume propioak eta besteen umeak. Gero eta auto gehiago zegoela, 1975ean, hori Marina Zabalaren beldurra. Gurugú tabernaren aurre-aurrean harrapatu zuen autoak, orduan jarri zuten orain dagoen semaforoa. Marina Zabalaren suhietako batek behin eta berriro errepikatu zuen hurrengo egunetan pena hori zuela, amaginarrebak ez zuela Franco hilda ikusi... Hamabi egungarrenera hil zen Francisco Franco Madrilen.

Autoak harrapatu zuen egunean bertan zendu zen Marina Zabala, gauean. Begoña Sasieta eta ahizpak bisitan joan zitzaizkion ospitalera egunez, azken egun horretan. Begoña Sasietak «Ama» esaten zion «Ama», eta Marina Zabala espasmoek mugitzen zuten hitza entzuten zuen bakoitzean. Buruan hartu zuen kolperik handiena.

Marina Zabalari lotuta geratu zen beraz Gurugú izena, Algortako Gurugú tabernaren ondoan harrapatu zuelako autoak. Marina Zabalaren azken egunari lotuta geratu zen beraz, heriotzari, baina baita bizitzari ere... Jende askok ohitura dauka bizitza heriotza baino gehiago dela pentsatzeko.

Marokoko mendia da Gurugú, Melillatik ez urrunegi. Han borrokatu ziren Rifeko tropak eta Espainiakoak, indar kolonialak, ondo ikusiak; «Marokoko protektoratua» esaten zioten. Handik pasatu ziren Primo de Rivera eta Franco... «Abd al-Karim zen Rifekoen burua, Abdelkrim espainiarrentzat... Hainbat hildako eragin zituen Espainiako Armadan Abdelkrimek, baina gaztetan Salamancako Unibertsitatean ikasi zuen, ikasle apartekoa. Espainiarrentzat egin zuen lan gero Melillan, itzultzaile, kazetari, harik eta Silvestre jeneralak aurpegiko bat eman zion arte, uste baino biolentzia handiagoz, odoletan utzi zuen. Esaten dute horrek eraman zuela Abdelkrim azken amorrura, orduz geroztik hasi zela Rifekoen tropak biltzen. Mito itxura dauka baina milaka espainiar hil zituen guztira; marokoarrak ere asko, Espainiako Armadaren alde aritzen zirenak.

Annualgo hondamendia ere urte haietan izan zen, *el Desastre de Annual*. Silvestre jeneralak inoizko traketsen mugitu zituen tropak: 4.000 lagun baino gehiago hil ziren, Dorre Bikietan hil zirenen halako bi, presoak ere ehunka. Horacio Etxebarrieta Maruri enpresaburu euskalduna elkartu zen orduan Abdelkrimekin. Tratuak zituen Etxebarrietak hangoekin, hartu-emanak ere onak, bitartekari bidali zuten beraz. Esaten dute bere burua ere eskaini ziola Etxebarrietak Abdelkrimi atxiloen truke, *llegó incluso a ofrecerse como rehén*. Zilarrezko 80.000 ogerleko ordainduta askatu zituzten soldadu guztiak azkenean; Etxebarrietaren ogerlekoak denak, ez gobernuarenak.

Horregatik agertzen da Gurugú mendia oraindik Espainian idazten diren entziklopedietan, mendi eskasa izan arren, han borrokatu zirelako soldadu espainiarrak. Entziklopedia berberetan, ordea, ez dira agertzen gero Marokoko Tirhermt bezalako mendiak, 3.770 metrokoa, edo Toubkal, 4.165ekoa. Espasa entziklopediak, esaterako, 1988ko edizioan, erraz definitzen du Gurugú, semantikarik azalekoena zaindu gabe: *monte de Marruecos, al SO de Melilla, donde se produjeron enfrentamientos (1909 y 1921) entre la guarnición española y los moros.*

Horrela sartu ziren marokoarrak, beraz, Marina Zabalaren egunerokoan, Gurugú izena sartu zen bezala, segika joan zitzaion marokoar hura sartu zen bezala, 1937an, Francoren tropekin etorri zena, Basagoiti etorbidetik jarraitu ziona etxeko ateraino, zarata handiarekin egurrezko eskaileretatik, alaba, Irene Arriasen ama, sabelean zeramala.

Baina Marina Zabala hil baino zazpi hilabete arinago, apirilaren 22an, José Ramón Morán González polizia hil zuen ETAk Algortan, autoak Irene Arriasen amama harrapatu zuen lekutik 50 metrora, Alango kalean. Hurrengo eguneko *ABC* egunkariko lehen orrialdea kale horretako argazki erraldoi batek bete zuen, espaloian X bat marraztuta errotulagailuz, argazkiaren gainean. Han, esan zuen egunkariak, odolustu zen polizia, baina metro batzuk beherago izan zela diote herrikoek. Tiro bi jo zizkioten garondoan, 25 zentimetrora... Morris 1300 batean alde egin zuten gero, kirol esatari bati lapurtutakoa autoa. Oso goizetik izan zen, Marina Zabalarena bezala; autoak derrigor pasatu behar izan zuen Gurugú tabernaren aurretik segundo batzuk geroago.

José Ramón Morán polizia izan zen urte bi lehenago Eustakio Mendizabal *Txikia* hil zuena Algortan ber-

tan, azken tiroa egin ziona, errematatu zuena, azalpen hori eman zuen ETAk. Eguna ere, gorabehera batzuekin, horregatik aukeratu zuten: apirilaren 19an hil zuten Txikia, apirilaren 22an polizia, urte bi geroago.

Pisu handia izan zuen Eustakio Mendizabalek ETA barruan, ETAkoen iruditerian, ETAkoak ez zirenen iruditerian ere: Carrero Blanco hil zuen komandoak «Txikia» izena hartu zuen, Itsasondoko hileta-elizkizunaren irudiak ere asko daude, eliza barruan, kanpoan... Plazen izenak ere aldatu ziren harena jartzeko, kaleak, omenaldiak, kantua idatzi zion Telesforo Monzonek. Hitzaldiak ere egin izan dira, ia 40 urte geroago ere bai... 2011n, esaterako, jardunaldi batzuk antolatu ziren Algortan bertan, Kultur Etxean: poliziarengandik ihesi Txikiak Algortatik egin zuen ibilbidea berregin nahi zen. Grande-Marlaska epaileak debekatu zituen, ia 40 urte geroago, Franco bizi zen arren Eustakio Mendizabal *Txikia* eta José Ramón Morán polizia hil zituztenean.

Bertsio ofiziala da, ordea, José Ramón Moránek ez zuela Txikia hil, ezinezkoa zela, lan burokratikoa egiten zuela, nortasun-agiria banatzeko bulegoko arduraduna zela, besterik ez, ez zela handik ateratzen, horretara dedikatzen zela, mota horretako agiria bana-

tzera, hedatzera. Ia hiru urteko alaba zeukan, Irene Arrias baino zertxobait gazteagoa, 1972koa, bertsio ofizialean aipatzen da hori ere. Francok salbuespen egoera ezarri zuen, *se estableció el estado de excepción en las provincias de Vizcaya y Gipúzcoa*, bosgarren aldiz ETAren jaiotzatik. Melitón Manzanas hil zutenean izan zen lehenengoa.

José Ramón Morán polizia trenez joaten zen lanera, Sopelan bizi zen. Algortako tren-geltokian jaisten zen, urte bi lehenago Eustakio Mendizabal *Txikia*k zapaldu zuen geltokian. Polizia-etxera joateko aldapak igo behar zituen: Amezti kaletik igo zitekeen, edo Mariandresenatik, edo Alangobarritik, Irenek 26 urte geroago etxea erosi zuen kaletik. Alangoetatik ere igo zitekeen, baina arraroa izango zen... *ABC* egunkariak jarritako X hori benetakoa bazen, puntu horretan odolustu bazen polizia, seguruena da Ameztitik igotzea, edo Mariandresenatik, Alango kalea hartzeko gero, gasolindegiaren atzetik.

Felix Egia Intxaurraga ETAkidea izan zen polizia hil zuenetako bat. Morris 1300ean alde egin zuten gero, eta Gurugú taberna paretik igaro ziren, Areetan abandonatu zutelako autoa minutu batzuk geroago. Baina Madrilen atxilotu zuten uda horretan bertan Felix Egia,

uztailaren 30ean, Irene Arrias Kantarepeko hondartzan uretatik lehengusu batek atera behar izan zuen egun berean, lar kanpora egin zuelako umeak itsasoan. Bero handia egin zuen egun haietan, 40 gradura ere ailegatu zen, galerna txikiren bat ere iluntzean.

Beste hiru ETAkide ere bazeuden Felix Egiarekin Madrilen atxilotu zutenean, Morris batean orduan ere, Mini modeloa kasu hartan, Avenida del Generalísimo etorbidean, geldirik autoa. Identifikatu egin zituen Poliziak, korrika atera ziren laurak autotik... Egunkariak dio pistolak zituztela, ezin da jakin, sekula ezin da jakin. Jesus Mujika Aiestaran tiroka hil zuten Doctor Fleming kalerako bidean. Felix Egiari zauriak eragin zizkioten: tiro bat omoplatoan, beste bat ukondoan, baina kartzelarako utzi zuten.

Iñaki Pérez Beotegi *Wilson* ere hurrengo egunean atxilotu zuten Bartzelonan, uztailaren 31n, San Inazio egunean. Txikia komandoko arduradunetako bat izan zen Wilson urte bi lehenago, Carrero Blanco hil zutenetako bat. Galdeketan onartu zuen moja batzuen etxean egon zela gordeta, lau moja, euskaldunak bi eta katalanak beste biak. Laguntza eman zioten mojek, sekularrak ziren, «monjas seglares» dio egunkariak, ez dagoen arren oso argi zer dagoen hitz elkar-

keta horren atzean. Mojen izen-abizenak ere agertu ziren egunkarietan, atxiloketa eta hiru-lau egunera, galdeketa eta hiru-lau egunera. «Galdeketa» esaten diote oraindik, 1975ean bezala, Argentinan bezala, Errumaniako saxoiei egindakoei bezala. Mojen izenak osorik aipatu zituen Wilsonek polizien aurrean, beraz, haien etxean babestu eta gero, egingo dizut kafesnea, izarak dituzu hor. Osorik esan zituen mojen izenak Wilsonek, «galdeketa» egin ziotelako, egunkarietan hiru-lau egunera agertzeko bezain arin.

Wilsonekin batera Juan Paredes Manot *Txiki* ere atxilotu zuten Bartzelonan, hurrengo hilabetean Anjel Otaegirekin fusilatu zutena, Francoren azken fusilatuak, FRAPeko beste hirurekin batera. Esaten du Alex J. Bellamyk, Queenslandeko Unibertsitateko irakasleak, mundu guztiak duela bizitzarako eskubidea eta gizabanako batek egoera bitan baino ezin duela eskubide hori galdu, biak ere «gizabanako horrek hala aukeratu duelako»: armada batean sartzen denean edo «aginpidea duen epaimahai batek» heriotza-zigorra ezartzen dionean.

A.J. Bellamyk natural-natural idatzi zuen hori, eta Cambridgeko Polity Press argitaletxeak argitaratu zion. Rachel Kerrek egin zion enkargua; ez zuen suma-

tuko, beharbada, halako esaldiak emango zituela Queenslandeko irakasleak. Edo kontrakoa: hasi aurretik jakingo zuen zer emango zuen liburu horrek. *Bidezko gerrak* izena eman zioten liburuari, *Just Wars*.

Ahalegin handia egiten da liburuan gerra batean borrokan ari direnak –soldaduak, militarrak– eta borrokan ari ez direnak bereizteko: *combatant* eta *non-combatant*. Espezie bi balira bezala, multzo bi. Talde bien heriotzak ere bereizten dira, heriotza desberdinak baleude bezala, *combatant* direnak eta ez direnak, guztiak, loberritan esnatuko ez balira bezala bihar-etzitan hilko direla pentsatuz, dena desagertuko zaiela, angustia jakin horrekin, takikardiara heltzeko puntuan.

Non-combatant bat hiltzea larriagoa da hortaz, larriagoa den bezala *non-combatant* horien artean zaharrak, emakumeak eta umeak hiltzea. Gizonak hiltzea besterik da, are gehiago *combatant* eta gizonak badira. Gauza horiek ez dira gehiegi pentsatzen, pelikulen bidez sartzen zaizkigu, berezkoak dira, betikoak, ez da normalean pentsatzen soldaduak ere umeak direla, hogeita bat urtekoak, Ambrose Bierce bezala, Carlo Collodi bezala, J.R.R. Tolkien bezala, gerrara joan zirenean.

Agintari bat hiltzea, ordea, ikaragarri penatuta dago, berrogeita sei urte eduki arren, gizona izan arren, J.F. Kennedy bezala. Magnizidioa esaten diote, Luis Carrero Blancorena bezala, Nicolae Ceaucescurena bezala. Luze aritu ziren nazioartean eztabaidatzen Muammar Gaddafi modu bidezkoan hil zuten ala ez, esate baterako. Grabazioa ere badago: argi ikusten da nola ibiltzen duten soldaduek Gaddafi zauritu eta gero, txotxongilo baten moduan, gerra-ekintza baten ostean. Arraroena hori bera da, agintari bat ikustea gerra-ekintza batean. Ihes egiten ari zen, ezin izan zuen ihes egin, Ceaucescuk bezala. NBEk ikerketa eskatu zuen, ordea, uste zuten Gaddafiren heriotza irregularra izan zela, *kaltea dagianak, bizarra lepoan*.

Heriotzak irregularrak eta erregularrak izan daitezke beraz. Juan Paredes Manotena, esate baterako, erregularra izan zen, epaile batek agindu zuelako, aginpidea eman zioten horretarako, heriotza-zigorra ezartzeko. Baina ez dago argi epaile horrek berak bizitzarako eskubide propioa galdu zuen une horretan, bestea hiltzeko agindu zuenean, ala eutsi zion. Ez dago argi epaile hori armadaren parte ote zen Bellamyren irizpidearen arabera, *combatant* ala *noncombatant*. Edota epaile horri aginpidea eman zioten

agintariak ere *combatant* ziren ala ez, hau da, ondoriorik gabe hiltzeko modukoak, ala magnizidioa deituko zion Bellamyk, historikoki gehien penatuta dagoen delituetako bat.

Heriotza irregularra, beraz, agintariena, edo ez soldadu batena bezain erregularra behintzat. Agintariek erabaki arren militarrak modu erregularrean hiltzen direla, non hilko diren, eta noiz, agintetik urrun normalean. Estatu Batuetako zubiak, esate baterako, nahiko berriak izanik, munduko zaharrenetakoak dira, ez direlako berreraiki behar izan, Europan bezala, Afrikan bezala.

Uda horretan ordu asko egin zituen hondartzan Begoña Sasietak, Irene Arrias lau urtekoarekin, lehengusinekin, beste ume batzuekin ere bai, Kantarepen batez ere, baina baita Azkorrin ere. XX. mendea baino lehen gutxitan aipatzen da hondartza hori udal artxiboetan, ez zen ohiturarik hondartzarako, ume bat ito dela esateko soilik: Juan Bautista de Astica, arrantzan joan eta bainua hartzeko biluztu eta gero ito zena, 1883an. Uda beroa 1975ekoa, Larrabasterrako hondartzara ere eramaten zuten Irene Arrias, baina gutxiago, aitarekin, Abel Arriasekin, asteburuetan uztailean, Madrilen Felix Egia atxilotu zuten hilabete be-

rean. Cabo Verdek independentzia sinatu zuen uda horretan ere, aitortu egin zion Portugalek... Mozambikek bederatzi egun lehenago, biolentzia askoren ondoren. Gerrilla abiatu zuten mozambiketarrek, ez zioten oraindik terrorismo deitzen.

Mota horretako indarkeria grabatuta geratu da, bideo ugari dago, grabatuta geratu den bezala António Lobo Antunesen buruan Angolara soldadu bidali zuteneko gehiena. Mozambikeko banderan ere grabatuta geratu da kalashnikova eta aitzurra gurutzatuta, liburu baten gainean, bost puntako izar baten gainean. Irenek bideoak ikusi zituenean oraindik bizi zen Mikhail Kalashnikov, AK-47 armaren asmatzailea, 1919an jaioa. Hamaika domina eman zioten, azkena 2009an, asmakizun horrengatik eta beste askorengatik, gerrarako gehienak. Siberian jaio zen, 2014an hil.

Urte hartako azaroaren 20an hil zen Francisco Franco Bahamonde ere, agintean 36 urte eman eta gero, zirkinik egin gabe. Marina Zabala, Irene Arriasen amama, hamabi egun lehenago harrapatu zuen auto batek. Irene Arriasek ez zuen galderarik egin, ez zuen esan «Hori erderaz da *Ha muerto*?». Inoizko gutxien hitz egin zuen amama Marinari buruz, beren-beregi egin izan balu bezala. Galdetu zuen, hori bai, zer zen

Gurugú, askotan entzuten zelako etxean, amak, izekok, lehengusu batek.

Izen horren bidez sartu zen Maroko Marina Zabalaren bizitzan. Baina 38 urte lehenago ere sartu zen, marokoar batek San Ignacio elizatik etxeraino jarraitu zionean... Edo hil baino egun bi lehenago, azaroaren 6an, Hassan II.ak 350.000 marokoar bidali zituenean Mendebaldeko Sahara okupatzera. Martxa Berdea esan zioten.

Espainia zegoen Mendebaldeko Saharan agintean orduan, kolonia zen, beste izen bat ez ematearren. Sahararrak eurak «gizabanako ez-funtsezkoak» ziren Hannah Arendten esapidea erabiltzeko, lehenago juduak izan ziren bezala lan-esparruetan, geroago tutsiak izango ziren bezala, hutuak, armeniarrak, kurduak. *Individuos superfluos* gaztelaniaz, jatekoa egunero behar zuten ahoak, epidemiak hedatzen zituztenak. F. Mayor Zaragozak, hamabi urtez Unescoko zuzendari nagusi izandakoak, esaten du historia osoa indar erakustaldia izan dela, «erakustaldi odoltsua», mendeetan herritarrek beren bizia eman behar izan dutela agintean daudenak defenditzeko. Soldaduak gizabanako ez-funtsezkoak dira beraz, hogeita bat urteko umeak batez ere, eta bizitzarako eskubidea

galdu dute. Hori erderaz da *individuos superfluos*... Franco hil eta bi astera hil zen Hannah Arendt, hamalau egun zehatz.

William Faulkner New Albanyn jaio zen, eta Oxforden hazi zuten, Mississipi estatuan. Aitaren aita, William Clark Falkner, koronela izan zen Estatu Batuetako Gerra Zibilean, hegoaldekoen armadan noski, konfederatuan. Bilobari kontatzen zion ordukoa, ausardia, heroiak, ohorea da hitza.

Estatu Batuetako gerra modua Bigarren Karlistaldiaren antzekoa izan zen, urte bertsuetan biak, handiagoa hura seguru, formetan antzekoa. Abadeak han ere, erlijiosoak, mojak, esklaboen alde eta esklaboen kontra, *apaiz batek bi gizon hilerazi dizkit*. Ohiturei eutsi nahi zieten han ere, hegoaldean, euren foruei, konfederatuek, grisek. Ohiturei buruz errazegi hitz egiten zen orduan ere, errazegi ematen ziren ohitura guztiak zaku berean, neurri berean, kontuan izan gabe ohitura desorekatu batek beste asko desorekatu ahal zituela, pentsatu behar zirela ohiturak banan-banan. Inpresioa da, ordea, ohiturak pentsatzen ez di-

renean, ez direla aldatzen, baina pentsatzen direnean ere ez, *aita nuen saltzaile, ama diruen hartzaile*.

Hezkuntza arautuan ez zen ikasle ona izan William Faulkner, ez zuen batxillerra amaitu. Poemak idazten zituen hala ere, marrazketa ere ume gehienek baino gehiago. Walt Disneyrekin lotzen du horrek, ia adin berekoak ziren, itxuraz ere ez oso desberdinak, ilea, bibotea... Gerran egon zen Walt Disney bera ere: esaten da agiriak faltsutu behar izan zituela Disneyk 17 urte beteta zituela adierazteko, hori baitzen gutxieneko adina armadan sartzeko. Anbulantziak gidatu zituen Frantzian eta marrazkiak egiten zituen anbulantzien olanetan, gurutze gorriaren ondoan. Argazki bat ere badago ordukoa... Baliteke hori ere faltsua izatea, 17 urteko agiria bezala. 16 urterekin joan zen, beraz, Walt Disney gerrara, ume gehiago ere egon zen.

Gazterik hasi zen William Faulkner lanean, mota guztietako lanak, postetxekoa ezagunena beharbada, Mississipiko Unibertsitateko bulegoan. Unibertsitateko irakasle batek salatu egin zuen, ordea: esan zuen Faulknerrek ez zituela eskutitzak banatzen, zakarrontzira botatzen zituela bulegora heldu eta segituan. Irakasleren batek korrespondentzia hartu nahi bazuen, postetxera joan eta Faulknerren paperontzian aztarri-

katu behar zuela esaten zen, ehunka gutunen artean. Izan ere, Faulknerrek irakurtzen ematen zuen denbora han ere, ez zien kasurik egiten bulegoan sartzen zirenei, ez zituen atenditzen... Pentsatzen zuen, benetan sinesten zuen, ez zutela eskubiderik berari enbarazu egiteko irakurtzen ari zenean.

Postetxetik bota zuten noski. Energia elektrikoko instalazio batean hasi zen gero, aitak lortu zion lana. Galdaretako bat zaindu behar zuen, lan handiegia ere ez, tarte luzeak zituen libre. Han barruan idatzi zuen *Hilzorian nagoen bitartean*, *As I Lay Dying*. Dinamoa zarataka ari zen etengabe, kontzentraziorako ahalmen handia Faulknerrek. Sei astetan idatzi zuela liburua, hori esan zuen... Irene Arriasek ez zuen sinesten.

Sigmund Freud irakurrita zeukan galdetu zioten Faulknerri behin, elkarrizketa batean. Ezetz erantzun zuen, ez zuela Freuden lerro bat bera ere irakurri, baina Shakespearek ere ez zuela egin, litekeena zela Herman Melvillek ere Freud irakurri ez izana eta seguru zegoela Moby Dickek sekula ez zuela haren liburu bat zabaldu. Hori zen William Faulkner: bat-bateko erantzuna dirudi, ez da. Haren liburuek ere bat-batekoak ematen dute, eta idazleak berak loditu zuen teoria hori, sei astetan idatzi zuela *Hilzorian nagoen bitar-*

tean, idazketa automatikoa, *automatic writing*. William Faulknerren datu faltsuei begira bizi izan zen Irene aldikada batez.

Gauza da faltsifikazio asko egin zituela Faulknerrek bizi zela. Lehen Mundu Gerra hasi zenean, izena eman zuen armadan, baina ez zituen agiriak faltsutu behar izan orduan, Walt Disneyk bezala: ordurako hogei urte zituen, hogeita bat egiteko, adinik egokiena armadarako. Abiazioan nahi zuen, ordea, gerra-pilotu nahi zuen. Baina Estatu Batuetako abiazioan ez zuten onartu, ez zeukalako ikasketarik. Orduan hasi zen gauzak faltsutzen: Kanadara joan zen, Britainia Handiko Royal Flying Corpsen eman zuen izena. Han ere ez zuten nahi, ez zeukan altuera minimoa; txikia Faulkner, argazkietan bestelako irudia eman arren. Esaten dute biografoek mehatxu egin ziela orduan Kanadako Armadakoei: alemaniarren alde egingo zuela gerra han onartzen ez bazuten. Esan zien Europara seguru joango zela, alde batera edo bestera... Ipar Amerikan ez zegoen gerrarik orduan ere.

Onartu egin zuten azkenean Kanadako Royal Flying Corpsen, baina pilotu izateko trebakuntza osoa egin baino lehen amaitu zen gerra, Europara joan aurretik. Hegazkinak zaindu zituen Faulknerrek batez

ere, konpondu, garbitu, Amerikan bertan. Etxera itzuli zenean, hala ere, Gerra Handiko bataila batean baino gehiagotan egon zela uste izan zuten herrikoek, ingurukoek, urte askoan. Faulknerrek berak loditu zuen teoria hori ere: herren egiten zuen. Europan zauritu zutela, hori pentsatzen zuten batzuek, hogeita bat urterekin. Hogeita laurekin irakurri zuen Irene Arriasek *As I Lay Dying*, ingelesez, Faulknerrek idatzi eta 65 urtera, errefuxiatu hutuak etengabe gaixotzen ari ziren bitartean.

Irene Arrias izekoren etxera bidali zuen amak 1980ko apirilean. Egun batzuk egin behar zituen han, izekorekin, osabarekin, lehengusinekin, Villamonten, etxetik hurbil, baina ez horren hurbil ume batentzat. Beste ume batzuekin ibili behar zuen kalean, beste kale batzuk... Egun on asko egon zen 1980ko apirilean, 20 gradutik gorakoak ere bai, eta ordu asko egin zuen Irene Arriasek kalean, beste lagun batzuekin, beste jolas batzuk.

Apur bat markatuta zegoen Irene Arrias Villamonteko umeentzat, ez zelako hangoa, goragokoa zen, Telletxekoa, tren-geltokikoa. Kontra egiten zioten

apur bat, zozketetan, jolasetan; pozten ziren beste batek irabazten zuenean, gogor egiten zioten kanpokoa izateagatik, baina ez gehiegi ere, eroso egoten zen oro har. Ez zioten barre egiten, hori inoiz ez, nahiko modu arinean egiten zioten kontra... Irene Arriasen izateko modua ere ez zen erraz-erraza orduan ere; berehala hurbiltzen zen besteengana, hori bai, ezezagunak izan arren, nagusiagoak izan arren, ez zuen arazorik... Taldeetan sartzen zen, taldeetara egiten zen, baina ez zuen taldeak esaten zuen guztia sinesten, ez zuen taldearena egiten. Ideiak argi orduan ere, nortasuna zurruna beharbada, umearena, Telletxeko umearena.

Apirilaren 11n Villamonteko kaleetatik atera ziren Irene Arrias eta beste hiru ume. Ez ziren handik askotan irteten, baina egun horretan Algortako goiko parterantz egin zuten, tren-geltokirantz. Ireneren etxe ondotik pasatu ziren halako batean, Juan Bautista Zabala kaletik sartu ziren gero, «Juan Bautista Zavala» oraindik beharbada. 500.000 pezeta baino gehiago utzi zituen Juan Bautista Zavala e Icazak herriarentzat, arazoak zituzten emakumeentzat, umeak eskolatzeko. Izen bereko eskola egin zuten bertan, eta hori da

gero erre zuten lehena, ez dagoen arren oso argi zergatik, Algorta erdi-erdian dagoelako beharbada.

Zabala kaletik sartu ziren, beraz, lau umeak, Irene Arrias eta beste hirurak, mutil bakarra, bederatzi urtekoak gehienak baina hamar urteko neska bat. Kalea ez da luzeegia ere, estua, eta makinekin jolasteko areto bat zeukan bazter batean, bideo-jokoak, billarrak; sinpleak bideo-jokoak 1980an, beteta beti hala ere, Gaspar hango gizona. Eskola aurrean jarri zuen Gasparrek negozioa noski... Juan Bautista Zavala e Icazak ez zuen pentsatuko, zenbat ordu umeak han, tabako usaina. Garaje itxura zeukan makina-gelak, atea ere garaje batzuena bezala zabaltzen zen, tailer batzuena bezala, ez zeukan leihorik. Askotan hondatzen ziren bideo-jokoak 1980an.

Irene Arrias eta besteak ez ziren Villamontetik igo hara sartzeko, tabakoa, bideo-jokoak, baina sartu egin ziren. Guztiak ez: hiru sartu ziren, kanpoan geratu zen Irene. Eskumako oin-zola eta ezkerreko sorbalda jarri zituen atearen kontra, aurrera begira, kanpoan. Denbora asko egin zuen itxaroten, ez zuen besterik egin, pentsatzen aritu zen: ez zela Villamontetik atera hara sartzeko, beste leku batera joan behar zutela, gero eta denbora gutxiago zeukatela. Iluntzen ari zen, ez

zuen ulertzen zergatik ez ziren lagunak irteten, ez zekien bideo-jokoetan jolasten ari ziren ala ikusten baino ez. Denbora guztian aritu zen pentsatzen ez zirela Villamontetik horretarako igo.

Luze egin zitzaion Irene Arriasi, asko pentsatzeko astia izan zuen, iruditu zitzaion denbora gehiegi egin zuela itxaroten. Atera ziren lagunak azkenean, ez zioten kontatu jolasten aritu ziren ala ikusten... Iluntzen ari zen baina nahikoa zen argia oraindik. Berehala heldu ziren kalearen amaierara. Bi lekutatik sar zitekeen etxe abandonatura: Juan Bautista Zabalatik edo ondoko kaletik, errepide ondokotik, Avenida del Ejércitotik. Urte hartan bertan aldatu zioten kaleari izena, 1980an, baina Begoña Sasietak hamarkada bat baino gehiago jarraitu zuen Avenida del Ejército esaten, 1992ra arte.

Etxe abandonatuak inskripzioa ate nagusian, guztiek bezala, *Villa América*, askok bezala. Izenetan ere topikoak, palmondo bat lorategian, zuhaitz gehiago, palmondo bat baino gehiago beharbada. Etxea inguratzen zuen harresiak kristal zatiak zituen goiko partean, ebakiak egiteko moduan, kontuz ibili behar zuten Irenek eta besteek, bazekiten nondik zen errazago.

Etxeak hiru solairu, behekoa eta beste bi; askotan igotzen ziren goikoetara. Egurrezkoak eskailerak, zulo handiak zituzten, ustelduta egurra, beheko zorua ikusten zen eskaileretako zuloetatik. Askotan hausten ziren egur zatiak umeak igotzen zirenean, eta beheraino jausi. Kontuz ibiltzen ziren gehienetan, ez beti... Hori da umeen burua, horiek dira umeen burmuinaren koordenatuak, ezin direla hil, eskaileretako zuloak euren gorputzak baino handiagoak izan arren, lau metro baino gehiago egon arren eskaileretatik beheko solairura. Korrika igotzen ziren batzuetan, borrokan, zauriak egiten zituzten, odola uzten zuten etxearen egurrean, baina ezin ziren hil.

Apirilaren 11 hartan ere goiko solairuetara igo ziren Irene eta besteak, askotan egiten zuten. Lehenengo solairuan mutil batzuk zeuden, harritu egin ziren, inoiz ez zuten etxe barruan inor ikusi. Tupustean topatu zituzten: hiru izan zitezkeen, gehiago ere bai, Irene baino nagusiagoak, ez asko. Zer egin behar zuten ez zekitela geratu ziren hasieran, batzuk eta besteak, ez zuten etxe barruan inor espero, baina berehala hasi ziren mutilak hitz egiten, seinale ona. Batek esan zuen katu batzuk topatu zituztela, Irene eta besteak ikustera eraman zituen.

Harlauza apurtu asko zegoen gelako bazter batean, muino txiki bat. Harlauzen artean, gainean, azpian, oihal zatiak, izarak, errezelak. Oihal artean zeuden katuak: kumeak, jaioberriak. Mutilek esan zuten ez zeukatela amarik, ez zuten katuen ama ikusi. Abandonatu egin zituela amak, etxe hartara eraman zituela abandonatzera, leku ona zela kumeak abandonatzeko, hori erabaki zuten mutilek. Irenek ez zituen katuak ukitu, beste guztiek bai, txandaka. Mutiletako batek esan zuen ama barik hil egingo zirela kume guztiak, apurka-apurka, asko sufrituko zutela. Erabaki zuten halako batean ezin zituztela bizirik utzi, sufritzen, hil behar zituztela kume guztiak, ez sufritzeko, sufritzen ez jarraitzeko, hurrengo orduetan, hurrengo egunetan.

Behera jaitsi ziren Irene Arrias eta besteak, mutilen bat ere bai, lorategira. Sasia ia guztia, harri apurtu asko. Harrizko zorua osorik zegoen zati batzuetan, etxe inguruan batez ere, itaxuraren azpian. Mutil nagusietako bi balkoira atera ziren orduan, lorategitik ikusi zituzten Irenek eta besteek. Katuak lepotik hartu eta balkoitik behera bota zituzten, banaka, harrizko zoruaren kontra, ahal izan zuten indar handienarekin. Katuetako bat ez zen lehen kolpean hil, odoletan ze-

goen baina bizirik, pauso minimoak ematen zituen, sabela ere gora eta behera nekez, ilea tentetu egiten zen saihets inguruan, arnasaren estuagatik beharbada, odolarengatik beharbada. Berriro igo zuten balkoira, berriro bota zuten harrizko zoruaren kontra.

99 egun geroago inauguratu ziren Olinpiar Jokoak Moskun, uztailaren 19an. Han ere jarraitu zuen biolentziak, Estatu Batuetako Gobernuak boikota eginarazi zien euren kirolariei, Gerra Hotza noski, eta munduko beste kirolari askori ere bai. Gobernu askok jarraitu zion Estatu Batuetako administrazioari, men egin zion, berrogeita hamar batek. Interes ekonomikoak, interes belikoak ere bai beharbada, gauza bera ez bazen. Atleta asko geratu zen Olinpiar Jokorik gabe, aurrekoetan gazteegiak zirelako, Munich, Montreal; hurrengoetan, Los Angeles, Seul, sasoia galduta zutelako, lesionatuta zeudelako.

Hogeita hamar urte geroago hitz egin zuen Irene Arriasek Olinpiar Joko haietaz lagun errusiar batekin, Olga Kulaginarekin, Olga Txeshkova ezkondu aurretik. Matematikaria, Moskuko burtsako langilea, Irene bera baino nagusiagoa Olga. 1980rako lizentziatuta zegoen, ondo gogoratzen zituen Olinpiadako egun haiek. Esan zion Ireneri Moskun bizi ziren guztiek egin behar

izan zutela lan Olinpiadetarako aurreko hilabeteetan, guztiek, eraikinak egiten aritu zirela. Olga bera, Matematikan lizentziatua ordurako, hotel erraldoi bat egiten aritu zen, adreilua, porlana.

Orduko Moskun bizi zirenei, ordea, gauza bat jakitea interesatzen zitzaien beste guztiaren gainetik: zalantza egiten zuten, ez zuten ulertzen agintariek zer emango zieten jaten kanpotik etorritako jendeari, atletei, entrenatzaileei, kazetariei. Olga Kulaginak zioen orduko Moskun patatak baino ez zirela jaten, ez zegoela besterik. Geroago jakin zuten Finlandiara joan zirela agintariak, jateko gauza exotikoak erosi zituztela, Coca-Colak ere bai. Gehiena kirolarientzat, kanpotarren hoteletarako, estadioetarako: denda arruntetara ere heldu zen zati minimo bat, ikaragarri garesti, artean Coca-Cola botila bat ikusi gabeak ziren errusiarrak. Lagun batek anana bat ere oparitu zion Olgari egun haietan, auskalo nondik atera zuen. Lankide guztien artean jan zuten, gauez.

Olga Kulaginak azken gauza bat kontatu zion Ireneri Olinpiada haietaz: esan zion kirolariak gerrako heroiak bezala tratatu zituztela aldikada batez, dominak irabazi zituztenak noski, betiko moduan, armadan, goi karguetan, olinpiadetan, baina ahaztu egin zi-

tuztela gero berehala, soldadu mailatuak, ume mailatuak, miserian hil zela asko, alkoholizatuta.

Urte hartan bertan, Irene Arriasek 9 urte egin eta astebetera, otsailaren 1ean, ETAko talde batek guardia zibilen konboi bati egin zion eraso, tiroka eta granadekin, segada egin zion Ispasterren, Lekeitioko errepidean dio orduko prentsak. Armaz betetako ibilgailu bat ari ziren eskoltatzen, hondartzara bidean, armak probatzera. ETAko kide bi hil ziren, guardia zibil guztiak, seiak. Horrela sartu zen Ispaster izena haien munduan, haien familiakoen munduan, Marina Zabalarenean Gurugú sartu zen bezala, marokoarrak, musulmanak, beste kultura bat, inguruari erreparatzeko beste modu bat, Ispaster. Yemenen entrenatu ziren urte hartan ere ETAko berrogeita hamar bat kide; beste kultura bat, beste mundu bat, palestinarren FPLPk lagunduta. «Berun-urteak» izena hartu zuten ordukoek, atentatu asko egon zen, bi aldekoak, hildakoak ere inoiz baino gehiago beharbada, Irene Arriasek lehen jaunartzea egin zuen.

Azken urteko katekesia San Nicolás elizako parrokia-etxean hartu zuen Irene Arriasek. Katekistek ez zekiten euskara baturik, existitzen zenik ere ez beharbada. Eskertu egiten zuten umeek, iruditzen zitzaien

horrek bereizten zituela ikastola eta katekesia. Jaungoikoari, apostoluei, goiaingeruei bizkaieraz eginarazten zieten, apostrofeekin, azentu-markekin r letren gainean.

San Nicolás elizako abadeak bizi ziren parrokia-etxean: don Jesús, don Martín, don José Miguel. Askotan joan zen don José Miguel Irene Arriasen etxera 1980an, Abel Arrias bisitatzera. Baina beste abade bat ere bizi zen parrokia-etxean: don Juan. Don Juan Gorostiaga Bilbao, Filosofian eta Teologian doktorea, Pariseko Hizkuntzalaritza Elkarteko kidea, Euskaltzaindikoa, Etimologian aditua, Eskritura Santuetan ere bai. Resurreccion Maria de Azkueren hiztegiari sarreretako bat egin zion, Babiloniako literatur antologia bat idatzi zuen 30 urte bete barik, hainbat liburu argitaratu zuen, linguistikakoak gehienak, historiakoak. Irene Arrias bataiatu zuen 1971n.

Lehen jaunartzea baino aste batzuk lehenago katekesi lekua aldatu zuten, parrokia-etxetik Portu Zaharreko mojen ikastetxera. Don José Miguel bera joaten zitzaien batzuetan umeei, don Jesús ere bai. Antzeztu egiten zuten jaunartze eguna apaizekin. Hamaiketan hasten zen katekesia, zapatuetan, askozaz lehenago joaten ziren umeak. Mojen ikastetxe ingu-

ruan ibiltzen ziren, ondoko bedartzara igotzen ziren euria egin arren. Aldizkari pornografiko batzuk topatu zituzten han, katekesia hasi baino apur bat lehenago. Beste ezeri ez bezala begiratu zieten argazkiei, faloak, titiburuak, hankarte irekiak, euriak bustita bazeuden ere, guztiz zimurtuta. Irene Arrias izan zen katekesira heltzen azkena, besteak baino denbora apur bat gehiago egin zuen aldizkariekin. Maiatzaren 20an egin zuten gehienek lehen jaunartzea.

Hiru egun lehenago egin zuen Sendero Luminosok lehen atentatua Perun, Chuschi herrian, ez zen hildakorik egon. Urte bereko abenduan, ordea, 24an, data ere ez da kasualitatea, etxalde batera sartu, jabea kolpeka hartu, belarriak ebaki eta hil egin zuten. Egun bi geroago txakur hilak zintzilikatu zituzten zutoinetatik Limako hirigunean. Poliziak pentsatu zuen dinamita zeukatela txakurrek tripetan, baina kartelak baino ez zeuden: *Deng Xiao Ping, Hijo de perra*. Santiago Roncagliolo idazleak dio bere bizitzako lehen oroitzapenetako bat dela txakur eskegiena, bost urte bete berriekin.

Irene Arriasek denbora luzean erabili zituen buruan etxe abandonatuko katuak, odola, ileak likistuta, arnasa. Hurrengo egunean, esaterako, apirilaren

12an, ohean begiak ireki eta gogoratu zuen lehenengo gauza izan zen lehen kolpean hil ez zitzaien katua, nola hartu zuen mutilak lepotik berriro botatzeko, nola zikindu zuen eskua.

Egun horretan bertan jo zuen estatu-kolpea Samuel Doek Liberian, baina hamar urte geroago harrapatu zuten matxinoek, 1990ean. Kolpatu egin zuten, torturatu, belarriak ebaki eta hil. Une horietako grabazio bat ere badago, eta interneten ikusi zuen Irene Arriasek urte batzuk geroago. Bideo zatiak daude, inoiz ez osorik, galdeketa luzea izan zen.

Zati batzuetan ahots arruntez hitz egiten du Samuel Doek, arrazoiak ematen ditu, ematen du prestatuta daukala zer esan nahi duen... Beste batzuetan, baina, behera begira dago, biluzik, ahots motela, belarrien lekuan odol-bide batzuk, tantaka odola masailetatik, sorbaldetatik. Militar batzuk ditu atzean, batek aiztoa du eskuan, odolez noski. Igartzen da indarrak ahitzen ari zaizkiola Samuel Doe presidenteari: nekez hitz egiten du, ura botatzen diote soldaduek burutik behera lantzean behin, apur bat suspertzeko. Itsasoko ura dela ematen du, txalupa baten ondoan daude... Izan ere, ez da ur garbia, ugerra ere ez baina ez guztiz gardena; zikinkeriak ditu, belar zuri moduko bat

geratu zaio Samuel Doeri betileetatik zintzilik, eskumako begian. Idatzita dago minutu gutxi barru hilko dutela eta grabazioa etengabe ikusi zutela Monrovian eta Liberia osoan urte hartan.

Hiru astegarrenera itzuli zen Irene Arrias izekorenetik etxera, maiatzean. Amak ez zion gauza handirik esan, oso isilik egon zen, gauzaren bat egiten beti, sukaldean, bainugelan. Etxea apur bat desberdina iruditu zitzaion Ireneri hainbeste egun eta gero. Aita ez zegoen ohean, ez zegoen sofan. Iruditu zitzaion apur bat mugituta zegoela sofa, leihotik hurrago, hormatik milimetro batzuk bananduta. Sofa horretan eserita eskatzen zion aitak Ireneri tabako bila joateko, dirua ere sofaren goiko partean uzten zion. Alabak dirua hartu eta tabakoa erostera joaten zen noski, amaren gordean, Morrongo tabernara, tren-geltokiko kantinara batzuetan, medikuak ez erretzeko agindu zion arren. Irenek bazekien aitak ezin zuela erre, ama ez zegoenetan eskatzen zion aitak tabakoa. Beti joaten zen Irene.

Izekoren etxetik itzuli zenean, ia inoiz erabiltzen ez zituen zapata batzuk janzteko esan zion amak Ireneri. Aitaren hileta-elizkizunera joan ziren gero, izekorekin, lehengusinetako batekin. Don José Miguelek

esan zuen meza, eta aldarearen ondoan, eskuman, don Juan Gorostiaga zegoen jesarrita, besaulki granate batean.

Irene Arrias behin joan zen aitarekin zinemara, behin baino ez, bost urterekin, 1976an, bost urte bete eta hurrengo udazkenean. Algortako Gran Cinemaren aurreko zabalgunean sasiak, ate handi bat ere bai, pelikulak iragartzeko panela, ugertuta bazterretan. *Marcelino, pan y vino* pantailan, László Vajda hungariarrarena. Protagonistak sei urte zituen pelikula filmatu zutenean, Irene Arriasek baino hilabete batzuk gehiago. Umetan baino ez zen aktore izan, ingeniaritza ikasi zuen gero, esaten da alderdi komunistakoa izan zela. Pelikulak ez zuen hainbeste markatu beraz, Jesukristorekin hitz egiten egon zen arren, ogia eman zion arren eskura.

Irenek eskorpioiak gogoratzen zituen pelikula hartatik beste edozer baino gehiago; «alacrán» esaten zuten pelikulan umeak eta fraideek. Joseba Sarrionandiak «arrubio» esan zien eskorpioiei poema batean, eta bere lagun hilak aipatu zituen, eta ur zikineko bainuontzietan behin eta berriro ito zituztenak, aurretik

itotakoen ileak, gonbitoak eta zigarrokinak ur-azalean. Samuel Doeren sufrimendu bera, baina kameraz grabatu gabe.

Irene Arriasek uste zuen basamortuan bizi zela Jesukristori ogia ematen zion pelikulako ume hura: eskorpioiak, alakranak, arrubioak. Baina Gaztela zela jakin zuen gero, pelikularen zuri-beltzean nabaritu ezin zen arren. Eskorpioiak beltzak ziren, distiratsuak ia, harea zuria. Ziztada bakarrarekin hiltzen zuten pertsona, buztanean pozoia, buztana gorantz bildua, arinak, uste baino arinagoak. Pelikula ikusi eta lau urte eskas geroago hil zen Abel Arrias.

Pelikula Algortan eman zuten urte bereko apirilean, Fronte Polisarioak saharararrentzat aldarrikatutako independentzia onetsi zuen Ruandako Gobernuak, hutu etniakoa orduan. 20 urte geroago hutu horiek eurak zeuden saharararren egoera berean, errefuxiatuentzako kanpamentuetan, Goman, Ineran, Kashushan. RFPko militar tutsiak Ruandan sartu eta berehala, hutu askok egin zuen alde, milaka. *Interahamwe* milizietan ibilitakoak ziren asko, hiltzen ibili zirenak, baina umeak ere bai, gehiago beharbada. Milaka hil zituzten bideetatik, umeak ere bai. Edouard Kabagemak kontatzen du etengabe ikusten zituztela hildako-

ak bideetan, kanpamentu batetik bestera joaten zirenean, eta usainaren arabera zekitela hildako berriak ala zaharrak ziren.

Kontatzen du baso txiki baten ondotik pasatu ziren batean, hildako berrien usaina sumatu zuela. Zuhaitzetara hurreratu eta prakak apur bat jaitsi zituen... Militarrek txiza egiten ari zela pentsatzea nahi zuen, txarto tratatzen zituzten begiratzera hurreratzen zirenak. Lau hildako ikusi zituen... Gizonezko batek bala bat zeukan bularrean, ondo jantzita gizona, betaurrekoak eta bibote txiki bat, intelektuala behar zuela ondorioztatu zuen Edouard Kabagemak. Emakumezko bat zeukan ondoan, ondo jantzita hura ere, eta ume bi, bikotearen semeak ia seguru. Eskuak atzean lotuta zituzten guraso biek. Kanpotik ikusita, inpresioa da Samuel Doek ez zuela familia horrek baino askozaz gehiago sufritu, Gaddafik berak ere ez, NBEk ikerketa eskatu arren.

Marie-Béatrice Umutesik kontatzen du aita errefuxiatu batek aste gutxiko umea abandonatu zuela bidean emaztea hil zitzaionean eta urte biko semearekin jarraitu zuela kanpamentuetarantz. Ezin zituen biak eraman, txikiak bularra behar zuen. Beste ama baten bularra izango zuen buruan aita hark segurue-

na. Ondo troxatuta utzi zuen umea, epeletan, pertsona asko hil zituen hotzak.

Umutesik kontatzen du askotan banatzen zirela familia ruandarrak orduan Zaireko kanpamentuetan, erbeste horretan, militar asko zituztelako beti atzetik, RFPkoak, Zaireko Armadakoak, matxino banyamulengeak, ihesi ibili behar izaten zutela beti, korrika beti. Errefuxiatuak Ruandara bidali nahi zituzten militarrek, itzularazi nahi zituzten, ez zituzten Zairen nahi. Baina hil ere egiten zituzten batzuetan bidean, kanpamentuetan, itzularaztea konplikatua zenean, arriskua ikusten zutenean. Hondatuta zeuden kanpamentu asko beraz, gehienak beharbada, militarrek hondatuta. Eta errefuxiatu talde batek pentsatu zuen kanpamentu berri bat antolatu behar zutela, baina baso batean, baso sarri batean. Ahalegina ere egin zuten, ezin: jatekoa falta, botikak, sua. Handik irtetea erabaki zuten orduan, baina bidera heltzen ziren bakoitzean, basoaren mugara, hildakoak topatzen zituzten baso inguruko bidean, hildakoen hesi bat, hildakoen sare bat, gorpu bat bestearen gainean, hutuak usteltzen, soldaduek hilda. Beldurtu egiten ziren, hildakoen sarearen kontra egiten zuten talka, atzera egiten zuten beti, ba-

sora. Usteltzen ari ziren lagun asko ikusi zuten errefuxiatu hutuek orduan.

Urtebete geroago, Irene Arriasek sei urte bete eta ia hilabetera, 1977ko otsailean, lehenengoz joan zen aitarekin eta aitaren lagunekin tabernetara, erronda egitera Algortatik, Hormaza, Boga-boga, Aldatza. Irenek mustioa edaten zuen, Coca-Colarik ez, ume bakarra zen. Tabernek ez zioten nazkarik ematen aitarekin joaten zenean, makinetan ere sartzen zituzten txanponak batzuetan. Aspertu egiten zen Irene, ez zitzaion tabernetan egotea gustatzen, baina aitarekin joan nahi izaten zuen.

Otsail horretan bertan prestatu zuten ERPkoek Argentinan Jorge Rafael Videla diktadorearen kontrako atentatuetako bat. Lehergailu bi jarri zituzten aireportuko pistan, pista azpian, Carrero Blancorenean bezala. Txikia komandoaren ideia bera, sofistikatuagoa beharbada. Izan liteke argentinarrek kontuan hartzea Carrero Blancorena: ERPko fundatzaileen artean Enrique Gorriarán eta Benito Urteaga zeuden, jatorri euskaldunekoak, Mario Roberto Santucho ere bai. Lehenengo lehergailuak ez zuen eztanda egin; bigarrenak bai, baina hegazkina airean zegoenean, urrun. Planifikatuta zegoena baino lehenago atera zen.

Desagertu asko egon zen Argentinan Videlaren garaian, ezaguna da, helikopteroetatik, hegazkinetatik botatzen zituzten gorpuak, gorpu izan baino lehen ere bai beharbada, Río de la Plata, injekzioez ere hitz egin da. Kamioietara sartu baino segundo batzuk lehenago jartzen zituzten injekzioak, kamioian hiltzen ziren, errazago eramaten zituzten pertsonak horrela hegazkinetara ESMAtik, *Escuela de Mecánica de la Armada*. Izenak ere hartu ditu esanahi berriak: *mecánica*, *escuela de*. Han egiten zituzten galdeketak, mota guztietako galdeketak, fisikoak ere bai.

Uruguaiko itsasbazterrean agertu ziren gorpu batzuk ezustean gero. Floreal Avellanedak, esate baterako, lotuta zeuzkan eskuak eta oinak, urratuak uzkian, hala azaldu zuen Rodolfo Walshek. Videlak berak lotsarik gabe hitz egin zuen horri buruz 2001ean: *No, no se podía fusilar*, esan zuen, argentinarrek ez zituztelako erraz irentsiko fusilatuak, egunero fusilatuak, lau, hamar, hiru... 30.000ra heldu arte. *Había que desaparecerlos*, frantziarren irakaspena, *es lo que nos enseñaban los manuales de represión, en Argelia, en Vietnam*. Zalantzak ere izan zituztela aitortu zuen Videlak, hildakoen zerrendak argitaratzeko egon zirela. Atzera egin zuten azkenean: *Si se dan por muertos, ensegui-*

da vienen las preguntas que no se pueden responder: quién mató, dónde, cómo.

Urte bereko apirilaren 30ean bildu ziren lehenengoz Buenos Aireseko Plaza de Mayon desagertuen amak, Irene Arriasek inoizko sukarrik altuena izan zuen arratsaldean, 42 ºC. Nabarmen larritu zen Begoña Sasieta, medikuari etxera etortzeko eskatu zion. Eztarria baino ez, hori esan zuen José Raluy medikuak.

Urte bereko abenduaren 10ean desagerrarazi zuen junta militarrak Plaza de Mayoko lehen ama, Azucena Villaflor, apur bat lehenago semea desagerrarazi zuen bezala. ESMAn torturatu zuten, semea bezala beharbada, *Escuela de Mecánica de la Armada* berriro, itsasora botatzeko gero hegazkin batetik. Santa Teresita inguruan agertu zen hainbat gorpu sasoi hartan, hondartzak, bainuetxea, golf zelaia.

Hurrengo urtekoak dira Irene Arrias aitarekin bakarrik agertzen duten lehenengo argazkiak, zuri-beltzean. Usategin daude, esku bietatik dauka helduta aitak alaba. Kanoi-bateria jarri zuten Usategin XVII. mendean, frantziarren barkuak sartuko zirela uste zutelako, horren beldur ziren. 1898an Gerra Ministerioaren esku geratu zen Algortako Usategi; Estatu Batuen kontrako gerran ari zen orduan Espainia, eta kanoi

berri bi jarri zituzten Usategiko baterian, handiak, handiegiak. Gutxitan erabili ziren, lar handiak etxeen ondoan egoteko, kristal guztiak apurtzen zituzten. Galeara eraman zituzten azkenean... Gerra ez zenetan, San Nicolás eliza atarian gordetzen ziren.

Usategitik Jeneratxura jaitsi ziren aita-alabak, hangoak dira hurrengo argazkiak. Ondo jantzita biak: aita beti bezala, alaba normalean baino hobeto. Futbol mundiala jokatzen ari zen Argentinan une hartan, gero eta desagertu gehiago, hegaldiak Río de la Platan. Argentinako selekzioak berak irabazi zuen mundiala, Passarellak altxatu zuen kopa. Víctor Basterra presoak argazki batzuk egitea lortu zuen ESMA barruan, ezkutuan atera zituen gero. Irene Arrias eta aitaren azken argazkiak María Cristina parkean egin zituzten.

Urte bereko abenduan hil zuten Angelun Jose Miguel Beñaran Ordeñana *Argala*, ETAko arduradun nagusietako bat. Auto azpian eztandarazi zioten lehergailua, Carrerori bezala. Esan izan da identifikazio hori bilatzen ari zirela seguruena, egun horretan bertan betetzen baitziren bost urte Txikia komandoak almirantea hil zuenetik, eta Argala zen komando hartako bat. Triple Ak hartu zuen bere gain atentatua ondoko

egunetan, edo Batallón Vasco Españolek, ez dago argi, berdin dio, ez dio berdin, mertzenarioak, poliziak, funtzionarioak, ez du ematen gauza merkea izan zenik.

Hurrengo urtean tirokatu zuen halako beste talde batek, talde berberak beharbada, Jose Manuel Pagoaga *Peixoto*, Angelutik ez hain urrun ere, Donibane Lohizunen. Larri zauritu zuten, ia itsu geratu zen, 1979ko urtarrilaren 13an, Irene Arriasen zortzigarren urtebetetzea baino 12 egun lehenago. Jose Manuel Pagoaga izan zen sei urte lehenago Eustakio Mendizabal *Txikia*rekin hitzordua zeukana Algortako tren-geltokian, Irene Arriasen etxetik hamalau metro eskasera, hil zuten egunean.

Bada interneten bideo bat, Irene Arriasek bulegoan ikusten hasi eta etxean amaitu zuena, Eustakio Mendizabal *Txikia*ren egun hartako Algortako ibilbidea berregiten duena. Pertsona batek, kamera eskuan, Txikiak ibili zuen guztia berregin zuen 2011n. Bertsio bat da noski, Algortako kaleak ez daude berdin: etxe berriak, belar gutxiago, trena bera ere ez dago, metroa da 2011n. Bideoaren arabera, Txikiak ez zuen mendirantz egin, Berango alderantz. Kontrakoa ere bai: Telletxera sartu zen, kale artera, jende artera.

Irene Arriasen etxe ondo-ondotik pasatu behar izan zuen bertsio hori egia balitz, etxe atari aurretik. Urte bi zituen Irenek orduan, kalean egon zitekeen, bazkaltzen eguerdia bazen, lo ere bai.

Trenbideko barreretaraino joan zen Txikia Telletxetik gero, Salsidutik jaitsi zen, Villamonteko atzeko partetik joatea erabaki zuen, Arenetik, orain Guardia Zibilaren koartela dagoen kaletik. Bueltaka ari zen, konturatu gabe... Bideoak dio ikastolatik hurbilen dagoen aldatsetik jaitsi zela gero, baina Irene Arriasen lehengusuaren arabera ez zen horrela izan, bertsio hori hor okertzen dela, eurek ikusi zituztela poliziak korrika eta askozaz lehenago jaitsi zirela: San Martín elizako aldatsetik. Eliza egiten ari ziren orduan, garabiak, porlan-zakuak... Kontatzen du Irene Arriasen lehengusuak leherketa bat entzun zutela lehenengo, leherketa moduko bat, eta berehala ikusi zituztela poliziak gero, talde bat. Ile luzeekin poliziak, arraro egin zitzaien, kaleko jantzita. Auzoko andre batek kontatzen du gazte bat ikusi zuela apur bat lehenago korrika, aldats behera zihoala, ahotsa larrituta, *Apártese, señora, que me matan*.

Jose Manuel Pagoaga *Peixoto*, egun hartan Txikiarekin Algortan elkartu behar zuena, Donibane Lohizu-

nen tirokatu eta urtebetera hil zen Abel Arrias, Irene Arriasen aita. Txarto eta arin tratatu zuen minbiziak. Botikak Belgikatik ekarri behar izaten zizkioten.

Hamar urte zituen Irene Arriasek 1981ean, gorputzak ere eman zizkion lehen nahigabeak. Urtebete zuen aita gabe, tabako bila joan gabe, aitaren kea usaintzen zuen oraindik etxeko hainbat tokitan, sofan, sukaldean, piparena askotan. Etxera eraman zuen aitaren pipa Irene Arriasek ezkondu zenean, bizarra egiteko brotxa ere bai.

Antonio Tejerok eta besteek estatu-kolpea saiatu zuten urte hartan, Irenek berak ere ikusi zuen grabazioa 10 urterekin. Idatzi izan da kolpea jo zutenek 200 izeneko zerrenda zeukatela euskal herrietan fusilatzeko, ETAk José María Ryan bahitu eta hil zuen, Lemoizko zentral nuklearreko ingeniari nagusia, zentraleko lanak gelditu egin zituzten, Poliziak Joxe Arregi atxilotu, torturatu eta hil zuen. Juan Kruz Unzurrunzagak eta Bixente Ameztoi pintoreak atera zuten Joxe Arregiren hilkutxa hilobitik, gorpua hilkutxatik, arropak kendu zizkioten eta argazkiak egin. Torturatu egin zutela frogatu nahi zuten, torturek hil zutela. Gorputz-atal guz-

tiak mailatuta zituela ikusten da argazkietan, 1981eko otsailean.

Orduan gaixotu zen larri Irene Arriasen osabetako bat. Asteak egin zituzten familian esaten txarto zegoela, hiltzeko zegoela, egun batetik bestera hilko zela. Irene Arriasek asko estimatzen zuen osaba, beste inor baino gehiago beharbada familian, baina pentsamendu arraro bat izan zuen egun haietan, deserosoa, erdaraz, bere erdara estuan: *Si tiene que morirse, que se muera ya*. Ez zuen jakin nondik etorri zitzaion esaldi hori, askotan damutu zen gero. Ez zuen modu kontzientean egin noski; etorri egin zitzaion, aitaren faltak eragin zion beharbada. Gerra Zibilean egondakoa zen 1981eko apirilean hilurren zegoen osaba, osaben arteko bakarra gerran. Irene Arriasek ez daki nola libratu ziren besteak, adin berekoak ziren.

Francoren tropek Bilbo hartu zutenean, Asturiasera egin zuen osabak, beste askok ere bai, mendietara, ez zituen inork ikusi behar. Kobazuloetan egiten zuten lo, loreak jan zituzten, gosea eta hotza normalak baino askozaz handiagoak. Halako goiz batean esnatu eta hilda topatu zuen Irene Arriasen osabak bere ondoan lo egiten zuena. Erabaki zuten orduan nahiago zutela preso, ez zutela horrela hil nahi. Herrira jaitsi

ziren, bidetik jateko zerbait eskatu zuten etxe bakandu batean, berdin zien ordurako nork ikusten zituen. Etxeko andrea goitik behera izutu zen, ez zuen gorriekin ezer nahi, ezin zuen gorriekin ezer izan: elizak erretzen zituzten, fusilatu egiten zituzten abadeak, alkateak. Baina etxeko atea ixteko zegoenean, Ama Birjinaren domina ikusi zion osabari saman: *¿Dónde robaste eso?* Ez zuela lapurtu osabak, nola lapurtuko zuen halako gauza bat, amak jarri ziola umetan. Orduan aldatu zuen andreak, pentsatzeko ahalegin bat egin zuen, pentsatu zuen badirela beste errealitate batzuk, jatekoa eman zien, lo egiteko leku bat ere bai, biharamunean jaitsi ziren herrira, berehala atxilotu zituzten.

Zazpi urte egin zituen gero Irene Arriasen osabak gerran eta preso, arin esaten da, gerra hiru urte eskasekoa izan zenean. Kartzelan egon zen, lan-esparruetan, lanik gogorrenak. Beste leku askotan egon zen, baina kontatzen zuen bonbak desaktibatzen egin zuela denbora gehien: lehergailu asko geratu zen gerra ondoren, behar zen unean eztanda egin ez zutenak, pertsonen kontrako minak ere asko, desaktibatu behar ziren, edo eztandarazi. Horregatik bidaltzen zituzten presoak, eztanda egiten bazuen ere zer, alfe-

rreko ahoak ziren, *individuos superfluos*, Hannah Arendtek azaldu zuen.

Irene Arriasen osabak hurbiletik ezagutzen zituen armak, txikitatik beharbada, zorte hori izan zuen: arma-fabrika zeukan familiak Eibarren. Ondo moldatu zen lehergailuekin, bakar batek ere ez zion ondoan eztanda egin, ez zuen galdu gorputz-atalik, begirik, odolik. Metraila zati beltz bat zeukan ezkerreko belaunean, hori bai, berrogei urte geroago ere, 1981ean hil zenean, parkinson. Baina bonbak desaktibatzen ari zela libratu egin zen, zorte hori izan zuen. Etxera itzuli eta berehala ezkondu zen Irene Arriasen izekorekin.

Kontatzen zuen Irene Arriasen osabak etxe abandonatu batera bidali zutela sasoi hartan, lehertu gabeko bonba bat zegoela etxe barruan, bilatu behar zuela, desaktibatu gero. Etxea goitik behera miatu zuen, sukaldea, bainugela, logeletan armairu guztiak zabaldu zituen, kontu handiz, zazpi armairu guztira, apalak, soinekoren bat oraindik, liburu gutxi, zirrikitu asko etxeak, zoko asko, guztietan begiratu zuen. Edozein momentutan ukitu ahal zuen ukitu ezin zen gauzaren bat, edozein momentutan leher zitekeen zerbait.

Azken logelara sartu zen, ez zegoen armairurik, mahaia, ohea, hiru aulki. Mahaiak ez zeukan tiraderarik, apurtuta zegoen aulkietako bat. Oherantz egin zuen, behar baino kontu txikiagoz altxatu zuen koltxoia: pertsona baten hezurdura osoa ohe azpian, etzanda. Apur bat mugitu ziren hezurrak koltxoiaren mugimenduarekin, hezur txikiren bat, zarata minimoa egin zuten. Baten bat ezkutatu zen han gerran, ez zuen gero irteteko indarrik izan, han hil zen, han usteldu zen, kiratsarekin, *Ygazko asto illac, aurten lurruna,* dio 1596an bildu zuten esapide batek, *Iazko asto hilak, aurten lurruna*. Ruandan bezala, euskal herrietan bezala, edonon bezala.

1981ean parkinsonak hil baino aste batzuk lehenago oraindik gogoratzen zuen Irene Arriasen osabak hezurduraren posizioa, oraindik erakusten zuen belauneko metraila zatia. Urte berean hil zen Telesforo Monzon, Eustakio Mendizabal *Txikia*ri kantua idatzi ziona, hil zutenean, Algortan, 1973ko apirilaren 19an, Irene Arriasen etxe ataritik pasatu eta minutu batzuk geroago.

ATZERRIKO EGUNKARIETAN AURKITUTAKO HIRU NARRAZIO

Ilaretan

Jatekoa ekartzen didana kanpotarra da eta birritan baino ez nau jo. Eskertu egiten diot. Ostikoak eman zizkidan behin, uste baino gogorragoak, botak zituen... Eskumako eskuaz jo ninduen beste behin, eskua zabalik hasieran, ukabilarekin gero. Makurtu egin zen horretarako, eta inoiz ez dut horren hurbil eduki. Uste dut nazka apur bat ematen diodala.

Min fisikoa handiagoa da beharbada hankekin ematen dena eskuekin ematen dena baino. Hori da gure anaiek gaztetan izaten zuten eztabaida errepikatuenetako bat: non daukan pertsonak indar handiagoa, hanketan ala besoetan, zerekin eman daitekeen min handiagoa. Hori da burura etorri zitzaidana jaten ematen didana joka ari zitzaidanean.

Uste dut maila bi daudela horretan ere. Hankekin eragiten da min fisiko handiagoa, egia da hori, baina iruditzen zait okerragoa izan zela eskumako eskuaz jo ninduenean, makurtu behar izan zuelako, niregana hurbildu, nire gorputza ukitu, zikindu beharbada, eta nik seguru dakit nazka ematen diodana. Hori horrela bada, niregandik hain hurbil egon arte makurtu bazen,

ni ukitzera heldu bazen, eskuak zikintzera, esan nahi du amorru hori uste baino handiagoa dela, iruditzen zait nazkaren beste maila bat dela hori.

Bakarrik nago orain hemen, eraikin osoan, badakit, askotan esan izan didate. Ez dakit jaten ematen didana eraikinean bizi den, eraikinean egiten duen lo, ala jatorduetan etortzen den, egunean bi aldiz. Jatekoak hotz heltzen zaizkit ia beti, epel inoiz... Gauza batzuek hobeto eusten diote beroari, patatek eta zopek adibidez, baina hotz egoten dira gehienak. Horregatik pentsatzen dut kanpotik ekartzen dituela, ez dituela eraikinean egiten. Inoiz ez dut entzun, adibidez, sukalde zaratarik goiko solairuetan.

Eraikina handia dela esaten didate, arraroa dela beste inork ez erabiltzea, lau solairu dituela, gela asko. Egia esan behar bada, nire gela hau ere gehiegizkoa da niretzat, nire moduko beste hamar-hamabost bat lagun ere problema barik bizi ahal izango ziren hemen, ohe propioarekin, komun-zulo propioarekin, enbarazurik egin gabe elkarri. Zutabe asko ditu, hori bai, hormigoia uste dut. Leihorik ez, zulo batzuk ditu hiru hormatan, txikiak, halako moldez eginak non ezinezkoa den barrutik kanpokoa ikusi.

Kirol apur bat egiten ahalegintzen naiz egunero, Mandelari irakurri niolako, goizetan egiten zuela, egunero. Korrika egiten dut zutabeen artetik, iruditzen zait ona dela nire belaunei eusteko zutabeak saihesten ibili behar izatea.

Biluzik egiten dut korrika, arropa ahal denik eta gutxien zikintzeko, izerdia ez delako hain erraz kentzen, iturri azpian orduak utzi arren. Iturri eskas bat daukat hemen, urria, eskola txikietakoen modukoa, oso baxua, egun batzuetan ez dabilena. Zulo estu batean egiten dut txiza, baina batzuetan ezin du zuloak likido guztia xurgatu eta kirastu egiten du gelaren zati bat. Hondakin solidoekin problema handiagoak nituen hasieran, baina modua asmatu nuen gero: bazkalostean egiten saiatzen naiz, bazkariko zapietan biltzen ditut. Platerak ere plastikozkoak dira, erditik tolesten ditut eta tartean sartu hondakin guztiak, bazkarikoak eta zapietan bilduta doazenak. Jaten ematen didanak eramaten ditu, eta uste dut oraindik ez dela konturatu... Ez dakit zer gerta litekeen konturatzen denean, ez dut pentsatu ere egin nahi.

Hotza handia da gela honetan ia beti, hori da arazo printzipalenetako bat hemen, udan ere bai. Udan ez du beharbada hainbesteko hotzik ere egiten,

baina geldirik egiten dut nik egunaren parterik handiena, ohean jesarrita edo zutabe moztu batean, eta hoztu egiten naiz, alditxartu ere bai batzuetan, uda izan arren, hotzik egon ez arren. Izan ere, gauza bat da planifikazioa egitea, sistematizazio bat topatzen ahalegintzea: esate baterako, ordu birik behin ibilaldi bat egitera behartzea zeure burua zutabe artetik, hogeita bost bira esate baterako. Baina ohiturak nasaitu egiten dira berehala, ohitura izan baino lehen askotan, ahulaldiak egoten dira, logikoagoa delako jesarrita egotea. Ahulaldietan erabakitako gauzak dira ohiturarik sendoenak hemen: bederatzi orduko egonaldiak ere egin izan ditut ohe honetan jesarrita.

Hasieran sarritan egoten nintzen gaixorik, sukar altua. Hala iruditzen zitzaidan behintzat, sukar altua neukala, baina jaten ematen didanak sekula ez dit termometrorik ekarri. Bularrean min emateko moduko eztula birritan izan dut eta mukiak kendu barik lehen gaixoalditik gaur arte. Ez daukat zapirik eta, arnasa hartzeko arazoak ditudanean, ahotik botatzen ditut mukiak gelako bazter batean. Karkaxa handiegia bada, kartoi gogor batekin hartzen dut sikatzen denean eta komun-zulotik bota, zatika.

Gorputza sendo sentitzen dudanean, biluzik egiten dut lo orain, udan, neguan, izararik gabe, tapakirik gabe. Sineste osoa daukat defentsei laguntzen diedala horrela, nekezago jarriko naizela gaixorik gero. Baliteke alferrik aritzea, litekeena da... Iruditzen zait inoiz ohe normal batean lo egiteko aukera badut, etxe epel batean, orduan gaixotuko naizela benetan, atzerakorik gabe beharbada. Orain min batzuk baino ez ditut giharretan. Badira hilabeteak azkenez egin nuenetik biluzik lo, urtebete ere bai agian, horregatik nago orain horretaz hain harro.

Jaten ematen didanari nazka moduko bat eragiten diot, aspaldi dakit, hala ere nire bisita guztiak baimentzen ditu, eta asko eskertu behar diot hori ere. Hasieran pentsatu nuen beste batzuek erabakitzen zituztela baimenak, baina ezetz esan zidaten. Ez dakit seguru zein den baimenen sistema, baina badirudi jaten ematen didana tartean dela. Horregatik eskertu behar diot, eraikinera etortzen diren guztiei uzten dielako gelara sartzen.

Jende asko etortzen da ni ikustera, nirekin hitz egitera, ezezagunak gehienak, guztiak ez esatearren: kazetariak, ikasleak ere bai, ikertzaileak. Ezagutzen nautenak ez dira etortzen, ez dute etorri nahi. Mingarrie-

na da pentsatzea lotsa sentitzen dutela edo, okerrago, nazka ematen diedala, jaten ematen didanari bezala.

Hona heldu baino lehenagoko urteez jakin nahi izaten dute nirekin hitz egitera etortzen direnek, nola egin nuen egin nuena, zergatik. Galderak egiten dizkidate goian egon nintzen aldiei buruz, baita behe-behean egon nintzenekoei buruz ere, baina bestea da gehien interesatzen zaiena normalean. Galdera asko egiten dizkidate, kazetariek batez ere. Oso ondo informatuta etortzen dira, xehetasunik txikienak ere ezagutzen dituzte, dagoeneko neuk ere ahaztuta nituenak, pertsona gutxik ezagutzen zituenak, hilda gehienak. Ez dakit non informatzen diren.

Atzo, ordea, orain arte inork galdetu ez didan gauza bat galdetu zidan gazte batek. Ez dakit kazetaria zen, ikaslea ere izan zitekeen, baina orain arte inork aipatu ez didan kontu bat ekarri zidan. Orduko ezer ez dut ahaztu, ez da ahaztekoa, nahiz eta inork ez galdetu urteetan. Horregatik kontatu nion asko pentsatu gabe, zer egin nuen orduan eta zer pentsatu nuen egiten ari nintzen bitartean. Hemen nagoenetik benetan gertatu zena kontatzen dut beti, ohitura hori hartu dut. Pertsona gehienek ez dituzte nire orduko pentsamenduak ulertzen, edo nazka ematen diete.

Galdera egin zidanak argi zeukan zer galdetu nahi zuen, ez zuen alferreko azalpenik nahi; desbideratzen nintzenean, berehala zuzentzen zidan. Hasieratik kontatzen ahalegindu nintzen ni, ez zen erraza. Esan nion herritik alde egin behar genuela esaten aritu zirela behin eta berriro orduan, irratitik esaten zutela, egunkarietan ere bai, alde egiteko herritik, gaur balitz bezala gogoratzen dudala esan nion, ez dirudi inpresio handirik egin zionik.

Egunak aritu ziren esaten, beraz, herritik alde egin behar genuela eta bidetik zihoan pertsona ilarari jarraitu behar geniola. Herri ondoko bidetik pertsona bakanak pasatzen ziren hasieran, multzoak gero, familia osoak. Ilarak ia beti, soilduago zetozen batzuetan, gauez batez ere, noranzko berean, astiro.

Gure herriko batzuek lehenengo egunetan alde egin zuten. Hainbesterako ere ez zela pentsatu nuen nik, jendea errazegi larritzen dela, ez zela lehenengo aldia. Gure lehengusu batzuk abiatu ziren orduan; aurretik bidali zituzten gurasoak eta biharamunean irten ziren. Zer pentsatua eman zidan horrek, ez ziren erraz larritzekoak lehengusuak, baina are gehiago arduratu nintzen gure etxeko solairu guztiak husten hasi zirenean, bost solairu, lau etxebizitza solairuko. Hiru

lagun geratu ginen azkenerako, oso zaharrak beste biak, gaixoak ere bai seguruenik. Horietako bat etorri zitzaidan etxera, laurogei urte baino gehiagoko andre bat, askotan lagundu ziguna txikitan. Ez nion etxera sartzen utzi. Eskaileretatik esan zidan herritik alde egiten banuen, nirekin eraman behar nuela, mesede hori egingo al nion, hori eskatu zidan. Esan nion ez nuela alde egingo. Arratsalde horretan bertan alde egin nuen.

Beharrezkoa baino ez genuela hartu behar, hori esaten zuen irratiak, behin eta berriro hori ere. Etxeko poltsarik txikiena hartu nuen nik, arropa batzuk barruan, udazkena, egun batzuk hotzak ere bai. Armairuetako diru guztia hartu nuen, hori bai, anaiarena eta nirea. Diru asko eduki dut etxean beti.

Jendeak ez zion irratiari kasurik egin, maleta handiak, orgak, poltsa puztuak bizikleten gainean. Maleta irekiak agertzen ziren lantzean behin bide bazterretan, gu heltzen gineneraco guztiz hustuak ia beti, gure aurrekoek husten zituzten. Behin gure aurreko batzuek abandonatu zuten maleta bat: hiru galtzerdi pare hartu nituen, finagoak, lodiagoak. Besteak baino arinago joan nintekeen ni, pisu gutxiago, ilaran aurrera eta atzera.

Jatekoekin ziren arazorik handienak, gutxi zegoen eta ustelduta asko. Ura ere zikina gehiena, eskasa beti. Sesioak egoten ziren urarekin, eskatzeko, kentzeko, lapurtzeko. Beherakoarekin zegoen jende asko, bidetik atera behar izaten zuten, korrika batzuetan, zuhaitz artera, horma baten ostera. Batzuei ez zien denborak ematen eta bide ondo-ondoan egin behar izaten zuten, ilarakoen bistan. Emakume bat gogoratzen dut, ez da ahaztekoa, bide bazterrean makurtuta, gugandik hiru bat metrora. Prakak eta barruko arropak behe-behean, orkatiletan, beherakoari ezin eutsita. Aurpegia baino ez zuen estaltzen, kontu handiz. Beste guztia ezin zuen estali, lotsa, lotsaren definizio bat beharbada. Horrela egon zen gure begien aurretik urrundu arte, ez nuen berriz ikusi.

Kilometro asko egiten genituen egunero eta ia beti geratzen ginen lo egitera, herri batean ahal bazen, plazan, eskoletan ere bai, etxe partikularretan, bidean bertan bestela, ezin zen autorik sartu ordurako. Arkupe batzuetan leku estu bat lortu nuen egun batean, emakume bat jarri zitzaidan aurrean, ni baino gazteagoa, herritik ondo ezagutzen nuena. Gizon zaharrago batekin ezkondua, zuela gutxi alargundua uste dut, alargun gaztea halarik ere, diruduna, etxe batzuk zi-

tuena, errentak. Aurrean neukan zutunik, eserita nengoen ni baina etzateko puntuan. Begirada gogorra nahi zuen emakumeak, igartzen zen ezin zuela. Itsusia iruditu zitzaidan, zikin zegoen, beste guztiak bezala. Niri begira denbora egin eta hitz egiten hasi zen: laguntzeko eskatu zidan, ez zuen mesedez esan. Ez nekien zer nahi zuen, zer behar zuen, ezetz esan nion, ez nion gehiago aditu nahi izan.

Etzan egin nintzen azkenean. Zutunik geratu zen emakumea leku berean, harik eta minutu batzuen buruan eseri zen arte. Kanpotik ikusita, nire oinetan eseri zela ere esan liteke. Pentsatzen hasi nintzen orduan: dirua zeukan emakume horrek, etxeak. Ezer ez dela betiko, hori pentsatu nuela gogoratzen dut. Apur bat agondu nintzen, berehala neukan andrea berriro begira, esan nion:

– Etxeak dauzkazu.

Burua mugitu zuen, baiezkoa.

– Etxeak nahi ditut –esan nion.

Berriro mugitu zuen burua baiezkoan. Esan zuen:

– Etxeak.

Begiak apur bat beheratu zituen etxeena onartu zuenean. Esan nion:

– Dirua daukazu.

– Ez hemen.

– Dirua nahi dut.

Burua mugitu zuen berriro, dirua emango zidala.

Luze begiratu nion, luzeegi beharbada, agindu zuena benetan agindu zuen igarri nahi banu bezala. Baietz iruditu zitzaidan. Esan nion:

– Zer behar duzu?

– Alaba galdu dut.

Isilik geratu nintzen orduan, emakumearen aurpegia neurtu behar nuen. Uste dut ondo neurtu nuela. Esan nuen:

– Diru asko nahi dut.

Nahi nuena agindu zidan, zeukana. Haren ahoari begiratu nion, ez begiei, luze berriro, baina ez nion erantzun, etzan egin nintzen, berehala hartu ninduen loak. Ez zen gauean hotzik egon, kontrakoa pentsatzen genuen arren.

Biharamunean esnatu nintzenean, begira neukan emakumea, bezperako posizio berberean, arropa gehiagorekin. Ez nekien orduantxe esnatu zen ala lorik egin gabe egin zuen gaua. Iruditu zitzaidan, hala ere, aurpegia ez zeukala hain zikin. Pentsatu nuen zerbait esan behar niola, itxaroten egongo zela beharbada. Esan nion:

– Zergatik ni?

Harridura keinu txiki bat egin zuen, galdera inozoa balitz bezala. Adierazi nahi zuen bistan zegoela zergatik, ez zela azalpenik behar. Esan zidan gero niri begira egon zela ilaran, bazekiela nola mugitzen nintzen ilaratik, nahi nuen bezala, erraza zela niretzat.

– Nola egingo dugu? –galdetu nion.

Bidean geunden ordurako, jende artean. Argazki bat atera zuen maletako poltsikotik, bakarra zeukala esan zidan. Arraroa egin zitzaidan, poltsikoa handia zelako, argazki gehiago sartu ahal zirelako arazorik gabe, erdi hutsik. Maleta bera irekitzen zuen apurretan, ikus zitekeen umearen arropa zeukala batez ere barruan.

Zazpi urteko neskatoa argazkikoa, petril batean jesarrita, sei urte ere eduki zitzakeen, bost ere bai beharbada, inoiz ez ditut umeen adinak ezagutu. Aurpegi arrunta, ama baino ederragoa agian. Ama ez zitzaidan hain itsusia iruditzen orain. Argazkia eman zidan, esan nion:

– Nola galdu duzu?

– Tunelean. Tiroketan.

– Jende asko hil zen. Hori aditu dut –esan nion.

– Ana ez –esan zuen.

Egunean hiru-lau aldiz egiten nuen ilaran aurrera eta ilaran atzera, ehun metro, berrehun metro lehenengo egunetan, kilometro bat ere bai gero. Ez zen erraza ilaran aurrera egitea: bultzadak eman behar nituen, ukondoekin ere bai batzuetan, indar handia behar zen. Sesioak izaten ziren horregatik ere, odoletan utzi ninduten behin, neuk ere eman nituen kolpe txar batzuk, hartu baino gehiago. Konorterik gabe ere utzi nuen edadeko gizon bat... Larritu ere egin nintzen, ez ote nuen hil, baina ilaran atzera itzuli nintzenean, ez nuen bide bazterrean ikusi, batzuetan ikusten ziren bezala. Emakumeak ere ez zidan ezer aipatu, beste inork ez zidan ezer aipatu.

Ilarako ume guztiei begiratzen nien, argazkia erakusten nuen. Hogei metrorik behin galdetzen nuen, hogeita bost, beti izan naiz oso metodikoa. Gauetan argazkia itzultzeko eskatzen zidan emakumeak, harik eta gauez ere bilatzen hasi nintzen arte. Errazago ibiltzen nintzen gauez, jendea geldirik zegoelako, etzanda edo eserita. Kilometro gehiago egiten nituen aurrera eta atzera, baina bilaketa nekezagoa zen: ezin nuen hainbeste galdera egin, burua ere estaltzen zuten lo zeudenek. Harrezkero ez nion emakumeari argazkia itzuli, egin nezakeen arren, ordu asko egiten

genituelako elkarrekin. Haren mina zein neurritakoa zen ikusi nahi nuen.

Egun asko egin genituen horrela, asteak ere bai beharbada, ez dut ondo gogoratzen. Ilaran aurrera eta atzera egiten nuen, egunean hiru-lau aldiz, emakumearengana itzultzen nintzen gero. Berriak nituen batzuetan, gehienetan ezer ere ez. Ilarako batzuk ezagutzen nituen ordurako, egunero ikusten nituenak. Bistan zen ezagutzen nindutela ni ere, uste dut nire beldur ere bazirela batzuk. Beti ez nituen pertsona berberak ikusten baina: egunero aldatzen zen ilararen ordena, gauaren ostean batez ere. Batzuk goizago ateratzen ziren, beste batzuk goizeko hamarrak arte mugitu ere ez... Iluntzean ere goizago esertzen ziren batzuk, zaharrenak, gaixoak. Orduan hasi ziren gaixoak bidean eserita ikusten, etzanda ere bai, eguerdian, eguneko ordu guztietan. Bakarrik egoten ziren asko, ilarakoek ez zieten begiratu ere egin nahi. Guztiei begiratzen nien nik, zergatik ez, nazka apur batekin ere bai.

Informazio zehatz bat eman zidan adineko emakume batek azkenean, ezagutzen zuela argazkiko umea, elkarren ondoan egin zutela lo behin, baina askozaz aurrerago behar zuela, oso goiz abiatzen zirelako egu-

nero, hori gogoratzen zuen. Jaka marroia zuen umeak, hiru emakumerekin zihoan, hirurak ere umearen amak izateko zaharregiak beharbada.

Ahalegin handia egin nuen egun hartan, korrika batzuetan, ahal bezain arin. Bultzada asko eman behar izan nuen, jende asko haserretu zitzaidan, zorionez ez nuen inor jo behar izan. Umeen jaka marroiei begiratzen nien, emakumezkoekin zihoazen umeei, baina jendea lo egiteko etzaten hasi zenean gelditu behar izan nuen. Tapakien azpian zeuden gehienak, alferrik ari nintzela iruditu zitzaidan. Egun horretan ez nintzen emakumearengana itzuli, ez nuen distantzia galdu nahi.

Biharamunean eguna argitu baino lehenago abiatu nintzen, ohiturarik ez nuen arren. Lehen ordu erdia korrika egin nuen. Uste baino jende gehiago zebilen ordurako, adineko jendea batez ere. Astiroago joaten hasi nintzen, ordea, zalantza ere egin bainuen halako batean, ez ote nuen umea atzean utzi. Hobeto errepa-ratu nien umeei handik aurrera, baina berdin joan zen goiz osoa. Fede handirik gabe ari nintzen eguerdirako, barazki egosi batzuk erosi nituen.

Ia iluntzean topatu nuen umea, jaka marroia, hiru emakume, umearen amak izateko zaharregiak hiru-

rak. Pentsa zitekeena baino arinagoa izan zen ondoren gertatu zena: emakumeen parean jarri nintzen, metro batzuk egin genituen, umeari begira egon nintzen. Esan nien:

– Umea eraman behar dut.

Zoro bati bezala begiratu zidaten, emakumeetako batek aldakaren kontra estutu zuen umea, ibiltzeari utzi gabe. Esan nien:

– Amarengana.

Umea hartzeko keinua egin nuenean, oihuka hasi ziren emakumeak, bi behintzat, umea ere bai, negarrez. Ilarako gizon batek aurre egin zidan... Indarrez bultzatu behar izan nuen, baina uste baino arinagoa zen eta modu txarrean jausi zen lurrera. Koldarra ematen zuen, ez zidan berriro aurre egin. Umea airean hartu nuen nahiko erraz, hankak asko mugitzen zituen arren. Ilaran atzera egin nuen, bultzaka berriro. Emakumeak atzetik etorri zitzaizkidan, baina niretzat baino askozaz konplikatuagoa zen eurentzat ilaran bidea egitea, ez zeukaten indarrik. Berrehun metro egin genituenerako ez ninduten ikusten.

Neuretzat ere uste baino lan handiagoa izan zen, lehen ordu erditik aurrera batez ere. Umeak ez zuen ibili nahi, eta besoak gero eta bigunduago nituen...

Hamar minuturik behin gelditu behar izaten nuen, inoiz ez bezala. Gauerdirako minutu gutxi falta zirenean topatu nuen emakumea: herri txiki batean gelditu zen lotara, ondo gogoratzen nuen herria. Argi gutxi zegoen arren, urrunetik ikusi ninduen. Berehala zutundu eta korrika hasi zen guregana. Hamar metrora gelditu zen, ordea, aurpegia aldatu zuen, esan zidan:

– Ez da.

Aurrez aurre jarri arte hurbildu nintzen. Umearen aurpegia ahal zenik eta argi gehienarekin erakutsi nion, kokotsetik altxatuta. Esan zuen:

– Ez da.

Lurrean utzi nuen umea. Zalantza une baten ostean, korrika hasi zen, etorritako bidetik. Jende gehiena etzanda edo eserita zegoen ordurako, ez zegoen arazorik korrika egiteko, baina handik gutxira gelditu zen, konturatu zen alferrik ari zela. Guregana itzuli eta emakumearen ondoan etzan zen. Nire tapakia jarri nion gainean, baina ezkerreko eskuaz hartu eta harrika bota zuen, ahal izan zuen urrunen. Emakumearengana gehiago hurbildu zen gero. Tapakia hartzeko zutundu behar izan nuen.

Emakumea zotinka ari zen. Lantzean behin egiten zuen, ez beti, negar moduko bat ere izan zitekeen. Uste dut pena apur bat ere eman zidala, esan nion:

– Zenbat etxe daukazu?

– Lau.

– Hiru nahi ditut.

Eskua altxatu zuen emakumeak, ni jotzeko keinua egin zuen. Ez ninduen jo, lurrari eman zion kolpea. Hauts asko harrotu zuen. Kolpe asko jo zizkion lurrari gero. Ordurako ez nuen ikusten negarrez ari zen ala ez. Uste dut gau hartan hasi zela gaixotzen.

Hurrengo goizean gauza bakarra esan zidan emakumeak: umea itzuli behar nuela, hartu nuen lekura, ezin genuela gurekin eraman. Ez nuen eztabaidatu nahi eta bezperan bezala hartu nuen umea. Besoak minduta oraindik, aurrera egin nuen, ilaran, ahal izan nuen bezala. Ez nuen utzi hartu nuen lekuan, inondik inora ere, ez naiz hain inozoa... Bostehun edo seiehun bat metrora utzi nuen, ume asko zituen talde batean, hori bai, ez nekien arren onerako edo txarrerako izango zen hori. Aurrera egiteko esan nion umeari, gelditu gabe, ez nuela berriro ikusi nahi.

Emakumearengana itzuli nintzenean, begiak oso gorrituta zituela ikusi nuen. Lo gutxi pentsatu nuen,

edo negarra, antsia. Iruditzen zitzaidan izan zitekeela nerbio kontu bat fisikoa baino gehiago. Haren ondoan jarri nintzen ilaran, hitzik esan gabe, betiko moduan. Kilometro bi baino gehiago egin genituen horrela. Estropezu egin zuen emakumeak halako batean, lurrera jausi zen. Ez nuen hari laguntzeko zirkinik ere egin, begira geratu nintzaion, noiz altxatuko. Ilaran atzetik zetozenek inguratu egiten zuten ukitu gabe. Baten batek laguntzeko keinua hasten zuen, baina nire aurpegiari begiratzen zionean, aurrera jarraitzen zuen, ezer esan gabe, ezer egin gabe. Aurpegia lurraren kontra zuen emakumeak, hautsaren kontra, begiak erdi itxita. Denbora asko egin zuen modu horretan, pazientzia galtzen hasi nintzen. Besoetatik helduta altxatu nuen: azala ikaragarri bero, aurpegia erretzen. Ibiltzeko oihukatu nion. Ematen zuen ez zuela ezer ere ulertzen, adurra ahotik. Bide bazterrean eseri nuen sastraka batzuen kontra, eta orduak egin genituen posizio berean. Ura erosi nion, neuk edan nuen gehiena.

Egunak egin genituen horrela, aurrera gabe. Gero eta okerrago emakumea: apenas jaten zuen ezer, ura edatera behartzen nuen, sukarra kendu ezinik lehenengo egunetik. Han bertan egiten genuen lo. Hotz zela esaten zidan, eta arropa guztiak ipintzen nizkion

gainean, ipini ahal zirenak. Oraindik hotz zela jarraitzen zuen esaten batzuetan. Haren ondoan etzaten nintzen orduan, ezkerreko besoa jartzen nion gainean, ezkerreko hanka ere bai. Bere gorputza sentitzen nuen, bularrak batez ere. Berak ere sentitu behar zuen nire sexua bere aldakan, seguru nago, batzuetan batez ere, ez zuen ezer esaten. Baina neuk ere uko egin nion sexuari ilaran sartu eta gutxira, dirua neukan arren, ilarako inork baino diru gehiago beharbada. Gizon asko ikusi nuen horregatik galtzen ilaran, horregatik egin nion uko hasieratik nik. Sabela hustera ere, esate baterako, neuk eraman behar nuen emakumea, sastraka ostera, zuhaitz ihar bat ere bazegoen. Ez zuen ezertarako indarrik, neuk kendu behar nizkion arropak, neuk eutsi, garbitu ere neuk garbitu behar nuen. Hor ere galdu ahal nintzen, baina hasieratik egin nion uko.

Emakumea han uzteko puntuan egon nintzen, orduan asko eta asko abandonatzen ziren bezala bide bazterretan. Gugandik hamabost metrora agure bat utzi zuten, bertan hil zela uste dut. Ez nuen argi zertarako behar nuen emakumea horrela... Hiltzen bazen, ez zidan ezertarako balio, hori argi nuen, eta bazirudien horretan zegoela. Denbora galtzen ari nintzen:

ilara ere saretzen hasita zegoen, gero eta jende gutxiago zekarren, ematen zuen azkenak ginela, horrek esan nahi zuen guztiarekin.

Emakumeak zutunik jartzea lortu zuen orduan, pauso batzuk ere eman ahal izan zituen. Sukarra zuen oraindik, baina esan zidan ohituta zegoela tenperatura horretara. Lepoan hartu nuen, aurrera egin genuen. Errazagoa zen orduan jendea aurreratzea, zulo gehiago ilaran, tarte handiagoak jenderik gabe. Uste baino arinago mugitu ginen, egun pare batean heldu ginen lehengo ilara moduetara, sarriagoetara, aurreratzeko bultzaka ibili beharrekoetara. Umea bilatzen hasi nintzen berriro orduan. Ilaran aurrera baino ez nuen egiten, atzean banekien zer zegoen. Emakumea eserita uzten nuen, ni gabe apenas mugitu ahal zen, baina metro gutxi egiten nuen ilaran, berehala itzuli nahi nuen; ez nuen emakumeak konortea galtzerik nahi, ura edatera behartzen nuen.

Horrela egin genituen egun batzuk, baina emakumea berehala jarri zen ibiltzeko moduan. Umearen bila ateratzen nintzenean, oinez jarraitzen zuen ni gabe ere. Metro gehiago egin nezakeen orduan, esango nuke kilometroa egitera ere heldu nintzela, harik eta ibaia azaldu zen arte. Ez zen zabalegia ere, ehun

metro baino apur bat gehiago, baina zubirik gabekoa. Ontziak ere gutxi hainbeste jende pasatzeko: 10-15 laguneko bi eta txiki batzuk. Han eteten zen ilara beraz, milaka lagun pilatuta ibaiaren zabalgunean, 50.000 baino gehiago aditu nion agure bati. Leku zabala zen, baina jendea estutzen hasita tokirik onenetan. Militarrak jarri zituzten ibaialdean, oso armatuak, ezkerraldean ere bai. Eskumako basoa zen libre utzi zuten bakarra. Intimitaterako erabiltzen zuen jendeak, sexua, hondakinak ere asko.

Hiru egun egin nituen han emakumearengana itzuli gabe, pentsatu nuen bakarrik helduko zela ibairaino. Pentsatu nuen, horrezaz gainera, han topatuko nuela umea inon topatu behar banuen. Argazkia erakusten nuen, galderak egin, gauza lausoak esaten zizkidaten, batera bidali, bestera, horri edo hari galdetzeko esaten zidaten. Txoko guztiak ezagutzen nituen, ezkerraldea, basoa. Militarrei ere galdetu nien, baina ez zioten ezeri erantzuten, ez zuten jendearekin nahastu nahi. Ordu asko egiten nituen basoan.

Kasualitatez topatu nuen umea. Beste norabait nindoan, bidean topatu nuen. Ez zegoen zalantzarik orain, emakumearen alaba zen, baina beste era batera jokatu nuen: argazkia erakutsi nion. Baietz esan

zuen, bera zela, eskolan, eskola aurrean. Amari buruz hitz egin nion, baietz esan zion guztiari. Ondoan zuen andreak esan zidan umea bidean hartu zutela, aita nintzen galdetu zidan, edo osaba, eskerrak eman zizkidan.

Amaren bila joan behar nuela esan nien, ez mugitzeko handik, denbora asko behar izango nuela beharbada. Izan ere, ez nekien emakumea ibaira heldu zen ordurako, bidean egon zitekeen oraindik. Ordu asko behar izan nituen topatzeko: ilaran zegoen emakumea, baina zabalgunetik ez oso urrun ere, lurrean eserita. Esan zidan denbora gehiago egiten zuela eserita ibiltzen baino. Lepoan hartu nuen zabalgunera hurreratzeko, baina handik aurrera oinez egin behar izan zuen, besoak behar nituelako jendea apartatzeko. Iruditzen zitzaidan minutu batzuk lehenago baino askozaz jende gehiago zegoela.

Umearengandik ehun bat metrora geundenean entzun ziren lehenengo tiroak. Hasieran jendeak ez zuen ezer egin, ez zekien zer egin, harrituta beste ezer baino gehiago. Segundo gutxitan konturatu ginen, ordea, militarrak zirela. Oihuak hasi ziren, korrika egin nahi zuen jendeak, baina ezin zuen korrika egin. Berehala ginen guztiak guztien kontra, oso espa-

zio txikian, arnasa ere ezin normal hartu. Basora nahi zuen mundu guztiak, baina ikaragarri astiro mugitzen ginen, lurrera jausten ziren batzuk, martxa oztopatzen zuten, zapaldu egiten genituen.

Emakumeari begiratu nion, oso txarto zegoela iruditu zitzaidan, inoiz baino zurbilago, begiak erdi itxita. Atzekoek eramaten zuten airean, aurrekoek eusten zioten, hilda zihoala ere pentsatu nuen momentu batean. Alaba aurkitu nion emakume hari, handik hurbil behar zuen, metro batzuk aurrerago, metro batzuk atzerago, haraino eraman behar nuen. Denbora asko galdu nuen emakumearekin, ezin nuen orduan utzi. Soinetik heldu nion nire kontra jarri arte, pisu asko galdu zuen aurreko egunetan. Aurrera egiten ahalegindu nintzen, bultzada asko eman nituen, kolpeak, ez zen ilaran bezain erraza.

Ez genuen horrela metro gehiegi ere egin, pentsatu nuen alferrik ari nintzela, batek dakielako gero zer. Emakumea askatu nuen orduan, nigandik aparte bultzatu ere bai. Berehala ikusi nuen nola hondoratzen zen jende artean, nola desagertzen zen lurrera bidean, hil arte zapalduko zuten seguruenik. Askozaz arinago egin ahal izan nuen aurrera gero.

Basora heltzeko metro gutxi falta zitzaidanean, ume bat ikusi nuen jende artean, emakumearen alaba baino urte batzuk nagusiagoa, beltzaranagoa. Leku guztietatik ematen zizkioten bultzadak baina ez zuten hondoratzen, ez zuten lurrera botatzen. Oihuka ari zen, ez nion ezer ulertzen. Soinetik heldu nion, hala ere, emakumeari bezala minutu batzuk lehenago, basora sartu ginen azkenean. Askozaz errazagoa zen korrika egitea han, zabalagoa zen, bide desberdin gehiago egin zitezkeen.

Tiroak urrunago hasi ziren entzuten baso barrutik, eskasagoak, astiroago joatea erabaki nuen. Argigune batean gelditu ginen, jende gehiago zegoen han. Umea lurrean utzi nuen sasi batzuen ondoan. Ez nion haren aurpegiari begiratu ere egin, ez naiz hain inozoa. Korrika hasi nintzen berriro bakarrik. Zarata gutxi entzuten zen basoan jende asko zebilen arren.

Jaten ematen didanak esan dit egunkari batean irakurri duela hau. Kanpotarra da jaten ematen didana, eta ez dakit egunkariak zein hizkuntzatan irakurtzeko ohitura duen.

Bodrogiren zuhaitzak

Dirudiena baino askozaz handiagoa da etxaldea. Jens Bodrogik berrogeita hiru urte ditu. Gerra sasoian berrehun soldaduk egin zuten lo etxaldean. Jens Bodrogik aizto bat dauka praketako poltsikoetako batean. Etxaldearen inguruan zelaia dago, belar laburrekoa. Jens Bodrogi bakarrik bizi da etxaldean, zazpi zerbitzarirekin. Etxaldearen eta zelaiaren inguruan oihana dago, sarria, kilometro askoan. Oihanari begira dago Jens Bodrogi.

Holandarrak bost egunez egon ziren etxaldean. Berrehun soldadu, agintariak zazpi. Hala ere etxaldearen laurdena bete zuten, gehiago ez. Horregatik nahi izan zuten etxaldea erre. Holandarrak bertan zeudela jakin zutenean, etxaldea erretzera etorri ziren. Ez zuten erre. Hori guztia bosgarren egunean izan zen.

Oihanari begira dago Jens Bodrogi. Inolako zalantzarik gabe daki nondik sartu den zuhaitz artera Mobru, Tandra familiakoa. Etxaldetik ikusi du Mobru oihanera sartzen. Leku horretatik sartuta, badaki ze bide hartuko duen. Argi dauka, gainera, oihanetik atera baino lehenago harrapatu behar duela Mobru,

Tandra familiakoa. Korrika hasi da Jens Bodrogi. Oihanera sartu da.

Tandra familiakoek ez dute aizto, gezi edo aizkoraz hiltzen. Tandra familiakoek ito egiten dituzte pertsonak. Emakumeak eta umeak erre egin dituzte egoera berezi batzuetan, baina ez da ohikoa. Mobruk, Tandra familiakoak, aizto bat hartu zuen behin eskuetan. Horregatik bota zuten Tandra familiatik.

Mobru, Tandra familiakoa, Jens Bodrogi baino askozaz argalagoa da eta bide estuagoa behar du oihanetik. Jens Bodrogik aiztoa atera behar izan du adar batzuk mozteko. Aiztoa ez du horretarako hartu.

Jens Bodrogi emaztea eta hiru seme-alabarekin bizi zen etxaldean. Ama eta lau izeko ere bertan bizi ziren. Apurka-apurka gaixotu ziren izekoak. Batek berak ere ez zuen hirurogeita bost urtetik gora egin. Izekorik gazteenak leihotik behera bota zuen bere burua. Ez zen egun horretan bertan hil.

Jens Bodrogik pertsona zaratak entzun ditu oihanean. Mobru, Tandra familiakoa, ez dago horren urrun. Jens Bodrogik pentsatu du ikusi egingo duela Mobru oihana hain sarria ez den lekuren batean. Oker ez badago, argigune bat dago bide hartatik hiru kilometrora. Korrika egin ditu berrogei bat metro.

Azienden erdia baino gehiago eman behar izan zien Jens Bodrogik holandarrei. Etxaldean lo egin zuten bost egunetan jan zuten zati bat. Gainerakoa bizirik eraman zuten. Holandarren agintariek ez zuten Mobru ezagutzen, Tandra familia ere ez. Hala ere eta zer egiten ari ziren jakin gabe, Tandra familiako batzuk hartu zituzten zerbitzari eramateko.

Jens Bodrogik itzal beltz bat ikusi du zuhaitz artean. Ez zaio animalia iruditu. Arin mugitzen izan da. Harengandik berrehun bat metrora dago. Jens Bodrogik zalantza askorik gabe esango luke Mobru dela, Tandra familiakoa.

Holandarrak bost egunez egon ziren etxaldean. Bosgarrenean etxaldea erre nahi izan zuten, holandarrak bertan zeudela jakin zutelako. Teilatuetako baten zati txiki bat baino ezin izan zuten erre. Holandarrak seigarren egunean joan ziren, goizean. Etxaldetik zazpi kilometrora herrixka bat hartu nahi izan zuten. Holandar guztiak hil zituzten, berrehun soldadu, zazpi agintari eta berrogeita hiru zerbitzari.

Jens Bodrogik argi dauka hurbil duela Mobru, Tandra familiakoa, entzun edo ikusi gabe hiru ordu laurden egin dituen arren. Jens Bodrogik susmoa dauka lurretik barik, zuhaitzetara igo eta horrela ari dela aurre-

ra Mobru, Tandra familiakoa. Harri baten ondoan letagin bat topatu du Jens Bodrogik.

Mobru, Tandra familiakoa, sekula ez da zerbitzaria izan, holandar batzuek bestela pentsatzen bazuten ere. Udazken batean lau egun egin zituen Mobruk zuhaitz baten zuloan, ezertarako irten gabe.

Jens Bodrogik ordua kalkulatu du. Uste du ez dela iluntzerako asko falta. Argi dauka ilundu baino lehenago harrapatu behar duela Mobru, Tandra familiakoa. Ilundu eta gero nahi duen zulotik egingo dio ihes. Aiztoari begiratu dio Jens Bodrogik, etxean zeukan luzeena da.

Berrehun soldadu holandarren gorpuak herrixkatik kanpora pilatu zituzten eta su eman. Zazpi agintarien buruak hamalau zuhaitzetan zintzilikatu zituzten erdibitu eta gero. Kantuak eta nazka keinuak izan ziren lurralde osoan.

Distira txiki bat ikusi du Jens Bodrogik. Mobruren-gandik uste baino hurbilago dago. Ia seguru daki orain lantzean behin zuhaitzetara igotzen ari dela Mobru, Tandra familiakoa. Beti ez da posible zuhaitzetatik aurrera egitea eta lurrean ere ikusi ditu Mobruren arrasto batzuk. Mobruk Jens Bodrogik baino zazpi urte gutxiago dauzka.

Ezkondu eta gero, Jens Bodrogiren emazteak ez zuen etxaldera etorri nahi. Hiru seme-alaba izan zituzten. Guztiak hil zizkieten zazpigarren urtean. Emazteak arrazoia zuela pentsatzen du Jens Bodrogik orain. Suitzarra zen Jens Bodrogiren emaztea, alemanez hitz egiten zuten elkarrekin.

Iluntzen hasi da. Jens Bodrogik zarata handi samarra entzun du bere aurrean, kolpe bat, zuhaitzetatik gauza astun bat jausi izan balitz bezala. Animaliena ez den kexu txiki bat entzun uste izan du gero. Jens Bodrogik pentsatu du Mobru ez dela oso urrun joango lau metrotik behera jausi eta gero. Zuhaitzei adi geratu da.

Holandar agintarien buruak ohikoa baino askozaz arinago usteldu ziren zuhaitzetatik zintzilik.

Mobruk, Tandra familiakoak, korrika hasteko ahalegina egin du. Belauna odoletan dauka, ezin du nahi duena egin. Lurrera jausi da. Zarata handia egin du. Enbor bati heldu eta harri baten gainean jesarri da. Aurrean dauka Jens Bodrogi.

Jens Bodrogik aiztoa atera du poltsikotik. Mobrurengana hurbildu da. Izerditan dago Mobru, aurpegia bihurrituta, min handia ematen dio hankak. Kanpoan baino nabarmenagoa da iluntzea zuhaitz artean. Jens

Bodrogi Mobrurengandik oso hurbil jarri da, aurpegia ondo ikusi nahi dio. Aiztoa erakutsi dio.

Mobruk, Tandra familiakoak, badaki zer egin behar duen. Eskumako eskua zabaldu du. Jens Bodrogik aiztoa eman dio. Mobruk aiztoa eskuan hartu eta luze egon da hari begira. Jens Bodrogik esan du:

– Hemen?

– Hemen.

Harri zapal bat seinalatu du. Jens Bodrogik harri zapalaren gainean jarri du eskua. Begiak itxi ditu. Mobruk, Tandra familiakoak, aiztoa estutu eta kolpe bakar batez ebaki dio eskua Jens Bodrogiri, eskumuturretik.

Umeen alde

Gauza da arratsalde osoa duzula libre eta, amaren etxean bazkaldu eta gero, etxera bueltatu eta ordu erdiko siesta egin duzula. Liburu bat irakurtzen hasi zara ondoren, ordu bi egin dituzu. Hasita daukazun beste bat hartu duzu gero eta beste ordubete eskas egin duzu harekin. Hirugarren liburu batekin egin duzu ahalegina, baina hogei minuturen ostean konturatu zara nekatuta zaudela eta, zazpiak izan arren, ez duzula irakurtzen jarraituko. Kalera erabaki duzu, euria goian-behean.

Etxeko eskaileretara irten zara orduan eta, demagun, kalera jaitsi barik, hirugarren solairura igo zara. Etxebizitza bateko atea ireki eta ikusi duzu bikote ezkonberria bizi dela hor, edo agian ezkondu ere ez direla egin, baina elkarrekin bizi direla duela gutxi. Eurek ezin zaituzte ikusi, jakina. Ez die erreparorik ematen eta azpiko arropatan dabiltza korridoretik, sukaldetik, eta lantzean behin laztan ez oso garbia egiten diote elkarri. Sofa gainean ekin diotenean, buelta hartu eta bazoaz, baina, kanporako bidean, balizko seme edo alaba bati buruz ari direla aditu duzu, eta

badela garaia esan du mutilak, edo beste urte pare batez itxarotea komeniko zela edo hainbeste ere ez, edo uste duzu kapaz izango garela, edo ia mundu guztia da kapaz, eta isiltasuna.

Kalera irten zara. Ez dabil jende asko, euriarekin, haizearekin. Uste baino urrunago heldu zara, ikusi dituzun bide-seinale batzuk ez dituzu ezagutzen. Komisariaren ondotik pasatu zara. Zabalik daude leihoak, harrigarria bada ere, eguraldi honekin. Zaratak entzuten dira barruan, kolpeak izan daitezkeenak ere bai. Atea zabaldu duzu, barruko inork ezin zaitu ikusi, jakina. Hirugarren solairuko neska bera ikusi duzu gela batean orduan, aulki baten ondoan, biluzik. Oso jarrera arraroan dago, ez da batere naturala, giharrak tentsioan behar ditu. Lau gizon daude inguruan, galderak egiten dizkiote. Batek bueltak ematen ditu gelatik, geldirik daude besteak.

Kalera irten zara. Urduri zaude eta normalean baino arinago ari zara ibiltzen. Lehenengo bonbak hasi dira lehertzen, hegazkinei begiratu diezu. Ez dakizu ziur, baina iruditzen zaizu garajeak direla gordelekurik onenak, liburuetan irakurri duzunarengatik, pelikulak. Atari batera sartu zara, iruditu zaizu etxe horrek garajea behar duela. Baina eskaileretan behe-

ra egin beharrean, gora egin duzu. Etxebizitza bateko ate bat ireki duzu, demagun, hirugarren solairuan. Sartu egin zara. Lehengo gizon bera ikusi duzu, etxe berean, bakarrik orain, biluzik, dutxatik. Ume bat dauka sehaskan, negarrez, bonben zarata seguruenik. Gizonak ez daki zer egin, kalera joan umearekin, etxean eutsi, garaje batera, soto batera.

Umea hartu duzu gizona jantzi bitartean. Isildu egin da, baina antsia batzuk egin ditu oraindik. Leiho bat lehertu da orduan gizonaren ondoan. Hil egin du. Ez da orain bonbarik. Etxera itzuli zara umearekin. Sumatu duzu ez duzula luzaro irakurtzeko astirik izango.

BIGARREN ATALA

1

Irene Arriasek barruko kamiseta jantzi zuen egun horretan ere, giro beroa zekarren arren. Mundu guztiak esaten zuen, hego-haizea, aurreko egunak baino beroago. Aurrekoak ere oso beroak izan ziren, ikasteko txarrak, baina hura beroago zetorrela zioten, amak behin eta berriro errepikatu zion. Irene Arriasek barruko kamiseta jantzi zuen hala ere, eta burutik sartzen ari zenean, izerdi usaina sumatu zuen, usain uherra ia. Bost egun ziren kamiseta harekin, gezurra iruditu zitzaion une horretan, ia zazpi azken dutxatik, kalera irten zen azken egunetik. Egun birik behin aldatzen zituen normalean kamisetak, alkandorak, galtzerdiak, dutxatu egiten zen, zatika garbitu, besapeak, ilea, baina ez azterketetan. Izerdi usaina gorabehera, jantzi egin zuen kamiseta; harekin ikasi zuen, harekin egingo zuen azterketa. Pentsatu zuen inork ez ziola erreparatuko, ez zela usaina igarriko alkandorarekin,

jertsearekin. Barrundatu zuen ez zuela azterketa ondo egingo kamiseta hori gabe.

Arropak ere aurreko egunetako berberak jantzi zituen, sentimendu beragatik. Soinean jarri baino lehen, ordea, aurpegitik oso hurbil usaindu zituen, alkandora, jertsea, prakak ere bai, hankartean, izerdi usainari adi, bestelako usainei, baina ez zuen gauza handiegirik nabaritu: itxi usaina apur bat beharbada, kalera irten orduko joango zena nolanahi ere, hori pentsatu nahi zuen. Arropa harekin ikasi zuen, arropa harekin egingo zuen azterketa. Kolonia apur bat bota zuen, ez gehiegi ere, ez zuen izerdi usainarekin nahastu nahi.

Ohi baino askozaz gehiago gosaldu zuen, ez zekien zergatik, ez zeukan gose berezirik. Asko gosaltzen zuenean, gorputza eten egiten zitzaiola iruditzen zitzaion Irene Arriasi ia beti, sabela gogortzen ariko balitzaio bezala. Arnasa ezin zuen natural hartu, pentsatu gabe, behartu behar zuen bere burua, birikak, arnas aparatua, arnasaldi luzeak egitera. Iruditzen zitzaion bihotza ere astiroago zebilkiola, lan handiagoa egin behar balu bezala; ematen zuen gelditu nahi zuela, gelditu behar zuela... Bere barruari begira jartzen zuen gosariak batzuetan Irene Arrias.

Etxean ikasten egin zituen egunetan ez zuen takikardiarik izan. Zaila zen etxean takikardia izatea, ez bazen mugimendu arraro batean, arin makurtzean, estropezuak, gerria ohi ez den moduan jiraraztean. Gutxitan izan zuen etxean, azterketetarako ikasten inoiz ez. Momenturen batean pentsatu zuen hori zela ganoraz egin ahal izango zuen gauza bakarra: ikastea. Horretarako baino ez zuela balio, idazmahai baten aurrean egoteko, gehiegi mugitu gabe, mugimendu geldoak gehienez ere, mugimenduak ia zeroraino eramanez. Tentsio horrekin beti, azken bihotzekoak noiz joko. Baina hori guztia pentsatzen zuen, paradoxa badirudi ere, gorputza eternoa dela sinetsita zegoen une batean eta Sartre, Txillardegi eta Salinger irakurtzen ari zela.

Ia ordu berean jesartzen zen ikastera egunero. Ordu asko egiten zituen, goizean, arratsaldean, eta apunteetako zerbait pisuzkoa iruditzen zitzaionean, gogoan ondo finkatu nahi zuenean, behar bezala egituratuta, argi, burua aurrerantz makurtzen zuen modu inkontzientean Irene Arriasek, paperetatik oso hurbil gelditu arte. Mugimendu absurdo horrekin bularra mahaiaren ertzaren kontra estutzen zitzaion... Horrela egon zitekeen ordu laurden ere bai, burua paperen

gainean, begiak itxita, informazioa memorizatzen, bularra mahaiaren kontra estututa. Lantzean behin, ordea, bihotzak salto txiki bat egiten zion, mahai bazterraren kontra gehiegi estutu izan balu bezala, muskuluari lan egiten utzi izan ez balio bezala. Ez zen takikardia, taupadak ez ziren deskontrolatzen, baina takikardiaren hasieraren antza zuen: zirkin horrekin hasten ziren beti, antzeko salto batekin, itolarria. Irene Arriasek pentsatzen zuen orduan horretarako ere ez zuela balio, ikasteko ere ez, bulego batean egoteko ere ez... Mahaitik altxatu behar izaten zuen, lasaitzera, korridoretik ibili, berriro eseri ikasten jarraitzeko, hogeita hiru urterekin.

Harrigarria egiten zitzaion orduan nola ibili zen hamazazpi urtera arte, harrigarria egiten zitzaion egin zuen kirol guztia, hainbeste ordu. Krosak egin zituen, gutxi, saskibaloia ere bai, futbola, baina eskubaloia batez ere, ia lau denboraldi. Askotan izaten zituen takikardiak partiduetan. Bi-hiru minutu egiten zituen kanpoan, hurrengo jokaldirako sartzen zen berriro, ezer gertatu ez balitz bezala, amaierara arte jokatzen zuen. Oraindik ez zuen buruan noiz joko zion azken bihotzekoak, muskuluak eternoak iruditzen zitzaiz-

kion, bihotza ere bai, umea balitz bezala oraindik, aita hil eta zortzi urtera.

Hamazortzi urte bete baino hilabete batzuk lehenago utzi zituen kirol guztiak Irene Arriasek, denboraldia amaitu gabe. Unibertsitatea hasteko zegoen, eta horrela ulertu zuen amak, horregatik utzi zuela kirola: ikasketak, denbora, bidaiak... Arrazoi hori bera ematen zuen Irenek ere, unibertsitatea, denbora. Ez da azalpen askorik eman behar, mundu guztiak ulertzen du, ezin direla unibertsitatea eta kirola nahastu, ganoraz. Nola hasiko zen beste guztia azaltzen, bihotza, takikardiak, nola azaldu Joanari, Iboneri, Itziarri, amari, muskuluak ugertu egiten direla, gelditu, eten, nola azaldu hori ulertu zuela, unibertsitatean hasi baino hilabete batzuk lehenago, azken bihotzekoak noiz joko zion zegoela orain. Itolarriak kontatu beharko zizkien, taupaden saltoak... Oso gauza sotilak, ez zituzten ulertuko, ulertuarena egingo zuten, desberdin begiratuko zioten.

Irene Arriasek sinistu nahi zuen nortasun handia zuela, ez ziola ardura besteena, besteek pentsatzen zutena, ez zen hala, ez erabat, inoiz ez da erabat. Ez zien ezer kontatu hamabost urte eta gero arte, harik eta guztiak guraso ziren arte, harik eta guztiek zekiten

arte zer den ume baten gaixotasuna, sukarrak, eztulak, arnasestuak, zer den hitz egiten ez dakien ume batek konortea galtzea, begiak zuri, espasmoak, zer den Gurutzetako ospitalea, larrialdiak, gauez.

Irene Arriasek, ordea, sumatu ere ez zuen egiten goiz hartan, egun haietan, zer zen hori, guraso izatea, umeen ardura, sukarren ardura, 39 gradu, 40, nola itsasten den umea amaren aurpegira, aitarenera, nola itsasten dion bero zikin hori, listua, aho usain txarra. Lizentziaturarako ikasi, besterik ez, hori egin zuen hainbat egunetan, hori zeukan buruan, lan askozaz gogorragoa ez zuen imajinatzen, ezin zuen imajinatu, hogeita hiru urterekin. Naturaren kontrakoa iruditzen zitzaion hainbeste gauza ikasi behar izatea azterketa bakarrerako, azken azterketarako, ia karrera osoa azterketa batean. Langileen inbidia zeukan egun haietan, amen inbidia, umeena, bihotzaren salto txiki haiekin lantzean behin.

Kalerako jertsea jantzi zuen, ez zuen jakarik eramango, arraroa egin zitzaion. Ordura arte ez zen kalera jakarik gabe irten, azterketa guztietara eraman zuen jaka eta guztiak gainditu zituen, nota onak, oso onak ere bai, baina hego-haizea lizentziatura egunean. Eskuak garbitu zituen, aurpegia, begiak batez

ere, piztak kendu zituen, lentillak. Eta hori guztia egiten ari zela, komunean, iturriaren aurrean, aurreko guztia pentsatu zuen, takikardia, kirola, azterketak. Arin pentsatzen ari zen, arin pentsatu behar zuen goiz hartan, azken azterketarako ordu eta laurden falta zela, arin pentsatzera behartuta zegoen.

2

Unibertsitateko karpeta hartu zuen Irene Arriasek ohe gainetik, karpeta itxuragabea, puztua. Kalerako atera hurbildu zen, boligrafoak hartu zituen. Sukaldean zegoen ama, Begoña Sasieta, beheko suari begira. Sukaldeko atetik esan zion Irenek:

– Banoa.

Begoña Sasieta begirada galduta zegoela konturatu zen Irene, beste zerbait zuela buruan, ez zegoela alabari adi, lizentziatura egunean ere ez. Begirada galduta jarraitzen zuen erantzun zionean:

– Bai.

Irene Arriasek ezin zuen sinistu ere egin: azken azterketa, lizentziatura, karrera, bost urte, eta amak begirada galduta erantzun zion, Bai, beste gauza batzuk

buruan, Bai, beheko suari begira, bere buruari begira. Irene Arriasek nahi zuen amak zerbait esatea azterketari buruz, gaurko egunari buruz, kontziente izatea goiz hartan, une hartan, gertatu behar zuen guztia hasi gabe zegoenean, zer zen azterketa hori, zenbat azterketa eta gero zetorren, zenbat urte, ikastola, institutua, unibertsitatea, zenbat ordu. Hizketaldia luzatu nahi zuen Irenek, denbora eman nahi zion amari azterketari buruz zerbait esan zezan, kontzientzia har zezan, modu minimoan bazen ere. Esan zuen:

– Bazkaria daukagu. Gauera arte. Berandura arte.

– Bai –esan zuen berriro–. Ez ibili berandu orain –esan zion tarte baten ostean.

Irenek ikusi zuen amak, hori esan eta gero, ez zeukala begirada galduta behintzat, alabari adi zegoela apur bat, ardura puntu bat ere ikusi uste izan zuen. Baina berehala konturatu zen ezetz, edozein lekutara berandu ez heltzeko esaten zion bezala esan ziola bigarren esaldi hori ere. Nota onak alabak beti, oso onak ere bai, zertarako arduratu orain. Labea zabaltzeko apur bat makurtu zen ama.

Kaleko atea ireki zuen Irene Arriasek. Eskaileretatik jaisten zen beti, bost solairu ziren arren, eskaileramaila askorekin batetik bestera. Etxera igotzeko ez,

igogailua erabiltzen zuen igotzeko: bihotzari beldur beti, taupada nabarmenegiekin heltzen zen bestela bosgarren solairura. Minutu asko behar izaten zuen gero bere onera etortzeko, ezin zuen amarekin normal hitz egin, arnasestua, azken bihotzekoari begira orduan ere, ahalegin txiki horren ostean, hainbeste kirol egin eta gero, lasterketak, lehiaketak, partiduak. Eskailera batzuekin aztoratzen zen orain, bost solairu, hogeita hiru urterekin, ezin arnasari buelta natural eman. Muskuluak ustelduta zituela ulertzen zuen Irene Arriasek, hori sinisten zuen.

Ate guztiei begira jaisten zen eskaileretatik: laugarren solairuan izeko-osabak bizi ziren, hirugarrenean Iñaki Sáez Espainiako futbol selekzioko entrenatzailearen gurasoak, baina bigarren solairuan urduritzen zen Irene beti. Eskaileretako sabaia erreta egon zen bigarren solairuan urte batzuk lehenago... Zuriz margotuta zegoen orain, behar bezala, baina urte asko egin zuen erredurekin, orban beltz batzuekin, marra batzuekin.

Irudi bat egiten ahalegindu zen norbait erregailu batez, irudi iluna, pigmentazioarengatik, zentzuarengatik ere bai. Beldur zion irudiari Irenek, drogarekin lotzen zuelako, drogazaleekin; haietako batek egin zuen

zalantzarik gabe, horrela pentsatzen zuen Irene umeak, umearen burmuinak.

Droga asko ibili zen hamar urte lehenago Algortan, herri guztietan, esaten zen lagun talde osoak hil zirela, beti esan izan da, beti ikusi izan da. Kaletik ere beldur zien Irenek, pertsona argalak, argalegiak, estuak, besobakarrak, herrenak, hortzak ere txarto, ilunduta, horituta. Droga sartzen ere ikusi zituen, zainetatik ere bai, kalean, San Nikolasen, Txopoetan, Urkijobason. Koilara txikiak, erregailu txikiak. Xiringekin zeukan Irenek obsesioa batez ere, ohartu gabe ziztatzea, hori zen beldurra. HIES hitza ere aditzen hasi zen, gaztelaniaz lehenengo, SIDA. Irene hamabi urtekoak, hamahiru, hamalaukoak ez zekien zer zen, ezin zuen jakin, larria zela bai, guztiak hiltzen ziren.

1984an hil zen Julio Cortázar idazlea, eta esan izan da odol-transfusio batean sartu ziotela birusa. Ez da egia izango beharbada, ziurrenik, baina larritasun hori zegoen, gaixotasunarekin, drogarekin, xiringekin, eta Irene Arriasek bigarren solairuko sabaian zegoen irudi harekin identifikatzen zuen, droga, gaixotasuna. Tentsioan jartzen zen bigarren solairutik pasatzen zenetan, ez zion irudiari begiratzen, debekatu zion bere buruari. Normala baino beherago makurtzen zuen

sama, arnasari eusten zion. Iruditzen zitzaion hori guztia, irudia, droga, birusa, indefinizio hori guztia arnas zezakeela, kutsatuta egon zitekeela bigarren solairuko eskailera-tarte hori, irudiaren bitartez, erregailuarekin egon zen pertsonaren bitartez. Arnasarik hartu gabe pasatzen zen haren azpitik beraz Irene Arrias, hamar urte geroago ere, sabaia zuriz margotuta zegoenean ere, irudiaren arrastorik gabe, lizentziatura azterketa egitera zihoala.

Kalera irten zen, haizea, zakar ere bai, baina ez beroegi oraindik, hegoa izan arren nabarmen. Barrunda zitekeen asko berotuko zuela goizean bertan, zer esanik ez eguerdian. Arratsalderako ezin zen jakin, euria, bero handiagoa, zerua ere ez zegoen guztiz garbi, baina Ireneri berdin zion arratsaldekoak. Azterketak amaituta behar zuen arratsalderako, azken azterketa, azken ikasketa-saioa egin zuen bezperan. Orain berdin zion arratsaldeko euriak, beroak, haizeak, eguerdiko bazkariak.

Azterketak eskuetan hartu, gainetik apur bat begiratu eta segituan jakiten zuen Irene Arriasek gainditukо zituen ala ez, nota altua aterako zuen, oztakoa. Azterketa asko egin zuen ordurako, beste batzuek baino gutxiago hala ere: inoiz ez zuen azterketa bat errepi-

katu behar izan, inoiz ez zuen irailean azterketarik egin. Orain azterketa ikustetik ordubete eskasera zegoen; ordubete barru jakingo zuen beraz zer, jakingo zuen benetan zen hura azken azterketa, jakingo zuen hor amaitzen ote zen kontua, hogei urtekoa.

Hondamendiaren sentsazio hori ere bazeukan, ez oso bizia, baina tentsioan zegoen, hotz-korronte bat sentitzen zuen arnas aparatuan, digestio-aparatuan beharbada, ez zekien ondo, ahotik sabelera doazen hodietako batean. Gaixotasunen batekin nahas zitekeen, lo faltarekin, baina aurreko azterketetatik zekien nerbioak zirela, nerbio modu bat. Idatzi izan da azaleratzeko modu asko dituztela nerbioek, barruan geratzeko ere bai. Torrene kaletik Telletxeko geltokira hori guztia, egunero bezala baina desberdin.

Irene Arriasi ez zitzaion urduria igartzen ordea, zuzen zihoan kaletik, ibiltzeko modua ere segurua, harroa ia. Gorpuzkerak laguntzen zion horretan ere, altua, argalegia beharbada, baina izterrak ondo beteta, bularrak ere bai, ez nabarmen ere. Gainontzean, kaleko jendeari begiratzen zionean, goiz hartan, espaloietatik isilik, hildakoak ikusten zituen, James Joycek bezala.

3

Tren-geltokira sartu zen Irene Arrias. Zortzi urte bete arte, ia bederatzi, handik hamabost bat metrora bizi izan zen, Telletxeko lehenengo etxean, aita hil baino hilabete batzuk lehenagora arte. Etxe berrian hil zen aita, geltokitik urrunegi ere ez, apur bat gorago, Torrene kalean.

Ia egunero pasatu behar izaten zituen Irene Arriasek tren-geltokiko tunelak, ikastolara joateko, Faduran entrenatzeko, unibertsitaterako orain. Ohetik entzuten zituen trenak, zortzietarako bidaltzen zuen amak ohera. Bonbak ere entzuten zituen ohetik batzuetan, 70eko hamarkadakoak, Algortan jarri zituztenak, poliziei. Gau betean eztandarazten bazituzten, ez zituen entzuten, lo pisua zeukan.

Guardia zibilen kuartel-auzoa Telletxetik eta Torrenetik 50 metrora dago, 100 metrora, ez gehiagora. Esaten zen Alangotik botatzen zituztela bonbak, granadak, dinamita, trenbidearen gainetik. Trumoiak zirela pentsatzen zuen Irenek batzuetan, trumoiekin nahasten zituen loberritan esnatzen zenetan adibidez, ez beti. Batzuk oso garbiak ziren, argi zegoen bonbak

zirela, sirena-hotsak entzuten ziren gero. Berehala lokartzen zen atzera hala ere, ardura minimoa. Biharamunean komentatuko zuten familian, herrian, eskola-orduetan, ez gehiegi ere, kalte materialak.

Kanpotik ez ziren kalteak ikusten, hesituta zegoen kuartel-auzoa, zaindari-dorreak, kamerak, agenteak fusilekin dorreetan, sarreran. Kanpotik ezin ikusi zer eragin zuen leherketak, inoiz ez zen ikusten barruko ezer kanpotik. Esaten zen futbol zelai txiki bat ere bazela etxe artean, autoak, motorrak. Kanpotik etxeetako leihoak baino ez ziren ikusten, baina inoiz ez pertsonak leihoetatik begira, ez agenterik, ez umerik, Espainiako banderak batzuetan balkoietan.

Irene Arriasek kaletik ere ikusten zituen guardia zibilen seme-alabak, baina askozaz geroago jakin zuen guardia zibilen seme-alabak zirela. Orduan umeak ziren, Trinitarias, San Ignacio, Juan Bautista Zabala eskoletako umeak, hara zihoazenak. Bere adineko neska bi ikusten zituen egunero Irenek. Eskuetatik helduta eramaten zituzten amek, ama bat ume bakoitzarentzat. Begoña Sasietak aspaldi ez zion ikastolara laguntzen. Ireneri iruditzen zitzaion, 9 urterekin, 10ekin, oso desberdinak zirela ama haiek. Irene Arria-

sek tren-geltokiko tunelean ikusten zituen ama-umeak beti, ordu berean, ia egunero.

Trena ordu-orduan heldu zen geltokira, karpeta bularren kontra estututa sartu zen Irene. Ez zuen jesartzeko lekurik topatu, trena heldu orduko zekien, beti gertatzen zen. Jendeari begira hasi zen berehala, hurbilen nortzuk zituen finkatu nahi izan zuen gogoan, aurpegiak, gorpuzkerak. Mutiletako bat agurtu behar izan zuen, ezaguna egiten zitzaion, arrastorik ere ez nondik, ez zuen aurpegi atsegina. Auzoko emakume bat ezkerrean, ez zuen agurtu, ama-alaba batzuk apur bat harago.

Arraro egin zitzaion Ireneri adin horretako neskato bat trenean ordu hartan, hamaika, hamabi, hamalau urtekoa. Ikusten ziren batzuetan, gutxitan, medikuarengana seguruenik, Bilbora, ospitalera, kliniketara. Irene Arriasek gogoratu zituen, beti gogoratzen zituen, beste ama-alaba batzuk, tren horretan bertan ikusi zituenak, aspaldi, antzeko orduan. Gogoratzen zuen nola heldu zen ama-alaba haiek ikusi zituen egun hartan unibertsitatera tripak nahastuta, apur bat zorabiatuta ere bai.

Ondo-ondoan jarri zitzaizkion ama-alabak urte bi lehenago, unibertsitateko hirugarren mailan. Alaba

ama baino apur bat tenteago, ez erabat atsedenerako jarreran, isilik. Alabak amaren aurpegiari begiratzen zion askotan, ezer esan gabe, baina ez treneko beste inori. Hitz egiten hasi zen alaba halako batean, ahots egokia zuen, aurpegia ere bai, ondo jantzita, atsegina. Irenek ez zituen esaldi guztiak gogoratzen, ezinezkoa zen, baina batzuk bai, printzipalenak, hogei urte geroago ere gogoratuko zituen: «Zergatik hitz egiten dit niri, ama?», «Zergatik niri bakarrik?», «Zergatik ezin diozu zuk entzun?», «Pertsona normala da jainkoa, ama, osabak bezala?». «Zer esan behar diot medikuari?».

Amaren erantzunak ezin izan zituen Irenek aditu, oso baxu ari zen. Gogoratzen zuen, hori bai, erabat alditxartu zela umearen sufrimenduari begira, goragale lauso bat. Baina ondoezaren arrazoia ez zen umea seguruena, ez osoa, ezpada momentu hartan ulertu zuela Irenek zer zen garuna, zer zen garunaren ustela, urte batzuk lehenago ulertu zuen bezala zer zen bihotz-muskulua, arnas etenak, itolarriak.

Hori izan zen Irene Arriasen lehen kontaktua garunarekin, ondoeza eragin ziona, nahasmendua. Bigarrena bost urte geroago, enpresa txiki batean zegoenean, Galiziara bidali zutenean, autobusez, bakarrik,

gauez. Emakume bat jesarri zitzaion aurrean, gidariaren ondo-ondoan. Metalezko makulua zeraman, herrena ez zen nabarmenegia ere, ile laburrekoa, berrogeita hamar urteak inguruan, goitik ala behetik, betaurrekoak.

Isilik joan zen hasieran emakumea, ez zuen irakurri, ez zion pelikulari begiratu, isilik joan zen autobusa Bizkaitik atera arte, jendea lokartzen hasi zen arte, hamaika eta erdietan, hamabietan. Hitz solteak esaten hasi zen orduan, ez oso ozen baina autobus osoan entzuteko moduan, gauez. Gero eta ozenago emakumea, hitz solteak, esaldi laburren bat lantzean behin, «begiak», «deabruak», «konstelazioak», «Xurgatu egiten gaitu erreginak». Gaztelaniaz ari zen baina euskal ahoskeraz, *La reina nos succiona*.

Bidaiarietako bat hurbildu zitzaion orduan, lo egin nahi zuela jendeak, ez zela hitz egiteko ordua, edo oso baxu hitz egiteko ordua zela. Begira-begira geratu zitzaion emakumea, autobuseko inork ezer ulertu izan ez balu bezala. Jesarlekuen gaineko apala seinalatu zuen orduan, maletak, zorroak, jakak, plastikozko poltsak. Baina erabat ilun zegoen ordu horretan, ez ziren poltsak ikusten, maletak, argi guztiak amatatuta, goizeko ordu bata ia. Marra ilun bat zen apala beraz, au-

tobusaren alderik alde, zulo bat, beltza. Emakumeak behin eta berriro seinalatu zuen apala hatz erakusleaz. Esan zuen:

– Zergatik daude niri begira horko begiak, guztiak niri?

Gizonak esan zion ez zela begirik han, ez egiteko zaratarik, lo egin nahi zuela jendeak. Ematen zuen, ordea, emakumeak gutxi erreparatu ziola gizonaren erantzunari, oihua aurrekoa baino apur bat ozenago egin zuen: «Esaiezu ez begiratzeko niri». Gaztelaniaz: *Diles que no me miren.*

Gizonak ez zion erremedio handirik ikusi, jesarlekuan eseri zen atzera. Hitz egiten jarraitu zuen emakumeak noski, gidariarekin orain. Ez zion kasurik egiten gidariak, apenas erantzuten zion, harik eta emakumea makulua astintzen hasi zen arte.

Ez zirudien gidaria jotzeko asmorik zuenik, baina autobusa bazterbidean gelditu eta Guardia Zibilari deitu zion gizonak, irratiz. Guardia zibilak heldu, emakumeari lasaigarri bat eman eta autobusera sartu zuten berriro, leku berera. Ezin zuten inora eraman, ez ziren txoferrak, ez zekiten nor zen, zer gertatzen zitzaion.

Ordubete egin zuen emakumeak lasai, baina hitz solteekin hasi zen gero berriro, begiak, gero eta ozenago, deabruak. Oviedora heltzen ari zen autobusa, han utzi zuten emakumea. Irenek ez zuen lorik egin gau osoan, galduta ibili zen hurrengo egunean, lan gutxi, txarto, erabat nahastu zuen autobuseko emakumeak, kordokatu, munduko garun guztiak ikusi zituen garun hartan, Irene Arriasena ere bai.

Itzulerako autobusa Oviedon gelditu zenean, minutu gutxi batzuetako geldialdia egin zuenean, geltokiko bulegoetan galdetu zuen Irenek, zer gertatu zen emakumearekin, nor zen, nora bidali zuten. Hori guztia galdetu zuen bere buruari buruz galdetzen ariko balitz bezala, Oviedoko autobus-geltokian, lau graduko tenperaturarekin. Baina inork ez zekien ezer, txanda aldaketa egon zen, beste langile batzuk ziren, garun desberdinekin, larritasun desberdinekin.

Horregatik hasi zen hilabete batzuk geroago horri buruz irakurtzen, garunari buruz, urte batzuk geroago indarkeriari buruz ere irakurtzen hasi zen bezala, arrazoiak garbiegi ere ez. Irakurri zuen bezala *Operación Ogro. Cómo y por qué ejecutamos a Carrero Blanco*, irakurri zuen bezala *Indarkeriari buruzko tratatua*, *Traktat über die Gewalt*, Wolfgang Sofskyrena.

Galiziako bidaiaren ostean garunari buruz hasi zen irakurtzen beraz: irakurri zuen zer zen garuna psikiatrentzat, zer gaixoentzat, nor zen Oviedoko emakumea, zergatik begiak, deabruak, kamerak, zergatik hitz egiten zien jainkoak, aingeruek.

Kasu klinikoak irakurri zituen batez ere, *DSM-IV*, *Diagnostic and Statistical Manual of Mental disorders*. Oviedoko emakumearen antzeko kasu asko irakurri zituen, oso desberdinak ere bai. Irakurri zuen nola eraman zuten udaltzainek 73 urteko andrazko bat ospitaleko larrialdietara, supermerkatuan oihu batean aritu zelako, langileei oihuka, gainontzeko bezeroei. Etengabe errepikatzen zien emakumeak beste guztiei hildakoak zirela eta ezin zirela han egon, supermerkatuan, hilobi batean egon behar zutela, edo erraustuta, baina ez supermerkatu batean. Ospitalean ere ezin izan zuten sosegatu, ez hitzekin behintzat, *nullius in verba*. Botikekin hasi ziren, *tratamiento intramuscular, haloperidol 10 mg, levomepromazina 25 mg*.

Andrearen loba bat hurbildu zen ospitalera. Medikuekin hitz egin zuen, esan zien ezkongabea zela izeba, eta 76 urteko nebarekin bizi zela, itsua neba. Esan zuen ez ziotela gainerako familiari atea zabaltzen, lau urte lehenago ikusi zituela izeko-osabak az-

kenekoz, apenas irteten zirela etxetik, osaba itsua batez ere.

Polizia biharamunean joan zen ospitalera. Esan zieten medikuei andrearen neba hilda topatu zutela etxean, tapaki ugariren azpian eta ustel zantzuekin. Etxebizitza ezin garbiago zegoela bestela, baina baten batek irudiak egin zituela hormetan eta sabaian, begiak batez ere. Autopsiak esan zuen hiru urte zirela gizona hil zenetik.

Andreak zalantzarik gabe errepikatzen zuen hura ez zela bere neba, baina ez zuen ukatzen hildako batekin bizi izan zela hiru urtez. Esaten zuen euli asko sartzen zela etxera, baina ez zirela euliak, beste hildako batzuk baizik, gorpua jatera joaten zirenak. Esaten zuen espiritu batek hitz egiten ziola, agintzen ziola ez mugitzeko gorpua, harik eta «mugitu behar zuena» etorri arte. Esaldi ez nolanahikoak ere egiten zituen andreak, «Batekin bizi nintzen, askoren laguna hura, eta ez nintzen inorekin bizi».

Azken egunetan goseak egon zela aitortu zuen andreak, ezin izan zuela behar bezala jan, euliekin, kiratsarekin, hildakoarekin. Narrazio bat ere bazeukan andreak gorpua norena zen azaltzeko, iluna, likitsa ere bai beharbada. Esaten zuen familiako beste gizon

batek eraman zuela nebaren gorpua eta «haren lekuan» etzan zela. Familiako gizon haren gorpua zela hura beraz, ez zekiela neba non zegoen, bizirik beharbada. Gero berehala aitortu zuen zergatik eraman zuen neba familiako gizon horrek: «Ez jarraitzeko andreak hildakoarekin tontakeriak egiten».

Irene Arriasek zirkina sentitu zuen gerrialdean, apur bat beherago ere bai, hanketan, esaldi hori irakurri zuenean. Ez zuen garbi ikusten zer zen 73 urteko andre batentzat «hildakoekin tontakeriak» egitea. Neska bahitu haiek etortzen zitzaizkion gogora, baladak, erromantzeak, intsentsuz eta ereinotzez lurruntzen zirenak hil eta gero, edo limoi-urez igurtzi. Gauez *bi besoen artean atxiki* eta oraindik *zazpi astian erabiltzen* zirenak. Hori etortzen zitzaion gogora Ireneri, hori pentsatzen zuen, baina ez zuen pentsatu nahi: neba-arrebak, 73 eta 76 urtekoak. Alde batetik bestera mugitzen zuen burua, aztoratu egiten zen, apur bat zorabiatu ere bai. Itxi behar izaten zuen liburua, *DSM-IV*, beragandik apartatu behintzat, metro batzuk, berehala hartzen zuen ostera.

Horrela begiratzen zion Irene Arriasek garunari, munduko garun guztiei, horrela ulertzen zituen kone-

xioak, neuronenak, gihar etenei begira ulertzen diren bezala arteriak, zainak, odola.

Irene Arrias ohartu zen ia hamar minutu egin zituela trenean ezer egin gabe, azterketako ezeri buruz pentsatu gabe, beste gauza batzuk buruan, jendeari begira, jesarlekuei begira. Pentsatu zuen ez zela normala denbora galtzea orduan, azterketarako hain gutxi falta zenean. Erandiora heltzen ari ziren, karpeta zabaldu zuen, apunte batzuk atera zituen erdizka. Gogoratzen ez zituen zenbaki batzuk memorizatu zituen, edo gogoratzen ez zituela uste zuen zenbakiak beharbada. Inozoa iruditu zitzaion horretan hastea, ordea, tren batean, zutunik, baina egiten jarraitu zuen. Beste zenbaki batzuk memorizatu zituen, datak, izenburuak, ezaugarriak. Azterketa hasteko 25 minutu falta zirela heldu zen trena, Matiko pasatu eta berehala, Deustuko Unibertsitateko geralekura, «geltoki» maila ere ez zuena, «apeadero» gaztelaniaz, 1994an, Ruandan milioi bat lagun baino gehiago hil zuten urtean.

Hego-haizea gehiago nabaritzen zen Deustun, tenperatura ere trenean sartu aurretik baino beroagoa. Ematen zuen beti zela Algortan baino beroagoa Deustun, Bilbon ere bai, itsasoa, etxe altuak, porlana. Erreparoa ematen zion Ireneri jertsea kentzeak, pentsatzen zuen izerdi usaina igarriko ziotela. Berdin zion egun hartan, ez zion berdin, baina pentsatu zuen azterketa gelaraino eutsi behar ziola jertsearekin. Gela barruan kanpoan baino freskura handiagoa egongo zen, inori ez zitzaion arraro egingo azterketa jertsearekin egiten bazuen.

Unibertsitateko lehen eraikinera heldu zen Irene; eguzkiak bete-betean jotzen zuen han, zabalgunean, zuhaitzak gorabehera. Zorabio txiki bat ere izan zuen, sabela nahastuta, buruko min apur bat, lehenengo zantzuak. Ez zuen azterketa buruko minarekin egin nahi, berdin egingo zukeen arren; azterketa asko egin zuen ordurako buruko minarekin.

Bigarren eraikinera sartu zen berehala, klaustroko pasabideetara. Horma artean freskura sentitu zuen orain eta zentratu egin zitzaion burua berriro. Azterketa ekarri zuen gogora, zorabioan ahaztu bazuen. Az-

terketa-aretoko atera heldu zen minutu batzuk geroago, barruan zeuden ikaskide gehienak ordurako, guztiak beharbada.

Natural sartu zen aretora, gela handia, handienetakoa. Inoiz baino ikasle gehiago, batzuk ezagutu ere ez, ez zituen inoiz ikusi, arraroa egin zitzaion. Berehala aurkitu zituen lagunak urrunetik, erdialdean, taldean. Joana Biurrun apur bat apartatuta ikusi zuen, apunteak karpetatik kanpora, zerbait ari zen idazten. Imanol Sarasua ere taldean zegoen, hitz egiten ari zen, haria galdu gabe, baina apunteak eskuetan, apunte batzuk.

Guztiak agurtu zituen Irenek banan-banan, burua-rekin, hitzen batekin. Ez zen hurbilegi jarri hala ere, obsesionatzen hasita zegoen izerdi usainarekin, azken azterketan, azken egunean, ondo zekien arren ia ezinezkoa zela inork usaintzea, berak ere ez zuen ezer nabaritzen jertsearen gainetik. Betiko hitzak gero, Amaia Senderekin esate baterako, Imanolekin:

– Ondo?

– Ondo.

– Ordu asko?

– Asko...

– Atzo? –Leire Arruzak.

– Izan nuen denbora.

Leire Arruzak gaztelaniara aldatzen zuen batzuetan, *Ayer?*, *Me dio tiempo al final*. Imanol Sarasuaren apunteei begiratu zien orduan Irenek, igarri nahi zuen zer ziren. Imanoli gainbegiratzeko modukoak iruditzen bazitzaizkion, Irenek ere kontuan hartu beharko zituen beharbada. Kontuan hartu behar zen beti Imanolek egiten zuena, ikasten zuena, ona ikaslea, apartekoa ere bai, Joana Biurrun bezala, Amaia Sende bezala, Itziar Gereka bezala. Haiekin nahi izaten zuen Irenek beti, eskoletan, azterketetan, atsedenetan, haiekin bakarrik... Elitista horretan Irene... Nazka apur bat ematen zion horrek liburuetan, pelikuletan, baina gauza bera egiten zuen berak gero: ahal zenik eta gutxien egoten zen beste ikasle batzuekin, eskasagoekin, Gorka Etxebarriarekin, Miren Alzarekin. Karrera amaitu eta urte gutxira damutu zen, inozoa iruditu zitzaion, Miren Alzarena batez ere, baina hala egin zuen bost urtez, gaixotasuna balitz bezala, kutsatu ahal balitz bezala.

Joana Biurruni begiratu zion orduan, nola zegoen apunteen gainean, nola idazten zituen oharrak. Urduritzen hasi zen Irene, iruditu zitzaion berak ere atera behar zituela apunteak. Mahai baten gainean etzan

zuen karpeta, paperak atera, lagunengandik nahiko hurbil baina alboz, esaten zutena aditu eta irakurri ahal izateko. Hitz ere egiten zuen lantzean behin, esaldiren bat, hitz solteren bat, gehiegi ere ez, letrei adiago. Ez zen minutu asko falta, gutxi barru jakingo zuen zer zen azterketa, gaindituko zuen ala ez, gutxi gorabeherako nota ere bai. Azterketa hartu, irakurri eta lehenengo segundoan jakingo zuen zer, trebetasun hori zeukan bost urte eta gero, inoiz ez zuen huts egin.

Irakasleak sartu ziren, azterketa-paperak eskuetan, inori gehiegi begiratu gabe. Irenek karpetan sartu zituen apunteak. Leire Arruza zeukan eskuman, ezkerrean korridorea, beste guztiak aurrerago, Itziar Gereka atzean bakarrik. Berehala hasi ziren azterketak banatzen. Azkenetakoa izan zen Irene Arrias paperak hartzen, urduri, arnas aparatutik hotza. Eman zioten azterketa, galderak irakurtzen hasi zen, arin irakurri zituen, hutu asko Europara begira zegoen momentu berean, errefuxiatuen kanpamentuetan, Estatu Batuetara begira.

Irene Arriasek azterketa hartu, irakurri eta lehenengo segundoan jakin zuen gainditu egingo zuela, nota ona ere atera zezakeen, oso ona ere bai. Galdera guztietan zeukan asko idazteko, ikasitakoaren laurdena ikasita ere gaindituko zuen azterketa hura. Engainatu zuten sentsazioa ere erne zitzaion une batez, hainbeste egun, hainbeste ordu, ia kalera irten gabe, ia beste ezer egin gabe, oztako bizimodu horrekin. Azterketa ziztrin hori gero, ikasitakoaren laurdenarekin ere nahikoa zuena.

Berehala hasi zen idazten, burua altxatu ere ez zuen egin tarte luze batez. Eten txiki batzuk egiten hasi zen gero, idatzi behar zuena hobeto pentsatzeko betiere. Burua apur bat altxatzen zuen eta aurre-aurrean zeukan Imanol Sarasuari begiratzen zion, haren burmuinari hobeto esanda, haren burmuinak behar zuen lekuari. Eta arnasa hartzen zuen Irenek biriketaraino, Imanol Sarasuaren burmuina arnastu nahi balu bezala, barrukoa hartu nahi balu bezala arnasaren bitartez. Askotan egiten zuen, jende askorekin, urduri zegoenean batez ere, hori Ireneren manietako bat. Horregatik nahi zuen beti ikasle egokiekin, ikasle es-

kasagoekin ezin zuen egin, Gorka Etxebarriarekin, Miren Alzarekin. Imanol Sarasuarekin sarritan egiten zuen, bere gogokoenetako bat Imanol Sarasua. Zortea eduki zuen azterketa egunean, aurre-aurrean jarri zitzaion, ez zuen mugimendu nabarmenik egin behar hari begiratzeko.

Azterketa bideratuta zuenean, idazteko lerro gutxi eta denbora sobera, eten luzeagoak egiten hasi zen. Burua gehiagotan eta tarte luzeagoz altxatzen zuen. Hor ere disfrutatu nahi zuen, azterketako azken minutuak, karrerako azken minutuak, unibertsitatekoak. Ordura arte ez zuen hain argi ikusi, azken azterketa falta zelako, lizentziatura... Sumatzen zuen gaindituko zuela, nola ez zuen sumatuko, baina orain bazekien, bazekien ez zuela gehiago ikasi behar izango, ez hainbeste behintzat, ez hainbeste ordu. Apur bat idazten zuen, denbora sobera, burua altxatzen zuen, lepoa aulkiaren kontra jarri. Imanol Sarasuaren burmuina arnasten zuen noizik behin.

Beste ikaskide batzuei begiratzeko ere aprobetxatu zuen tarteren bat. Ez zituen guztiak ezagutzen, beste fakultate batzuetatik etorri ziren beharbada, beste urte batzuetakoak. Ezezagunak ez ziren asko, berrogei bat; beste gehienak ezagutzen zituen Irenek,

gehienekin hitz egin zuen noizbait. Batzuekin oso gutxi, hiru-lau aldiz bost urtetan, labur, fotokopiak, azterketako egunak, ikastorduak, sastraka akademikoak. Batzuk ez zituen gehiago ikusiko, azken eguna hura, Durangokoak ziren, Gernikakoak, Gipuzkoakoak ere bai. Batzuk egunkarietan ikusi zituen urte batzuk geroago, Jon Arregi eta Elena Betiño esate baterako, 1999an eta 2003an. Ezkerrean zituen Irenek azterketan, korridorearen beste aldean: Elena Betiño apur bat aurrerago, Jon Arregi oso hurbil. Ikasle normalak, egokiak batzuetan. Arazorik gabe ikusten zituen Irenek burua altxatzen zuenetan.

Jon Arregik urte bi egin zituen kartzelan handik urte batzuetara, epaiketaren zain, 1997an atxilotu eta gero. 1999an irakurri zuen albistea Irenek egunkarian, epaiketa izan zenean. Joana Biurrunek esan zion gero libre utzi zutela, kargurik gabe, urte bi eta gero, diplomatura bat egin zuela kartzelan.

Azterketa amaitzeko esaldi bakan batzuk idaztea falta zitzaion Irene Arriasi eta ordu laurden oraindik. Azterketaren zati handi bat irakurri ahal izango zuen entregatu aurretik. Beste atseden txiki bat hartzea erabaki zuen orduan, iruditzen zitzaiolako ordura arte

idatzitakoarekin gaindituta zegoela azterketa, nota onarekin ere bai.

Beroa gero eta handiagoa zen aretoan, baina eskuak ikaragarri hotz zeuzkan Irenek. Izerdi tanta bat lehertu zitzaion aldakan, besapetik zuzenean, saihetsetatik tatarrez jaitsi barik. Iruditu zitzaion izerdi tanta hori ere usteldu egingo zela orduekin eta usaina hartzen joan. Berdin zion azterketa amaitu eta gero, ez zion berdin.

Elena Betiñoren izena *Berria*n ikusi zuen Irene Arriasek 2003an, azaroan, Guardia Zibilak *Egunkaria* itxi eta bederatzi hilabete geroago, Martxelo Otamendi zuzendaria eta zuzendaritzako beste kide batzuk atxilotu, torturatu eta etxera edo kartzelara bidali eta bederatzi hilabetera, tartean Joan Mari Torrealdai, Irene Arriasen familiaren ezaguna, lagun batzuen senidea.

Berria egunkaria sortu eta urte bereko azaroan agertu zen barruko orrietan Elena Betiño beraz. Nola salatu zituen torturak, nola kolpatu zuten autoan bertan, nola poltsarena, nola mehatxuak, betikoa, ia betikoa, nola jarri zuten biluzik, lau hankan, nola ukituak, bularrak, hankartea, nola iruditu zitzaion batek klitoria ere bilatu ziola, nola atera zituzten batzuek zakilak, ez

denak, nola ukiarazi zizkioten, eskuekin, ahoarekin, nola behartu zuten masturbatzera, lau hankan ia beti, nola isuri zioten likido bat uzkitik eta zerbait sartuko ziotela esan, nola ulertu zuen Elena Betiñok ezin izango zuela bost egunez iraun. Beti da oso antzekoa, nola eskatu zien agenteei buruan tiroa jotzeko, ezin zuela jasan, ezin zuela egon. Kartzelara sartu zuten Elena Betiño gero, urte bi baino askozaz gehiago. Bahiketa batean parte hartu zuen, zaintzan aritu zen, informazioa mugitu zuen.

Irene Arriasek behin ikusi zuen Elena Betiño karrera amaitu eta gero, 2001ean, Bilbon bertan, botika baten atean. Hiru-lau gauza esan zioten elkarri, betikoak, non bizi ziren, norekin, lana, askozaz gehiago ez. Ibonekin zegoen Irene, oraindik ez ziren elkarrekin bizi, gutxi barru beharbada, bakarrik Elena. Saltokiko eskaileretan agurtu zuten elkar. Erradiografia handi bat zeukan Elenak eskumako eskuan, Irenek ez zion galdetu zer zen.

Azterketa entregatzeko zortzi minutu falta zirenean amaitu zuen Irene Arriasek. Uste zuena baino estuago, baina oraindik bazuen astia zati batzuk berrirakurtzeko, zalantza gehien eragin zizkiotenak, erabat seguru idatzi ez zituenak. Erantzun bi irakurri eta uste

baino hobeto zeuden, ordea, hirugarrena ere bai. Ez zuen gauza handirik aldatu behar izan, hitz bakanen bat, puntuazio-markak.

Erabaki zuen ez zuela gehiago irakurri behar, ordua gainean, segundoak, minutu bat beharbada. Aulkitik altxatu zen, belaunen atzeko parteak bustita zituen, gogortuta ere bai, mugimendua behar zuen. Azterketako paper guztiak hartu zituen, berdindu. Korridoretik aurrera egin eta irakaslearen mahai gainean jarri zuen azterketa, Jon Arregirena baino lau atzerago, Itziar Gerekarenaren gainean.

6

Lasaitu arraroa hartu zuen Irene Arriasek azterketa-aretotik irten zenean, nekea ere bai. Goizeko bostetan altxatu zen ikastera, ikasitakoaren gainean ikastera, eta ordura arte ez zuen nekea sentitu, lo falta. Ematen zuen tentsioak mugitu zuela Irene azterketa amaitu arte. Orain ez zuen tentsiorik behar ordea, eta nekeak hartu zuen, lasaitu arraro batek.

Bazkaria zuten azterketa osterako, jatetxea hartuta, Bilbon bertan, baina ordu bi baino gehiago falta

oraindik. Imanol Sarasuak esan zuen bere etxean utzi ahal zituztela gauzak, karpetak, liburuak, eskuetan erabili behar ez izateko arratsalde osoan, gau osoan, hartuko zituztela beste egunen batean, ez zituztela asko behar orain.

Hogei minututan ziren Imanol Sarasuaren etxean. Beheko ataria handia, sofak, koadroak, ispiluak, beirateak. Diru askorekin egin zuten, laurogei urte lehenago, ehun urte lehenago beharbada. Utzita zegoen orain: urratuta ikusi zuen Irenek argiontzi baten tulipa esate baterako, goitik beherako arrakalekin. Igogailuan igo ziren lau, Leire Arruza eta Itziar Gereka eskaileretatik. Igogailua bera ere zaharkitua, pintura altxatuta, idatziekin, uhertuta ere bai zati batzuetan, sabaiko junturetan batez ere.

Itziar Gereka igogailua baino lehenago heldu zen, mendirako ohitura Itziarrek, ohitura baino gehiago. Elkarrekin sartu ziren seiak Imanol Sarasuaren etxera, ez zegoen inor. Imanolen gelan utzi zituzten gauzak, karpetak, liburuak. Leire Arruzak euritakoa ere ekarri zuen, eguraldi harekin, zeru harekin. Logelan utzi zuen hura ere, ikasmahaiaren gainean. Egur finekoa mahaia, pisu harekin guztiarekin apur bat okertu zela ematen zuen.

Irene Arriasek komunera behar zuela esan zion Imanoli. Bidea erakutsi zion, atea seinalatu. Irenek ez zuen kisketa itxi, konfiantza hori nahi zion erakutsi. Komuna ere handia, Ireneren etxekoaren bikoitza baino gehiago.

Komun-ontzira hurbildu eta ikusi zuen leiho bat zeukala gainean, erdiraino zabalik. Zaharra leihoa, etxe osoa bezala, egurrezkoa, pisu handikoa, gillotinakoa. Patio bat ikusten zen, beste leiho batzuk, leiho zatiak, beste komun batzuetakoak, sukaldeetakoak, logelaren batekoak. Irene Arrias ez zen leihoa ixtera ausartu, ezin izango zuen gero berriro zabaldu beharbada. Gertatu izan zitzaion inoiz... Erabaki zuen ez zuela ukitu ere egingo.

Ideia gustatzen hasi zitzaion halako batean, norbaitek biluzik ikusiko zuelakoa, gerritik behera biluzik. Aurreko leihoetako norbaitek, mutil batek, gizon batek. Horregatik askatu zuen praketako botoia leihora begira, ez alderantziz betiko moduan. Horregatik jaitsi zituen prakak leihora begira, barruko arropa ere bai. Horregatik egon zen horrela, zutunik, gerritik behera biluzik, leihoaren aurrean, behar zuena baino askozaz denbora gehiago. Inork ezin zion aurpegia ikusi, leihoaren goiko parteak eta errezelek estaltzen zioten,

sabeletik behera baino ez, hiru-lau leihok, hiru-lau aukera. Buelta eman zuen azkenean, komun-ontzian eseri zen.

Konturatu zen Irene bera ere zerbait sentitzen ari zela, gehiegi ere ez, irudimena baino ez beharbada. Izan ere, aspaldi ez zuen ezer egin, etxean bakarrik askotan egon arren, ez zuen egiten azterketak zituenetan, datak hurbil zeudenean behintzat, ohitura hori zuen, neurosi hori beharbada, aurreko hiru egunetan beharbada, lehenago bai. Orain bazen aste eta erdi azkenekotik, eta sentsazio hori sentitzen ari zen Imanol Sarasuaren komunean eserita.

Pentsatu zuen, halako batean, mutil biren komuna zela hura, anaia zeukan Imanolek. Irakurri izan zuen inoiz mutilek komunean egiten dutela askotan, komun-zulora zuzen. Komun hartan ere egingo zutela ulertu zuen Irenek, askotan, egunero, gaur bertan beharbada. Zerbait sentitu zuen berriro Irene Arriasek, orain benetakoa iruditu zitzaion. Eskua hurbildu zuen momentu batez gorputza apur bat aurrerago jarriz. Han bertan egitea ere pasatu zitzaion burutik une batean, inoren komuna, leihoa zabalik, bost minutu baino ez, baina berehala altxatu zen komun-ontzitik, gehiago pentsatzen hasi aurretik. Ura hartu zuen

esku-ahurretan, hotza, garbitzen hasi zen. Leihoa zabalik hori guztia, bere buruari eman zion azken plazera. Aurpegia busti zuen gero ur hotzez.

Komunetik atera zenean, Imanol Sarasuaren logelan zeuden eserita guztiak, ohean batzuk, lurrean, aulkiren batean. Gela handia hura ere, baina sei lagun ziren, Irenek lanak izan zituen tokia topatzeko. Lurrean eseri zen azkenean, ohearen ondoan. Musika jarrita, Irenek ez zuen taldea identifikatu, ingelesez.

Bazkaria bera ere besterik gabe joan zen. Hiru-lau urte geroago Irene Arriasek ez zuen bazkariko apurrik ere gogoratzen, ezta zein jatetxetan izan zen ere, Bilboko zein kaletan, nortzuk egon ziren, zer jan zuten. Gauza bakarra gogoratzen zuen, ustez oso argi: Iñaki Basterra aurrez aurre izan zuela mahaian, bazkarian elkarri hitz egin ez bazioten ere. Normala baino hobeto gogoratzen zuen handik hilabete bi eta erdira hil zelako Iñaki Basterra, ohean.

Seiak arte egon ziren jatetxeko mahaian eserita. Irene Arriasi esan ziotena baino garestiagoa izan zen bazkaria. Izerdi usaina ezin zen igarri jatetxe barruan, bestelako usain batzuk zeuden, guztiak onak ere ez, askozaz ere nabarmenagoak.

Jatetxetik alde zaharreko tabernetara egin zuten gero. Hor hasten zen parterik txarrena Irenerentzat, goizetik saihestu nahi izan zuena. Batzuk egunak egon ziren horren zain, Leire Arruza adibidez, Amaia Sende, hala ematen zuen. Beste gehienak ere eroso zeuden, Imanol Sarasua, Itziar Gereka. Baina Irene Arriasek ez zuen edan nahi, ez zuen tabernetara sartu nahi, kea, musika, sosegurik gabe, zarata. Kanpoan gelditu nahi zuen, baten batekin, hizketan beharbada, baina guztiak sartzen ziren batzuetan tabernara, Irenek ere sartu behar izaten zuen. Inoiz bakarrik geldi-tzen zen kanpoan, jendeari adi, kaleari adi, bide-joko-en areto hartara sartu ez zen bezala bederatzi urtere-kin, nortasuna, txikitatik. Lagunak irten arte egoten zen, batzuetan sartu eta irten egiten zuen, bakarrik.

Gertatu zitzaiona gertatu baino bost minutu lehe-nago, ez zuen Irene Arriasek ezer sentitu, minutu bat lehenago ere ez. Natural hitz egiten ari zen Itziar Ge-rekarekin, esku mugimendu handiekin, barreekin, kei-nuekin. Baina Itziarrek zioena aditzen ari zen batean, arnasa hartu zuen Irenek, arnasaldi luzea, biriketarai-nokoa, eta orduan: itolarria, taupada arraro hori, taki-kardia. Inoiz ez zuen modu horretan izan, geldirik. Beti mugimendu zakar baten ostean, kirolean, ariketa fisi-

koan, beti keinu arraro bat egin eta gero, inoiz ez ia geldirik, arnasaldi bat egitearren, luzea, biriketarainokoa.

Larritu egin zen Irene, azken abisua izan zitekeen beharbada, hain modu arraroan, azken bihotzekoa. Muskuluaren ahula ikusi zuen Irenek hor, arnasaldi luze bati ere ezin zion eutsi, hogeita hiru urterekin hori guztia. Zorabio txiki baten hasiera sentitu zuen, lagunengandik banatu zen ezer esan gabe, atari bateko eskailera bakarrean eseri, harrizkoan.

Berehala hurbildu zitzaizkion lagunak, Itziar Gereka, Imanol Sarasua, gogoratzen ez zuen beste norbait, Joana Biurrun apur bat geroago. Ondo zegoen galdetu zioten, arduratuta, igartzen zitzaien. Aurpegi txarra zuela, zurbila ere bai, zerbait behar al zuen, ura, jateko zerbait.

Gehiago larritu zen Irene Arrias lagunen ardura ikusita, baina ezin zien kontatu, ez orain, geroago beharbada, pasatu eta gero. Orain esaldi laburrak baino ez, arnasa hartzea ere zaila, ez zitzaiolako takikardia pasatzen, itolarria ere ez, ehunka taupada minutuan. Arin pasatzen zitzaion normalean, baina hura desberdina zen, azken abisua beharbada, lizentziatura egunean bertan, ironikoa ere bai.

Harrizko eskaileran eserita, posizio horretan, lepoa biribilduta, sorbaldak apur bat aurrerantz, alkandoraren goiko partea zabaldu zitzaion, ez asko. Eta orain bai: izerdi usaina, alkandora barrukoa, besapeetakoa. Nabarmen heldu zitzaion sudurrera, usain gogorra ordurako, hainbeste ordu, azterketa, bazkaria, arratsaldea. Lotsa eman zion, oso hurbil zituen lagunak, igarriko zioten. Apur bat apartatzeko eskatu zien, leku apur bat behar zuela, haizea ere bai beharbada.

Lau arnasaldi luze egin zituen gero, jarraian, laugarrenarekin joan zitzaion takikardia. Erritmo normala berriro, baina aurpegiko koloreari buelta emateko denbora gehiago behar izan zuen. Lagunei berehala esan zien pasatu zela, ondo zegoela. Gezur txiki bat ere bai, zorabioa izan zela, besterik ez.

Artean zurbil zegoela esan zioten, kolorerik gabe, etxera joan nahi zuen galdetu zioten, lagunduko ziotela tren-geltokira. Irenek ez zuen etxera joan nahi, zertarako etxera, inoiz ez zuen takikardia bi izan egun berean, bata bestearen ostean. Eutsiko zion, ordu pare batez, hiru. Lagunekin geratu nahi zuen, ikaskideekin, izerdi usainarekin, gogorik ez zeukan arren. Ez zuen beste ezer edan, taberna gutxitan sartu zen, hitz

ere aurretik baino gutxiago eta esku mugimendu gutxiagorekin.

Gehienek erretiratu behar zutela erabaki zutenerako, ez zegoen trenik San Nicoláseko geltokian. Taxia non hartu behar zuen azaldu zioten Irene Arriasi Imanol Sarasuak eta Itziar Gerekak, bide zati batean ere lagundu zioten. Goizeko ordu biak hamar gutxiagotan sartu zen taxira, hogei minutu baino lehenago zegoen Algortan, Telletxe kalean, geldirik, bakarrik.

7

Telletxen gelditzeko esan zion Irenek taxi-gidariari, *Delante de la estación, por favor*. Ordaindu egin zuen, dirutza iruditu zitzaion, bazkari osoa baino garestiagoa. *Sí, es fácil ahora, derecho, baje por Salsidu*, betaurreko ilunak gidariak, goizeko ordu bietan. Zahar itxurakoak betaurrekoak, benetan zaharrak beharbada, *En Fadura es fácil ya, marca Bilbao, creo*. Taxiari begira geratu zen, eskumarantz egin zuen arte, trenbidea zeharkatu, Salsidutik behera imajinatu zuen arte, Fadurarantz, Bilborantz.

Autoa desagertu zenean, auto bakarra kalean, goizeko ordu bietan, astegunean, pauso batzuk egin zituen Irene Arriasek espaloitik, baina Zuricalday aurrean gelditu zen. Telletxe kaleari begiratu zion, Getxorantz; beste aldeari ere bai, Euskal Herria kalerainо, calle Hispanidad lehen, Mariandresenara bidean. Ez zegoen inor inon, ez zebilen autorik, inoizko handien iruditu zitzaizkion kaleak, Algorta, baina txikia ere bai, berarentzat zelako, berea zelako orain. Iruditu zitzaion, gainera, merezi zuela Irene Arriasek Algorta osoa, berea izatea, hogei urtez ikasten egon eta gero, lizentziatura azterketa egin eta gero, ondo egin eta gero.

Algortarren mamua erne zitzaion orduan, jende gutxi delako benetan Algortakoa, hori esaten dute algortarrek, jende gutxik gurasoak Algortakoak, aititeamamak. Herri minimoa Algorta XIX. mendean esate baterako, familia gutxi ordukoak Algortan gaur. Baina algortarrak ziren Irene Arriasen gurasoak, Abel Arrias, Begoña Sasieta, Casinoko etxe batean jaioak, San Martinen jaioak, Telletxera ezkonduak. Begoña Sasietaren aitite-amamak izan ziren Algortako San Nicolás elizan ezkondu ziren lehenengoetakoak.

Zuricalday aurrean zegoen Irene Arrias beraz lizentziatura gauean, etxetik 40 metrora, goizeko ordu bietan, ordu biak eta laurden beharbada. Pentsatu zuen nekez edukiko zuela Algorta berriro horrela, berarentzat, berea, inor barik, mugimendu barik, isilik. Jende asko ibiltzen zen beti, larregi ere bai, erdiko kaleetatik behintzat. Ez zen gauekoa Irene Arrias, ez zuen herria berriro horrela ikusiko. Pentsatu zuen Algorta osoa ikusi behar zuela horrela etxera orduko, inor gabe, berarentzat, erdiko kaleak behintzat. Aurrera barik, beraz, Torrenera barik, lo egitera barik, eskumatara egin zuen, Telletxetik.

Algortako etorbidera heldu zen, Avenida del Ejército 1980a baino lehen. Hantxe egon zen Borreguero klinika ere, han jaio zen Irene 23 urte lehenago, han egin zion lehenengo urratua amari, ia zentimetro eta erdikoa, odolak, usainak.

Aurrera jarraitu zuen, Getxorantz, Kirikiñora heldu zen, aldatsa igo. San Martineraino ikus zezakeen handik goitik, aitaren jaiotetxeraino, inor barik inon, autoak geldi. Trinitarioen eliza ezkerrean, Lourdeseko Ama Birjinaren imitazioa zeukana horma batean, haitzuloaren beraren imitazioa, Algortan bertan. Pezeta batzuk sartu zituzten fraideek imitazio horretan, harginak

ekarri, igeltseroak. Frontoi bi ere bazituzten elizaren ondoan, eurenak, erlijiosoenak, futbol zelai txiki bat, ortuak.

Irene Arrias Andikoetxetik sartu zen, Muxike Aurrekoa kalera heltzeko. Hara heldu nahi zuen, hura ere ibili nahi zuen hutsik. Calle Nueva esaten zioten batzuek, Muxique-Aurrecoa lehenago, Capitán Morga diktaduran, kale hartan bizi izan zelako Pablo Morga kapitaina, Francorekin altxatu zena 36an.

Kale hartako etxe batera joaten zen Irene Arrias umetan, askotan, merienda hartzera, komikiak irakurtzera, lagun baten izekoren etxera, Capitán Trueno, Capitán Morga. Patio berezi bat zeukan etxeak barruan, Mortadelo, labirintoa etxea Irene Arrias umearentzat, Asterix. Askozaz geroago jakin zuen etxe horretan egon zela hasierako ikastola, Algortako lehenengo ikastola, etxe partikularretan egiten zenean, Ipurbeltz, 1965ean beharbada. Hilabete baino gehiago ez zen egon bertan ikastola, ezin zen hilabete baino gehiago egon etxe berean, Kipe lapurra, poliziak jakiten zuen bestela, informazioa pasatzen zieten. Hilero aldatzen zuten ikastola beraz, etxe partikular batetik bestera. Esan daiteke kale berean bizi izan zirela

Pablo Morga matxinoen kapitaina, Francoren laguntzailea, eta ikastola 30 urteren buruan.

Katu bat ikusi zuen Irene Arriasek Muxike Aurrekoa kalean, alderik alde pasatu zen. Iruditu zitzaion pertsonen falta areagotu zuela katuak. Iruditu zitzaion orain kaleetatik falta ziren pertsonak biharko hildakoak zirela, etzikoak, etzidamukoak. Eta Irene Arriasek atzoko hildakoak gogoan erabiltzen zituen moduan, Morga kapitaina, Francisco Franco, amaren aitite-amamak, biharko hildakoak ere erabiliko zituztela etzikoek, edo hori ere ez agian. Pentsatu zuen halako batean Irene Arrias bera zela biharko hildakoa, *Iazko asto hilak aurten lurruna*, biharko pertsona hilak etzi lurruna beraz. Irene Arriasen gorpuak lurrunik ere ez beharbada, astirik ere ez lurruna eragiteko, ez behintzat etziko hildakoek usaintzeko modukoa. Lurrari emango zioten lurruna eragin baino lehen, seguruena, erraustu agian. Irene Arriasek ez zuen oraindik bere alaba ezagutzen, ez zekien zer egingo zuen alabak amaren gorpuarekin. Izerdi usaina etorri zitzaion gogora orduan, biharamunean kendu behar zuen, hori lehenengo gauza, arropa guztiak garbigailura. Hori da pentsatu zuena biharko hildakoez pentsatzen egon eta gero. San Nikolas plazara heldu zen.

8

Plaza erdian jarri zen Irene Arrias, erdia imajinatu zuena. Ez zuen hori sekula egin, ez zuen plaza hutsik inoiz ikusi. Frontoiari begira jarri zen, goiko leihoei begira. Udaletxea izan zen sasoi batean, eskola nazionala ere bai, *Escuela Nacional*, liburutegia orain.

San Nikolas plaza ere Plaza de la Constitución izan zen, 1876tik, Karlistaldiak, Konstituzio berria, herrikoek San Nicolás esaten jarraitu zuten arren. Urte batzuk geroago Plaza 18 de Julio, Espainiako Armadaren altxamendua, Franco. Leku guztietan begiraleak Francok, leku guztietan kaleen izenak aldatzen zituzten pertsonak. Ez zen erraza, ondo egin zuten, metodikoki, herrikoek San Nicolás esaten zioten arren artean.

1980an aldatu zuten azkenez betiko izenera, ehun urtetan aldatu ez zenera. HBk Txiki-Otaegi proposatu zuen, Francoren azken fusilatuak, baina San Nikolas izenak irabazi zuen bozketan, horrela, grafia aldatuta, 19 boto 5en kontra.

Frontoiaren atzean San Nicolás elizari begiratu zion, horma altuei: sakristia hormen atzean, erretaula,

aldarea, bankuak. Azken jesarlekuen atzean, bazter batean, Jesus gurutzetik jaitsi zuten unea, eskultura handia, odoletan, hilda. Eskua apur bat luzatuta ukitu ahal zen eskultura, umeek ere bai. Oso eskultura erreala, Irene Arrias umea apur bat ikaratzen zuena. Ez zekien zein materialetan eginda zegoen, baina Jesus izerditan zegoela ematen zuen. Irene Arrias umeak ezin zuen imajinatu zer zen hildako baten izerdia, usaina, lurruna. Ama sakristauarekin hizketan egon zen batean ukitu zuen, Jesusen belauna, izeko baten hileta-elizkizunean. Ez zegoen bustita, ez zen izerdia.

Eskulturaren gainean korua gogoratzen zuen Irenek, eskailera estu batzuetatik igo behar zen. Koruan Merklin organo bat, Joseph Gutschenritterrek berak egina, harribitxi bat, munduan gutxi lakoa, ia bakarra. Esaten izan da Joseph Gutschenritter bera ere harrituko zukeela Algortako organoak, berak eginikoak, ikusi arren ez zuela sinistuko, egin eta 100 urtera. Izan ere, organoak eraikitzen direnetik 15-20 urtera hasten dira endekatzen, biguntzen, nahasten, pieza jakin bat batez ere, gainontzekoak ere bai. 15-20 urte pasatuta hasi behar da horrelako organoak konpontzen, zuzentzen. Organo gehienek gutxi daukate hasierakotik:

adabakiak bata bestearen gainean. Hori dauka Algortakoak desberdin, mende oso bat baino gehiago egin duela konponketa beharrik gabe. Hasierako bera da, inork ez du berregin, ez du eskatu, beharrizanik ere ez, ia ezinezkoa iruditzen zaie organogileei.

Gutschenritterrek ez zuen fama ona Frantzian, beharbada Cavaillé-Coll frantziarraren konpetentzia zelako orduan, baina haren organoetan ikusten da orain zer den momentu bateko fama ona, fama txarra, momentu jakin batekoa. Hodiak letoiz egitea erabaki zuen berunez barik, ez zen ohikoa.

Begoña Sasietaren aitite-amamen ezkontza baino 19 urte geroago sartu zuten organoa korura. Irene Arriasek ez zekien haien ezkontzan musika jo zuten elizan, ez zekien ohitura hori zegoen ala ez. Irene ikusten ari zen plaza horretara aterako ziren ia ziur Begoña Sasietaren aitite-amamak ezkondu eta gero, Leon Sasieta eta Telesfora Rosa Uria, Irene Arriasen birraitite eta birramama, Irene orain zegoen lekutik pasatu ziren beharbada. Aurrera jarraitu zuen Irenek gero Basagoititik, María Cristinara bidean.

Sustrai tabernara heldu zen, Batzoki aurrera. Hutsik Sustrai ingurua ere, pertsianak itxita, isilik. Hori ere bitxia Irenerentzat, beti zebilen norbait handik,

barruan, kanpoan. Taberna zen orain, kafetegia lehen, «dastategi» esaten zieten sasoi batean, *degustación*. Han egin zuen lan Begoña Sasietak aldikada batez, Abel Arrias hil zenean, kafetegian, dastategian, etxeak ere garbitu zituen, gaixoak zaindu, horretan ari zen orain ere, edadeko gizon bat zaintzen, gutxik nahi zituen lanak. Alaba zeukan, egin behar zen, unibertsitatea, Deustu. Begoña Sasietak inoiz ez zion Ireneri esan, esate baterako, ezin zuela Deustun ikasi. Hori eskertu behar zion Irene Arriasek amari, edadeko pertsonak, gaixoak, orduak, ez hori bakarrik.

Basagoititik gora Portu Zaharrerako aldapari begiratu zion Irenek, mojen ikastetxera doana. Begoña Sasietaren ikastetxea, Begoña Sasietaren mojak, falangistak gehienak, asko bai, bat izan ezik: sor Carmen. Nazionalista sor Carmen, gauza arraroa orduan, giro horretan. Franco etortzen zenetan, Areetara, Bilbora, sor Carmen bidaltzen zuen zuzendariak umeekin, Francori harrera egitera, nazionalista bakarra. *Cara al sol* kantatu beharrean ezpainak gora eta behera mugitzen zituzten umeei buruan jotzen zizkieten kolpeak mojek, ez sor Carmenek. Barkuren baten sirena-hotsa entzun zuen Irene Arriasek mojen ikastetxetik gora.

Basagoititik irten zen Irene apur batez, desbideratu egin zen. Txopoetara nahi zuen, han egoten zelako lagunekin, asteburuetan, udan, euren adineko talde asko inguruan, bankuetan, harrizko petrilean, lurrean. Hutsik ikusi nahi zuen orain, inoiz ez zuen hutsik ikusi.

Harrizko petrilean eseri zen, Ereaga hondartzari begiratu zion, Igeretxeri, itsasoari gero. Beti iruditu zitzaion Ireneri itsasoa ere ez zela hura: itsasadarra, hibridoa, gauza triste bat, zikin ia beti. Ereagan ia egunero bainatzen zen 87 urteko andre bat ezagutzen zuen, inbidia lauso bat ere ematen zion. Irene bera ere otsailean bainatu zen behin Ereagan.

Serantes mendiari ere begiratu zion, Santurtziko argiei. Beti egoten zen argiren bat Santurtzin, Portugaleten, adi egoten ziren beti. Itsasoari begiratu zion berriro, betazalak itxi zitzaizkion. Lotan geratzen ari zen harrizko petril baten gainean. Ez zuen lotan geratu nahi, ez zuen etxera sartu nahi, Algorta pentsatzen jarraitu nahi zuen. Basagoiti etorbidera atera zen atzera.

Irene Arriasen osaba 1936an bertan sartu zen Euzko Gudaroztean, Bilboko mendietan ibili zen, ingurukoetan, eibartarra izan arren, armagile baten semea. 1943an itzuli zen Algortara, urtebete eskaseko gerra, zazpi urte etxetik kanpora. Itzuli eta berehala ezkondu zen Begoña Sasietaren ahizparekin, Miren Sasietarekin.

Ehiztari ona Ireneren osaba, txikitatik armen inguruan noski, Eibarren, tiratzaile ona. Espainiako txapelduna ere izan zen plater-tiroketan, Mediterraneoko Jokoetan urrezko domina, 1955ean. Espainia hirugarren izan zen domina-zerrendan, Frantzia eta Italia aurretik. Egiptok baino hiru urre gehiago Espainiak, Irene Arriasen osabarena bat, Francoren Espainiaren alde domina. Baina dominak Espainiaren alde irabazi arren, ezin izan zituen armak bere izenean erregistratu, traidorea izan zelako, probintzia traidoreetakoa. Taberna ere jarri zuen Algortan, Caza Bar, hor ere zaletasuna, ehiza, eskopetak, baina taberna bera ere ezin bere izenean erregistratu... Inoren pentzuan beti, kartzelako zazpi urte eta gero. Hori errepikatzen zion

beti Begoña Sasietak Ireneri osabaz aritzen zirenean, inoren pentzuan beti, probintzia traidoreak.

Labezomorroak jandakoa zen Irene Arriasen osaba kartzelan zegoela, beti kontatzen zuen, nazka keinuak egiten zituzten familiakoek. Esaten zuen labezomorroen tripak zuri-zuriak direla, aho barruan leunak, gozoak normalean. Irene Arriasek sumatzen zuen osabak ez zuela Julio Cortázarren narrazio hura ezagutzen, baina Cortázarrek ere bazekien labezomorroen tripak zuriak direla, ez da erraza jakitea zergatik: *la luna cayó de plano en la masa blanquecina de la cucaracha*, esaten du, *el cuerpo desnudo de su revestimiento coráceo*. Julio Cortázar ez zen kartzelan egon, Belgikan jaio arren Lehen Mundu Gerra hasten ari zenean, 1914an. Ez zuen, seguruena, labezomorroen zaporea ezagutu, Ireneren osaba bezala, ahoan leuna, gozoa gehienetan.

Irene Arrias Basagoiti etorbidera irten zen berriro eta osabaren Caza Bar taberna 70eko hamarkadara arte egon zen lokaletik pasatu zen, goizeko ordu bi eta erdietan, Casino plazan, horregatik gogoratu zituen osabaren dominak, labezomorroak. Lokal txikia zen, minimoa, baina bezero asko izan zituena, Algorta osoa, udako jendea, Athleticeko jokalariak. *Plaza del*

Caza ere esaten zioten plaza osoari, Satistegi izen zaharra berreskuratu zuten arte 1980an. Eduardo Moreno Bergaretxe *Pertur* izena ere proposatu zuten izen aldaketak egin zituztenean, ETAko kidea, 1976an desagertua.

Manuel María Smith ere joaten zen Caza tabernara, arkitektoa, Neguriko etxe asko egin zituena, Bilboko printzipal batzuk ere bai. Esaten zen madari bat eramaten zuela poltsikoan Manuel María Smithek Caza tabernara joaten zenetan. Irene Arriasen osabari eskatzen zion gero madaria hozkailuan sartzeko eta 30 minuturen buruan ateratzeko. 30 minutu beti, zehatz... Madaria ardo gorri batekin jaten zuen gero.

Casino plazan ere ez zegoen inor, argirik ere ez leihoetan. Amaren etxea ikusi zuen Irenek: han jaio zen ama, gerran, gerra galduta zegoenean, 1937ko abenduan. Etxekoneko batzuk falangistak, nazionalistak besteak. Nazionalistetako bat, Arregi, kartzelan egon zen, heriotza-zigorra, Casino barruan euskaraz hitz egitearren. Baten batek salatu zuen, horrelako asko egoten zen, *Mire, creo que en la casa de los Gárate imparten clases en vascuence; No, perdone, señor, es inglés, son los hijos de unos amigos*.

Arregi ez fusilatzeko otoitz egiten zuen Begoña Sasietak amarekin, gauero, eta burua ere nahastu zitzaion Arregiren emazteari. Euskaraz kantatzeko leihoak eta leiho-ateak ixten zituzten Begoña Sasietaren etxean. Etxekoneko falangistak, badakizu, jende ona baina falangistak, ez zituzten salatuko beharbada, beharbada bai. Gorra zeukan Begoña Sasietaren amak, ozen egin behar zioten. Hiru aitagure gauero Arregiren alde.

Irene Arriasek erraz zeukan Casino plazatik etxera berehala heltzeko, lotara joateko, lau minututan egon zitekeen ohean, baina ez zuen nahi, María Cristinaraino behintzat heldu nahi zuen. María Cristina izena ez zuten 1980an aldatu, broma ere ematen du, izen guztiak aldatu zituztenean: Txiki-Otaegi, Pertur, Eustakio Mendizabal *Txikia*. María Cristina utzi zuten han, koloniak, Amerikan, Marokon. Leku askotan ez zuten nahi, baina Algortan lotu zen, itsasoari begira, beste leku batzuetan ere bai euskal herrietan.

Apur bat aurrerago jarraitzea erabaki zuen Irene Arriasek, San Ignacioraino, elizaraino. Amaitzen ari zen paseoa, inor bako paseoa, Algorta berarentzat. San Ignacion hartuko zuen buelta etxerako. Eskuak poltsikoetan sartu zituen, etxeei begiratu zien, zuhai-

tzei, handik imajinatu zuen amama, Marina Zabala, 57 urte lehenago, marokoarra atzetik, haurdun. Basagoiti etorbideko 5 eta 7 zenbakietako sotoetan sartu zituzten orduan Francorekin etorri ziren marokoar guztiak.

Irenek astiroagotu egin zuen pausoa, oso astiro heldu zen San Ignaciora. Apur bat aurrerago ere joan zitekeen, udaletxeraino adibidez, udaletxe aurrean dagoen plazaraino. Obelisko bat jarri zuten han 1937ko uztailaren 21ean, gerrako hildakoak omentzeko, alde batekoak, *Plaza de los Mártires por Dios y por España* izena asmatu zioten. Marokoarrak begira egongo ziren obeliskoa jarri zutenean, eurek jarriko zuten beharbada, *por dios y por españa* marokoarrek ere. Irenek Algorta pentsatu zuen gau horretan ere han zegoen obeliskoa oraindik, 1994an, Ruandan hildako guztiak zenbatu gabe zeudenean. Eliza aurrean hartu zuen buelta, etxerako.

10

Basagoititik barik, Alangotik sartu zen Irene etxerantz joateko. Gasolindegiaren atzeko partetik pasatu

zen, beste espaloira aldatu. Begiratu ere ez zion egin errepideari, bazekien ez zela autorik, ezin zen egon. Zahar-etxea egon zen lekutik pasatu behar zuen derrigor, *el antiguo asilo*, Algortako gaztelaniaz. Etxebizitzak ziren orain, altuak eta asko, ganorazkoak ematen zuten. Irenek osabaren labezomorroak imajinatu nahi izan zituen etxe hartako sukaldeetan, galdara-geletan, zuriak tripak, leunak ahosabaiaren kontra.

Ama jaio zen etxera heldu zen berriro Irene, Amezti 2. 1937an jaio zen Begoña Sasieta, gerra galduta zegoenean, Stalinek purgetako batzuk egin zituenean, handienak beharbada, ezagunenak, garbiketak. Stalinen idekoek obsesioa zeukaten garbitasunarekin, Hitlerrek berak «higiene» hitza aipatzen zuen sarritan, juduak, kontzentrazio-esparruak. Franco gizon lasaia izan zen beste horien aldean, inozoa ia, Melitón Manzanas lasaiagoa, inozoagoa.

Begoña Sasietaren etxeko hormak ukitu zituen eskumako eskuaz, tatarrez ibili zuen eskua hormatik. Imajinatu zuen amak ere askotan ukituko zituela horma haiek gerraostean, gosez, errazionamendua.

Amezti kaletik jaitsi zen Irene Arrias, zeharo hutsik hura ere, goizeko hiruretatik hurbilago erlojua orain ordu bietatik baino. Gurea zinema paretik sartu zen,

Torrenera ailegatzeko. Etxetik ehun metrora baino gutxiagora zegoen, ezkerrean merkatua. Hango sotoetara sartzen zen Marina Zabala alabekin eta senarrarekin, ahizpekin ere bai, sirena-hotsak jotzen zuenean, hegazkinak zetozenean, alemaniarrak, espainiarrak, italiarrak, Algorta ez zuten bonbardatu azkenean.

Torrenera heldu zen Irene, bere kalera: postetxea eskuman, harrizko petrilekin, harrizko eskailerekin. Postetxeko etxaurreari begiratu zion. Mutu geratu zen orduan, arnasa apur bat eten zitzaion, ez asko, ez takikardietan bezala. Ume bat zegoen postetxeko eskaileretan jesarrita, goizeko hiruretan, hiru urtekoa, bikoa beharbada, pijama eta galtzerdiak, plastikozko poltsa bat eskuan, aurrera begira umea. Ireneri begiratu zion, aurrean bilduta eskuak. Plastikozko poltsari gogor eusten zion, baten batek agindu hori eta bakarra eman izan balio bezala. Izerditan behar zituen eskuak derrigor.

Alde batera eta bestera begiratu zuen Irene Arriasek, kale osora. Umearen ama ikusi nahi zuen, ikusi behar zuen, aita, familiakoren bat. Hutsik zegoen Torrene, gainerako kaleak bezala, asteguna, goizeko hirurak. Umearengana hurbildu zen, bakarrik zegoen galdetu zion, euskaraz, gurasoak non zeuden. Zurbil-

zurbila umea, begiak marroiak, ez zuen ezer erantzun. Izena ere galdetu zion, euskaraz lehenengo, gaztelaniaz ere bai, isilik jarraitu zuen umeak. Hasperen egin zuen Irenek, ez zekien zer gehiago galdetu, ez zion ulertzen beharbada, alferrik ari zen beharbada. *Por qué estás aquí* galdetu zion, gaztelaniaz soilik orain, baina inozoa iruditu zitzaion galdera berehala, zer erantzungo zion galdera horri, izena ere ez bazion esaten.

Berriro begiratu zuen Irenek alde guztietara, inor ez, ez zekien zer egin, galdera gehiago ez, hori seguru, keinuak beharbada. Eskua luzatu zion, baina ematen zuen umeak ez zekiela oso ondo zer egin. Eskuari begiratu zion, Ireneren aurpegiari gero, eskuari berriro, segundo asko egin zituen berdin. Irene eskua erretiratzeko ere egon zen, baina zirkin bat sumatu zuen umearen ezkerreko eskuan, poltsa apur bat askatzen ari zela, oso astiro guztia. Ezkerra askatzen zuen heinean, gehiago estutzen zuen plastikoa eskumaz. Guztiz askatu zuen ezkerra azkenean eta Ireneren ahurraren gainean jarri. Hotz zeukan, normala baino hotzago, zurbila eskua bera ere. Gorantz tiratu zion Irenek apur bat, berehala ulertu zuen umeak, berehala jarri

zen zutunik. Eskailerak jaitsi zituzten, postetxetik irten.

Zapata barik zegoen umea, galtzerdiak baino ez, erreparoa ematen zion Ireneri. Pentsatu zuen besoetan ere har zezakeela, lepoan, baina iruditu zitzaion umeak uko egingo ziola, eskua ere askatuko ziola, uzkurtu, eskaileretara itzuli. Berdin jarraitu zuten beraz, baina Irene ahalegindu zen zoruari ondo erreparatzen, umeak kristalik ez zapaltzeko, harririk, metalik. Berehala heldu ziren Irene Arriasen etxe atarira, zorua nahiko garbi zegoen.

Igogailuko botoia sakatu nahi zuen galdetu zion Irenek umeari, keinuz. Pentsatu zuen gustatuko zitzaiola, beste ume batzuk ikusi zituen inoiz, baina umeak ez zuen botoia sakatzeko zirkinik ere egin, begiak Ireneren begietan, ezkerreko eskua Ireneren eskumakoan, plastikozko poltsa bestean. Ezinezkoa zen Irenerentzat poltsa barruan zegoena ikustea, urdin iluna plastikoa. Botoia sakatu zuen.

Igogailuko ateak zabaldu zirenean, argia kanpora amildu zenean, atzera egin zuen umeak, Ireneren izterren kontra estutu zen, edo izter ostean ezkutatu beharbada, aurpegia batez ere. Ematen zuen ez zuela igogailua nahi... Eskaileretatik igo ziren bosgarren so-

lairuraino, baina Irenek ez zuen arnasesturik izan, oso astiro igo zelako umea, eskailera-maila bakoitzean oin biak, bost solairu.

Etxera heldu eta umea barrura pasarazi eta gero, Irenek ez zuen, betiko antzean, minutu batzuk itxaron behar izan arnasberritu arte. Eskertu egin zion umeari, esan ez bazion ere, sinistu zuelako bere gorputza oraindik ere bazela nor, lekuetara igotzeko, ariketa fisikoren bat egiteko.

Egongelan utzi zuen umea, argi txiki batekin, ama esnatzera joan zen. Berehala zabaldu zituen begiak amak. Ume bat topatu zuela esan zion Irenek, «Ume bat tope dot, ama», esan zion, «neskato bat». Ez zuen ematen amak gehiegi ulertu zuenik, kostata altxatu zen ohetik, hirurogei urtetik hurbilago beste inondik baino. Egongelara eraman zuen Irenek, amak bestelako berbarik gabe ulertu zuen egongelan. Umearen aurrean makurtu zen, esku bien artean hartu zion aurpegia, masailak laztandu zizkion atzamar lodiez, iletik pasatu zion eskumako eskua, gorputz-atal guztiak haztatu zizkion, pijama apur bat altxatu, goitik, behetik, begietara ere begiratu zion. Irene atzean zain, lasaiago orain.

Begoña Sasietak antzeko galderak egin zizkion umeari, Irenek kalean egin zizkionak, euskaraz, gaztelaniaz. Umeak ez zion ezeri erantzun orain ere. Begoña Sasietak plastikozko poltsa hartzeko keinua egin zuen orduan, plastikoari heldu eta apur bat tiratu zuen, barruan zer zeukan ikusi nahi zuen. Umeak ez zion utzi, inoizko gogorren estutu zituen atzamarrak, altzora erakarri zuen poltsa.

Begoña Sasietak modua aldatu zuen beraz, ilea laztandu zion berriro, masaila, «Zer dekozu hor, laztana». Poltsa seinalatu zuen, umeak ez zuen ezer egin, baina Irenek igarri zion begiak apur bat argitzen zituela. Segundo batzuk behar izan zituen oraindik, minutu oso bat beharbada. Plastikozko ertzak bereizten hasi zen azkenean, oso era traketsean, aspaldi egin izan ez balu bezala, inoiz egin izan ez balu bezala. Poltsa barruan hiru botika desberdin zegoen, kutxa handi bi, txiki bat, Irene Arriasek ordura arte ikusi gabekoak hirurak.

ATZERRIKO EGUNKARIETAN AURKITUTAKO BESTE HIRU NARRAZIO

Hamar txakur

Hori da, Jauna, agindu zidatena, hori egin nuen. Haiek agintzen dutena Berorrek aginduko balu bezala ulertzen dut nik. Eta hori bera esan zidaten, elizatik Txakurrene esaten dioten lekura eraman behar nuela. Baina Berorrek ez du, beharbada, izen hori ezagutuko, Txakurrene, izen berria da. Aitak esaten du Garre esaten ziotela leku horri lehen, edo Agarre. Aldapa igo eta errepide ondoan dagoenari esaten diote orain Txakurrene, txakur batzuk agertu zirelako han, hilda noski, aita umea zela. Hiru txakur handi hilda, bi tiroz eta bestea labanaz, sei txakurkume itota. Guztira bederatzi txakur, baina inork ez zituen ezagutzen, ez ziren hemengoak.

Esan zidaten elizatik Txakurreneraino eraman behar nuela, errepide ondoraino, han hartuko zuela baten batek, auto batek, kamioi batek beharbada, esan zuten auto normal batean ezin izango zutela sartu. Bazekiten orgarekin egunak behar direla haraino, hori bazekiten, badakite nolako bideak diren, biderik ere ez batzuetan, Berorrek ere badaki. Berdin zien, gauza zen haraino eramatea, lehen errepide zatiraino,

kamioia sartzeko moduko lehen errepide zatiraino, aldapa igo eta apur bat harago.

Gazta oso bat eman zidaten, ogirik ez, ura, botila bi, manta bat ere bai gauerako. Esan zidaten ez nuela manta itzuli behar, gordetzeko niretzat gero. Hiru zulo zituen, alde batean bi, handiak, beste bat kontrako bazterrean, handiagoa. Zikin zegoela iruditu zitzaidan, usain ona zuen. Iluntzean irten nintzen, uste dut hori ere badakiela Berorrek.

Hasierako zatia ez zen horren txarra ere, bideak esan nahi dut, elizakoak eta eliza ingurukoak, baina ez nuen ondo egin. Orga zuzen eraman nahi nuen, baina ezin zen, ezinezkoa, labaindu egiten zelako armairua. Apur bat okertu behar nuen, alde batera edo bestera, orgaren angelu batek eusteko armairuari. Baina, guztiarekin ere, orga haren halako bi behar ziren armairu hori behar den moduan eramateko, oso txikia orga, estuegia. Hori askozaz geroago ulertu nuen, orga okertu behar nuela, hurrengo egunean, goizean. Elizatik atera nintzenean, zuzen eraman nahi nuen, eta jausteko puntuan egoten zen armairua. Nahi baino gehiagotan gelditu behar izaten nuen armairua orekatzeko. Iluntzea zen ordurako, ez nuen ondo ikusten,

horregatik ibili nintzen horren astiro, bideak hain txarrak izan ez arren.

Armairua ezin nuen behin ere jausten utzi, hori zen kontua, egurra zelako gehiena, egur zaharra, ateak, giltzaz itxita guztiak, baina beira zati batzuk ere bazituen goiko partean. Hauts eginda geratuko ziren beirak lurrera jausita, hori iruditzen zitzaidan inportanteena orduan, beira zati haiek ez apurtzea, armairuari eustea errepidera heldu arte. Armairua mugitzen nuenetan, hala ere, iruditzen zitzaidan normala baino pisu handiagoa zuela, barruan zerbait balu bezala. Uste dut hutsik zegoela esan zidatela, Berorrek ere jakingo du hori.

Hamabiak arte ez nintzen gelditu, sinistu, Jauna, egun luzea izan nuen arren orga hartu arte. Elizako lan guztiak eginda nituen, haien etxekoak ere bai, goizeko seietatik... Baina orga hartu nuenetik eta hamabiak arte ez nintzen gelditu. Eskuak minduta, gerria, zapatak ere kendu behar izan nituen, ez dira nire neurrikoak. Haiek esaten dute lehenago gelditu nintzela... Ez da egia, sinistu, Jauna... Hamabiak hogei gutxiagotan beharbada, ez askoz lehenago, Berorrek haiek baino hobeto ulertuko du.

Gelditu eta lehenengo gauza horixe, Jauna, orga gainetik kendu nuen armairua. Horri begira beti ni, ez nuen nahi gauez lurrera jausi eta beirak hauts eginda geratzea. Hori zen inportanteena niretzat orduan, lan bikoitza izan arren, atzera altxatu beharko nuelako biharamunean, gerria neukan moduan, eskuak, kilo haiek guztiak, zirudiena baino askoz pisuagoa.

Zuhaitz zabal baten ondoan etzan nuen armairua, tartean ni. Uste nuen zuhaitzaren eta armairuaren artean haizea kenduko zidatela, baina erdia ere ez zidaten kendu. Mantak ere ez zuen asko balio, ez kanpoan lo egiteko. Haizeak orga mugitzen zuen, ez zegoelako oso orekatuta ere; kolpeak joarazten zizkion harrixka batzuen kontra. Horrek eta hotzak erabili nindu-ten lo behar den moduan ez egiteko. Gaztak ere kalte egin zidan, ez gehiegi ere, bai tripetara begira jartzeko moduan. Botagura izan nuen lokartu arte.

Gogortuta altxatu nintzen, hori sinistu behar dit Berorrek, gerria batez ere, tripak ondo. Sukarra ere banuela pentsatu nuen momentu batean. Bezperan baino askozaz nekezagoa egin zitzaidan armairuarena: gerria ere zuzen ipintzeko mina, eskuetan zauri txikiak, bost ere bai, ilunetan ikusi ez nituenak. Armairua zuzen ipini nuen berriro orga gainean, konturatu

gabe oraindik apur bat okertu behar zela. Labaindu egiten zen askotan noski.

Ia eguerdira arte egin nuen sukartuta bezala. Gazta zati bat jan nuen hamaiketan, ez zidan kalterik egin, ez nuen urik edan. Angelusa esateko gelditu nintzen. Gelditu egin behar da angelusa esateko, Berorrek daki hori inork baino hobeto. Orduan konturatu nintzen orga apur bat okertu behar zela, ez minutu bat lehenago, ez geroago: angelusa esaten ari nintzen bitartean... Irudia etorri zitzaidan, otoitz-esaldiak, orgaren irudia, armairuarena... Sinplea zen, erraza, sukar sentsazioa ere joaten ari zen, angelusean hori guztia.

Armairua askozaz hobeto horrela: oso gutxi mugitzen zen, ez zen labaintzen, eta mugitzen zenetan ere, apurka, milimetroak ia. Oso lantzean behin zuzendu behar nuen, arinago ere joan ahal nintzen. Armairua ezin zen jausi beraz, arinago ari nintzen, baina askozaz lan handiagoa zen niretzat. Berehala ulertuko du Berorrek: okertuta joan behar nuen, erdi makurtuta, beso bat bestea baino askoz beherago. Armairuaren pisua gehiago sentitzen da horrela, eta iruditzen zitzaidan gero eta pisu handiagoa zeukala, hutsik behar zuen arren. Haizea ere izan zitekeela pentsatu

nuen. Lehenengo minututik nituen minduta muskuluak, sorbaldan, lepoan, egun osoa mina kendu gabe. Eskuak ere txarto, zauriak, oinak.

Bideak ere txarragoak ziren, lehen ere esan diot, ezagutuko ditu Berorrek, nola ez ditu ezagutuko. Harri txikiekin ere gelditzen zen orga trangatuta... Gurpilak ere ez zeuden finegi, zaharrak... Orga askatu gabe egin behar nuen buelta harriak zeudenetan, makurtu, harriak kendu. Sustraiak ziren txarragoak, ezin kendu, harri batzuk ere ez. Zuloak ere asko dira bide haietan, berrogei metro atzera egin behar nuen batzuetan, lokatza, putzuak.

Eta hori zen bidea, Jauna. Orgarik gabe doanarentzat normala, ez die erreparatuko, beharbada, harriei, sustraiei, zuloei, putzuei bai agian, lokatzari, baina erraz pasatzen dira orgarik gabe, armairurik gabe, hainbeste kilo. Sinisten hasi nintzen zerbait zeukala armairuak barruan.

Hirugarren gazta zatia hartu eta berehala hasi nintzen berriro larritzen: laster etzan beharko nuen lotarako, beste gau bat, haize harekin, hotza, zurrun muskulu guztiak berriro, hainbat orduz goizean gogo txarrez, benetan gaixotuta beharbada bigarren gauarekin. Horri guztiari begira nengoen ilundu aurretik ere,

Berorrek sinistuko dit, baina hamarrak arte ez nintzen eseri, ondo ilunduta, zulo hartan. Zortea ere izan zela pentsatu dut, Probidentzia beharbada, Berorrek jakingo du horretaz nik baino gehiago, baina kontua da haizerik ez zela sartzen zulora, izpirik ere ez.

Ondo egin nuen lo, ez nuen pentsatuko, hezea izan arren zuloa, eguzkiak ere gutxi joko zuen han. Hostoak jarri nituen, lehorrak gehienak, ihartuak. Hamaikak arte egon nintzen hostoak batzen, heze zeuden asko. Mantak ere uste baino bero handiagoa eman zidan. Bost ordu eta erdi egin nuen lo guztiarekin ere, baina ondo esnatu nintzen. Gorputzaldi arraroa goizean, ez bezperakoa bezain luzea.

Eguraldi hobea ekarri zuen goizean, Berorrek ere gogoratuko du, haizea ere gutxiago. Egun horretan ikasi nuen harri txikietan behintzat trangatuta ez gelditzen. Orgaren besoei kolpea jotzen nien beherantz, kolpe sikua, eta harrien gainetik egiten zuten gurpilek, sustraien gainetik ere bai. Gero eta harri handiagoak pasatzen ikasi nuen, zulo batzuk, askozaz arinago joan nintekeen, guztiz minduta egon arren, giharrak, eskuak ere ilunago egunean-egunean. Gazta zati bi jan nituen goizean.

Eguerdian heldu nintzen Ordonako pasabidera. Ez nuen handik joan behar Txakurrenera heltzeko, errazago egingo nuen Isuriatik, badakit, baina Ordonatik nahi nuen. Askotan ibili naiz handik, aitarekin batez ere... Berriro ikusi nahi nuen... Iruditu zitzaidan, gainera, harri gutxiago egongo zela.

Urteak ziren hara joan nintzen azkenekotik, baina ez nuen usain hori gogoratzen. Ordonara heldu eta berehala usaindu nuen, eguzkiak gogorren jotzen zuenean. Usain leuna hasieran, gero eta sarkorragoa gero, desatsegina, Txakurrenera heldu arte usaindu nuena, haizea zebilen arren, ez bezperan bezain gogor.

Gazta zatia ere desgogara jan nuen usain harekin, ez zidan kalterik egin. Ura ere asko edan nahi izan nuen, baina iruditu zitzaidan usain haren zaporea hartzen zuela, eta azken tragoa ahotik bota behar izan nuen bazter batera. Belartza batean eseri, arnasa apurka-apurka hartzen hasi eta usainera ohitzeko ahalegina egin nuen. Kalkulatu nuen, ordura arte bezala ibilita, iluntzerako helduko nintzela Txakurrenera, gauerako beharbada. Uste baino hobeto ibili nintzen ordura arte beraz, astia neukan. Begiak itxi nituen belar gainean, eguzkitan, epeletan. Ordu erdi egin

nuen lo, ez askoz gehiago, ordubete beharbada, sinistu, Jauna, ez gehiago.

Esnatu nintzenean, askozaz okerragoa zen usaina. Iruditzen zitzaidan ahotik sartzen zitzaidala eta hatsean inkatu, usain hori zuela nire hatsak. Listua ere, lo ondokoa, normalean baino lodiagoa, zapore horrekin sentitu nuen. Hiru-lau aldiz egin nuen tu belarretan.

Inoizko arinen ipini nuen armairua orga gainean; kontua zen pasabidetik berehala irtetea... Uste nuen, benetan sinistu nuen orduan, usainak behar bezala pentsatzen uzten zidanean, Ordonakoa bertakoa zela usain hori, berezkoa, paduretakoa, urrun zeuden arren, errekakoa beharbada. Pentsatu nuen pasabidetik irten eta gero ez nuela berriro usainduko, ez zela egongo, baina Arrizera heldu nintzenean ere, Ordonatik urrun, askozaz altuago, han zegoen usaina, leunago beharbada, baina usain bera, edo oso antzekoa. Haizea ere bizitu zen Arrizen.

Iluntzen ari zuen, laster nintzen Txakurrenen, Txakurrenera igotzeko aldapan behintzat. Gutxi ikusten zen, lainotuta. Imajinatzen dut ez zuela euririk bota haizea zebilelako, Berorrek ere badaki nola izaten den hori. Gurpilak ia ez ziren harriekin trabatuta gelditzen,

belarretatik joatea erabaki nuelako, bide ondotik baina belarretatik: harri gutxiago zegoela konturatu nintzen. Nahiko arin egin nuen, gauerdirako edo goizeko ordu baterako helduko nintzela kalkulatu nuen.

Eta hala izan zen, Jauna, gauerdia baino apur bat lehenago heldu nintzen Txakurrenerako aldapara, beheko partera. Baina igotzen hasi baino hogei metro lehenago zerbaiten kontra jo zuen orgak, gurpilek. Kolpea eman nien orgako besoei, sikua, betiko modukoa, baina harri handia behar zuen, sustraia. Ez zuten gurpilek pasatzen, ez nuen ezer ikusten.

Armairua jaitsi nuen, lurrean etzan, ez nuen sorpresarik nahi, hain gutxi falta zenean. Orgaren aurreko partera joan nintzen, makurtu. Gizon bat zen, Jauna, etzanda. Haren buruaren kontra jo zuen orgak, horregatik ez zuen pasatzen. Lotan zegoela pentsatu nuen, Jauna, ulertuko du Berorrek, jarrera ere lo egitekoa zuen, apur bat ahuspez, apur bat alboz. Baina arraroa, Jauna, kolpe bi jo zizkion orgak, buruan biak, eta ez zen esnatu.

Neuk hil nuela pentsatu nuen momentu batean ere. Sorbalda mugitu nion, gero eta indar handiagoz, harik eta ahoz gora jarri nuen arte. Oso ondo ikusten zitzaion aurpegia, zuri-zuria, odola paparretik behera.

Zulo bat, eztarrian hasi eta bularreraino zabaldua... Ez nion gehiegi begiratu.

Pentsatu nuen momentu horretan ezin nuela haren alde ezer egin, biharamunean itzuliko nintzela, orgarik gabe, orga Txakurrenen utzi eta gero, abadearekin, medikuarekin. Armairua zamatu nuen berriro beraz, aurrera jarraitu, baina berehala trabatu ziren gurpilak berriz, bost metrora, sei metrora. Beste gizon bi lurrean, beste gorpu bi, emakumezko bat metro eta erdi aurrerago, biluzik, odolez. Haizea boladaka, hiru gorpuak ikusi nituenean oso bizi.

Hiru hildakoak kontu handiz inguratu eta aurrera egin nuen, nola ez nuen egingo, zer egin behar nuen... Baina aldapa igotzen hasi nintzenerako, ikusi nuen ez zirela lehenengo hiru haiek bakarrik, hilotzak bata bestearen atzean zeudela, emakumezkoak, gizonezkoak, agureak, umeak ere ikusi nituen, ez asko. Usaina Ordonakoa baino gogorragoa... Zapia haginen artean erabili nuen, baina ez dakit ezertarako balio izan zidan.

Ezin nituen gorpu guztiak saihestu, ulertuko du Berorrek, aldaparen lehenengo hamar metroen ondoren dena zelako hildakoa, bata bestearen gainean, be-

larra ere ez zen ikusten. Esango nuke leku batzuetan bi-hiru gorpu ilara zegoela goikoaren azpitik.

Orga behartu nuen orduan, gizonezko baten gorpu gainera igo nuen, indarrez. Hildako batetik bestera pasatzen hasi nintzen gurpilak gero, ez zegoen beste modurik, Jauna. Oso trakets hasieran, asko kostata, gora eta behera, hildakoen gorpuzkeren arabera, umeak zirenean oso behera adibidez.

Neuk ere zapaldu behar izan nituen gorpuak, noski, ulertuko du Berorrek, ez zegoen beste modurik, ezin nuen pentsatu. Eta orgaren azpian zaratak entzuten hasi ziren, kraskak, hezurrak apurtzen ariko balira bezala, kartilagoak. Kexuren bat ere entzun uste izan nuen, pertsonaren batek eginikoa esan nahi dut, ahoarekin esan nahi dut. Ez nintzen gelditu, ezin nuen, hori ere ulertuko du Berorrek, armairuari begira nengoen ni, orgari begira, usain harekin asko pentsatzeko modurik ere ez.

Baina momentu batean ezin izan nuen gehiago, Jauna, Berorrek ulertzen ez badu, ez du inork ulertuko. Errepidetik hurbil nengoen, hori iruditu zitzaidan, eta pentsatu nuen nahikoa egin nuela. Han utzi nuen armairua, gorpu batzuen gainean. Korrika hasi nintzen gero, hiru-lau aldiz jausi nintzen hildakoen gainera,

odolez zikindu. Agure baten aurpegiaren kontra ere jo nuen ahoaz. Hezur gogorrak zituela iruditu zitzaidan, zauria egin nuen ezpainetan.

Lurra berriro zapaldu nuenean, belarra, bazter batean makurtu nintzen botaka egiteko. Ez nuen ezer bota. Kilometroak egin nituen gero, etxe batean hartu ninduten.

Berorrek esaten du han dagoela armairua orain-dik, ez duela kamioiak hartu. Haiek esaten zuten erre-pidetik oso urrun utzi nuela, baina ezin da izan, Jauna. Errepidetik hurbil nengoen, hurbil egon behar nuen, sinistu Berorrek behintzat. Agindu zidatena, hori egin nuen. Ezin naute horregatik zigortu, ezta, Jauna? Azal-duko die Berorrek, ezta?

Etzanda

Laurent hiru minutu berandu heldu da eraikinera eta zazpigarren solairura igo behar du oraindik. Igogailu bi ditu eraikinak, normalek baino abiadura handiagoa hartzen dutenak, zabalak, metal kolorekoak. Ikaragarri garbi daude eta berri itxura daukate.

Zazpigarren solairura heldu denean, itxarongela batera pasarazi du emakume batek. Hutsik dago, hamabi aulki ditu hormen kontra eta mahai zabal bat erdian, aldizkariak gainean. Duela gutxi garbitu dutela ematen du, hormak duela gutxi margotu dituztela, aldizkariak duela gutxi ordenatu balituzte bezala daude. Dena da berria edo oso ondo zaindua. Beroa arazo bakarra, ez dago leihorik.

Ia berrogei minutu egin ditu Laurentek itxaroten atea zabaldu denerako. Txanda heldu zaiola pentsatu du, aulkian apur bat mugitu da, baina berehala ikusi du beste bi pertsona sarrarazi dituela emakumeak itxarongelan, gizonezkoa eta emakumezkoa. Hasiera batean Laurentek ez du jakin elkarrekin datozen edo bakoitza bere aldetik... Izan ere, aulki lerro berean eseri dira, erdian aulki bat hutsik utzita bada ere. Ordu

erdi pasatu denerako, ordea, Laurentek ulertu du ez dutela elkar ezagutzen, kasualitatez sartu direla elkarrekin.

Emakumeak gona estua dauka, grisa, kolore bereko jaka, alkandora zuri baten gainean. Ematen du bulegoko lanetik datorrela edo doala. Gizonak trajea, gris ilunagoa, beltza beharbada, gorbata gorria. Emakumea lehen hiru ordu laurdenetan begirada galduta egon da, baina liburu bat atera du poltsatik gero. Laurenti ideia ona iruditu zaio. Gizonak egunkaria dauka.

Hiru ordu dira Laurent itxarongelara sartu denetik. Beroa jasanezina da orain alkandora laburra duen arren. Ez du ulertzen nola eusten dioten emakumeak eta gizonak jakekin. Aurpegia gorritzen ari zaiola sentitu du, belarrietan igartzen du batez ere, sukarraren sentsazio bera da.

Bost ordu eta erdi pasatu direnean, emakumea aulkitik altxatu eta, mugimendu oso geldoekin, aulkia apartatu eta lurrean eseri da, hormaren kontra bizkarra. Irakurtzen jarraitu du. Harritu egin da Laurent, baina beste gizonak begiratu ere ez dio egin. Apurka-apurka bizkarrari irristatzen utzi dio emakumeak gero eta azkenerako lurrean etzanda geratu da. Umeek lurrean etzaten direnean hartzen duten posizioa dauka.

Oinekin mahaia ukitzen ari da ozta-ozta, poltsa ipini du buru azpian.

Handik ordu erdira, gehiagoko barik, irakurtzen ari den liburuko orriak banaka-banaka urratu eta txikitzen hasi da emakumea. Jakako poltsikoetan sartu ditu zatiak gero. Berehala geratu da irakurtzeko orririk gabe eta sabaira begira jarri. Ondoko gizonak une bakar batean ere ez dio begiratu emakumeari hori guztia egin izan duen bitartean.

Itxarongelan sartu direnetik zazpi ordu betetzeko daudenean, egunkaria utzi du gizonak, zapi bat atera, bekokiko izerdia xukatu eta jaka kendu du. Aldizkarietara hurreratu da gero, eskuan batzuk hartu eta, gehiegi ere erreparatu gabe, zaharrena aukeratu du, kolorea galduta duena. Aldizkaria erditik zabaldu du belaunetan, baina irakurri barik, ertz guztiak tolestu dizkio gorantz, ontzi moduko bat egin duen arte. Nahikoa segurua dela iruditu zaionean, aldizkari gainean makurtu eta botaka hasi da gizona, lasai, baina zarata handiz. Aldizkariaren izkinetatik, ordea, likido marroikara bat atera eta gizonaren prakak zikindu ditu, goiko partea batez ere.

Ahal izan duen bezala bildu du gizonak aldizkaria, baina orduan konturatu da ez dagoela zakarrontzirik

itxarongelan. Beste aldizkari batzuk hartu ditu hondakinak hobeto babesteko eta hutsik dagoen aulki baten gainean utzi ditu. Modu progresiboan hasi da aulkia zikintzen... Ezpainak garbitu ditu gero gizonak zapiarekin. Emakumeak une bakar batean ere ez dio begiratu hori guztia egin izan duen bitartean, lurrean etzanda jarraitu du.

Lasaitu egin da Laurent itxarongelara sartu denetik ia bederatzi ordura atea zabaldu eta bere txanda dela esan diotenean. Izan ere, beroaz gainera, gizonak utzi duen usaina ere bada orain. Beste biak agurtu ditu atetik eta orduan entzun du emakumearen ahotsa lehenengoz.

Gizon altu batek hartu du Laurent gela txiki batean, baina ez dauka janzkera berezirik, kaleko jantzita, jertse urdina. Alkandora kentzeko eskatu dio Laurenti, busti egin dezakeela. Bainuontziaren ondoan belauniko jartzeko esan dio gero. Laurentek hiru zigarrokin ikusi ditu bainuontziko uretan, ileak eta kartoi zati batzuk. Burua makurtzeko eskatu dio gizonak, uretatik ahal denik eta gertuen jartzeko. Laurenten garondoan jarri du orduan gizonak eskua eta presio zehatz batez, ez gogorregi ere, uretan sartu dio burua. Itolarria sentitzen hasi da Laurent, baina gizonaren es-

kuak indar handirik egiten ez duela uste arren, ezin izan du burua uretatik atera. Konortea galtzeko puntuan dela utzi dio eskuak presio egiteari eta arnasa hartu ahal izan du Laurentek bainuontzitik kanpora. Segundo batzuk baino ez, berehala bultzatu du eskuak uretarantz berriro. Zentzuz pentsatu ezin duen arren, ondoegi kalkulatuta dagoela iruditu zaio Laurenti.

Hirugarrena

Sirena-hotsak jotzen du zabortegian astean behin edo birritan. Normalean ordu laurden geroago hasten dira bonbak, beste batzuetan askozaz lehenago. Emilio Aranaz Larrondok ahal bezain arin alde egiten du dagoen lekutik eta billar-mahai apurtu baten azpian etzaten da. Esango luke Emilio Aranazek zazpigarren uda duela bizimodu horrekin.

Zabortegia ikaragarri handia da, kilometroak ditu luzeran eta zabaleran, eta bonbak urrun lehertzen dira beti: kamioien ondoan batzuetan, plastiko zurrunen ondoan beste batzuetan. Gotorra iruditzen zaiolako aukeratu zuen Emilio Aranazek billar-mahaia, eta lurrarekin bat egin zuen granitozko horma baten ondoan dagoelako. Portuko hiru edukiontzik ere estaltzen dute, tangentzialki baino ez bada ere. Zazpi urteren buruan badaki, ordea, bonbak urrun lehertzen direla beti.

Emilio Aranazek ulertzen du hogeita hamar urteko gerrak egon direla, ehun urtekoak ere bai, baina ez zaio iruditzen gerra modu haiek zentzurik dutenik orain, etekinik, iruditzen zaio dirua arinago mugitzen

dela. Sumatzen du, beraz, luze barik amaituko direla bonbardaketak zabortegian. Galderak egiten dizkio bere buruari, ordea: zergatik ez da entzuten bonbarik inguruko herrietan, hirian? Zergatik ez da beste inor etorri zabortegira? Emilio Aranaz etorri zenean, inongo lekurik seguruena zen. Unibertsitateko bere mintegian, esaterako, birritan sartu ziren soldaduak eta hiru lankide eraman zizkioten. Iruditzen zaio zortea izan zuela zabortegirakoa egin ahal izan zuelako.

Beste gauza askok kezkatzen dute: kamioiak orduorduan etortzen dira, egunero, bi aldiz. Hondakin organikoak ere asko ikusten ditu: inoiz ez du jateko arazorik izan. Hiru otordu egiten ditu egunean, egoera onean daudelako jateko gehienak. Birritan baino ez du beherakoa izan zazpi urtean. Eta imajinatzen du, beti entzun izan du, eskasia izaten dela beti, gerran, bonbak, setioak, beti egoten dela falta, gaixotasunak, beherakoak. Emilio Aranazek ez du izan, eta zaborra, kopurua, bera da beti, handia.

Eguna zatituta dauka. Berandu esnatzen da, hamarretan, hamar eta erdietan. Eguzkiak arratsaldean jotzen du bere lo-lekuan. Hori ere apropos dago aukeratuta, lotarako ahalik eta epelen egoteko. Hamabiak edo ordu batak arte, zortearen arabera, jatekoa bil-

tzen du. Eguneko hiru otorduak pilatzen ditu orduan eta ez dauka kezkarik hurrengo egunera arte. Arratsaldean tresnak egiten ditu burdin zatiekin. Koilarak, labanak, armak. Dutxa moduko bat egin nahi izan du inoiz, baina ezin izan du. Ez da dutxatzen beraz, eta ontzi askotan eta desberdinetan biltzen du euria. Billarrean egiten du iluntzero, bederatzietatik aurrera beti. Bola bi baino ez ditu mahaiak.

Uztailaren 3an, 2010ean, sirena-hotsen ostean, inoiz baino bonba gutxiago lehertu da zabortegian. Bideozaletu baten grabazioari erreparatzen bazaio, hiru baino ez. Batek bete-betean lehertu du billar-mahaia. Egur artetik, metal artetik, mahaiaren tripetan trabatuta zegoen hirugarren bola jausi da, biraka, lokatzetaraino.

HIRUGARREN ATALA

1994 hartako iluntze batean lo gelditu zen Irene Arrias telebista aurrean, amaren ondoan. *The Towering Inferno* ikusten ari ziren, gaztelaniaz, *El coloso en llamas*. Irene ama baino adiago, josten ama, Paul Newmani begira Irene, tentsio apur batekin ere bai, tentsio gozo bat. Loak hartu zuen Irene une batean beraz, baina konturatu ere ez zen egin lotan gelditzen ari zela, ametsik gabe, gero gogoratzeko ametsik gabe behintzat, lo idorra beharbada.

Kolpean esnatu zen halako batean. Sua ikusi zuen telebistan, jendea korrika, Paul Newman, Steve McQueen. Horri begira zegoela, burua guztiz nahastuta zuen Irene Arriasek, ez zekien non zegoen, irudiak nahastu egiten zitzaizkion buruan, guztiak espazio berean baleude bezala, pelikulakoak, egongelakoak, aktoreak, ama, sua. Gertatu izan zitzaion beste noizbait, nahasmendu hura, baina segundo gutxiko kontua izaten zen, lau, bost, berehala jartzen zen guztia bere lekuan, berehala orekatzen ziren gauzak. Desberdina izan zen orduan, telebista aurrean, Paul Newmanen aurrean. Burua nahastuta jarraitzen zuen Irenek lehe-

nengo momentua pasatuta ere, ezer ez zen bere lekura itzultzen, ezer ez zen orekatzen, esnatu berriko nahasmenduarekin jarraitzen zuen, guztiz esna egon arren, zorabiatuta ia. Amari begiratu zion, ez zen ezertaz ohartu, urduri jartzen hasi zen Irene.

Gauza batzuk argi pentsatzeko kapaz zen oraindik hala ere, nahasmendua gorabehera. Garunaren zati batek ondo erantzun ahal zion oraindik, eta une batean pentsatu zuen hori izango zela bere burua beharbada egun horretatik aurrera, gau horretatik aurrera, nahasmendu horrekin, argiegi pentsatzeko aukera ematen ez ziona. Ulertu zuen ezin izango zuela gehiago lehengo moduan pentsatu, lehengo moduan erabaki, orain zegoen bezain galduta egongo zela beti, Paul Newmani begira, egongelako leihoei begira, amari begira. Bertigo moduko batek harrapatu zuen orduan, ohartu zelako burua zela Irene Arrias batez ere, buruari begira egon zela hogeita hiru urtez, eta buruari begiratzea beste erremediorik ez zuela lanean hasten zenean ere. Imajinatu ere ezin zuen egin zer egin zezakeen burua okertzen bazitzaion, nahastuta jarraitzen bazuen orain bezala, pantailari begira, Paul Newmanen arropei begira.

Baina besterik uste izan zuen arren, hirugarren minutua bete baino segundo batzuk lehenago itzuli zen Irene bere onera, joan egin zitzaion nahasmendua, betiko moduan hasi zen berriro pentsatzen. Bertigo hori geratu zitzaion hala ere: zer egingo zuen beste nahasmendu batek harrapatzen bazuen, nahasmendu luzeago batek, atzera egingo ez zuena, onera etortzen utziko ez ziona. Imajinatu ere ezin zuen egin, ez zuen imajinatu nahi. Momentuz natural pentsatu ahal zuen berriro, larritasunik gabe begiratu ahal zion Paul Newmani, amari, amaren josturari.

Lizentziatura azterketaren emaitza begiratzera joan zen Irene handik egun batzuetara, unibertsitatera, Deustura. Ez zen goizetik joan behar, lasai hartu zuen: dutxatu egin zen, denbora asko ere egin zuen dutxa azpian, gehiegi ere bai, bakarrik zegoelako. Dena xaboitu zuen, azterketa eguna gogoratu zuelako beharbada, izerdi usaina. Pentsatzen ere egon zen: huskeria iruditu zitzaion orduan, ur azpian, telebista aurreko buru nahasmena, huskeria iruditu zitzaizkion takikardiak, azterketa egunetik ez zuen izan. Takikardiak ere desegin zitzaizkion dutxan, beste gurari batzuk ere bai. Hamaikak baino apur bat lehenago irten zen etxetik.

Azterketa eguneko bide bera egin zuen, eskailerak, geltokia, trena, unibertsitateko klaustroak. Beste bide bat ematen zuen ordea, argiagoa, hustuagoa. Ez zeraman karpetarik, arropa ere gutxiago, buruak ez zion gainezka egiten. Azterketako emaitzak horma batean zeuden, zerrenda guztiak, normalean erabiltzen ez zen horma batean.

Nota ona atera zuen Irenek, bere nota bezalako gutxi zerrendetan. Berea baino nota altuago bi ikusi zituen, Imanol Sarasuarena bat. Inbidia sentitu zuen, ez gehiegi ere, inbidiak ez zion Iuzaro erasaten... Beste zikinkeria batzuek bai beharbada, ez inbidiak... Poztu egin zen, tristatu, pentsatu zuen berdin ziola, ez zion berdin.

Joan baino hustuago itzuli zen Irene Arrias Algortara. Trena ere ia hutsik, ordu horretan, Ibarrekolandatik aurrera batez ere. Lotsatzeko modukoa iruditzen zitzaion bidaia orain: segundo bateko lana egitera joan zen Deusturaino. Nota begiratu eta atzera, ordu eta erdi, ordu bi horretarako. Leiho ondoko jesarleku batean jarri zen Axpe-Udondo baino apur bat lehenago.

Eta une horretan bertan, Irene Arrias treneko leihotik itsasadar bazterreko zikinkeriari begira zego-

en unean bertan, Janvier Munyaneza umeak eskuko makila mugitu eta zaintzen zuen behietako bati jo zion kolpea konturatu barik. Ezkerreko begitik sartu zion egur muturra ia, marka txiki bat ere utzi zion ilajean. Kigannako muinoan hori guztia, Ruandan.

Janvier Munyaneza belarretan jesarri zen gero, Ireneren trena Negurira heltzen ari zen minutuan, eta papiroei begira geratu zen. Han ezkutatu zen aste batzuk lehenago, *interahamwe* hutuak sartu zirenean. Esaten zuen Janvierrek oso gutxitan begiratzen ziela hilketak egin ziren lekuei. Lehenengo eguneko masakrea izan zen lekutik pasatzen zenean, esate baterako, esaten zuen, beste alde batera aldatzen zituen begiak. Memorialetara egundo ez zen joaten.

Hezur ilarak jarri zituzten Ruandan masakre lekuetan, erakusketak, museoak, burezurrak, femurrak, bata bestearen gainean, «memorialak» esaten zieten. Janvier Munyaneza ez zen memorialak ikustera joaten, baina Cassius Niyonsaba, esaterako, guztiz kontrakoa: ia egunero joaten zen hilketa lekuetara, eskolara bidean, oporretan. Jolasten egoten zen lagunekin masakre lekuetan, pilotan, ahuntzak eramaten zituen. Kontrakoak Cassius eta Janvier, kontrako erreakzioa, kontrako erantzuna, antzeko egunak pasatu arren, aste

batzuk lehenago, 1994 horretan, berdinak beharbada, adin berekoak izan arren. Baina ematen du ia inoiz ez dela ezer berdina, antzekoa ere ez beharbada, garunak ere ez direlako berdinak izaten, antzekoak ere ez, berdinak ez diren bezala memorialetako burezurrak, ilaran jarriak, berdinak ez diren bezala Ulrike Meinhofen burezurra, António Lobo Antunesena, Witold Gombrowiczena. Janvier Munyanezak papiroei begira jarraitzen zuen Ireneren trenak Aiboa pasatu eta gero ere.

Hilabete batzuk lehenago, apirilaren 10ean, mezaren ostean, auzoko hutuak agertu ziren Janvier Munyanezaren etxean, alde egiteko handik, etxea nahi zutela. Esan zieten ez zituztela hilko, hori ez, hainbeste ere ez, baina etxea hartuko zietela eta ez zituztela han ikusi nahi. Kibungoko muino batera igo ziren Janvier eta familia, aitonaren etxera. Militarrak baina, biharamunean heldu ziren muinora ere. Janvierren osabak ihes egiteko ahalegina egin zuen, tiroa jo zioten atearen ondoan.

Masakrerik handienaren egunean ere han zeuden Janvier Munyaneza eta familia. Lagun asko hil zituzten *interahamweek*, dozenaka, ehunka beharbada. Janvierren arreba batek milizianoetako bat ezagutzen zuen

eta eskatu zion sufrimendurik gabe hiltzeko, mesedez eskatu zion. Errukitu egin zen gizona, horraino heldu zen haren errukia, kristaua izango zen seguruena: lurrera bota zuen Janvierren arreba, mailukada batez hil zuen, bakar batez, sufrimendurik gabe, agindu zion bezala. Baina oihuka hasi zen orduan auzoko hutu bat, Janvierren arreba haurdun zegoela... Labana hartu zuen orduan eta alderik alde zabaldu zion neskari sabela, ez da erraza jakitea zertarako: umea bera ere hiltzeko, hilda zegoen ikusteko... Umekia ere ez zen ondo ikusiko, odol artean, errai artean, txikia behar zuen, sabela ere ezin zelako nabarmenegia izan, mailukada jo zionak ikusi ere ez zion egin, ohartu ere ez zen egin haurdun zegoela.

Janvierrek ez zuen kontatu zer gertatu zen gero: arreba hilda edo odolusten ikusi zuen, hil eta gero odolusten, odolak ez zionean ezertarako balio. Gauza da milizianoek hiltzen jarraitu zutela, harik eta *interahamween* buruzagiek txistua jo zuten arte, gelditzeko ordua zela agindu zuten arte. Arratsaldeko seietan izaten zela idatzi izan da.

Janvier Munyaneza bera arrastaka hasi zen hildakoen artean orduan, baina *interahamwe* batek ikusi zuen. Kolpea jo zion haga batez, metalezkoa haga, eta

hil egin zuela pentsatu. Hildakoarena egin zuen Janvierrek, «hildako begiak» jarri zituela azaldu zuen, hamalau urterekin hori guztia, ondo egin zituen itxurak. Eta apur bat geroago milizianoek airean hartu eta beste leku batera bota zutela sentitu zuen, gorpu bat balitz bezala, beste hildako batzuekin batera. Hildako gehiago bota zizkioten gero gainera. *Interahamweak* joan zirenerako, guztiz estalita zeuden Janvier eta bere beste arreba bat. Aitak eta anaiak atera zituzten arratsaldean gorpuen artetik. Arrebak odol asko galdu zuen, Cyugaron hil zen ordu batzuk geroago.

Ezkutatzera joan ziren orduan, Janvier eta familakoak, joan behar izan zuten, bizirik zeudenak, gutxi, eta papiro artean ezkutatu ziren. *Interahamwe* taldeak egunero joaten ziren hara, tutsi bila, baina ez zen erraza papiro artean. Kontatu zuen Janvierrek batzuetan ume txikien negarrei segika topatzen zituztela familia osoak. Heldu asko hil ahal izan zuten horrela, umeak ere bai, papiro artean, buruzagiek ordua zela esaten zuten arte.

Hildako asko gelditzen zen papiro artean *interahamweek* alde egiten zutenean, baina ez zituzten lurperatzen, hori esaten zuen Janvier Munyanezak. Han usteltzen ziren, kiratsarekin, odolbilduekin, ezkutatuta

zeudenen artean. Esaten zen usaina mihiari itsatsita izaten zutela ezkutatuta zeudenek. Egunero ikusten zituzten gorpuak, egunero usaindu. Esaten zuen Janvier Munyaneza hamalau urtekoak gorpu ustelek heriotza propioa imajinarazten zietela eta ez zutela zalantzarik egiten: berdin hilko ziren, odolbildu berdinekin, kirats berberarekin. Esaten zuen hildakoak desegin arte egon zirela han. Izan ere, egoera normal batean jango zituzten animaliek ere aspaldi alde egin zuten, lehenengo masakreetako zaratek beldurtu zituztela, hori esan zuten Janvierrek eta besteek.

Genozidio ahalegina hasi baino lehen, hogeita lau behi zeuzkan Janvier Munyanezaren familiak, bost ahuntz ere bai. RFPko tropak sartu eta etxera itzuli ahal izan zirenean, ostera, hiru topatu zituzten, hiru behi. Anaia eta biak bakarrik geratu zirenez, jatekoa prestatu behar zuen Janvierrek eta behiak zaindu... Eskolara joateko modurik ez, beraz, masakreen ostean... Pena hori zuen Janvierrek, pena hori batez ere, eskolarena. Jean-Baptiste Munyankoreren familiako guztiak zeuden eskolatuta ordea, baina masakreetan hil zizkioten iloba bi, unibertsitate lehiaketa nazionala irabazitakoak biak. Emaztea eta semeetako bat ere lehen momentuetan hil zizkioten.

Paduretatik ihes egin ahal izan zuen Jean-Baptistek beste seme batekin. Kontatu zuen Jean-Baptiste Munyankorek elorri batean egin zuela semeak halako batean estropezu, korrika ari zirela, paduretatik irteteko, aita apur bat aurrerago, semea atzetik. Esan zuen zerbait oihukatu zuela umeak lurrera jausi zen momentuan, baina ezin izan zuela berak atzera begiratu, semearen oihuari begiratu. Lehen kolpeak ere entzun zituen Jean-Baptistek atzean, baina korrika jarraitu zuen, esan zuen ezin izan zuela ezer egin, urrun zegoela ordurako, urrun egon behar zuela.

Jean-Baptiste Munyankorek urte batzuk geroago esan zuen lagun berriak egin behar izan zituela masakreen ostean, familia berria, inor barik geratu zelako. Dena berria beraz: lagunak, familia, seme-alabak ere bai beharbada. Baina lotan, ia gauero, lehengo familiakoekin egiten zuen amets; lehengo lagun eta familiakoekin egiten zituen gau gehienak, hala esan zuen. Hildakoak, amets haietan, euren artean egoten ziren hizketan ordea, behin eta berriro errepikatzen zuen, Jean-Baptisteri kasurik egin gabe... Esaten zuen begiratu ere ez ziotela egiten... Horrela kontatzen zuen Jean-Baptiste Munyankorek bere minetako bat.

Hilabete bi geroago ETAk Francisco Veguillas Erices teniente jenerala hil zuen Madrilen. Defentsa Politikarako zuzendari nagusia, gobernuko presidenteordearen laguntzaile hurbiletako bat. Amosala eztandarazi zioten ondoan, 40 kilo.

Gobernuak susmoa zuen atentatu handia ari zirela Madrilen prestatzen, segurtasuna sendotu zuten, alferrik. Francisco Veguillasek ere segurtasun modu guztiak betetzen zituen, baina aparkatuta zegoen auto batean jarri zuten amosala, eztanda handia, handiegia beharbada. Auto gidaria ere hil zen noski, kalean lanean ari zen tramoiari bat ere bai. Esaten dute orduko egunkariek lehen solairuko balkoi batera bidali zuela gorpuetako bat lehergailuak, zintzilik geratu zela han.

Hurrengo eguneko egunkariak dio tramoiariaren gorpua zela, baina egunkari berak, bost urte eta hamahiru egun geroago, teniente jeneralaren gorpua izan zela idatzi zuen. Ematen du lausotu egiten direla gorpuak, nahastu. Zenbakiak geratzen dira, baina zenbakiak ere nahasteko errazak dira, errazenak beharbada, Madrilen, hiriburu handia delako, Ruandan, herri txikia delako. Pentsa daiteke ez dela ezer ere geratzen, ahaztea dela normalena, lausotzea, *lazko asto*

hilak aurten lurruna beharbada, baina aurten baino ez, ez askozaz gehiago.

Egun batzuk geroago polizia nazional bat hil zuten, baina egoera guztiz bestelakoa, lekua ere bai: Madril barik Berango. Berangon ere, baina, ez edozein tokitan: Batzokian. Han zegoen polizia nazionala kartetan, askotan joaten zela esan izan da. Hor lehenengo desoreka, polizia nazionala Batzokian, kartetan, lagunekin, lasai. Hotza da gainontzekoan hilketaren narrazioa: gizonezkoa eta emakumezkoa sartu ziren aurpegia estali gabe, tiro bi jo zizkion poliziari gizonezkoak, alde egin zuten, Algortan lapurtutako taxia atean. Algortan bertan abandonatu zuten taxia berriro, San Nikolas kalean dio egunkariak.

Taxia Algortan utzi zuten beraz, Berangotik kilometro bira, hirura, baina ez hutsik: jabea, taxi-gidaria, maletategian sartu zuten minutu batzuk lehenago. Narrazioa ez da hain arrunta hor, gidaria maletategian sartuta egin zutelako atentatu guztia. Ezin da jakin hala prestatuta zeukaten, momentuko erabakia izan zen beharbada. Bertsiorik errepikatuena da berehala atera zutela taxi-gidaria maletategitik, oihuak entzun zituztela auto barrutik.

Hilabete bi geroago Anjel Irazabalbeitia hil zuen Ertzaintzak. Larrabetzun atentatu saiakera bat egitetik zetorren, zetozen, komandoko hirurak. Istripu bat izan zuten bidetik, baina beste auto bat lapurtu zuten. Loiun gelditu zituen Ertzaintzak, tiroketa, ertzain bat zauritu zuten, komandoko bat ere bai. Anjel Irazabalbeitia hilda geratu zen bertan, Loiuko Batzokiaren ondoan, orduko egunkariek diotenez, Batzokia berriz. Loiu ez dago Berangotik urrunegi ere, 12-15 kilometro. Hilabete biren buruan hilketa bi antzeko lekuetan, bata aurretik prestatua, bestea ez. Lau-bost hilabetetan hiru hildako, arrazoia antzekoa. Tartean beste batzuk ere hil zituzten, euskal herrietan, munduan, Ruandan milioi bat tutsi, hutuak ere bai. Izenak lausotuago daude han, polizienak, gerrillarienak, milizianoenak. Han ez da guardia zibilik, beste alkohol modu batzuk edaten dituzte.

António Lobo Antunes idazlea 1942an jaio zen Lisboan. Seme-alaben arteko nagusiena, gurasoak ere euren familietako nagusienak, aitona-amonek 40 urte baino ez idazlea jaio zenean. Esaten du Lobo Antune-

sek gaztetan ez zuela heriotza ezagutu, bere familian ez zela inor hiltzen, gazteak guztiak.

Ume-umetan, 10 urte baino gutxiago beharbada, testu batzuk idatzi zituen koaderno batean, lehen testuak. Azalean idatzi zuen: *Obra completa. António Lobo Antunes*. Umetarik idatzi izan zuen beraz, umetarik idatzi nahi izan zuen, inork behartu gabe, plazera ikusten zion. Baina futbolean ere egiten zuen, ondo, ondo baino apur bat hobeto ere bai. Benficak fitxatu zuen, Portugalgo talderik handienak, *O Glorioso*, titulu gehien dituena, Europako kopak ere bai. Lobo Antunesen aitaren bulegora joan ziren Benficakoak, trajez, gorbataz, mutila fitxatu nahi zutela. Portugalgo selekzioak ere eraman zuen, beste maila bat da hori, selekzioa: Portugalgo milioien artean 22 mutil, 24 beharbada, gehiago ez, António Lobo Antunes bat.

18 urterekin futbola utzi behar zuela esan zion aitak, agindu egin zion, ez zuelako ikasten, ez zeukalako ikasteko astirik. Futbolerako eta idazteko, horretarako hartzen zuela denbora, beste ezertarako ez, hori esaten zion. Aukeratzera eman zion aitak momenturen batean: futbolean egin ala idatzi. Futbola utzi zuen Lobo Antunesek, bistan da. Aita hil nahi izan zuen orduan, ez metaforikoki. Hori ere ulertuko da:

Benfica, *O Glorioso*, selekzioa... Karrera teknikoa egiteko ere esan zion aitak; Medikuntza ikasi zuen.

Lobo Antunesek esaten du unibertsitatean ikusi zuela lehen hildakoa, hildakoak, hildako-ilarak, usain harekin, gorpu batzuk luzaro uzten zituztelako hozkailuetan. Esaten du idazleak txarto pasatu zuela lehenengo urteetan, lehenengo hildakoekin, ohitura kontua dela gero. Ruandan bezala, pogromoetan bezala, purgetan bezala... Komentario bera egiten dute guztiek, gerretan egon direnek, hil dutenek, asko hil dutenek, ohitura kontua dela, lehenengoa txarrena, lehenengoak beharbada. Lobo Antunes ere ohitu zen, amaitu egin zituen ikasketak.

Emagin batek eskua irakurri zion ospitalean, unibertsitatea amaitu berri: Angolan hilko zela esan zion. Intentzio minimoa ere ez zuen Lobo Antunesek momentu hartan Angolara joateko, hango gerraz ere gutxi hitz egiten zen, ez zuten komunikabideek ia ezer esaten, ez zen komeni. Burutik pasatu ere ez Lobo Antunesi Angolara joatea, espezialitatea egin behar zuen, psikiatria aukeratu zuen.

Hori guztia baino askoz lehenago, pediatrian zegoela, ume bat hil zitzaion Lobo Antunesi ospitalean, asko estimatzen zuen ume bat, familiakoak urrun zi-

tuena. Ez ziren familiakoak ikustera joaten, ezin zuten, hil egin zitzaien azkenean. Ospitaleko langile batek izara batean bildu zuen umea orduan, besoetan hartu gero, korridoretik ibiltzen hasi zen umea besoetan. Umearen hanketako bat ikusi zuen orduan Lobo Antunesek, izara artetik aterata, zintzilik, korridorean aurrera, balantzaka, ospitaleko langilearen gorputzaren kontra joz ziurrenik, kolpe erritmikoak. Lobo Antunesek esaten du asko idazten zuela sasoi hartan, baina oraindik ez zuela nahi zuena idatzi, ez zuela topatu, horregatik ez zuela ezer argitaratu. Esan zuen, ordea, ume haren hanka hila ikusi zuenean ulertu zuela zer idatzi behar zuen, *iazko hanka hilak*, orduan idatzi eta publikatu zuela lehen liburua, *Memória de elefante*, umearen hankari begira. Ez da egia izango beharbada, ez egia osoa, Faulknerrek ere esaten zituen halako egiak, berdin dio, ez dio berdin.

Soldadutzara deitu zuten orduan, Medikuntza amaitu eta gero, espezialitatea amaitu eta gero. Ospitale militar batera eraman zuten, Portugal iparraldera. Lasai egon zen han, sosegua, lan handirik ere ez, baina Angolara bidaliko zutela esan zioten halako batean, gerrara, kanpalekuetara. Ospitaleko emagina gogoratu zuen Lobo Antunesek, nola ez zuen gogora-

tuko. Angolan hilko zela esan zion, Angolara joateko intentzio minimorik ere ez zuenean, Angola hainbat metro koadroko lokatz zati bat zenean, uzki bat.

Orain bazekien Angolan hilko zela, ordea, ez zuen dudarik egiten orain. Ezkontzea erabaki zuten hil aurretik beraz, Angolara abiatu aurretik, umea ekartzea ere pentsatu zuten. Hilabete gutxian egin zuten guztia: haurdun zegoen emaztea Angolara bidali zutenean, alaba jaio zen hilabete batzuk geroago. Aita ez zen etxean noski, ez zuen alaba jaiotzen ikusi, ez zuen alabaren lehenengo hilabetetarik ezer ikusi. Esan zuen Lobo Antunesek ez diola barkatuko diktadurari, militarrei, makineriari, hori dela barkatuko ez dien gauza bakarrenetako bat. Itzuli zenerako, gizon ezezagun bat zelako alabarentzat, esan zuen 3-4 urte behar izan zituela etxe barruko mundua berriro orekatzeko. 1973an itzuli zen Angolatik.

Angolan, frontean, kanpalekuetan, Ernesto Augusto de Melo Antunes kapitainarekin egon zen. Abizenak antzekoak izatea ere kasualitatea, beharbada ez. Esaten zuen idazleak asko hitz egiten zutela Angolan kapitainak eta biek, denbora ere bazuten, gehiegi ere bai. Gerra amaitu eta gero ere jarraitu zuten elkartzen, xakean, ez zen ohiko militarra Melo Antunes,

ohiko pertsona... Izan ere, Angolan ez zituen Melo Antunes kapitainak, besteek bezala, gehienek bezala, aginduak betetzen, goikoen aginduak, normalean. Gerra haren kontra zegoela sinesten zuen, aginduei kontra egiten zien: eraso egiteko esaten zioten, ez zuen egiten. Behin eta berriro heltzen ziren aginduak, mugitu ere ez zituen egiten soldaduak, argi zeukan, argi zeukaten.

Melo Antunes izan zen, urte batzuk geroago, diktaduraren kontra egin zutenetako bat, *Revolução dos Cravos*, desobedientzia lehenengo, iraulia gero. Ematen du horren beldur izaten direla agintean, batez ere horren beldur, desobedientziaren beldur. Gutxitan egiten da hala ere, hori da inpresioa, obeditu behar duten guztiak kontra egon arren, obeditzen jarraitzen dute, Stanley Milgram, *the perils of obedience*... Kontrakoa agindu nahi duenarentzat agian: *the perils of disobedience*... Hor hasten da, ordea, pentsamendu okertua beharbada, hori da Kurt Mardivan filosofoaren ildo teorikoetako bat, politikako pentsamendu okertuarena. Esaten du Mardivanek hauteskundeetan aukeratutako pertsonek *agindu* nahi izaten dutela, ez *kudeatu*, *kudeatzea* gutxi balitz bezala. Argumentatzen du *elitea* direla sinesten dutela halako batean,

agintari, *buruzagi* direla. Ez dute onartzen, ezin dute, kudeatzaileak direla, *zerbitzariak*, beheko mailetan daudela. Hor Mardivanen terminologia guztia, Irenek apenas jarraitu ahal zuena.

Melo Antunes kapitaina bera ere ministroa izan zen iraultza eta gero, eta independentzia negoziatu zuen Guinea-Bissauko ordezkariekin, esate baterako, Lobo Antunesekin hizketan jarraitzen zuen bitartean. Guinea-Bissauko armarrian izar beltz bat jarri zuten eta esaldi hau: *Unidade, Luta, Progresso*. Portugesez hori guztia.

António Lobo Antunes Angolara joan zenean, 21 urte baino gehiago zituen, ez Carlo Collodik bezala, Ambrose Biercek bezala, J.R.R. Tolkienek bezala. Egon ere, 30 urtetik hurbilago zegoen beste inondik baino... Bidali egin zuten gainera, ez zuen berak asmorik, William Faulknerrek bezala. Esan zizkiotenetatik, gainera, ez zuen ia ezer sinistu, horregatik ez zuen joan nahi. 21 urtekoak errazago konbentzitzen dira, berehala hasten dira sinisten. Sinisten dute benetakoa dela guztia, hierarkia esate baterako: sinisten dute errealak direla sarjentuak, tenienteak, jeneralak, beti egon izan direla, beti egongo direla, ezin dela bestela izan, ausardia, ohorea eta abar.

Lobo Antunesek ez zuen ia ezer sinistu beraz, baina zati bat bai beharbada, erdizka, dena ezin zelako hain erabatekoa izan, gerran, Angolan. Gerra amaitu eta 40 urte geroago, koldarkeriaz hitz egiten jarraitzen zuen Lobo Antunesek. Behin baino gehiagotan kontatu zuen nola ezkutatu zen teniente bat auto baten azpian, gurpil artean, tiroketa batean, bonbardaketa batean. «Koldarkeriaren ikuskizuna negargarria da» esaldia jaulki zuen Lobo Antunesek 40 urte geroago, 70 baino gehiago zituenean. Ofizialak ezin dira koldarrak izan, soldaduak ere ez, herritarrak bortxatzen dituzten arren, ozartasuna, ausardia, ohorea eta abar. Zati hori sinistu zuen, beharbada, Lobo Antunesek, idatzi zuen guztia idatzi eta gero ere.

Irene Arriasek 31 urte zituela irakurri zuen aurrenekoz António Lobo Antunes, *A ordem natural das coisas*. Oraindik geratzen zitzaion Ireneri arte hutserako pentsamenduren bat, txikia beharbada, lotsagarria beharbada, baina liburuko esaldi batzuetan iruditu zitzaion ezin zela bestela idatzi, Lobo Antunesen ostean ez dagoela ezer, ezin dela egon. Irene Arriasen bihotz muskulua ia erritmo perfektuan mugitzen zen *A ordem natural das coisas* irakurtzen ari zen bitartean. Lobo Antunesek ez zuen Angola edo gerra liburuaren

segundo bakar batean ere aipatzen, Irene Arriasek irakurri eta 10 urte geroago gogoratzen zuenaren arabera.

Irene Arriasek asko hitz egiten zuen irailean oraindik Imanol Sarasuarekin, Joana Biurrunekin, eta jakin zuen ikasgai berriak jarriko zituztela karreran hurrengo urtean, apurka hasiko zirela plan berria aplikatzen, karrera bost urtetik laura ekartzeko. Aditu zuen Europako unibertsitateen neurriak zirela, ez zekien ziur, ez zion ardura, amaituta zituen ikasketak. Amorru apur bat ematen zion, urte bat gehiago jan zietelako eurei... Gauza jakin batean aditua izateko urtebete gutxiago behar zen orain... Alferrik sufritu zuten urte hori beraz, alferrik ordaindu. Amorru hori zeukan, amagatik gehiago beharbada. Amorru eskasa ordea, asko balio ez zuena, berehala joango zitzaiona, aldian-aldian berritu arren.

Ohartu zen Irene Arrias, ordea, plan berriko ikasgaietako bat interesatzen zitzaiola, irakaslea ere ona, ondo ezagutzen zuen. Zorte txarra iruditu zitzaion, apur bat madarikatu zuen bere jaioteguna ere. Baina halako une batean ulertu zuen egoera ez zela aurreko

urtekoa, gauzak ez zirela hain zurrunak, inoiz ez direla hain zurrunak, eta modu arraroan zegoela libre orain, zernahitarako, edozer egin ahal zuela. Irakaslearekin hitz egitera joan zen orduan, bulegora, baimena eskatu zion eskola berrietara joateko, karrera amaituta izan arren, titulua etxean zeukan arren. Irakasleak baietz esan zion noski, apur bat zurtuta, apur bat harro ere bai. Irene Arriasek ez zion azalpen askorik ere eman, irakaslea bera ez zen azalpen asko aditzen egotekoa.

Gustura irten zen Irene bulegotik, oraindik sinisten zuelako ikasketa akademikoak bazirela zerbait, gauza handia zirela, 23 urterekin. Erraz konbentzitu zuten urte batzuk lehenago unibertsitatea erreala zela, errealak zirela irakasleak, katedratikoak, dekanoak, unibertsitatea gorengo maila dela, prestigioa, J.R.R. Tolkien konbentzitu zuten bezala Lehen Mundu Gerra erreala zela, William Faulkner konbentzitu zuten bezala. Hogeita gutxi urteko umeak beti, konbentzitzeko errazak, gehiena sinisten dutenak, eurek kontrakoa uste duten arren, ustelena ere sinistera heltzen direnak, eskuinekoena.

Arraro begiratzen zioten Ireneri gelan eskolak hasi zirenean. Batzuek bazekiten aurreko urteko ikaslea

zela, ikasle ona, onenetakoa, karrera amaituta zeukala. Ez zuten ulertzen zer egiten ari zen han, eurek ere sinisten zutelako bazela ikasketa arautu bat, bazirela urte jakin batzuk ikasketak amaitzeko, ez gutxiago, baina, batez ere, ez gehiago. Barneratuta zuten hori zela unibertsitatea, gorengo maila, prestigioa, eta arraro begiratzen zioten Ireneri. Batzuek galdetu ere egin zioten... Irenek ez zuen azalpen askorik eman.

Ikasgaia ondo zegoen arren, Irenek interes handia zeukan arren, ez zuen ikasturte osoa egin, enpresa batetik deitu ziotelako, abenduan. Bila etorri zitzaizkion, ez zuen Irenek eskatu. Irakasle batek eman zuen Ireneren izena: norbait behar zuten, Ireneren mailakoa, irakasleak eman zien kontaktua. Proba aurrena, onartu egin zuten gero, nola ez zuten onartuko.

Goizean sei ordu egiten zituen bulegoan, etxera itzuli ahal izaten zen bazkaltzera, beste ordu bi arratsaldean. Oso argi gutxi bulegoan, leiho gutxi, ia itsutuak, argi artifiziala gehiena. Etxera itzultzen zenean, kalera irten behar izaten zuen, kalean egon, argi artifizialetik kanpora. Algortatik ibiltzen zen, Algortan egiten zituen bide gehienak, Basagoititik, Telletxetik, Usategira, Andra Mariraino, Neguritik Areetara, Alango. Ikastolarako bidea egin zuen egun batean, bide

arraro hori, beste ezertarako egin behar ez zuena, ikastola inguruan ez zegoelako ezer, ez zuen bestela ezertarako joan behar. Hamar urte ziren laster ikastola amaitu zuenetik eta gutxitan egin zuen bide hori berriro. Eguraldi ona egun horretan, hotza, argia, usain batzuk oraindik geratzen ziren Villamonten ordukoak. Normalean baino astiroago ibili zen.

Antzeko bidea egin zuen Eustakio Mendizabal *Txikia*k hil zuten egunean, hogei bat urte lehenago. Apur bat harago joan zen Txikia, ikastola atzean utzi zuen, ez gehiegi ere, 100 metro baino askozaz gehiago ez. Esan daiteke eskola-umeen bide bera egin zuela buruan tiroa jo zioten egunean. Orain Guardia Zibilaren kuartela, kuartel-auzoa, dagoen lekutik pasatu zen bertsio gehienen arabera. Eustakio Mendizabal *Txikia*, ETAko fronte militarreko arduraduna, handik pasatu zenean, ordea, ez zen kuartelik oraindik. 1973an pasa zen, eta 1981ean inauguratu zuten kuartela, Villamonte erdian, trenbidearen azpian, Algortan.

Kuartelaren inaugurazioa bera ere ez zen arrunta izan: politikoak egon ziren, Madrildik, Guardia Zibileko karguak... Handiro egin nahi izan zen, jende asko gonbidatu zuten. Hiru urte geroago, gainera, 1984ko otsailaren 4an, Miguel Francisco Solaun hil zuen ETAk

guardia zibilen Algortako kuartelaren inaugurazioan gertatu zen gauza batengatik.

Miguel Francisco Solaun ETAko kidea izandakoa zen. 1969an atxilotu zuten, baina Basauriko espetxetik ihes egitea lortu zuen. Frantzian egon zen harik eta 1976an itzuli ahal izan zen arte, Segoviako espetxetik 24 ETAkidek ihes egin zuten urte berean, ETAk alkate faxista guztiei dimisioa emateko eskatu zienean, exekutatu egingo zituztela bestela. Horregatik hil zuten Victor Legorburu, Galdakaoko alkatea, ultraeskuindarra. Horregatik hil zuten Julian Galarza. Baina erratu egin ziren kasu hartan: Zizurkilgo alkatea zela pentsatu zuten, ez zen. Ezinegon handia sortu zuen hilketa horrek, alde gehienetan, politikari gehienengan. Akats bat, alferreko hilketa. Hilketa gutxi egongo da, beharbada, alferreko ez dena, baina ez da horren sinplea ere, ematen du sinpleena dela ez hiltzea, ezer ez egitea, erreparoa izatea pertsona bat ukitzeko ere... Lotsaren teoria eman zuen, ildo horretatik, T.V. Bierno filosofoak duela 60 urte.

Gauza da Miguel Francisco Solaun Frantziatik itzuli eta enpresa pribatuan hasi zela lanean, ingeniaria zen. Etxebizitza multzo bat egin zuen haren enpresak Villamonten, Algorta erdian. Diru arazoak izan zituen

orduan enpresak eta etxebizitzak, guztiak, Estatuko administrazioari saldu behar izan zizkion. Administrazioak Guardia Zibilaren kuartela egitea erabaki zuen, kuartel-auzoa. Etxe asko dira, auzo oso bat, Villamonte auzoaren ondoan.

ETAkide ohi batek eraiki zuen guardia zibilen Algortako kuartela beraz. ETAk jakin zuen hori, informazio hori pasatu zieten, eta Solaunen kontaktua lortu zuten. Imajinatu zuten ETAkoek Solaun ingeniariak etxebizitza multzo haren puntu egokiak ezagutuko zituela eta lehergai bat jartzeko agindu zioten, min gehien egingo zuen lekuan. Inaugurazio egunean eztandarazi behar zuen... Barne Arazoetarako ministroa etorriko zen Algortara, Guardia Zibileko goi karguak ere bai. 50 kilo jarri zituzten, Goma 2, baina ez zuen azkenean eztanda egin... Solaunek ez zuen konektatu, ez zuen nahi izan... Kartzelara eraman zuten hala ere, jipoitu egin zuten ETAko presoek Soriakoan. Urtebete-garrenera irten zela esaten da, indultua eman zioten, Algortara itzuli zen.

Guardia zibilen Algortako kuartelaren inaugurazioan ez zen ezer gertatu beraz, baina handik hiru urtera, 1984ko otsailaren 4an, Irene Arriasek 13 urte egin eta gutxira, hamar egunera, Miguel Francisco Solaun

hil zuen ETAk berak Sarrikobaso kaleko Haizea kafetegian. Tiroa jo zioten buruan, Ireneren etxetik nahiko hurbil berriz, 200 metro baino gehiago ez.

Ingeniariaren atentatua eta gutxira, gutun bat eman zen argitara egunkari batzuetan, Solaunek berak idatzitakoa, guardia zibilen Algortako kuarteleko teniente bati urte batzuk lehenago bidalia. Kontuak argitu nahi zituen, azalpenak eman: ez zuela inor hil nahi izan, horregatik ez zuela kuarteleko lehergaia konektatu inaugurazioan, baina parte hartu behar izan zuela, nahitaez, segurtasunagatik, guztien segurtasuna, guardia zibilena ere bai. Solaunek bere familiari ere begiratzen zion noski, bere buruari... Esaten zuen ez zuela tiro bat hartu nahi, lagunek hartu zuten bezala. *ABC* egunkariak dio José María Ryan aipatzen zuela gutunean, Lemoizko zentral nuklearreko ingeniari nagusia, ETAk 1981ean hildakoa. Esaten zuten egunkari horretan bertan Jokin Azaolaz ere hitz egiten zuela Solaunek gutunean, izena txarto idatzi zuten arren *ABC*ko erredaktoreek.

ETAkidea izandakoa zen Jokin Azaola ere, Miguel Francisco Solaun bezala. Lagunak ere izango ziren beharbada, ezagunak behintzat. Leku berean hil zituzten biak, Algortan, arrazoiak ere antzekoak. Jende askok

gogoratzen ditu urte haiek, 80ko hamarkada, aurreko urteak ere bai, haize txarrak, hildakoak ere asko, euskal herrietan, Amerikan, Argentina, Uruguai, arrazoiak ere ez oso desberdinak, antzeko gauzak leku guztietan.

José Félix Estigarribia Paraguain jaio zen 1888an. Familia euskalduna, bistan da, aita Mateo Estigarribia, ama Casilda Insaurralde. José Félix Estigarribiak ere hildako asko eragin zituen, militarra zen. Paraguai eta Bolivia arteko gerran, Chaco Boreal okupatzeko egin zutenean, agintarietako bat izan zen, komandantea. 60.000 boliviar hil ziren, 30.000 paraguaitar. Zoratu egin ziren, beti zoratzen diren bezala. Gerran zoratzen ez direnen garunei erreparatu behar zaie beharbada, zergatik ez diren zoratu, zer izan duten garunean gerrara joan baino lehen, zergatik eutsi dioten. Gerrarik txikienean ere gertatzen da, berdin dio tamainak, ez dio berdin.

Kontatzen du Eduardo Galeanok gerra horretan bertan, 1934an, galduta ibili zirela egunetan Boliviako sei soldadu, hotzak, goseak, euren troparen bila. Neska gazte bat topatu zutela bidean, ahuntzak zaintzen, tutsiak bezala 60 urte geroago. Haren atzetik joan ziren orduan, segika, harrapatu ere egin zuten,

erabili, bortxatzen hasi. Lehenengo bostek bortxatu zuten, baina seigarrenaren txanda heldu zenean, neska hilda zegoela konturatu zen. Atzera egin zuen, ez zuen nahi, baina kideek fusilak iltzatu zizkioten lepoan. Galeanok argi esaten du orduan: *... y entonces, entre el horror y la muerte, este hombre elige el horror*. Onetik irtenda, seiak, tropa guztia. Laburpen bat da kontakizun hori, militarren baloreena, ohorea, ausardia, noblezia eta abar. Ez da bakarra, beti da gauza bera, ez du ematen askoz gehiago denik.

Gauza asko esaten du kontakizun horrek, gauza asko laburbiltzen du, baina testu txiki batean baino ez dago, testu txiki bateko pasarte txiki batean, Eduardo Galeano, badakizu, ez, ez dakit, nongoa dela diozu, bai, ezaguna bai, izena, baina ez diot ezer irakurri, txiletarra ezta, ez, uruguaitarra. Diktadura Uruguain ere 70eko hamarkadan, Juan María Bordaberry Arocena lehenengo diktadorea, euskalduna noski, aita Domingo Bordaberry Elizondo. Eduardo Zubía jeneralak kendu nahi izan zuen agintetik, familia euskaldunekoa Zubía ere. Argentinatik horren hurbil Uruguai, Montevideo, Buenos Aires. Desagertuak Uruguain ere, Argentinan baino askozaz gutxiago, ez dago konparatze-

rik, ez, ez dago konparatzerik, zelan konparatuko da ezer.

Chaco Boreal okupatzeko saioa eta gutxira, Boliviako sei soldadu haiek galduta ibili eta gutxira, Nanjingen sartu zen Japoniako Armada Inperiala, 1937ko abenduan, Begoña Sasieta jaio eta egun gutxira. Boliviako sei soldaduek egin zutena biderkatu egin zuten soldadu japoniarrek, soldadu gehienek, milaka emakume. Onetik irtenda militarrak Nanjingen ere, baina ez dago konparatzerik, zelan konparatuko da ezer.

Hajime Kondok, Armada Inperialeko soldaduetako batek, askozaz geroago kontatu zuen nola egin zituzten gauzak Nanjingen, nola sartzen ziren etxeetara, nola bilatzen zuten aurrena balioa zeukaten gauzak, saltzeko, jateko, dirua, nola harrapatzen zituzten emakumeak gero, bortxatu, nola hiltzen zituzten bortxatu ondoren, gehienetan.

Kontatu zuen emakumeetako bat ez zutela hil bere taldeko soldaduek, hurrengo kanpalekura eraman zutela, semearekin batera, soldaduekin espedizioa egitera behartu zituztela, ama erabat biluzik, menditik. Laster konturatu ziren soldaduak ezinezkoa zela horrela jarraitzea, atzeratu egiten zituztela amasemeek, semeak batez ere. Hala kontatzen du Hajime

Kondok, eztabaidan hasi zirela, zer egingo dugu, ez zekiten. Bat-batean, beste ezer esan gabe, altxatu egin zen soldaduetako bat, inork ez zekien zer egin behar zuen. Emakumearen semea hartu eta 30-40 metroko amildegi batetik bota zuen. Hori da Nanjing, hori da soldaduak onetik aterata aritzea, hori da noblezia, ausardia, ohorea, Begoña Sasietak egun gutxi batzuk zituenekoa.

Irene Arrias lanean hasi zen ama jaio eta ia 60 urte geroago, 1995ean. Lanetik itzultzen zenean, kaletik etxera sartzean, umearen falta sentitzen zuen ia egunero. Zazpi hilabete ziren lizentziatura egunetik... Iruditzen zitzaion askozaz denbora gehiago pasatu zela umea postetxean topatu zuenetik, etxeko eskailerak igo zituztenetik, goizeko hiruretan. Gero eta gehiago gogoratzen zuen umea, edo gero eta gutxiago beharbada. Irenek ez zekien ondo neurtzen, lausotzen ari zitzaion umearen aurpegia. Hiru hilabete eta erdi ziren ordurako azarotik. Hilabete tristea azaroa, marka askorik gabekoa, Francoren heriotza bat.

Etxera itzuli da semea, denbora asko egin du kanpoan, urteak ere bai, urrun ibili da, Frantzian seguruenik,

baina baliteke urrunago ere, Bretainia, Ingalaterra beharbada. Zaldiz ibili da, itsasontziz, belaontziz, ez dago makinarik mende batzuk geroagora arte. Etxera sartu eta ama topatu du bakarrik, sutean, beheko suari begira. Baina zerbait dauka andreak: *ama topadu neban, suitian tristerik*.

Hori kontatzen du gehien zabalduta dagoen baladetako batek, *Frantzie kortekoa* esaten diote, edo *Frantziako anderea*. Penaren batek hartu du ama, semea kanpotik ibili denean hartu ere, semeak ez daki zen den, galdetu egin dio amari.

Amak jakin du semea ezkontzeko dagoela, edo ezkonduta dagoela ordurako, ezkonduta itzuli zaiola. Jakin nahi du nongoa den andrea, *nondikoa dakazu zeure emaztea?*

Baina beste bertsio batzuetan amak badaki zerbait, beti dakite zerbait amek, *prantzes ala ingles da zure emaztia?* Frantsesa dela erantzun dio semeak. Orduan bota du amak esaldia, esaldi erraldoia, esaldi munstroa ere esan daiteke: *ez dot gure prantzesik, hain gutxi errenik*, edo *zertarako da hemen Frantziako umea?* Ez dago etxean kanpotarrik hartzeko ama, frantsesik, are gutxiago erraina. Kanpotarren kontra beti, bestearen kontra, tutsiak, kurduak, armeniarrak,

juduak, kontu errepikatua, aspergarria ere bai beharbada.

Amak esan du, beraz, ez duela frantsesik nahi eta hil egin behar duela andre hori, *urten bidera eta hil egin behar dozu*, esan dio semeari, edo *hori hil egizu eta nik topaukotsut askoren jaubea*. Baina semeak ezin du emaztea hil, edo emaztegaia. Nola hilko du, *ene ama, ni ez naz kapaz hau hilteko*. Arrazoia ere eman du bertsioren batean, arrazoirik behar ez denean, ganorarik gabekoa arrazoia gainera: *hain de polite ba ze nire emaztea, ez da posible, ama, nik hori egitea*.

Bertsio batzuetan, ordea, ez du esaten ezin duenik hil, ez duenik bere burua gai ikusten. Ados dago amarekin, hil egingo du, nola ez du hilko, baina ezin du bakarrik egin, *baina bakarrik ezin, baina bakarrik ezin, ai, neure ama ona*.

Anaiak lagunduko diola esan dio amak, gaztea izan arren, estudiantea izan arren, arreba da bertsio batzuetan. Kanpotik ikusita ematen du tripak behar direla pertsona bat hutsetik hiltzeko, berotu barik, gorrotatu barik, barruko aurre-lana egin barik. Kasu asko egon da ordea, borreroak, torturak... Beste kasu askotan odol berotua oso arina da, Ruandako herri txikie-

tan bezala, auzoa hiltzen zutenean, auzo herrikoak hiltzen zituztenean, ia ezagutu gabe. Soldadu alemaniarrak ere berdin, soldadu errusiarrak, soldadu gehienak.

Bereterretxe ere horrela hil zuten, *hirur dozena* joan zen hura hiltzera, bat baino gehiago hotz, Jaun Kondeak agindu arren. Zertarako nahi zuten Bereterretxe hil, berdin zien, hotzean egin zuten, horretara beren-beregi joan ziren arren. Baina Bereterretxeren kasua harrigarriagoa ere bada, kanpotik ikusita, urrunetik, ez zutelako etxe atarian bertan hil: Ligiraino eraman, Ezpeldoira gero, haritz bati lotuta hil zuten, *han haris bati esteka eta biçia çeitan idoky*. Ematen du zenbat eta denbora gehiago pasatu, hotzago behar zutela hil zutenek, hori da logikoena, baina horrela egin zuten, horrela egin zutela kontatu dute.

Frantziako anderea, ostera, berehala hil nahi dute senarrak eta koinatuak, *batoi zaituet senar, ta bestioi koñatu, nundik nora naroizuen esaidezue klaru*. Baina andreak barrundatu duenean zer den, nora doan, zer egingo dioten, bizirik uzteko trukeak eskaini dizkie. Gauza asko dauzka Frantziako umeak: *zazpi zaldi deukadaz izeraz jantzita, zortzigarrentxua barriz, perlaz estalita*, edo *hiru zaldi datoz ixera zurikaz jantzirik*,

edo *hamalau mando urregorriz kargaurik*. Guztiak hartzeko esan die, *ixtiarren bizirik*. Anaiek kasu gutxi andreari, guztia hartuko dutelako berdin-berdin emakumea hil eta gero ere. Berdin die, ez die berdin beharbada, baina amak agindu die, *the perils of obedience*, berriro ere.

Konfesioa nahi du andreak halako batean, baina hori ere ukatu diote, arin egin nahi dute, presa erne zaie, *abadea urrin dago, eleizea urrinago, horreik beharrak egiteko astirik ez dago*.

Hil dute anaiek emakumea beraz, edo hiltzeko keinua hasi dute behintzat, *ai, horren puñal horren, zorrotzen zorrotza, ikusiaz beste barik, hilten deust bihotza*. Kanpaiak ere entzun ditu hil aurretik emakumeak, ez edozelangoak, *kanpai bat entzuten dot, ez dakit nongoa, iguel izengo da agoniekoa*.

Kanpaiak entzuten dira askotan amaginarrebaren aginduz erraina hiltzen denean. Erromantze sefardietan ere bai: *las campanas de misa de suyo repicaren, quién ha muerto, quién ha muerto*. Rodasen topatu zuten erromantze hori, XVIII. mendean, baina bistan da zaharragoa dela, *Romance de la mala suegra*, *Frantzie kortekoa*-ren antzekoa. Erraina, ordea, ez da kanpokoa, ez du amaginarrebak hil nahi frantsesa de-

lako edo ingelesa... Familia hurbilekoa da sefardien kasuan, *al andar de siete leguas* bizi delako emaztearen familia, arrazoiak beste batzuk beraz.

Beste desberdintasun bat ere bada: haurdun dago emaztea. Jaio da umea, eta handik ordubetera igo du senarrak emaztea zaldi gainera, onetik aterata senarra noski, militarrak bezala. Erditu berri jarri du emakumea zaldi gainean... Berdin dio, hiltzera darama: *las hancas del caballo van chorreadas de sangre*, irudia ere ez da horren merkea.

Puntu horretan antzekotasun handiagoa dauka erromantze sefardiak *Aldaztorrean* baladarekin. Hor ere haurdun dago amaginarrebak etxetik bota duen erraina, *haurtxo txikinak sabelean deust ostiko*. Kontakizunaren hasieran lasai dago neska, haurdun, soseguan, Aldaztorrean bertan, leiho baten ondoan seguruenik, *Aldaztorrean nengoanean irra goruetan*.

Balada askotan ari dira hasieran josten, goruan, brodatzen, sosegu irudia ematen du, baina azkenean beti da desgraziaren bat josten ari denarentzat: marinelek bahitzen dute, soldaduek, bortxatu, hil, zatika moztu, odolusten utzi.

Aldaztorrean ere goruaren aurrean dago, baina berehala heldu zaio ilunaren seinalea, *etorri jatan*

erroi zaharra grauetan. Beste balada batzuetan belarantza heltzen da, Poek ere ekarri zuen idatzira, ez da originala.

Erroiak albiste txarra noski: Aldaztorrera ezkondu denari esan dio galdu egin dela familiako barkua. Ematen du guztiak hil direla, aita, neba, lehengusuak, senarra. Amaginarrebak Aldaztorretik bota du gero gainera. Ez du hil behintzat, ez dio inori agindu, ez du nori agindu beharbada. Ez dago obedientziarik, *the perils of obedience*, ez dago nork obeditu, batzuetan gertatzen da, historia idatzian ere bai.

Frantzie kortekoa hil dute, ordea, senarra eta koinatuaren artean, *zazpi izera dodaz odolez bustirik, zortzigarrentxu honek naroia mundutik*. Izarak darama mundutik beraz, António Lobo Antunesen ospitaleko umea bezala.

Hala ere, hitz egiten jarraitu du neskak, hil eta gero ere. Hil dutenak madarikatu nahi ditu, baina ulertu du senarra eta koinatua ez direla inor, badaki nor madarikatu behar duen, nor den hiltzailea, benetakoa, arma ibili ez duen arren. Bertsio batzuetan ia modu arruntean madarikatzen du, natural, *suge-musker handi bat sartuko al jana*, edo *tragauko al jana*. Hitanoz esan dio amaginarrebari, hori ere madarikazioa-

ren partea beharbada, errespetu falta... Batek daki zer zen errespetua duela 400 urte...

Baina beste bertsio batzuetan biribildu egiten du madarikazioa, denik eta madarikaziorik biribileneta-koa egin arte, zuzena, pertsona desorekatzen duena, aztoratzen duena, ondoegi ulertzen ez duguna, ondo-egi ulertzen dena:

> Ai, neure amainarreba,
> muskerrez betia
> subeak eingo al deutsu
> arratserako ohia.

Eta horrela eman izan da indarkeria orain dela gu-txira arte, horrela esan da zer den, horrelako irudie-kin, sugeekin, muskerrekin, txakurrekin. Egunkaririk gabe, kamerarik gabe, baina beti kontatu nahi izan da, kontatu behar izan da beharbada. Salbuespen itxura dauka indarkeriak, ez da. Irene Arriasek ohitura hartu zuen indarkeriari begiratzeko, bilatu egiten zuen, liburuetan, interneten, egunkari antzinakoetan, balada hori topatu zuen, beste batzuk. Bilatzen hasten zenetan, baina, ez zuen gehiegi ere bilatu behar, erraz Irene, errazegi.

Ambrose Bierce kazetaria eta idazlea 1842an jaio zen Ohion, Horse Cave Creek herrian, kalbinista puritanoek sortuan. Warsawra aldatu zen familia gero, Ambrose artean umea zela, Indianara. Marcus Aurelius Biercek eta Laura Sherwoodek, gurasoek, hamahiru seme-alaba izan zituzten eta guztiei jarri zieten A letraz hasitako izenen bat: Ambrose, Amos, Albert... Kontatzen du internetek Ambroseren arrebetako bat kanibalen artean desagertu zela Afrikako misioetan zegoenean, baina sinesteko zaila ere bada, gehiegizkoa ere bai beharbada, gehiegikerietarako joera dago beti interneten. Indianan bizi izan zen familia hainbat urtez, hori seguru jakin daiteke, Kosciusko konderrian.

1859an akademia militarrean hasi zen Ambrose Bierce, *Kentucky Military Institute*. Gazterik hasi zen, oso gazterik, kenketa ez da zailegia ere: 17 urte. Urte bi geroago hasi zen Estatu Batuetako gerra zibila, eta Indianako Infanteriako Bederatzigarrenean eman zuen Ambrosek izena, C konpainian, West Virginian aritu zen, 19 urterekin. Gerra amaitu zuenerako 22 urte zituen. Ez zuen armadan jarraitu.

Ambrose Bierce osabari begira bizi zen gerrara joan aurretik, osabari begira egin zuen hori guztia. Lucius V. Bierce osaba, militarra, jenerala, hizlari egokia. Hori esaten dute dokumentu guztiek, hizlari ona zela... Ezin da jakin, ez dago grabaziorik, ezin egon, ahotsa grabatzeko lehen saiakerak 20 bat urte geroago hasi zituelako Oberlin Smithek.

Lucius V. Bierce jenerala jendaurrean aritzen zen beraz, arrakasta zuen, jarraitzaile asko. Etxean ere, loben aurrean, Ambroseren aurrean, kontatzen zituen gauzak, gerrakoak, batailetakoak, zer den soldaduen ohorea, ausardia, noblezia, ozartasuna. Propaganda berriro ere, nola ez, beti da gauza bera, nazio guztietan, desberdinenetan ere. Zergatik joango ziren umeak armadetara bestela, goseak egotera, lo gutxira, lehertu arte mugitzera, hiltzera ere bai... Propaganda behar da umeentzat, militarren dantzaldiak, koronelen trajeak, heroiak, ezkontzak, lapurretak, zigortzen ez direnak, arpilatzeak, bortxaketak. Sari horiei begira jasan ahal da hori guztia, militarren artean, sarjentuen artean, lurrean, lokatzetan.

Ambrose Bierce umeak, 16 urtekoak, sinetsi egin zion osaba jeneralari, nola ez zion sinetsiko. Ambrose Bierce umea beraz, 17 urtekoa, akademia militarrean

hasi zen. Eta Ambrose Bierce umeak, 19 urtekoak, Indianako Infanteriako Bederatzigarrenean eman zuen izena, C konpainian. Baina Kennesaw Mountaingo batailan, 1864ko ekainaren 23an, konfederatuen bala batek jo zuen eta buruan larri zauritu. Hilabete batzuk eman zizkioten ospitalerako.

Irailean itzuli nahi izan zuen frontera, baina zorabiatu egiten zen, konortea galdu, *dizziness and frecuent blackouts*, dio bere biografietako batek. Armada utzi behar izan zuen orduan, uztera behartu zuten beharbada. Askotan entzuten izan da, armadatik botatzen dituztela, ez dutelako soldadu mailaturik nahi. Apur bat mailatuta beharbada bai... Oso mailatuta daudenean, bota egiten dituzte armadatik. Hori da militarra, noblezia, ohorea, justizia, eta abar. Kennesaw Mountain Georgiako estatuan dago orain ere.

Gerra amaitu eta urte bira, San Franciscora aldatu zen Ambrose Bierce, guztiz etsita seguruena, fedegabe, ez zuen ezer sinesten orain, gerran ikusi zuenagatik, gerran ulertu zuenagatik. Izan ere, West Virginian ikusi zuen gerrak, Georgian ikusi zuenak, ez zuen zerikusirik osabaren gerrekin, Lucius V. Bierceren gerrekin. Edo beharbada bai, bazuen zerikusia... Berdinberdinak ziren beharbada, baina, guztiarekin ere, Am-

brosek ikusi zuen zikinkeriak ez zuen zerikusirik osabak kontatutako zikinkeriekin. Hor zegoen saltoa seguruenik, propagandan, ematen du narrazioak gutxitan egiten direla alferrik, zikinkerien narrazioak, besteak ere ez.

San Franciscon kazetari hasi zen Ambrose Bierce, gerra amaitu eta urte bigarrenera, gazte oraindik, ume oraindik. Zutabe bat eskaini zioten egunkari batean berehala: *Town Crier*, pregoilaria. Testu deserosoak eman zituen hor, deserosoak mundu guztiarentzat, politikoak, abadeak, beste kazetariak. Orduko gizartearen oinarrietako bat bera ere ez zuen onik utzi nahi, ez zuen utzi. Desinhibizioa erabatekoa, nahi zuena egiten zuen, nahi zuena esan, inori begiratu gabe, beldurra zion jendeak.

Albert Bierce anaiak behin eta berriro esan zuen ez zela Ambroseren errua, desinhibizio hori, gaiztakeria... Esaten zuen Kennesaw Mountaingo bala zela, burua aldatu ziola. Lobulu frontalean jo zuen beharbada, ez dago jakiterik, lobotomia moduko bat eragin zion agian nahi gabe. Auto istripuetan gertatzen da askotan, buruan kolpea jasota, bekokian. Kasu asko dago, mojei sexu astakeriak esaten dizkieten apaizak esate baterako, hori da kasurik nabarmenetako bat.

Desinhibizioa erabatekoa, ez da gero garunari eutsiko dion ezer.

Irene Arriasek hala uste zuen, hori izan zitekeela Bierceren zutabeen arrazoietako bat, gaiztakeriarena, desinhibizioarena, zergatik ez, anaiak arrazoitu zuen, Albertek, baina iruditzen zitzaion beste arrazoi batzuk ere egon zitezkeela. Kennesaw Mountain bera izan zitekeen beste arrazoi bat, edo Chatanooga, edo Chickamauga, edo Shiloh... Gerra zibil hartako batailak, guztiak, milaka hildako, odola, buru arazoak, hezurrak. Horrek ere aldatzen ditu buruak, gerra guztietan, kuartel guztietan, iruditzen zitzaion buruek ezin diotela natural eutsi.

Irenek hori guztia pentsatzen zuen hurbiletik ikusi zuelako antzeko zerbait, osaba batekin, beste gerra zibil batean, desinhibizio bera. Nahi zuena egiten zuen gerratik bueltan Ireneren osabak, Algortara etorri eta gero, gerran eta preso zazpi urtez egon ostean, frontean, bonbak desaktibatzen. Hilda itzuli zen osaba Algortara, hildakoek bezala hitz egiten zuen, barreka, guztiari. Iruditzen zitzaion Ireneri gauza bera gertatu zitzaiola Ambrose Bierceri beharbada, seguruenik, hilda itzuli zela, hilda idazten zituela zutabeak.

Bitter Bierce esaten zioten San Franciscon, Bierce mingotsa. Maksim Gorki idazlearen ezizenak ere «mingots» esan nahi du errusieraz. Mikel Zarate lezamarrak narrazio sail bat argitaratu zuen bizkaieraz, eta idazleak berak esan zuen narrazio mingotsak zirela... Izenburuan bertan ere eman zuen hitz hori... Antzekotasunak, beraz, Errusian, Estatu Batuetan, euskal herrietan. Liburuaren sarreran ere aritu zen Mikel Zarate mingostasunari buruz, testuei buruz, «mingots samarrak dira, gaurko idazgiro mingotsa lakoak». Franco hil gabe orduan, jakina, torturak, exekuzioak.

Mikel Zarate ez zen gerran egon, Ambrose Bierce bezala, ez gerra klasiko batean behintzat. Abadea zen, meza esaten zuen, baina aparejadorea ere bazen, eta apustuzalea, frontoian, kartetan. Abade berezia, baina ez hain berezia beharbada orduko euskal herrietan. Guztiarekin ere, Zarate Bierceren gerra moduetan egon ez arren, indarkeriaren ondoan ibili zen, hurbil, erdian. Idatzi ere egin zuen horri buruz, ipuinak, nobela bat, *Haurgintza minetan*. Don Trifon diktadorea erakutsi zuen hor, eta Don Trifonen zerbitzariak, txakurrak, txakur hiztunak. Txakur guztietan lehena, gogokoena, Jopu txakurra... Izena ere ez da doakoa.

Askotan nahastu izan dira txakurrak eta indarkeria, normala da giro askotan. Ruandan pertsonen gorpuak jan zituzten txakurrek, soldaduek tiro egin zieten. Sendero Luminosok, adibidez, Limako elektrizitate-zutoinetan urkatu zituen. Txakurrez eta mota guztietako animaliez idatzi zuen Mikel Zaratek, beleak, saiak, arratoiak, astoak, *Iazko asto hilak aurten lurruna*, iazko txakur hilak ere bai. Ambrose Biercek ere erabiltzen zituen animaliak, behiak, ostrukak, ahariak, indarkeriarekin lotuta guztiak, «My favourite murder» ipuinean esate baterako. Erlijioari ere nabarmen begiratu zioten idazle biek, ikuspuntu desberdinak seguruenik, eta Biblian ere asko erabiltzen dira animaliak, zentzu guztietan.

Mexikon hil zen Ambrose Bierce, 71 urterekin. Mexikoko iraultzan desagertu zen, hil egin zen, hil egin zuten, bere buruaz beste egin zuen, inork ez daki. Guillermo Arriaga gidoilari eta idazleak hipotesi bat bota zuen *Batallón guillotina* liburuan: Pancho Villak berak agindu zuela Bierceren exekuzioa, espioia zela pentsatu zuela.

Gauza da Ambrose Bierce 71 urtekoak oraindik zuela gogoa gerrarako, indarra ere bai, Lovecraftek dioen arren ordurako erdi ezinduta zegoela. Mexikoko

iraultzara hurbildu zen orduan, beste gerra bat ikusi nahi izan zuen antza, hil aurretik, azken gerra beharbada. Baina azken bidaia haren arrazoia ez zen gerra ikusteko gogoa agian, ez zen horregatik joan: zahartzaroarekin zuen beharbada zerikusi handiagoa... Birika gazteak gogoratu nahi zituen beharbada, kargarik gabeko birikak, 50 urte lehenagokoak... Izan ere, Mexikorantz abiatu aurretik, gerra zibileko batailen leku asko bisitatu zuen berriro, Stone River, Shiloh, Nashville, Kennesaw Mountain, nola ez, Franklin, Chickamauga, beste batzuk ere bai. Baina inpresioa da ibilbide hori ez zuela Ambrosek berak prestatu, Kennesaw Mountaingo bala hark prestatu zuela, esango zukeen bezala, beharbada, Albert anaiak. Eta sinistu egingo zioten neurologo batzuek. Irene Arriasek ere bai.

Edozein ordenagailutako pantailan ikus daiteke: Bagdadeko gaua, benetakoa, ez narrazioetakoa, ez Scheherezade, ez Bernardo Atxaga, orain dela urte gutxi batzuetako Bagdad, mende hasierakoa. Ikus daiteke, bideoa abiatu eta berehala, nola hasi den argitzen Bagdadeko gaua. Suma daiteke armena dela argia, jaurtigaiena, bonbak, misilak. Arma-industriaren

lexikoa ez da erraza, baina arazorik gabe uler daiteke Bagdad lehertzen ari direla, oso urrunetik, usaindu behar izan gabe, haragi errea, hildakoak, hondakinik gabe, odolik, bestelako likidorik, gorputz-adarrik gabe.

Beste bideo batean, bonbardaketak egin eta ez askora grabatutakoa, Saddam Hussein ikus daiteke, bizar luzeekin, bizar nahasiak. Ordura arteko bideo guztietan bibotearekin agertu izan den Saddam Hussein bera, bibote zainduarekin, tindatua seguruena. Soldaduek harrapatu eta ordu gutxira dago bideoa grabatuta, minutu gutxira beharbada. Zulo batean gordeta egon da Saddam Hussein, zulo landugabe batean, mundu erdia haren bila. Aurpegian ere igartzen zaio iluna, zulo hartakoa, lehen bideo horretan.

Hurrengo bideo batean, Saddamen ezkutalekua erakusten ari dira soldadu batzuk. Ematen du britainiarrak direla, baina internetek metatesi asko egiten ditu, estatubatuarrak ere izan daitezke, berdin dio, ez dio berdin. Zuloa estua, ez dago etxe baten barruan, ingurua ere basa da, zuloaren hormak leundu gabekoak guztiak.

Saddam Hussein hil eta bost urtera, Jawad al-Shammari izeneko irakiar batek aitortu zuen 22 urtez egon zela ezkutatuta antzeko zulo batean, Saddam

Hussein beraren epaitegi batek heriotza-zigorra ezarri zionetik. Beste zulo bat Iraken beraz, Saddamena baino landuagoa, hori bai, etxe barruan. Zulo gehiago ere egon zen, beste gatazka askotan egon izan diren bezala, non ez, gerra zibiletan, Bigarren Mundu Gerran, Ruandan ere bai. Irene Arriasek Ruandako genozidioaz izan zuen lehenengo berria hori bera izan zen: hutu batek halako zulo bat erakutsi zion kamerari, etxe ondoan. Kontatu zuen nola gorde zuen tutsi bat han, bilatzen ari ziren tutsi bat. Irene Arriasek Ruanda zer zen ere ez zekienean ikusi zuen bideo hori.

Bada balada berezi batean antzeko zerbait: zazpi urtez ezkutatuta egon da gizon bat, edo ezkutatu egin dute beharbada. Ez dago oso argi gizon hori hilda ala bizirik dagoen, ezin da jakin gorpua gorde duten soilik. Hori da desberdintasun bakarra, alderik balego bezala, desberdina balitz bezala, bizirik egotea, hilda, mundu guztia hilda ez balego bezala. Baladaren esateko modua ere ez da edozelangoa, mundu osoko pertsona ezkutatuak erakusten ditu hor:

> Zazpi urte igaran dit kaparraren pian,
> bele-erroiek uste zien sagarroia nintzala,
> sagarroiak uste zian haren sagarra nintzala.

Ez dago argi baladak noiz sortzen diren, gertaera izan eta berehala, ala tarte batera, handik urte batzuetara adibidez. Jawad al-Shammarik, esate baterako, zulo batean 22 urtez egon zen irakiarrak, Saddam Hussein urkatu eta bost urtera kontatu zuen ezkutalekuarena, itxaron egin zuen, zer gerta ere. Irratia zeukan zuloan, kanpoan gertatzen ari zenaz jabetzeko. Britainia Handiko *Daily Mail* egunkariak kontatu zuen hori guztia 2012an.

Laugarren bideoan, Saddam Husseinen epaiketa ikusten da. Zulotik atera eta geroagokoa. Bizarra egin-da du orain, aurpegia ere berrituta, betiko bibotea, seguru hitz egiten ari da. Adolf Eichmannen antz handia du, inork ez luke esango, hortzak ere antzekoak. Ematen du badakiela zein izango den epaia.

Saddam Husseini egin zioten azken bideoan, bosgarrenean, urkabera eramaten ari dira. Burua beltzez estalita duten gizon batzuk ari dira gidatzen. Hiru daude Saddamen inguruan, baina nabari da pertsona gehiago dagoela aretoan. Zapi beltz bat jarri diote samaren inguruan, eta zertarako den azaldu dio gizonetako batek. Onartu egin du Saddamek... Urka-bilurra hurbildu diote, soka burutik behera sartu. Urka-bilur

klasikoa da, mundu guztiak imajinatuko lukeena, apur bat handia beharbada gorputz bakar bati eusteko, baina Saddam Husseinen saman estutzeko keinua egin dutenean, oso erraz mugitu da korapiloa, errazegi. Segundo bakanetan larritu dio zintzurra, prest utzi dute. Kameraren mugimendu batean ikus daiteke leiho moduko bat dagoela Saddamen oinetan. Pentsa liteke hura zabaldu eta zuloa izango duela azpian, hara amilduko dela gizonaren gorputza, ez osorik jakina, sama inguruan daukan sokak ez dio utziko, zintzilik geratuko da. Azken segundo hori ez da bideoan ikusten, ez da behar, hilda ikusi dugu Saddam Hussein.

Kontua da osorik ikus daitekeela indarkeriaren sekuentzia bost grabazio horietan, Saddam Husseinen ingurukoa: bonbardaketak, atxiloketa, zuloa, epaiketa, urkamendia, guztia dago grabatuta. Gaddafi nola erabili zuten ere erraz ikus daiteke edonon adibidez, kolpeak, lintxamendua, hildako aurpegia, zerikusirik ez arropa garestia janzten zuenarekin. Gauza da azken 70, 80, 90 urteetako indarkeriak, indarkeria momentuak, asko, grabatuta daudela, sekuentzia osoak, erraz ikus daitezkeela, kalitate handiagoz, es-

kasagoz, pertsonak begietatik 40 zentimetrora hiltzen, odolusten, ordenagailu batean.

Eta hori iruditzen zitzaion desberdintasuna Irene Arriasi orain, erraz ikusi ahal dela, grabatuta dagoela, edonork ikus dezakeela, edonon. XVIII. mendean, XV, VII.ean, kontatu egiten zen, xehetasun gehiagorekin, gutxiagorekin, odolarekin. Ematen du horretarako direla balada asko, erromantzeak, sagak. Bistan da beti kontatu izan dela indarkeria, erakarri egiten gaituela, indarkeriak, sexuak, heriotzak, jolasak, jolasa heriotzaren kontra, baina orain askozaz hurbilagokoa iruditzen zitzaion Ireneri, pantaila propioan ikus zitekeelako, ahalegin handiegirik egin gabe, Irene Arriasek aldian-aldian ikusten zuen moduan, etxeko ordenagailuan, lanekoan ere bai.

Horrela ikusi zuen, esate baterako, 2002ko martxoan, grabatu eta 8 bat urtera, Ruandako herri ugertu bat, zuri-beltzean. Ikusi zuen kamera etxe batzuen aurretik ari zela pasatzen, herri txiki batean, ez hain txikian, eta nola zeuden atariak eta inguruak hildakoz beteta. Hildakoei begira zutunik pertsona bat, grabazio osoan bizirik ikusten den bakarra, besoak zabal-zabalik. Ematen du ahoa ere zabalik duela, baliteke oihuka egotea, negarrez ere bai, baina grabazioa ez

da onegia, gezurra dirudi, 1994koa izan behar duelako.

Berdin ikusi zuen Irenek urte batzuk geroago nola torturatu zuten kamera aurrean Samuel Doe, nola eraman zuten heriotzaraino, belarriak ere moztuta, tantaka odola, galdeketa egiten zioten bitartean. Europako Kontseiluak behin eta berriro eskatu izan du atxiloaldi guztietako galdeketak grabatzeko, gehiegikerien kontra, torturen kontra. Samuel Doeren grabazioaren helburua oso bestelakoa zen: torturak eurak grabatu nahi zituzten, grabatu eta erakutsi, Liberian gehien ikusitako bideo bat hura.

Baina beste tortura batzuk grabatu izan direnean, ematen du beste helburu batzuk ere egon direla, ez bi horiek soilik. Helburuak biderkatu egiten dira, arrazoiak ere bai. CIAk galdeketa-saioak grabatzeko gomendatu zuen 1963ko KUBARK txostenean, adibidez. Helburua praktikoagoa: saioak grabatuta bazeuden, nahi zutenean ikusi ahal baziren, agenteek ez zuten erantzunik idatzi behar eta «arreta handiagoa jar zezaketen horrela galderetan». Saioei «galdera-saioak» esaten diete txostenean ia beti.

Baina horrezaz gainera, beste helburu gardenago batzuk ere bilatu izan dira torturen grabazioekin: «gal-

dera-egile» berriak trebatu, akatsak zuzendu, «galdeketa» perfektuak aztertu, erantzunak lortu dituztenak, erantzun egokiak, galdera-egileak nahi zituenak...

Eta azken helburu bat ere badela esaten da, beste batzuk ere izango diren arren. Jakin da Abu Ghraiben, esate baterako, xantaia moduko bat ere bazela: galduta zeuden atxilotuak torturen bideo haiek zabaltzen baziren, ziega barrukoak. Irainak erakusten zituzten, sexualak, biluzik, sodomizatuta ere bai. Atxilotuak inoren eskuetan beti beraz, kartzela barruan zeudenean, baina baita kanpoan ere. Arma perfektua torturatzaileentzat kamera, kasu horietan, kalte psikologikoak, kalte sozialak.

Idatzi izan da buelta etorri zitzaiela ordea: argitaratu egin ziren Abu Ghraibeko argazki batzuk, nahi gabe, ematen du nahi gabe izan zela. Soldadu batzuk zigortu zituzten, zigortu ahal dena zigortzen da, ez gehiegi ere. Baina adituek diote agerian geratu zitzaiela makina momentu horretan, barrukoak, tripak... Ezin da jakin kezkatu ote ziren hain nabarmen geratzearren, baliteke ezetz, zinismoa ere ikasi egiten da, baina badirudi torturen 20.000 grabaziotik gora egin zirela eta guztiak desagerrarazi egin behar izan zituztela orduan, zer gerta ere. Baliteke grabazioren bat

geratzea oraindik, seguruena, beti dagoelako makina perfektua dela uste duen baten bat.

Inpresioa da kamerak asmatu zirenetik beti grabatu izan dela indarkeria, beti erabili izan direla grabazioak. John Huston zinegilea kapitain egin zuten Bigarren Mundu Gerran, esate baterako, Ozeano Pazifikoan. Propagandarako filmak enkargatu zizkioten noski. Beti propaganda, nola ez, lan handia izan dute hor beti militarrek, diru asko ere bai. Horregatik eskatzen diete onenei, onenen arteko batzuei.

Egin zuen propaganda, noski, John Hustonek, erakutsi zuen armada, gerra, erakutsi behar zituen bezala, erakargarri, salbatzaile. Baina kontrakoa ere egin zuen: *Let There Be Light* dokumentala filmatu zuen 1946an, New Yorkeko ospitale psikiatriko batean gehiena, Edgewood State Hospital. Hara bidali zuten soldadu asko Bigarren Mundu Gerra ostean, buru arazoekin, gerratik bueltan. Kalteak erakutsi nahi izan zituen Hustonek dokumental horretan beraz, gerrakoak, garunekoak, gaixoak eman zituen pantailan. Beti gertatzen da, beti dira antzeko kalteak, baina ez dira erakusten, nola erakutsiko dira. Nola erakutsiko ziren, adibidez, Malvinetatik zetozen argentinarrak 1982an... Gehiago erakutsi ziren selekzioaren parti-

duak munduko kopan, Pasarella, Kempes, Maradona, Tarantini. John Hustonek erakutsi egin zituen hala ere, kalteak, gaixo psikikoak, eta debekatu egin zuten dokumentala 30 urtez, nola ez zuten debekatuko. Irene Arriasek beste 30 urte geroago ikusi zuen. Apur bat aztoratzen zen askotan grabazioen aurrean, gero eta gutxiago ordea.

Esaten da mundu osoko ikusleengan eragina izan zuen historiako lehen dokumentala, lehen grabazioak, Nanjingeko masakrekoak direla, misiolari batek eginak, John Gillespie Mageek. Mota guztietako gehiegikeriak Nanjingek, bortxaketak batez ere, buru erauzketak, umeak, nekazariak. Japoniako Armada Inperialak egin zuen hori guztia, urte batzuk geroago John Hustonen kontra aritu zen berbera.

Baina japoniarrek ere egin zuten propaganda euren alde, nola ez, guztiek egiten dute. Eta ia beti dauka arrakasta propagandak, ia inoiz ez dago indarrik kontra egiteko. Kontra egiten diona, gainera, kanpoan geratzen da, usteldu egiten da kanpoan, koldarra, desertorea, terrorista, hori da propagandaren beste adar bat. Dena dela, inoiz ez da koldar asko egoten: nazioak handiak dira, herrikideak ausartak, nobleak, ohorea eta abar.

Japoniarrek albistegi bereziak emititu zituzten Bigarren Mundu Gerraren amaiera aldera. Armada Inperialeko pilotuak erakusten zituzten, baina ez pilotu arruntak: *kamikaze* esaten zieten, ezaguna da, mundu guztiak ezagutzen du izena, hegazkinak Estatu Batuetako Armadako itsasontzien kontra eztandarazten zituztenak, pilotuak barruan. Buruaz beste egiten zuten kalte militar txiki bat eragiteko, edo handia, berdin dio, ez dio berdin, Japoniak galduta zeukan gerra. Eta hori bera adierazten zuten albistegiek, herriaren alde eman behar zela bizia, enperadorearen alde, salbatzeko zirrikitu bat ere gabe, hegazkinean sartu eta hil, 21 urterekin beharbada, 17 urteko batzuk ere izan ziren. Hori lortzeko propaganda egin zuten noski, ausartu egin ziren propaganda egileak, agintariak, irensteko ezinezkoa ematen du, propaganda modu hori, proposamen hori, baina pilotu askok onartu zuen, gehienek.

Hor ere bada atzeko alde bat, hala ere. Ematen du beti dagoela atzeko alde bat, Kenichiro Oonuki pilotu ohiak garbi kontatu zuena. Misio baterako dei egin zieten Oonukiren eskuadroiko pilotu guztiei: buruaz beste egin behar zuten estatubatuarren hegazkinontzi baten kontra. Biharamunean erantzun behar zuten, onartzen zuten ala ez. Hiru erantzun posible:

«Ez», «Bai» edo «Bai, bihotz eta arimaz egin nahi dut».

Inork ez zuen baietz esan nahi, nola esango zuten baietz, baina eztabaidatzen aritu ziren, gauez, eta konturatu ziren hilda zeudela ordurako, baietz zein ezetz esan. Ezetz esaten bazuten, frontera bidaliko zituzten, fronterik galduenera, aurrean jarriko zituzten, berdin hilko ziren, baziren kasuak. Familiek ere sufrituko zuten orduan, errespetu falta, desohorea, baziren kasuak. Guztiek esan zioten baietz misioari beraz, bihotz eta arimaz egin nahi zutela noski.

1945eko apirilaren 3an egin behar zuten hegaldia, baina Kenichiro Oonukiren hegazkina aireratu ere ez zen egin, matxura bat. Handik egun bigarrenera aireratu zen, baina buruaz beste egin behar zuen lekura heldu orduko, Estatu Batuetako Armadak tirokatu eta irla batean lehorreratu behar izan zuen. Aukera minimorik ere ez zuen izan behar den moduko kamikazea izateko beraz. Zorte txarra beharbada, aldekoa beharbada, berdin dio.

Itzulerako bidaia luzea izan zuen Oonukik, gogorra. Japoniara heldu zenean, ordea, jipoitu egin zuten, torturatu, kartzelara bidali, Zergatik itzuli zara, hori lehenengo galdera, hori propagandaren azken adarra.

Baina kamikazeak ez zeuden bakarrik, hori zen beste ideia bat. Estatubatuarrek konkistatutako herri askotan, irla txikietan, handiagoetan, biztanle guztiak suizidatu ziren, zibilak ere bai. Propaganda hor ere aldez aurretik, alderdi guztietan: gure lurrak konkistatuko dituzte, baina ez gure herritarrak, ezta gure arimak ere... Japoniako Arima, ez da gutxi. Amildegietatik behera botatzen zituzten euren buruak beraz, eta amek umeak hartzen zituzten salto egiteko, altzoan. Esaten da hutsik geratu zela herri asko.

Michael Witowichek, marine batek, kontatu zuen umeak airean tirokatzen zituela Japonian, amildegitik behera jausten ari zirenean. Argudiatzen zuen amildegiko haitzen kontra ez zirela lehen kolpean hiltzen umeak batzuetan, sufritzen egoten zirela, haitz artean, odolusten, negarra. Umeei tiroa jotzen ahalegintzen zen, ez sufritzeko gero, hilzorian ez egoteko haitzetan, burua apurtuta, negarrak, tripak. Esaten zuen errukiagatik egiten zuela...

Ehunka izan ziren suizidioak, milaka agian. Ezin da jakin zenbat ume hil zituen Witowich marineak, non jarriko zen tiroak jotzeko, hurbil, urrun. Ezin da jakin egun bakar batean egin zuen ala egunero, errutina. Ez

dago horren grabaziorik, beste biolentzia gehienarena bai ordea.

Ordenagailuan ikusi ahal izan zituen Irene Arriasek biolentzia asko, frankotiratzaileen bideoak esate baterako, espero baino askozaz gehiago. Nola tirokatzen zuten kaletik korrika zihoan pertsona bat, edo ibilera sosegatuz zihoana. Nola ez zirudien bideoak erabat erreala, nola jausten zen pertsona halako batean, hilda ez balego bezala, egundo bizirik egon izan ez balitz bezala. Frankotiratzaileen grabazio klasikoak ikus zitezkeen gero, J.F. Kennedy, Dallas, autoa. Mundu guztiak ezagutzen ditu xehetasunak, propagandarako diru asko dago han, liburuak, pelikulak, magnizidioa, gogorren penatuta dagoen delitua. Ez dago konparatzerik Jugoslavia ohiarekin, ezer ezin da konparatu, dena konparatu ahal da.

Biolentziaren bideo klasiko asko dago: Hendaian elkartu ziren Hitler eta Franco, euskal herrietan, trena, pertsona barregarriak, konplexuz beteak, eragabe torturatu eta hil zutenak. Kontzentrazio-esparruak ere grabatu ziren, Leni Riefenstahlen pelikulak gero, nazien aldekoak. 1936ko Olinpiar Jokoak grabatu zituen Riefenstahlek, historian grabatu ziren lehenak, Hitlerren alde, baina Jesse Owensen alde ere bai.

Txileko Palacio de la Moneda nola hartu zuten ere ikus daiteke grabazioetan. Augusto Pinochet askozaz geroago epaitu zuten, urteak, erdi kasualitatez ere esan ahal da, delituen parte minimoa epaitu zioten. Gobernuaren egoitza tankeekin tirokatzea ez da delitua, hegazkinetatik presidentearen burua bonbardatzea ere ez, grabatuta egon arren, edonork ikus dezakeen arren, hor ez da magnizidiorik.

Ez da normalena, ez da erraza, baina grabazio klasiko batzuk zuzenean ikusten dira batzuetan. Irene Arriasek Dorre Bikiak jausten ikusi zuen zuzenean, nola lehertu ziren hegazkinak eraikinen kontra, bidaiariak barruan, pilotua barruan. Suizidioa berriro, japoniarren kulturatik oso urrun egon arren, japoniarren erlijiotik oso urrun ere bai, propaganda ere desberdina... Irene Arriasek zuzenean ikusi zuen enpresako telebista batean. Milaka hildako ikusi zuen zuzenean segundo gutxitan, bat bera ere ikusi gabe.

Wolfgang Sofsky filosofoak esaten du indarkeriari buruzko dokumentuak bilatuz gero, erraza dela adibideak topatzea, literaturak askotan hitz egiten duela indarkeriaz. Baina literaturak, batez ere, arimaren mina deskribatzen duela esaten du, ez min fisikoa. Min fisikoa ezin da komunikatu, hori esaten du, eraku-

tsi egin behar da, grabazioetan beharbada. Irene Arrias ez zegoen guztiz ados, baina bere burua irakurtzen ariko balitz bezala irakurri zuen Wolfgang Sofskyren pentsamendua.

1997ko irailean, enpresak ikastaro bat ematera bidali zuen Irene Arrias enpresa txikiago batera. Zazpi ikasle zituen, bera baino nagusiagoak gehienak. Irenek ez zuen bere burua kapaz ikusten zazpietako inori ezer irakasteko. Urte bi zituen ordurako enpresa berean lanean, baina ez zitzaion iruditzen ezer askorik ikasi zuenik, ez zitzaion iruditzen ezer irakasteko moduan zegoenik, fartsa itxura hartzen zion guztiari.

Ikasleetako batekin itzultzen zen Irene Bilbotik, metroz, Ibon, Ibon Sales Urizar, Irene baino urte bi nagusiagoa, eta ematen zuen horretarako balio izan ziola ikastaroak. Leioan bizi zen Ibon, baina Algortaraino lagundu zion Ireneri birritan. Zerbait erosi behar zuela esaten zuen, Algortako denda batean, arratsaldeko hiru eta erdietan, bazkaldu barik. Ireneri iruditzen zitzaion hurrengo metroa hartzen zuela Ibonek, bueltakoa, Leioarako. Irene agurtu eta berriro sartzen zela geltokira, erosketak egin gabe, ezer egin gabe,

hori pentsatu nahi zuen Irenek, hori pentsatzen egiten zituen minutu batzuk ia egunero.

Hilabete eskasekoa ikastaroa, hogeigarren egunerako joan ziren zinera, azken-aurreko asteburuan. Paseoak gero, zer, nor, zergatik, gaizki-ulertuak, jatetxeak, gustuak antzekoak, oso desberdinak, berdin zion, ez zion berdin. Ibon hurbiltzen zen Algortara Irene Leioara baino gehiago, metroz lehenengo, oinez ere bai inoiz, auto zahar bat gero, 18 urtekoa. Betikoa autoan, dena betikoa, lehen bidaiak, lehen hotelak, betikoa hoteletan ere. Hori imajinatzen zuten Ibonek eta Irenek, denek egiten zituztela gauza berberak. Baina Irenek, horrezaz guztiaz gainera, beste zerbait ere pentsatzen zuen Basagoititik paseatzen zutenean, María Cristinan, Usategin... Umea gogoratzen zuen beti, ia beti, ia egunero. Hiru urte baino gehiago ziren postetxean topatu zuenetik, etxera igo zuenetik. Lehen egunak, lehen hitzak, zeinen konplikatua izan zen, uda hura. Iruditzen zitzaion Ireneri ez zuela ondo egin, ez zuela maila eman uda hartan. Pentsatzen zuen berekoia ere izan zela, gehiago begiratu ziola bere buruari umeari baino.

Urte hartako azaroa gogoratu zuen momentu askotan, nola ez zuen gogoratuko, nola deitu zuten ikas-

tolatik, 8an... Irene ez zegoen etxean, amak kontatu zion gero: amak kontatzen zizkion gauza inportanteak beti. Konplikatuak hurrengo orduak, hurrengo egunak. Orduko gehiena gogoratzen zuen Ibonekin geratuta zegoenetan, autora sartzen zirenean, ez beti, askotan, ez zekien ondo zergatik.

Irail horretan bertan, Irenek Ibonekin lehen metroa hartu eta ordu batzuk geroago, Joseph-Desiré Mobutu hil zen ohean, Zairekoa, diktadorea, hilabete batzuk lehenago Deng Xiaoping hil zen moduan, otsailaren 19an. Biek eragin zuten hildako asko, gorpu asko, baina biak hil zituen gaixotasunak, Irene Arriasek Ibonekin lehen afaria egin zuen urte berean. Deng Xiaopingen irudia ez da Mobuturena bezain ezaguna, Mao Zedongena bezain ezaguna ere ez, Stalin, Mussolini. Garrantzi handia eman zioten irudiari gehienek, agerpenei, propagandaren beste adar bat. Deng Xiaoping, ordea, apur bat atzerago geratu zen horretan... Sasoi modu horietan ideiak koloregabetu egiten direla iruditzen zitzaion Ireneri.

Irene Arrias eta Ibon Sales 2001ean hasi ziren etxea bilatzen. Algortan begiratu zuten: Irenek Algortan behar zuen, Iboni berdin zion. Salsidun begiratu zuten, Kasunen. Irenek gorago nahi zuen, Alangoba-

rrin erosi zuten azkenean, 2001ean bertan. Argi gutxi etxeak, berdin zien, ez zien berdin. Apurka bete zuten, egongela, gela, guztiek bezala, guztiek egiten zuten gauza bera, apurka bete, hori iruditzen zitzaien behintzat Ibon eta Ireneri.

Irailaren 28an sinatu zituzten paperak, Dorre Bikiak bota eta 17 egunera. Notarioaren bulegotik irten eta Alangobarriko etxera sartu zirenean, umea gogoratu zuen berriro Irenek, laster zirelako zazpi urte ikastolatik deitu zutenetik. Etxe hartan imajinatu zuen umea momentu hartan, ez hain ume ordurako, 10 urte, 11 beharbada, beste pertsona bat, beste mundu bat. Ireneri oraindik iruditzen zitzaion ez zuela uda hartan maila eman, gehiago egiteko aukera izan zuela ume haren alde.

Ia egunero joaten ziren Alangobarriko etxera, nola ez ziren joango, arratsaldeetan, lanen ostean, bakarrik, elkarrekin. Gauzak eramaten zituzten, kutxak, arropak, liburuak, etxea erosten duten guztien moduan. Ez zuten etxe berrira berehala aldatu nahi, presarik ez, baina gauzak sartu nahi zituzten, zerbait egin nahi zuten etxearekin, nola ez zuten nahi izango.

Azaroaren 6an ere Alangobarrin egon ziren, berandura arte. Inoizko beranduen erretiratu ziren, lurrean

jesarrita, prakak zikindu zituzten, hautsa, karea. 23:15etan irten ziren, gurasoen etxera, bakoitza bere aldetik. Zortzi ordu geroago hil zuen ETAk José María Lidón epailea, Alangobarritik 20 bat metrora, kale paraleloan, Mariandresenako garajean. Auto barruan tirokatu zuten, emaztea ondoan, semea ere garajean bertan, beste auto batean. Tiroak entzunda hurbildu zen semea, bizirik ikusi zuen aita, hil-hurren, hilda medikua etorri zenerako.

Irene Arrias zortzi ordu lehenago pasatu zen handik, Alangobarritik Torrenera joateko, amaren etxera, kaleak hutsik. Ez zuen José María Lidón ezagutzen, kaletik ikusi zuen beharbada inoiz, semeak ere Irene baino apur bat gazteagoak. Hil eta gero hasi ziren Algortako Lidón epaileari buruz hitz egiten, nola ez zuen alde batera edo bestera egin nabarmen. Nola kondenatu zituen, alde batetik, PSE-EEko egoitzaren kontra molotov koktelak bota eta hildako bi eragin zituzten gazteak; nola kondenatu zituen gero Tomas Linaza torturatu zuten guardia zibilak.

Jende askok ez zuen argi ikusten beraz zergatik hil zuten epailea, azalpenak eskatu ziren orduan. Azalpen bat zabaldu zen geroago: ematen du epaitegietan abi-

sua utzi nahi zutela, hori esan zen, sinbolo moduan. Katalunian jaio zen José María Lidón bera ere.

Epailea hil zuten garajetik metro gutxira bizi zen beste hildako bat, Jokin Azaola, 1978an, Euskal Herria kalean, 15. zenbakian. Goizero egiten zuen Azaolak bide bera, Areneazpiraino jaisten zen, 5 urte lehenago Eustakio Mendizabal *Txikia* jaitsi zen bezala. Lankideekin biltzen zen Azaola, garajetik autoa atera eta Urdulizera joaten ziren, Mecánica La Peña, lanera. Abenduaren 19an, hiru ETAkide agertu zitzaizkien garajera, garaje inguruetara. Berriro garajea beraz, Lidón baino 23 urte lehenago... Autora sartu ziren bi eta Jokin Azaola hil zuen hirugarrenak. Mesedeetako Ama Birjinaren elizaren ondoan aldatu zuten autoa minutu batzuk geroago, Areetan.

ETAko kidea izandakoa zen Azaola bera ere, erbestean egon zen, kartzelan. Hil zutenerako ETAtik kanpo zegoen, baina astekari batean aitortu zuen urte batzuk lehenago ETAk Espainiako errege-familia osoa bahitu nahi izan zuela eta arduradunetako bat izan zela bera.

Monakora gonbidatu zituzten Juan Carlos printzea eta familia, kasino baten inauguraziora. Yate batean harrapatu behar zituzten errege-familiakoak ETAko

komandokoek, itsasoan bertan. Bahitu, ezkutatu eta 200 edo 300 milioi eskatuko zuten gero, ehun bat preso aske uztea ere bai. Hori zen plana, Francori hori guztia eskatzea. Baina Azaolari iruditu zitzaion Francok ez zuela onartuko, ia ezinezkoa zela onartzea, eta barrundatu zuen ETAk ez zuela beste erremediorik izango, bahitu guztiak hil beharko zituztela, familia osoa. Beste inorekin hitz egin gabe pentsatu zuen hori guztia, bakarrik, baina argi zeukan, bahitu eta gero Francok onartzen ez bazuen, familia osoa hil beharko zuten. Azaolak ez zituen hil nahi, alferrekoa iruditzen zitzaion, merkea ere bai beharbada.

Baionako kontsulari pasatu zion Azaolak abisua, polizia-komisario bati emateko, zegokionari abisatzeko. Errege-familia ez zen Monakora joan, ez zen bahiketarik egon. Azaolak astekari batean kontatu zuen gero, xehetasun guztiekin, nola prestatu zuten, nola eragotzi zuen berak. 1978ko abenduaren 19an hil zuten Azaola orduan, Areneazpi kalean, ikastolatik aski hurbil, Irene Arriasek egunero lau aldiz ikusten zuen leku batean, ikastolarako joan-etorrietan. Egun horretan ere pasatu zen garaje haren aurretik, Azaola hil eta ordu eta erdi geroago.

Egun bi geroago Jose Miguel Beñaran Ordeñana *Argala* hil zuten Angelun, Batallón Vasco Españolek hartu zuen hilketa bere gain. Eskumako egunkari batek idatzi zuen ordea, Batallón Vasco Españolek atentatua bere gain hartu arren, ez zela egia. Idatzi zuten egunkariak jakin zuela, «ETAtik hurbil dauden iturri batek» aitortuta, talde barruko borrokak zirela, militarrak, politiko-militarrak, badakizu, miliak, polimiliak, horregatik hil zutela Argala, argi zegoela. Idatzi zuten Argalaren hilketa Azaolaren hilketaren erantzuna izan zela. Inpresioa da lotsa sentimendurik gabe idatzi zutela, beste sentimendu modu batekin beharbada, itxurarik egin gabe.

Esaten da Argalari «Moro» ere esaten ziotela lagunek Angelun, Sarrionandiak 30 urte geroago erabili zuen hitz bera, Gurugún aritzen ziren haiei esateko erabiltzen zen bezala, Algortara, 1937an, sartu zirenei buruz hitz egiteko ahoskatzen zena.

Ibonek eta Irenek Alangobarriko etxea erosi baino bi urte lehenago, elizgizon bat epaitu zuten Ruandan. Familia tutsi batek lau seme-alaba utzi zizkion elizgizonari masakreen sasoian, etxean gordetzeko, babes-

teko, sinisten zuten etxe hartan ez zutela problemarik izango. Alde egin zuten gurasoek gero, seguru zekiten guztiak hilko zituztela bestela.

Baina heldu ziren milizianoak elizgizonaren etxera halako batean, etxe osoa arakatu zuten, hustu, balio zien guztia eraman. Gehiago ere egin zuten: lau umeak hil. Okerrago ere bai: elizgizonari agindu zioten umeetako bat hiltzeko. Milizianoei laguntza eman zielako kondenatu nahi zuten elizgizona 5 urte geroago.

Andre batek defendatu nahi izan zuen ordea, ahalegindu zen elizgizona defendatzen, nola emango zien milizianoei laguntza etxe osoa eraman bazioten, guztia lapurtu bazioten, alde egin behar izan bazuen. Elizgizonak, baina, ez zuen bere burua defendatu nahi izan, baietz esan zuen, aitortu egin zuen, erruduna zela, hil egin zuela ume hura, aihotz kolpe bakar bat eman ziola, alde egin zuela gero, korrika. Esan zuen Iuzaro egin zuela korrika, errefuxiatu talde bat topatu zuen arte. Gerra amaitu eta segituan entregatu zen... Esaten zuen Jainkoarekin garbi utzi zituela kontuak, pertsonek epaitu behar zutela orain. Fiskalak galdetu zion, halako batean, ba ote zekien zer ekarriko zion epaiak. Elizgizonak labur erantzun zuela idatzi izan da: «Desagerrarazi egingo nau».

Istorio hori argitaratu zuen 2000. urtean Véronique Tadjo Boli Kostako idazleak. Ematen du epaiketan bertan egon zela, edo oso bizi kontatu ziotela. Beste hilketa batzuk ere kontatzen ditu liburuan, gogorragoak agian, odol gehiagorekin, baina elizgizonarena da desberdinena, Ruandari buruz argitaratu diren beste dokumentuekin alderatuta ere desberdina, *apaiz batek bi gizon hilerazi dizkit*. Desberdintasunak gehiegitan errepikatzen direla ematen du hala ere.

Eliza ez da ulertu izan askotan, elizgizonak, gotzainak, serorak... Handiegia eliza beharbada... Irenek ere ez zekien eliza tratatzen batzuetan, Nicolae Ceaucescuk ere ez. Harreman berezia izan zuen Ceaucescuk elizgizonekin, elizekin, erlijioarekin berarekin ere bai beharbada. Bukaresteko guneetako bat eraldatu nahi izan zuen esate baterako, eraberritu, etorbide zabalak egin. Hainbat eliza bota zituen horretarako, balio handikoak batzuk, balio historikoa, artistikoa, arkitektonikoa. Baina ez zituen guztiak bota, hor dago desoreka, ez dago argi irizpidea, ez argiegi, zergatik batzuk bai, besteak ez. Eliza batzuk, bota beharrekoan, lekuz aldatu zituen... Grabazio bat ere badago... Elizak zeuden lekuetatik erauzi egin zituzten, oinarrietatik, lurretik banatu. Mekanismo moduko bat jartzen zizkie-

ten gero azpian, xaflak, gurpilak, hodiak, ez da grabazioan ondoegi ikusten: milimetroka mugitu zituzten ondoren elizak, kale berrian jarri arte.

Antzeko ideia bat izan zuen idazle errumaniar batek, Ceaucescuren herrikidea bera, Otilia Valeria Corman, Ana Blandiana ezizenez. Ipuin-liburu batean, *Proiecte de trecut*, lekuz mugitzen diren elizen narrazio bi eman zituen. Hamaika narrazioko liburua da, eta lekuz mugitzen diren elizen narrazio bi ditu... Ez da gutxi, baina ez da asko ere, Ceaucescuren ahaleginaren ondoan.

Narrazioetako batean, Subpiatrako elizari buruz hitz egin zuen, Bihor mendilerroan. Kontatzen du nola eraman nahi izan zuten herritarrek eliza beste herri batera, zegoen lekutik 10 kilometrora, idi eta uztarriz, eta sokaz. Esaten du kontakizunak eliza Cris ibaiaren gainetik pasatzen ari zirela, baina, izotz-geruza apurtu eta han geratu zela eraikina iltzatuta. Kontatzen du izotza urtu zela gero eta Subpiatrako egurrezko elizak urteetan jarraitu zuela nabigatzen.

Beste narrazioan, lekuz mugitzen diren elizen saileko bigarrenean, herri txiki bateko eliza hegan hasi zela kontatzen du Ana Blandianak, beltzez jantzitako gizon eta emakume zahar batzuen ihesi. Bistan da

mugitzeko joera handia zutela elizek Errumanian orduan; Paul Munteanu abade errumaniarrak ere hitz egin zuen horri buruz.

Nicolae Ceaucescuk ideia ederrak zituela esan izan da, artistikoak, elizena bezalakoa. Ideia garbiak, ugerrak ere bai, edo beharbada ingurukoek ematen zizkioten, artistez inguratu zen beharbada. Urteko uzta ospatzeko festan, esate baterako, produktuen erakusketa egin behar zuten nekazariek, produkturik onenak. Telebistaz emitituko zuten, erakutsiko zuten Errumania ez zela gosez hiltzen ari. Zabalgune handi batean egin behar zen erakusketa ordea, eguzkiak joko zuen, usteldu egingo ziren produktuak. Ceaucescuk berak asmatu zuen zer egin, edo Ceaucescuren ingurukoek: poliestirenoz egin zituzten barazkiak, gaztak... Artoa, azaburuak eta meloiak benetakoak ziren: horietan ez zen ustela nabaritzen, ez telebistaz.

Norman Maneak esaten du, bestetik, etxeko txakur eta katu guztiak hiltzeko agindua ere eman zuela Ceaucescuk, edo Ceaucescuren taldeak. Beste ideia artistiko bat: ez zuten nahi etxeko animaliek «produkzio-indarren» atsedena galaraztea. Ruandako emaitza berbera azken batean... Han ere hil zituzten txakur guztiak RFPko soldaduek, *Iazko txakur hilak aurten lu-*

rruna, *Otsoaren ihesi nebilela, bat nendin hartzarekin*. Hori ematen du dela.

Nicolae Ceaucescuk jaten zuen guztia analizatzen zuen laborategi batek. Sabelustu eta gero ere hondakinak analizatzen zizkioten, gorozkiak, obsesio horrekin bizi zen. Horrezaz gainera, talde berezi batek, erradiazio-detektagailu batez, diktadorearen lantokia, komuna eta luma aztertzen zituen egunero. Arropa ere kontrolatuta zegoen: Ceaucescuk jantzi aurretik analizatzen zizkioten arropa guztiak. Erre egiten zuten arropa gero, egunaren amaieran, iluntzean, iluntzero. Egunero estreinatzen zituen arropak beraz, egunero erre, Europako herrialderik pobreenetako batean. Europako jauregirik handiena ere eraiki nahi izan zuen Bukaresten.

Kamerak ere asko erabili zituen Nicolae Ceaucescuk: barazkiak filmatzen zituen, ikuskizunak, hitzaldiak. Ceaucescu bera eta emaztea, Elena, ordu bitik gora agertzen ziren egunero telebistan. Securitatek Errumaniako bertako agintari batzuk ere grabatu zituen, goi mailako agintari batzuk, maitaleekin zeudenetan. Erraz asma daiteke zertarako nahi zituzten irudiak gero... Baina beste erabilera bat ere eman zieten grabazioei: Elena Ceaucescuri bidaltzen zizkioten.

Esaten da gauero ikusten zituela Elenak, senarraren arropak erretzen ari zirenean.

Nicolae Ceaucescu galdu zeneko momentua ere grabatuta dago, zuzenean eman zuen telebistak. Horregatik ikusi ahal dugu gaur, ez zutelako astirik izan eraldatzeko, eteteko. Jauregiko balkoietako batera agertu zen Ceaucescu, 1989ko abenduaren 21ean. Beste hitzaldi bat, segida luze baten ostean, ohitura kontua, ohituta zegoen, ohituta entzuleak ere. Txaloak hasieran, betiko antzean. Esaten izan da Securitateko agenteak nahasten zirela entzuleen artean, kontrolatuta zeukatela nork txalotzen zuen, nork ez zuen txalotzen batez ere.

Hitzaldiaren une jakin batean, baina, oihu desberdin batzuk aditzen hasi ziren, txistuak ere bai, grabatuta dago. Ceaucescuk zalantza egin zuen orduan, hitzak erdizka, tatarrez. Kolokan jarri zuten oihuek, ez zekien ondoegi zer egin behar zuen, ez da erraza estatuburu bat horrela ikustea jendaurrean. Desbideratu egin zuten kamera orduan: jauregiko etxaurrea fokatu zuten lehenengo, horma bat, kartel laranja batez estali zuten emisioa gero, *Transmisiune directa*. Segundo asko horrela, 148 segundo, arin esaten da, bi minutu

eta erdi. Berehala amaitu zuen Ceaucescuk hitzaldia berriro fokatu zutenean.

Nicolae eta Elena Ceaucescuk momentu horretan ulertu zuten amaitu zela, gobernua, agintea, galduta zeudela. Helikopteroa erabili zuten alde egiteko, mugarantz, Errumaniatik atera nahi zuten. Helikopteroa lurreratu behar izan zuten halako batean ordea, arazoren bat, Errumaniatik irten aurretik. Auto batek hartu zituen bidean gero, baina esan izan da matxura simulatu zuela gidariak kilometro batzuk geroago, ez ziela lagundu nahi. Beste auto batek hartu zuen bikotea, berehala gelditu zuten ibilgailua, ostera, atxilotu egin zituzten, Errumanian bertan, muga pasatu baino lehenago.

Epaiketa egin zieten gero, leku triste batean, eskola bat izan daiteke, jantoki publiko bat, grabatuta dago hori ere. Militarrak Nicolae eta Elenaren aurrean, adineko bikote baten aurrean. Oraindik uste zuten Ceaucescu zirela, subditoak bezala tratatu zituzten militarrak, baina gehiago dira agure-atsoak, berehala hil nahi dituztenak.

Epaiketa antzeztu egin zuten orduan. Hasieran kode penalaren artikulu batzuen arabera epaituko zituztela esan zuten, 145, 163, 165 eta 356. artikuluen

arabera. Azkenean, epaia eman zutenean, 162, 163, 165 eta 357. artikuluen arabera kondenatu zituzten. Desberdinak dira artikulu bi, baina Ceaucescuk ez zuen ia ezer esan epaiketa osoan, epaimahaia ez zuela onartzen, askoz gehiago ez. Berdin zien militarrei, ez zien berdin, eskuak lotu zizkieten. Ikusteko modukoa da grabazioaren une hori, nola egin zien aurre Elena Ceaucescuk soldaduei, Elena Petrescu ezkondu aurretik.

Fusilatu zituzten momentua ere grabatuta dago, urrunetik, tiro egin zuten lekutik, 20 bat metrora. Tiroa jo zutenean, ke hodei handi bat jarri zen kameraren aurrean: ez da ikusten nola jausi ziren fusilatuak, ez da ikusten benetan fusilatu zituzten ere. Apur bat geroago ikusten dira bideoan aurpegi biak, hilda daudela ematen du. Irene Arriasek zalantza egin zuen grabazioa ikusi zuenean, ordea, ez zuen argi benetan fusilatu zituzten. Gero eta zalantza handiagoak egiten zituen horrelako grabazioak ikusten hasi zenetik, ulertzen hasi zenetik.

Unibertsitateko lehen urtea egiten ari zen Irene Nicolae Ceaucescu hil zutenean, baina 19 urte geroago ikusi zuen grabazioa. Umea etorri zitzaion gogora

gero, Ceaucescuren grabazioa ikusi ostean. 14 urte ziren laster postetxean topatu zuenetik.

Irene Arriasek umeak zer diren pentsatu behar izan zuen ume propioak ekarri baino lehenago, askozaz lehenago, hogeita hiru urte eta erdirekin, Ibon ezagutzeko asko falta zuenean, postetxe batean, hurrengo hilabeteetan, hurrengo urteetan. Apur bat geroago ulertzen hasi zen zer ziren umeak gerran ere, nola bidaltzen zituzten, 21 urtekoak, 17koak. Ulertu zuen gero, halako batean, gaixotasunera ere bidaltzen zituztela batzuetan umeak, Txinako umezurtzen etxeetan adibidez, nola uzten zituzten sehasketan mantarik gabe, edo hamar mantaren azpian, burua ere estalita, artatu gabe, jateko gutxirekin, nola uzten zituzten kontsumitzen. Umeen gaixotasuna pentsatu behar izan zuen Irenek, beraz, alaba propioaren sukarra baino askozaz lehenago.

Bada balada bat horrelako ume modu bat erakusten duena, lanera bidaltzen dutena, lanik gogorrenetako batera, itsasora, marinel, marinelen laguntzaile hobeto esanda, barkuko azkena, *txo* esaten diote leku batzuetan, 10 urtekoa, 12koa, gutxiagokoa ere bai.

Balada laburra da, zuzena, beste kultura askotan ere kantatzen dena, azalpen askorik behar ez duena.

Sartu dute barkuan umea, beraz. Etxean ere ume asko, litekeena da, ezin guztiak jagon, bizibidea eman, arazo bat gutxiago. Familiak pentsatu du dirua ere ekarriko duela beharbada, parametro horietan ari gara. Gaixotasunera bidali dute hortaz, gaixotasunetik harago ere bai seguruenik, arazo bat gutxiago, horiek dira parametroak zalantzarik gabe.

Bidaia ez da laburra, Ameriketara ziurrenik, Asiara. Bertsioetako batek esaten du: *zazpi urte baditu uraren gainean ginela*. Baliteke gutxiago izatea, ez da zazpi zenbakia zertan erreala izan, seguru asko ez da erreala, dena delako zazpi baladetan, dena da zazpi aldiz. Ondorioa bera da ordea, denbora asko egin dutela itsasoan, porturik zapaldu gabe, ikusi gabe ere bai agian.

Herrian, bidaiaren hasieran, bildu zituzten jateko guztiak agortu zaizkie bidean noski, ez zuten pentsatuko, hainbeste denbora porturik gabe, ezinezkoa kalkulua. Hasi da gosea, beste ezer baino presenteago, garuna bera baino presenteago... Izan ere, zazpi urte itsasoan, *sei urteren janaria baizik gurekilan ez ginula*.

Eta ezin izan diote goseari eutsi, nola eutsiko zioten, egun bakan batzuk ere ez diote batzuek eusten. Seigarren urtean geratu dira jateko barik eta *zazpigarrenian jan genituen txakurra eta gatua*. Txakur hilak berriro, katuak ere bai. Gustura asko jango zituzten, erraz imajina daiteke eszena, baina egun bakarreko gosea berdintzeko balioko zien, bikoa, laukoa, askozaz gehiago ez, tripulazio osoak jan behar zuen, txakur bat, katu bat.

Beste zerbait asmatu behar dute, eta asmatu egin dute, goseak beti asmatzen du. Umea jango dute, marinelen laguntzailea, txoa, barkuko azkena, barkua nabigarazteko beharrezkoa ez dena, derrigorrezkoa ez dena, defendatzeko aukerarik ere ez duena, hori erabaki dute, erabaki perfektua euren begietan.

Askotan gertatzen da, Uruguaiko hegazkin hartan bezala, Old Christians errugbi taldea eramaten ari zena Txilera, Andeez gaindi, istripua izan zuena mendian. 45 bidaiarietatik 16 bizirik istripuaren ostean, 72 egun egin zituzten mendian, elurretan, arin esaten da, hilabete bi baino gehiago, zero azpiko 40 gradu ere bai. Hildakoak jan behar izan zituzten halako batean, nola ez zituzten jango. Hasieran erreparoak izan zituz-

ten, katolikoak, Old Christians izena ere ez zen erraz-keria, baina gorpuak jatea erabaki zuten azkenean.

Hildakoen familiakoek ez zuten protesta minimorik egin jakin zutenean, bizirik geratu zirenen kontra, euren hildakoak jan zituztenen kontra. Alderantziz ere bai: ulertu egin zuten, egin behar zutela, ezin zutela besterik egin, hildakoen gurasoak zirenek ere ulertu zuten. Rafael Echevarren zen hildakoetako bat, zatika jan zutenetako bat, jatorri euskaldunekoa, Jean-Pierre Minaberry bezala, beste hegazkin batean.

Baladako tripulazioak ere ezin du besterik egin, ezin du besterik pentsatu, umea jan behar dute, txoa, barkuko azkena, defendatzeko aukerarik ez duena. Baina azken aukera eman nahi izan diote, oparitu nahi izan diote:

> Ene mithilik txipiena, ene mithilik maiteena
> habil harat, habil hunat, masta horren phüntalat,
> habil eta so egin ezak, ageri denez lür idorra.

Azken unean zerbait ikusten badu, lurra, lehorra, libre uzteko prest daude beraz. Igartzen da nahiago dutela aukera hori, nahiago dutela txerria jan, eperrak, arrautzak. Baina umeak ez du ezer ikusi, *ez dut*

ikusi leihorrik, ez eta ere belarik. Etsiarekin dator, badaki jango dutela, ez dago beste erremediorik, argi esan diote, edo barrundatu egin du beharbada, beste bertsio batzuetan.

W.M. Thackerayk ingelesez idatzi zuen bertsioan, argiago esan diote umeari: *O Billy! We»re going to kill and eat you*. Ez zen euskal barkuetan gertatzen soilik, noski, kultura gehienetan, guztietan beharbada... Irenek gero eta argiago zuen indarkeria ez dela salbuespena inon, *iazko barku hilak aurten lurruna*.

Dramatikoa ematen du, umea, gosea, antropofagia, baina Thackerayren poema *A Nonsense Anthology* liburuan argitaratu zuten 1915ean, New Yorken. Billee txikiak, Little Billeek, denbora apur bat eskatu du hil aurretik, *first let me say my catechism, which my poor mother taught me*. Ume euskalduna ere hara eta hona ibili da, porturen bat ikusteko, labarren bat, baina onartu egin du azkenean erabakia, *jan nazazie, jan nazazie, jan beharra naiz lehenik*. Onartu du bera dela sobran dagoen lehena, barkuak ez duela ezer galduko. Baina beste bertsio batean ilunago esaten du, *gero jan behar banaizie, jan nezazie lehenik*. Ez da hor ondoegi ulertzen, umeak zer nahi duen, bertsio inperfektua da, harik eta bertsiorik logikoenera heltzen

garen arte: *jan behar balin banauzue, hil nezazue lehenik*. Hori da benetan eskatu nahi diena, jan bai, jan dezatela, baina hil egin behar dutela jaten hasi aurretik, ez diezaiotela zatiak ebaki eta jaten hasi, artean bizirik dela, odolarekin, min bizi horrekin. Kolpe batez hiltzea nahi du, Ruandan bezala, polizien aurrean bezala, gero egin dezatela nahi dutena gorpuarekin, berdin diola.

Jende askok uste du hori bera dela logikoena, umeak proposatu duena: pertsona ahalik eta garbien hil, zatitu eta apurka jan. Ondo kalkulatuz gero, egunean zati txikiak janda, luzarorako eman dezake gorpu batek. Baina ematen du errealitatea beste bat dela: kontua da hildakoak berehala geratzen direla hotz, zurrun, eta, batez ere, uste baino arinago hasten direla usteltzen... Beste aukera da logikoagoa beraz: pertsona bizirik ahal denik eta luzaroen egotea, hanka bat ebakitzea eta jatea, bestea, besoak, sabelalde zatiak, apurka odolustu arren, odol isuriari ahal den moduan eutsiz... Modu horretan haragia ez da horren arin usteltzen, hori da arrazoia. Barkuko umeak badaki hori, ez da lehenengo aldia, beste barku batzuetakoak kontatzen ziren, umeak berak ere jan du gorpuren bat beharbada, hildakoren bat... Mesede hori eskatu die,

azken mesede hori, *jan behar balin banauzue, hil nezazue lehenik*.

Libratu da azkenean umea, ordea: *mastainoaren puntalat* igo da, *main-top-gallant-mast* Thackerayren bertsioan, eta handik ikusi du *Londrese*, edota *Angalaterra*, edo *Katalonia*, bertsioaren arabera, edo *Tolonako thorria*, eta leihoetako batean ikusi du kapitainaren arreba josten ari dela. Kasu honetan onerako izan da josten ari den emakumea, horrek salbatu du umea, marinelen laguntzailea, barkuko azkena. Ez dute laurdendu, ez dute jan, marinelen batek estimatuko zuen umea, askok beharbada, ez dute zatitu behar izan.

Deskribatu izan da, ildo beretik, Bigarren Mundu Gerran, Ozeano Pazifikoan, irla asko geratzen zirela isolatuta, soldadu japoniarrak handik ateratzeko modurik gabe, behar bezala hornitzeko modurik gabe, janaria, botikak, arropak, dena beharrean egoten zirela. Gerra-presoak jaten hasi ziren orduan, baladetako barkuetan bezala, hildakoak lehenengo, gaixotasun larriren batek hiltzen zituenak izan ezik. Bizirik zeuden presoak hiltzen hasi ziren gero, hildakoak amaitu zirenean, egunean bat: arin hil, segituan jan, hori zen sistema.

Asko zabaltzen hasi zen joera hori, egunero jaten zituzten gorpuak, leku askotan, ez presoak soilik batzuetan, arazo ere bihurtu zen. Agintariak arduratzen hasi ziren orduan, Aozu komandanteburuak agindua eman zuen: heriotza-zigorra izango zuten hildako pertsonen haragia jaten zutenek, baldin eta etsaien haragia ez bazen. Etsaien haragia jatea libre beraz, etxekoena ez... Agintariek, Aozu komandanteburuak, ez zuten gosea ulertu, egoera, irla, ez zuten ulertu Uruguaiko hegazkineko hildakoen familiakoek ulertu zutena. Gerra eragin zuten, komandanteburuek, agintariek, enperadoreak, hildakoak eragin zituzten, gosea ere bai, baina nahastu gabe nahi zituzten, hildakoak eta gosea. Nahasten zirenean higuina ematen zien, hozkia, frontera soldadu nobleak baino ez dira joaten.

Puntu horretaraino erraz ulertzen da soldadu japoniarrek egin zutena, gosea, hornitzeko modurik ez, asetzeko modurik ez... Gorpuak jatea irtenbiderik onena, oso ona behintzat, jende askok egingo zukeen, gehienek beharbada. Baina bada orduko gertaera bat, Ginea Berrian bizi izandakoa, Port Moresbytik ez oso urrun, azaltzeko arazo handiagoak dituena. Bill Hedgesek kontatu zuen, australiarren armadako burueta-ko batek.

Soldadu japoniarren kontrako borrokaldi bat gidatu zuen Hedgesek Templeson»s Crossingen. Australiarrek atzera egin behar izan zutela kontatu zuen, ihes, kilometroak. Ezin izan zituzten orduan hildakoak eraman, euren kanpalekuetan lurperatu... Han geratu ziren lau zauritu ere, japoniarren esku, ez zuten beste erremediorik izan.

Biharamunean berritu zen borrokaldia, emaitza alderantzizkoa ordea, japoniarrek egin behar izan zuten atzera. Australiarrak bezperako hildakoak, euren hildakoak, berreskuratu eta lurperatzera hurreratu ziren orduan. Esaten du Hedgesek ezin izan zutela han topatu zutena sinistu, ez zutela espero, bezperako gorpuek zatiak falta zituztelako, japoniarrek ebaki eta jan zituztelako. Are gehiago: zaurituak ere jaten hasita zeuden.

Lehen kolpea pasatuta, soldadu australiarrek eurek ere ulertu zuten, ulertzen hasi ziren, gosea, beharra: ez zuten beste erremediorik izan japoniarrek, egun asko izango zituzten jan gabe. Sinistu zuten australiarrek ez zela lehenengo kasua, ez zela azkena ere izango. Apur bat aurrerago hartu zuten australiarrek kolpea berriro, ostera... Azaltzeko zailagoa zen zerbait topatu zuten, azaltzeko ezinezkoa beharbada: japo-

niarren kanpalekuko zabor artean, poltsetan, kaxetan, arroza zegoen, arroz ugari, kontserbako janari asko ere bai, okela, arraina.

Ez zen gosea beraz, ez gosea soilik. Baina hori hala izanik, badira beste erabaki batzuk, halako egoeretan, horren moduan hain erraz ulertzen ez direnak: Uruguaiko hegazkinean erabaki zuten, esate bateraako, ez zutela emakumezkoen haragirik jango. Umerik ez zen bidaiarien artean, baina egon izan balitz, ez jatea erabakiko zuketen seguruena. Emakumeak eta haurrak, beti bezala, gerran bezala, ez da ondo ulertzen zergatik. Baladako itsasontzian, ordea, ume bakarra zegoen, eta hura jatea erabaki zuten. Ematen du parametroak aldatzen dituela goseak, indarkeriak ere bai. Ireneri iruditzen zitzaion zaila dela egun bakar bat indarkeriarik gabe, indarkeriaren erantzunik gabe, *iazko ume hilak*, betiko moduan, *aurten lurruna*.

J.R.R. Tolkien idazleak 1954an argitaratu zuen *The Lord of the Rings*, baina urte asko eman zituen liburuarekin, 15, 20, 30, ezin da kalkulatu beharbada. Idazleak berak azaldu zuen hizkuntza dela liburuaren abiapuntua, hortik erne zirela Gandalf, Sauron, Elrond.

Esaten da hizkuntza berriak asmatzea, hori zela Tolkienen zoroa, narrazioak egitea baino gehiago. Hizkuntza sinpleak hasieran, gero eta osoagoak, morfologia, sintaxia. Baina esaten zuen Tolkienek hizkuntzek, hizkuntza badira, hiztunak behar dituztela. Eta hiztunek historia behar dutela, mitologia bat ere bai, mundu ikuskera bat, kultura. Eta horretarako idatzi zituen *The Silmarillion*, *The Hobbit*, *The Lord of the Rings* ere bai noski, asmatzen zituen hizkuntzek hiztun-komunitateak izan zitzaten, elfoak, hobbitak. 16 urte bete baino lehenago irakurri zuen Irene Arriasek Tolkienen obra osoa.

Bloemfonteinen jaio zen John Ronald Reuel Tolkien 1892an, Hegoafrikako Errepublikan. Ingalaterrakoak ziren guraso biak, lanean zegoen aita Hegoafrikan, baina umeak lau urte zituela hil zen. Ingalaterran bizi izan zen geroztik Tolkien umea eta Afrikako gauza gutxi gogoratzen zuen, zuhaitz sarriak, zizta egin zion armiarma handi bat. Ikasle ona, diru-laguntzak hartu zituen, ikastetxe onenetan, Oxfordera ere heldu zen halako batean. Errugbian ere aritu zen, gorputz iharra izan arren, arina, ez zuten erraz harrapatzen, plakatzeko ere zaila. Oxforden ere egin zuen errugbian, ez

zuen utzi nahi, ikasketa akademikoak gogorren jarri zirenean ere ez.

Ingalaterra gerran sartuta zegoen Tolkienek unibertsitateko ikasketak amaitu baino lehen, 1914an, baina amaitu ahal izan zituen, bere adineko gehienek frontera joan behar izan bazuten ere. Aukera hori eman zioten Tolkieni, ikasketak amaitzekoa, salbuespena zen, eta amaitu egin zituen, lizentziatu. 1915ean, ordea, Bedforren zegoen, instrukzio militarra egiten... Konbentzituta zegoen Tolkien 23 urtekoa han egon behar zuela, gerrarako prestatu behar zuela, frontera joan. Nola ez zen konbentzituta egongo, denak zeuden konbentzituta orduan, hainbeste ikasketa eta gero ere, hizkuntzalaritza, geografia, historia. Zalantzak ere izango zituen, bazituen, idatzita utzi zuen instrukzio sasoiaz: «Alde batetik bestera joaten alferrik galtzen dugun denbora ez da gozoa, gaiak aspergarriak, erailtzeko artearen ur mortu ilunak». Baina horren guztiaren gainetik, oraindik sinisten zuen beharrezkoa zela, han egon behar zuela.

Armadan espezializazioa ere hartu zuen, ezin bestela izan: Oxforden lizentziatua, hizkuntzalaritzan aditua, ezin zuten militarrek alferrik galdu. Mezuak bidaltzeko sistemetan egin zen espezialista, morse kodea,

disko eta banderen sistema, heliografoak, bengalak, kanpaina-telefonoak. Uso mezulariak ere erabiltzen zituzten, hori esan zuen Tolkienek berak, sinesteko zaila dirudien arren, beste milurteko batekoa dirudien arren.

Militarren artean ere, beraz, berean aritu zen Tolkien, gustura seguruenik, suma daiteke, baina 1916ko martxoaren 22an, frontera joan baino hilabete batzuk lehenago, frontera bidaliko zutela esan ziotenean, Edithekin ezkondu zen, badaezpada ere, Lobo Antunes bezala, hainbat bezala. Gerrara joan behar zuen, ezkondu behar zuen, familiak ados egongo ziren, gauza bietan.

Lancashire Fusiliersekin aritu zen, eta ekainaren 4an Frantzian zegoen, frontetik oso hurbil, 11. batailoira aldatu zutenean. Tolkienek berak esan zuen ofizial guztiak oso gazteak zirela, «21 urte azpikoak batzuk», ofizialak hori.

Uztailaren 1ean izan zen lehenengo bataila handia. Agintariek azaldu zuten aurrera egin behar zutela aliatuek, aliatuen soldaduek, aliatuen umeek. Esan zuten alanbre-hesi guztiak zulatuta zeudela, ezin izango ziotela aliatuen erasoari eutsi. Ez zen egia, ordea, hesi guztiak bere horretan zeuden... Soldaduak pilatu-

ta geratu ziren orduan, ez aurrera, ez atzera, Heysel futbol-zelaian bezala: 20.000 lagun hil zen lehenengo egun horretan.

Tolkienek ez zuen parte hartu, zortea izan zuen, zortea izan genuen. 20.000 horietako batzuek idatziko zituzten liburuak gerra amaitu izan balute, musikak konposatu, ezagutzen ez ditugun musikak ere beharbada, oraindik asmatu ez direnak, eraikinak diseinatu, pelikulak. Nobel saridun batzuk ere egongo ziren 20.000 hildakoen artean, gerra osoan hil ziren milioien artean. Esaten da hildako gehiago egon zela guztira aliatuen bandoan... Esaten da, aurrekoa esaten den moduan, aliatuek irabazi zutela gerra.

Uztailaren 6an hartu zuen Tolkienek parte lehen borrokaldian, 20.000 hildakoak eta bost egunera. Ezin izan zituen komunikazio-tresnak erabili, telegrafotik bidaltzen zituen mezu guztiak atzematen zituztelako. Alferrik zegoen frontean beraz, baina lubakiak ikusi zituen, hori bai... Geroago esan zuen gorpu guztiak lehertuta zeudela, umeen gorpuak, Nobel sarituenak, tripak, odola, hezurrak, *iazko kimikari hilak aurten lurruna*.

Urriaren 27an gaixotu zen J.R.R. Tolkien, ospitalera eraman zuten. Lubakietako sukarra zuen, «pirexia»

ere esaten diote, zorrien bitartez kutsatzen da. Suspertu egin zen ospitalean, ia erabat sendatu ere bai, baina frontera itzultzeko zegoenean, berriro gaixotu zen. Hartan-horretan zebilela, ospitale batetik bestera, gerra amaitzea erabaki zuten. Zortea izan zuen, zortea izan genuen: 1954an argitaratu ahal izan zuen *The Lord of the Rings*.

Lehen Mundu Gerrara joan zenean, 24 urte zituen Tolkienek. Ulertzekoa da 24 urteko ume batek sinestea han egon behar zuela, bere betebeharra zela, ohorea, ausardia eta abar. Nekezago ulertzen da urte batzuk geroago gertatu zena, Bigarren Mundu Gerran... Ia 50 urte zituen Tolkienek ordurako, familia ere bai, eta seme biak eraman zizkioten gerrarako. Semeetako bati, gainera, Michael Tolkieni, *George Medal* domina eman zioten, hegazkinen kontrako artillerian behar bezala aritu zelako, «behar bezala» horrek esan nahi duen guztiarekin. Ingalaterrako aerodromoak defendatu zituen, botako zituen hegazkin batzuk, barruko pilotuak ere bai. «Bota» esaten denean, «hil» ulertu behar da, «lehertu» ere uler daiteke.

Domina eman zioten beraz Michael Tolkien umeari, 1920an jaiotakoari. Poztu egingo zuen dominak noski, umeak beti pozten dira dominekin, kirola irudi-

tuko zitzaion beharbada. Zailago ulertzen da aitari domina horrek eman zion poza, J.R.R. Tolkien idazleari, 50 urtekoari. Harro zegoen semeaz, esan ere egin zuen, harrotasuna, ausardia, ohorea berriro ere, mende erdiko pertsona batek orain, ez da hain erraz ulertzen.

Beste semea, Christopher, RAFek eraman zion, nora eta Hegoafrikako Errepublikara, hegazkinetan praktikak egitera. Aitari, J.R.R. Tolkieni, «ezmorala» iruditzen zitzaion ordea hegazkinak baliatuz egiten zen gerra. Dena ez zitzaion perfektua iruditzen, hortaz, argilunak gerran. Esaldi hau ere eman zuen: «Gerrak beti galtzen dira, eta gerrek beti jarraitzen dute». Bataila bat baino gehiago deskribatu zuen liburuetan gero, baina seinalatzekoa da eszena horiek ez dutela nazkarik ematen. Londres bonbardatu zutenean, hala ere, 1942an, *The Hobbit* liburuko aleak gordetzeko erabiltzen zen biltegia erre zen.

J.R.R. Tolkienek lagunak bisitatu zituen Bournemouthen 81 urte ondo beteta zituenean. Han bertan hil zen 1973ko irailaren 2an, Irene Arrias jaio eta urte bigarrenera, Eustakio Mendizabal *Txikia* hil zuten urtean.

Irene Arrias Sasietak eta Ibon Sales Urizarrek 2004an egin zituzten paperak, udaletxean, bazkaria gurasoekin Getxon, askaria lagunekin Algortan, arropa gehiegizkorik gabe, txorizoak, odolosteak, hiru musikari errumaniar, kalekoak, Bukarestekoak. Ezkontzara ondoen jantzita joan zirenak musikariak, beltzez, trajez, kontrabaxu handi bat. Ceaucescuren semeak hirurak, Ceaucescuk asmatu zuen sasoiaren umeak. Telebistan ikusiko zuten presidentea egunero umetan, Elena emaztea ere bai, grabazio pornografikoak ikusi baino minutu batzuk lehenago, minutu batzuk geroago. Fusilatu zituzten egunean bertan ere ikusi zituzten Nicolae eta Elena beharbada, fusilatu baino ordu batzuk lehenago. Nicolaek gauero erretzen zituen goizean estreinatutako arropak, egun horretan ezin izan zuen.

Apirilaren 10ean ezkondu ziren Irene eta Ibon, tenperatura epelegia ere ez oraindik, negukoa ere bai ia. Egun haietan betetzen ari zen, hainbat egunkaritan, irratietan, Ruandako genozidioaren lehen hamarkada: 1994ko apirilaren 6an bota zuten presidentearen hegazkina Kigalin, Jean-Pierre Minaberry euskalduna pilotu zeramana, biharamunean hasi ziren masakreak.

Tutsien kontrako genozidioa deitu izan da, hori dago Europako buruetan. Eta hala izan zen zati batean, baina zati batean baino ez, beti egoten direlako zatiak normalean, konplikatuagoa delako dena normalean: hutuak ere hil zituzten, asko, hor ere genozidio ahalegina... Alde guztietakoak hil ziren beraz, denak hil ziren, gutxi batzuk izan ezik, betiko moduan, odolarekin, propagandarekin, elitearekin, hesteekin, inpresioa da konplikatuagoa dela gehiena beti.

Kontatu zuen Santos Ganuza misiolari nafarrak 1.000 tutsi hil zituztela *interahamwe* taldeek Kiziguroko bere elizan. Egun batzuk geroago, berriz, soldadu tutsiak sartu eta 10.000 hutu hil zituzten. Telebistek bigarren talde horretako gorpuak erakutsi zituzten, Europan ere bai, Europan batez ere, eta tutsien gorpuak zirela esan zuten esatariek, nola ez ziren tutsiak izango... Interesak hor, telebistenak, kazetarienak, enpresak, Europan, Estatu Batuetan. Eta interesak aparte, sinplerako joera ere bai, sinpleak interesei laguntzen dielako, lausotu egiten dira buruak bestela. Telebistako ahotsa apaldu egiten da batzuetan hildakoak erakustean.

2001ean hartu zuten Irene enpresa behar bezalako batean, postu ona, soldata ere pentsatu baino han-

diagoa. Ibonek gehiago itxaron behar izan zuen, 2002ko amaierara arte, urte eta erdi geroago. Baina 2001ean bertan hasi ziren etxea bilatzen hala ere, uda amaieran. Salsidu kalean ikusi zuten bat irailaren 10ean: kobazuloa, argirik ez, leihoak ere txikiak. Zalantza ere ez zuten egin, ez zuten nahi.

Irailaren 12rako beste zita bat zuten, beste etxe bat, ikusi gabeko etxeak beti ziren onak. Eta egun bien tartean, zita bien tartean, etxe bien tartean, Dorre Bikiak bota zituzten New Yorken. Hainbat lagun hil zen, ez gerra txikietan baino gehiago, gerra txikienaren laurdena beharbada. Baina nobedade bat izan zen Dorre Bikiak bota zituzten egunean: aurrenekoz sartu ziren Estatu Batuetara kanpoko soldaduak. Inoiz ez zen ordura arte Estatu Batuetan kanpoko soldadurik egon, gonbidatuta bai beharbada, baina ez umeak hiltzen. Hala ere, Dorre Bikiak bota zituztenei ez zieten soldadu deitu, nola deituko zieten soldadu, terroristak, izen hori asmatu zieten, aurretik ere nahiko asmatua. Susmoa dago estatubatuar gehienek sinesten dutela termino biak desberdinak direla, munduko beste leku askotan ere bai.

2001ean bertan, Irenek eta Ibonek Alangobarriko etxea erosi zutenean, elkarrizketa-segida hasi zuten

Arnaldo Otegik eta Jesus Egigurenek Txilarre baserrian, ezkutuan: indarkeria eteteko bidean jartzea, hori asmoa. Alde guztietako politikariek hartu zuten parte gero elkarrizketetan, ezkutuan ere bai, Loiolako Basilikaren aurrean, Eliza Katolikoaren eraikinetan. Kartzelara sartu zuten Otegi gero, Lasa eta Zabala torturatu, hil eta kare bizitan lurperatu zituztenek baino denbora gehiago egin zuen han. Gaiztotu egin ziren elkarrizketak Otegi kartzelara joan baino lehen, hamar urte geroago eman zuen su-etena ETAk.

Urtebete geroago, Ibonek enpresa berriarekin kontratua sinatu zuen egun berean, Baionako polizia-etxetik egin zuen ihes Ibon Fernandez Iradi ETAkideak. Aireztatze-bide estu batetik sartu zen, 30 zentimetro, ez sinesteko modukoa, korridore batera irten eta atzeko atetik alde egin zuen. Kalerako hesia pasatu arte egindako bidea kamera batek grabatu zuen. Bistan da dena grabatzen dutela kamerek XXI. mendean, eta ez duela ezertarako balio, asko balio duela. ETAko aparatu militarreko arduraduna zen Ibon Fernandez Iradi *Susper*, hori esan zuen prentsak, Eustakio Mendizabal bezala, Algortan hil zutenean, ia 30 urte lehenago.

Urte berean, abuztuan, Frantziako La Santé espetxetik egin zuen ihes Ismael Berasategik. Anaia joan zitzaion bisitan, pribatuan, aparteko aretoan egon ziren, zaintzarik gabe. Arropak aldatu zituzten, dokumentazioa, orrazkera ere bai... Kalera egin zuen presoak 45 minuturen ostean, anaia geratu zen barruan. Handik bost egunera deklaratu zuen anaiak ez zela Ismael Berasategi. Bonba-auto bat jarri zuen Getxon urtebete lehenago Ismaelek, desaktibatu egin zuten, Irenek eta Ibonek Alangobarriko etxea erosteko gutxi falta zutenean.

Ezkontza egunean berandu heldu ziren Alangobarriko etxera, ez zegoen bizitzeko erabat prest, inoiz ez da egoten egun horretan. Ilunpetan sartu ziren sukaldera eta, argia piztu aurreko segundo gutxi horietan, pauso luzeegirik ematen ez den segundo horietan, irudia etorri zitzaion Ireneri burura, oso bizi, egun gutxi lehenago gertatu izan balitz bezala. Umea ikusi zuen postetxeko eskaileretan jesarrita, topatu zuen egunean, hamar urte lehenago. Gogoratu zuen nola igo zituen Irenek eskailerak, zein jarreratan zegoen umea jesarrita. Plastikozko poltsaren kolorea ere bizi-bizi gogoratu zuen, zehatz, nola egin zuten gero etxerako bidea. Gogoratu zituen amaren galderak umeari, Nor

zara, señe, euskaraz, erdaraz, nola eman zion umeak azkenean plastikozko poltsa amari, botikak barruan.

Lausoago gogoratzen zuen ikastolatik deitu zuten eguna, lehenago gertatu zela iruditzen zitzaion, ezinezkoa zen arren, motelago gogoratzen zituen gauza batzuk, arraro. Ibonek sukaldeko argia piztu zuen orduan, Irenek denbora gehiago nahi zuen ilunetan, umeari begira egoteko... Argiarekin joan zitzaion umea, poltsa, postetxea.

Gau horretan ez zuten ohean hitz bakar bat ere esan, nekatuegi, hurrengo egunetan ere ez, bidaiako oheetan bai ordea, Berlinen, ohe alemaniarretan, izarak Alemaniakoak, ura ere bai. Berlinetik itzuli eta zortzi egunera, soldadu estatubatuarrek Abu Ghraiben egindako torturen berri eman zuen lehenengo aldiz telebista saio batek. *Washington Post* egunkarian ere argitaratu ziren argazki batzuk, egun batzuk geroago. Agintariek ezin izan zuten guztia ezkutatu, lausotu, buelta eman. Arazoak izan zituzten, politikoak, erlijiosoak, hauteskundeak, gizartea... Baina pasatu egin zen hori ere, ez du ematen arrasto handirik utzi zuenik. Inpresioa da ezerk ez duela arrasto handirik uzten, guztia pasatzen dela, aurpegi berberak daude-

la gero, esku berberak, ukondo berberak, usaina ere antzekoa.

Berlinetik apirilaren 20an heldu ziren Irene Arrias eta Ibon Sales. Etxea atontzen hasi ziren, jarraitu zuten, lau urte geroago jaio zen euren alaba, 2008ko apirilean.

Irene Arriasen enpresak hartu-emanak zituen Europako enpresa askorekin, Irlanda, Alemania, Italia, Polonia. Irene bera zen kontaktua egiten zuen pertsonetako bat, posta elektronikoz ia beti, telefonoz gutxitan. Ingelesez normalean, baina italiar birekin gaztelaniaz, errusiar batekin ere bai, arraroa dirudien arren. Olga Kulagina errusiarrarekin gaztelaniaz egiten zuen Irenek beti, Olga Txeshkova ezkondu aurreko izena. Ondo moldatzen zen gaztelaniaz, italiarrak eta portugaldar batzuk baino hobeto.

Enpresa kontuak tratatu zituzten hasieran Olgak eta Irenek, normala denez, baina gauza pertsonalekin hasi ziren hilabete gutxitan: familiakoak, haurtzarokoak, etxe barrukoak, batek daki zergatik, gertatzen da batzuetan... Pertsona bi, erabat diferenteak, mundu diferenteak, urrun, baina bata besteari begira hasten

dira halako batean, ezin dute bestela egin, biei interesatzen hasten zaizkie bestearen kontuak, erremediorik gabe.

Olgaren semeari buruz galdetzen zion ia egunero Irenek adibidez, Sashari buruz, bio-ingeniaria, Estatu Batuetara alde egin behar izan zuena, ikertzen jarraitzera. Askotan gertatzen da, askotan irakurtzen dira Sasharen modukoak, albistegietan agertzen dituzte, Nobel saridunak urte batzuen buruan, «jatorri errusiarreko estatubatuarra», hori esaten dute. Askotan irakurtzen da, baina ez lagun baten semeari buruz... Matematikak ikasi zituen Olga Txeshkovak berak ere, Moskuko olinpiadak baino apur bat lehenago.

Errusiari begira jarri zen orduan Irene Arrias. Hango liburuak ere irakurrita zituen, betikoak, mundu guztiak bezala, Dostoievski, Txekhov, Serge, Solzhenitsyn, gulagak, purgak, Stalin. Imajinatu zuen Irenek Olgaren gurasoek ikusita izango zituztela gertaera horiek guztiak, asko behintzat, hurbilagotik, urrunagotik, aitona-amonek ere bai, batez ere aitona-amonek, XIX. mendean jaiotakoak guztiak.

Olgari galdetzen hasi zitzaion beraz, familiari buruz, galdetu zion nortzuk ziren bere gurasoak, nortzuk aitona-amonak, zer ikusi zuten, zer bizi izan

zuten, zelan. Olgak dena bota zion, eskuzabala horretan ere. *La biografía de mi familia se parece a la de millones de rusos*, horrela hasi zuen mezua Olgak. Irenek pentsatu zuen orduan arrunta izango zela, ez zuela Olgak gauza handirik kontatzeko, arrunkeriak, euskal herrietako kontuen antzekoak. Osabaren bat gerran beharbada, amaren osaba bat, Stalingradeko frontean beharbada, Bilboko burdin hesian bezala hemen, familiako kontakizunak, ez luzeegiak ere.

Irenek berehala ulertu zuen erabat erratuta zegoela ordea, beste mundu bat dela Errusia, imajinatu ere ez dugula egiten. Olgaren familia erdia judua zela kontatu zion, eta juduen mundua ere beste mundu bat Errusiako munduan. Irenek, hortaz, Sholokhoven liburuak irakurtzen arituko balitz bezala irakurtzen zituen haren mezuak, Vasili Grossmanenak. Olgaren amonaren kontakizuna irakurtzean, esate baterako, Günter Grassen danborraren hasiera gogoratu zuen Irenek. Zail egiten zitzaion hori guztia sinestea, Olgak kontatzen zion guztia, hurbileko baten familian, lagun baten familian.

Olgaren amona poloniarra zen, judua, Lodz ondoko herri batekoa. Familia ere handia, hamaika edo ha-

mabi neba-arreba, Olgak ez zekien seguru zenbat, Gúrna abizena, Sabina Gúrnaya Olgaren amona.

Kontatu zion Olgak Sabina amonaren neba nagusiak Varsovian egiten zuela lan, gutxitan itzultzen zen Lodzera, bisita gutxi familiari. Etxera itzuli zen batean, herrira, jaioterrira, familia ikustera, egun batzuk eman zituen han, gutxi jaten, hotza etxe barruan ere. Eta Varsoviara itzuli zenean, lanera, ezustekoa hartu zuen, handia ere bai: diligentziako maletategian ezkutatuta ekarri zuen, konturatu barik, Sabina arreba, hamaika urtekoa. Varsoviara nahi zuen umeak, nebarekin, etxetik joan. Nebak ezin izan zuen etxera bueltatu ordea, ez zeukan dirurik, astirik ere ez, erraz imajina liteke zelan egingo zuen lan Varsovian, zenbat.

Familia frantziar batek hartu zuen azkenean Sabina etxean, ikasketak ordaindu, ikasle ona. Sei hizkuntza hitz egitera ere heldu zen, frantsesa, ingelesa, poloniera, alemana, errusiera, hebreera... Ilea lurreraino zeraman, ilekorda egiten zuenean ere bai.

Frantziako familia horrek Montpellierreko Unibertsitatera bidali zuen orduan, Medikuntza ikastera, baina zorte txarra izan zuen: Lehen Mundu Gerra hasi zuten unibertsitateko bigarren urtean zegoela. Frantziatik joan behar izan zuen Sabinak orduan, Polonia-

ra lehenengo, Ukrainara gero, Moskun zen 1916an. Sinesteko zaila dirudi, idazle batek idatziko balu esaterako, asmatuko balu... XX. mendeko momentu historiko askoren ardatzean mugitu zen Sabina: Gerra Handian lehenengo, 1914an, Frantzian; 1917an iraultza Errusian, Moskun... Ematen du datak kalkulatuta bidaiatzen zuela, datak ezagutu aurretik.

Boltxebike baten idazkaria izan zen gero, Kremlimen bertan, urte luzez. Esaten zuen Olgak gau osoak egin behar zituela itzarrik Sabina amonak, Stalini berandura arte lan egitea gustatzen zitzaiolako. Kontua zen betebeharrak banatzea bururatzen bazitzaion Stalini, berehala idatzi behar zirela, minutu bat galdu gabe. Sabina amona zen zati batzuk idazteko ardura zuena...

Gerrari ihes egiteko Europatik egin zuen bidaian, senarra ezagutu zuen Olgaren amonak: Avram Rosental, Lituaniako judua. Urteak egin zituzten elkarrekin ezkondu aurretik eta ezkontza egunean, zalgurditik jaisten lagundu zionean, harrituta esan zion Sabinak Avrami: «Hara, zure bibotea gorria da eta!» Izutu ere egin zen Avram, erantzun zion: «Eta? Ez zara nirekin ezkonduko beraz?» Bistan da askotan esaten direla halako esaldiak gerren artean, iraultzen artean, gor-

puen artean... Halako elkarrizketak egoten dira, halako ezkontzak, ematen du jendeak barre egiten duela hildakoen ondoan, egin behar duela, errusiarrek ere bai.

Avramen lehengusu bat boltxebike taldekoa zen, konbentzitua, hala kontatu zion Olgak Ireneri. Goi mailako postuetan ere egon zen lehengusu hori, Stalinengandik hurbil beharbada. 1937an fusilatu zuten ordea... Hor beste data berezi bat: 37ko purgak. Iruditzen zitzaion Ireneri data bilatzaileak zirela Olgaren familiakoak, apropos egin izan balute bezala, Avramen lehengusuak apropos eskaini balu bezala bere burua fusilatzeko.

Avram bera ere 1939an bota zuten lanetik. Ondo zekiten errusiar guztiek zer esan nahi zuen horrek: lanetik botatzen zituztenak, arrazoirik gabe, ageriko arrazoirik gabe, etxean atxilotzen zituzten gau horretan bertan, zain izaten zituzten agenteak etxean, fusilatzeko, gulagetarako. Avramek erabaki zuen etxera ez itzultzea gau hartan beraz, kaleetatik ibiltzea, nora ezean... Gero pentsatuko zuen zerbait, topatuko zuen moduren bat. Bihotzekoak jo zion, baina, gauean bertan... Kontatu zion Olgak hilda topatu zutela bihara-

munean Moskuko kale batean, ez zion esan nork topatu zuen, zelan.

Olgaren familiak historia handiarekin izan zuen harremana hor amaitu izan balitz ere, sinesteko zaila izango zen, idazle batek narrazio batean emango balu adibidez... Baina askozaz gauza gehiago kontatu zizkion Olgak, gogorragoak beharbada, gogorragoak ezin, sinesteko zailagoak beharbada. Izan ere, Sabina amona etxe komunal batean bizi izan zen senarra hil eta gero, alaba biekin, Olgaren ama eta izekorekin. Horraino normala dena, arrunta, etxe komunal asko Moskun sasoi hartan, liburu askotan aipatzen dira, pelikulak, dokumentalak. Baina etxe komunal hori ez zegoen leku arruntean: Lubiankan bizi ziren. Izan ere, inguruko eraikin zibil bakarra zen Sabina amonaren etxean, beste guztiak administraziokoak. Eta mundu guztiak ezagutzen du Lubianka, hitza behintzat: hango aretoetara eramaten zituzten atxiloak, han torturatu, han epaitu... Solzhenitsyn idazlea ere han giltzapetu zuten, beste hainbat ere bai, ehunka, milaka.

Olgak Ireneri kontatu zion, ia ezer kontatuko ez balio bezala, amak eta izekok, umetan, Lubiankan bizi ziren sasoian, geletako argia amatatu eta aurreko eraikinari begira egoten zirela. Trabarik gabe ikusten

zuten handik orduan nola torturatzen zuten jendea aurreko eraikinean, kolpeak, odola nola ez... Gortinak ere ez zituzten ixten Lubiankako atxiloketa-etxean, ez zuten beharrizanik ikusten, agenteek, epaileek. Ematen du hori izan dela indarkeria askotan: gortinak jarri izan dira batzuetan, beste askotan ez, ez da beharrizanik ikusi. Ematen du gortinen gainetik ibili izan direla askotan beraz, Ruandan, Errusian, Armenian urte batzuk lehenago.

Aitaren partetik ere bazuen Olgak kontatzeko, *la biografía de mis padres y abuelos se sigue pareciendo a la de millones de rusos*. Baina hor ere baziren kontatzekoak, beste aldekoak baino gogorragoak beharbada, gogorragoak ezin. Stepan Txeshkov zuen izena Olgaren aitonak eta 23 urte egin zituen gulag batean. Erraz esaten da, 23 urte, esaldi bakar batean esan daiteke, segundo batean baino arinago. Baina gulagak hustu egin zuen gizona, oso gaixorik itzuli zen... Stalin hil eta urte bigarrenera hil zen Stepan Txeshkov, usteldu. Esan daiteke hilda itzuli zela gulagetik, hilda bizi izan zituela urte bi, familian. Olgak ez zion Ireneri esan zergatik eraman zuten Stepan gulagera, ez zuen jakingo beharbada... Stepanek berak ere ez zuen ja-

kingo, zerrendak zeuden, beti egon izan dira zerrendak.

Stepanen semea, Olgaren aita beraz, Mikhail Txeshkov, boluntario sartu zen armadan orduan, hegazkin-pilotu egin zen, William Faulknerrek nahi izan zuena. Domina asko ere eman zioten Mikhaili, baina ez zituen gehiegi estimatzen, nazka apur bat ere bazien, Olga umeari uzten zizkion jolasteko. Ez zen normala hori, Olgaren lagunek ukitu ere ezin zituzten egin, aiten, aitonen, osaben dominak...

Aita gulagean zuelako sartu zen armadan Mikhail Txeshkov gaztea, umea ia, boluntario. Pentsatu zuen herriaren alde egiten bazuen, iraultzaren alde, gerra frontean egiten bazuen, askatu egingo zutela aita. Ulertuko zuten administrazioan familia Sobiet Batasunaren alde zegoela, bizia ere emateko iraultzaren alde. «Hori pentsatu zuen aitak, Irenchik», esan zion Olgak Ireneri. Ematen du gazteek horrela pentsatzen dutela, umeek, ideiak sinesten dituztela, nobleziak, «baina 23 urte egin zituen berdin-berdin Stepan aitonak gulagean, Irenchik».

Mikhail Txeshkov gerra-pilotua izan zen beraz, horregatik itzuli zuen Olgak 2013an Roald Dahlen *Going Solo* liburua errusierara. Olga ez zen itzultzaile profe-

sionala, lagunentzat itzuli zuen liburua, aitari omenaldia egiteko, Roald Dahlek gerra-pilotua zenekoak eman zituelako liburu horretan. Beste idazle bat gerran beraz, Afrikan, Grezian, hiltzeko puntuan ere egon zen. Olgak esan zion bazela liburu horren itzulpen bat errusieraz, baina oso txarra, horregatik egin zuela beste bertsio bat, lagunek irakurtzeko, baina aitarekin apur bat gehiago egoteko ere bai, Irenek *Operación Ogro* irakurri zuen bezala.

Mikhail Txeshkoven nagusi zuzena aire-armadan Stalinen semeetako bat izan zen, harekin hitz egiten zuen zuzenean Olgaren aitak... Errusiako historia handian beste erdigune batean Olgaren familia beraz... Sinesteko zaila berriro ere, idazle batek emango balu adibidez.

«Aitaren lehenengo gerra-hegaldia, Irenchik», esan zion Olgak mezu batean, «Moskun izan zen». Normala hori ere, Roald Dahl galestarrak Afrikan egin bazuen ere. Azken hegaldia, ordea, Berlinen egin zuen Mikhail Txeshkovek, ez horren arrunta beraz. 1945ean sartu ziren Berlinera hegazkin errusiarrak, Mikhail Txeshkov horietako baten barruan, gerraren amaieran. Horrela amaitu zuten gerra, dominak gero, oho-

rea, ausardia, noblezia, eta abar. Beste erdigune bat hor, zalantzarik ez hor.

Berlinera sartu zen, beraz, Mikhail Txeshkov, gerra amaitzeko, gerra irabazteko. Armadan jarraitu zuen gerra eta gero ere, baina arazoren bat izan zuen bihotzean, gaixotasun txikiren bat, ez hain txikia beharbada. Irene tentsioan jartzen zen bihotzari buruz kontatzen ziotenean, bihotzak izan ditzakeen gaixotasunei buruz, baina Olgak ez zion esan zer zen, zehatz... Bihotzaren arazoren bat aitak, hori baino ez... Armadatik bota zuten Mikhail Txeshkov orduan: ez da komeni soldadu mailaturik, are gutxiago ofizialak, pilotuak. Kanporatu egin zuten, apur bat lehenago Berlinen sartu arren, gerra biribildu arren, ohorea, ausardia, dominak, airean. Berriro ikasten hasi behar izan zuen, unibertsitateko irakasle egin zen.

Horrela eman zion Olga Kulaginak Ireneri bere familia, familiak bizi izan zuena, familiak Errusian, Lituanian, Polonian bizi behar izan zuena. Hori guztia eman zion ezer eman izan ez balio bezala... Esan zion Poloniako familia ez zuela ezagutzen, alerik ere ez, inoiz ez zutela Moskun hango berririk izan, amona Sabina Gúrnayaren ahizpen albisterik, nebena. Familia hartan zenbat ziren ere ez zekien, hamaika neba-arreba, ha-

mabi... *Supongo que la mayoría (si no todos) murieron en Auschwitz y Majdanek.* «Hurrengo mezuan bidaliko dizut, Irenchik, amona Sabinaren gaztetako erretratua. Daukadan bakarra».

George Orwell idazlea, Eric Arthur Blair pontean, 1903an jaio zen Motiharin, Indian. Ingalaterran ikasi zuen ordea, ikastetxerik onenetan, Etonen ere bai, heziketarik onena, baloreak. Esan izan da gizartearen alde egin zuela Orwellek gero batez ere, hori da gehien ezagutzen dena, justizia, egia, hitz beteegiak beharbada, hori da Orwellen iruditeria. Baina George Orwellek ere, Eric Arthur Blairrek ere, zatiak zituela ematen du, testu batean baino gehiagotan agertzen dira Orwellen zatiak. *Abereen etxaldea* liburua eman zuen, esaterako, *Animal Farm*: zerbaiten alde, zerbaiten kontra... Stalin agertu zuen batez ere eta, beste mundu batekoa dirudien arren, horrek lotzen du Orwell Olga Kulaginarekin, Mikhail Txeshkovekin.

Etonen ikasten amaitu zuenean baina, bira moduko bat egin zuen Orwellek: ez zen unibertsitatera joan. Esaten da Etonen moduko lekuetan ikasten dutenen bide naturala hori bera dela, unibertsitatea, onenak,

Oxford, Cambridge... Diru arazoak aipatu izan dira, beste arrazoiren bat ere egongo zen beharbada, berdin dio, ez dio berdin. Gauza da ikasten jarraitu barik, polizia inperialean eman zuela izena, Birmaniara bidali zutela.

Idatzi izan dute, Orwell ezagutu zutenek, Birmanian erne zitzaiola gorroto hori, gero erakutsi zuena, inperialismoaren kontrakoa. Gero egin zuen guztia, idatzi zuen guztia, han hasi zela esan izan da. Baina Orwellek berak esan zuen Birmanian jipoiak ere eman zituela, kolpeak, zauriak, arrazoirik gabe ere bai, menpekoei, hango biztanleei. Polizia zen azken batean, ez edozelangoa, polizia inperiala. Hor George Orwellen zatietako bat, oraindik ezizena asmatu barik zuenean.

1922an eraman zuten Birmaniara, 19 urteko polizia. 1927an itzuli zen Ingalaterrara, 24 urteko beteranoa, erretiratua. Esaten da horren osteko hamarkadan, Espainiako gerra zibila hasi artekoan, tuberkulosiak erasan ziola, barruan geratu zitzaiola, horrek hil zuela urte batzuk geroago. Hala ere, gorputza mailatuta eduki arren, gerra zibilera joan nahi izan zuen... Beste idazle bat gerran beraz, konbentzituta gainera. Ordurako gutxi zuen umetik Orwellek ordea, 33 urte,

34, bazekien nor zen, zer zen hangoa, gerra, zer zen atzetik, joan egin zen guztiarekin ere.

Bartzelonan mugitu zen batez ere: POUMekoen ondoan egin zuen gerra. Badirudi Orwellen ideologiak ez zuela ondoegi ematen talde horretan... CNTn sartu behar izan zuela esan izan da, baina apur bat nahastuta heldu zela armetara, siglek nahastu zutela. Idatzi dute gerra amaitu eta gero ulertu zuela gerra hura, gerra guztiak beharbada.

Huescatik hurbil zauritu zuten, lepoan jo zuen bala batek. Bala apur bat gorago, apur bat beherago, ez zen *1984* liburua izango, Big Brother ere ez, *Animal Farm*, obra oso bat. Zer dira gerran hildako obrak, txertoak, sistema filosofikoak, gizarte ereduak, jaio baino urte batzuk lehenago hilda guztiak, inori obedituta beti, inor bati.

Orwell ospitaletik atera zenerako, legez kanporatuta zegoen POUM alderdia, Frantziara alde egin behar izan zuen beraz. Ingalaterrara pasatu zen gero, jaioterrira. Bigarren Mundu Gerra hasi zuten handik ez askora eta ahalegin handiak egin zituen Orwellek armadan izena emateko. Ia 40 urte zituen ordurako, baina berriro gerra, berriro nahi izan zuen. Ospitalearen ostean, ordea, balaren ostean, ez zioten utzi: osa-

suna makala, soldadu mailaturik ez, tuberkulosiaren arrastoak.

Gerran lagundu zuen hala ere, gerrari lagundu ziola ere esan daiteke, ez alde bati edo besteari, gerrari berari. Informazio zerbitzuetan egon zen, propaganda, beti da gauza bera, gerra modernoetan, antzinakoetan ere bai... Beste modu batera antzina beharbada, beste baliabide batzuekin, irratirik ez esaterako, kamerarik ez, baina beti Orwell bat, John Huston bat, Goebbels, Mila Muinoetako irratia Ruandan, harengak zaldi gainetik.

Estepan Urkiaga Basaraz ere, *Lauaxeta* idazlea, informazio zerbitzuan egon zen gerra zibilean. Esan daiteke George Orwellen alde berean egin zuela gerra, baina gerra zibilean ere dena zen zatia, alderdi desberdin asko, zati asko beraz, POUM, EAJ, CNT... Alderdi asko, alderdi bakoitzean pertsona asko, pertsona bakoitzean zati asko, biderkatu egiten dira zatiak, horren eragiketa zaila ere ez.

1937ko apirilean harrapatu zuten Lauaxeta, Begoña Sasieta jaio baino hilabete batzuk lehenago, Marina Zabalak, Ireneren amamak, marokoarraren aurretik eskailerak hirunaka igo baino aste batzuk lehenago. Idatzi izan da Lauaxetak, harrapatu zuten egu-

nean, atzerriko kazetari batzuei erakutsi zizkiela Gernikako bonbardaketak eragin zituenak. Gernikaraino eraman zituen, errea ikustera, gorpuak ikustera ere bai beharbada, eta bueltan, Bilbora itzultzen ari zirela seguruena, bidean harrapatu zuten.

Gasteizeko kartzela batera eraman zuten. Kartzelan ere idazten jarraitu zuen, fusilatuko zutela jakin zuenean ere bai. Fusilatzera eraman baino ordu batzuk lehenago, poema batzuk eman zituen, behar bezala errimatuak, silabak, hitzen aukeraketa, erritmoa, hori da harrigarriena. Sinestuna Lauaxeta, ematen du berdin diela sinestunei, beharbada ez dago argi berdin dien, sinestun guztiei neurri berean ez behintzat, ez du ematen.

Gasteizeko hilerri batean fusilatu zuten Estepan Urkiaga Basaraz. Horregatik ez zuen *1984* liburua Lauaxetak idatzi, horregatik ez ziren idazten hasi ere egin gerran hil ziren idazle batzuk, arkitektoak, medikuak... Pentsatzen ere ez ziren hasi batzuk beharbada, 21 urteko soldaduak, soldaduak ere ez, iazko idazle hilak, iazko medikuak, iazko umeak guztiak. Hori guztia hilabete gutxi batzuetan, Ruandan bezala, Armenian bezala.

Sasoi bertsuan fusilatu zuten Jose Ariztimuño *Aitzol*, kultur eragilea hura ere, kazetaria, elizgizona. Hor frankistek fusilatu zuten abade bat, *katoliko batek bi apaiz hilerazi dizkit*. Hutu kristauak ere sartzen ziren elizetara tutsiak hiltzera.

Iparraldera egin zuen alde Jose Ariztimuñok faxisten tropak sartu zirenean. EAJn ere bazen nor Aitzol, eta beste kargu batzuek bezala egin zuen ihes. Izan ere, sinestunek ere egiten dituzte batzuetan ahalegin natural batzuk ez hiltzeko... Gerratik libre zegoen beraz, joera logikoa, naturala, baina halako batean erabaki zuen itzuli behar zuela, gerrara, Bilbora. Lagunak hiltzera joaten ari ziren, frontera, Burdin Hesira, lagunak buruaz beste egitera joaten ari zirela ere esan daiteke. Aitzolek 40 urte zituen ordurako, fronteko umeen bikoitza, elizgizona, hizlaria ere sarria, baina gerrara etortzea erabaki zuen, ez da ohikoa, ez da askotan ikusi.

Galerna barkuan itsasoratu zen, izena ere bada zerbait, itsasoan bertan abordatu zuten, atxilotu. Hurrengo eguneko egunkarietan ere agertu zen, *Diario Vasco*k esan zuen EAJko printzipaletako bat zela, «ehiza ona». Astakeriak ere esan zituzten egun haietan Aitzolen inguruan, burla pertsonalak, orain asko

ulertuko ez zirenak... Ondarretako kartzelara eraman zuten.

Ondarretan ez ziren gordean ibili ordea, lekukoak ere badaude: torturatu egin zuten Aitzol, begia lehertu, gortinarik gabe, ez zuten beharrizanik ikusi. Oihuak entzun ziren, torturetatik ateratzen ikusi zuten beste presoek, telebista kamerek Martxelo Otamendi ikusi zuten bezala urte batzuk geroago.

Hernanin fusilatu zuten Aitzol urriaren 17an, 1936an. George Orwellek aditu egin zuen beharbada Aitzolen fusilatzearen albistea, Lauaxetarena, beharbada ez, berdin dio, ez dio berdin. Guztiarekin ere, 1939ko apirilean amaitu zen guztia, hasi ere bai, Begoña Sasieta lehen hitzekin hasten ari zen sasoian, Algortan.

Irenek Arriasek indarkeriak konparatzeko ohitura hartu zuen, ia egunero egiten zuen, Balkanak, Argentina, Europa eta Afrika, Ruandakoa, euskal herrietakoa. Konturatu zen, ordea, ezin dela gehiegi ere konparatu, beti dela desberdina, beti dela gauza bera. Indarkerien sailkapenak ere irakurri zituen, kopuruekin, denbora-tarteekin, hor oso desberdinak batzuk. Kon-

tua da Irene Arrias ohartu zela ezin direla indarkeria historikoak asko ere konparatu, horregatik hasi zen testuak konparatzen, ahozkoak, kantatuak batez ere, baladak, koplak, lo-kantak, indarkerien laburpena direlako, odol kontzentratua, bildua, sehaska-kantak ere bai.

Bada euskal herrietan lo-kanta bat indarkeriaren ideia ematen duena, neurri txikian, oso neurri txikian beharbada, baina modu zuzenean, bitarteko askorik gabe. Hil-kanpaiekin hasten da, nola ez:

Din-dan!
Nor hil de?
Peru zapatarixe...
Zer egin dau?
Pekatu,
auzoko txakurre urketu...
Hori baino ez badau egin,
biherko jako parkatu.

Auzoko txakurra hil du Peru zapatariak beraz, baina hor ez da bekaturik, ez handirik behintzat, ez jainkoaren aurrean esateko modukorik. Askotan hiltzen dira txakurrak, Ruandan RFPko tropek adibidez...

Zapatariaren hilketa ez da, hortaz, hain bakana, ez da hain salbuespena. Beste bertsio batean, ordea, *auzoko txakur guztixek urkatu* dituela esaten du. Hor bada beste intentzio bat... Ez da, beharbada, bekatura helduko, baina beste asmo bat ikus liteke... «Txakur» esaten duen lekuan beste zerbait uler daitekeela ematen du.

Kantu horren bertsio asko dago, eta zerbait esan nahi du kopuru handi horrek ere... Ez da kantua hain xaloa beharbada, ez da umeentzat soilik, ez da txakurrentzat soilik. Beste bertsio batean, txakurra hiltzeaz gainera, *tella gañian sikatu* du zapatariak. Zergatik egin du ahalegin hori, zergatik sikatu? *Txitxilipian beratu* duelako lehenago, beste bertsio baten arabera. Eta zergatik beratu eta sikatu gero? Edo, beste bertsio batean esaten duen moduan, zergatik *palanka gorixekin urkatu*? Erantzuna ez da horren sofistikatua ere: jan egin du Peru zapatariak txakur hori gero, edo horiek, hil eta gero, *jentie elizako dan artien, haren tripek koipetsu*.

Horraino normala da dena, logikoa, anekdotikoa ere esan daiteke, bestelako inplikazio bakoa: gosea, txakurra eskura, urkatu, beratu, sikatu, sutan eraldatu, jan... Zelan ez zuen jango, beharrizana, mundu

guztiak uler dezake, auzoko txakur guztiak jan izan balitu ere.

Hain normala bada, ordea, hain naturala, zergatik dago hainbeste bertsio? Zergatik egiten du mundu guztiak zalantza? Zergatik sumatzen du mundu guztiak zapatariak bekatu egin duela? Bertsio guztietan agertzen da: *Zer egin dau pekatu?* Edo zuzenago: *Zer egin du? Bekatu!* Mundu guztiak daki, barrundatu egiten du behintzat, bekaturen bat dagoela hor. Pentsa liteke, beraz, txakurrak ez direla txakurrak beharbada, Mikel Zarateren testuetan bezala: Don Trifonen txakurrak, txakur hizlariak...

Kontatzen du Jean-Baptiste Murangirak, Ruandako masakreetan hiltzen aritu zenetako batek, euren herriko elizan sarraskiak izan eta gero, txakurrak eta piztiak baino ezin zirela barrura sartu. Gorpuak jatera sartzen ziren elizara txakurrak, barruko kiratsa jasateko ezinezkoa zelako pertsonentzat. Baina bada informazio horretan logikarik ez duen datu bat: *interahamwe* taldeak ez ziren elizetara behin soilik sartu, tutsiak hil eta desagertu. Egunero itzultzen ziren milizianoak elizetara, goizero, bizirik eusten ziotelako barruko batzuek, hildakoen azpian gordetzen zirelako, ezkutatzen zirelako. Gainean zeuden gorpuak erretiratu eta

azpian gordeta zeudenak, zaurituta asko, erremata-tzen zituztela kontatu izan da.

Esaten du Adalbert Munzigurak, hiltzaile taldeeta-ko buruzagietako batek, sarraskien aurretik *labezo-morro* esaten zietela tutsiei. *Suge* ere deitzen zieten gero, paduretatik, papiro artetik, arrastaka ateratzen zirenean, ihesean, lokatzetatik. «*Suge* edo *txakur* esa-ten genien», dio Adalbertek, «oso gutxi estimatzen genituelako txakurrak». Tutsiak labezomorro bihur-tzen zituzten, txakur bihurtzen zituzten, errazago hil-tzeko gero. Zapatariak ere auzoko txakurra, edo txa-kur guztiak, hil zituen. Mikel Zarateren Don Trifonen txakur nagusia ere hil zuten, Jopu, txakur hizlaria. Ez da ulertzeko horren zaila, mekanismoa ere antzekoa beti, propagandarena, semantikarena.

Baina horrela heldu zen Irene zapatariaren ber-tsiorik osatuenera, Orokietan jasoa. Zapataria Pedro da orain Peru barik, betiko galdera gero: *Zer indu?* Be-tiko erantzuna: *Bekatu*. Baina gero:

Txakurtzar bat urkatu.
Hori ez da bekatu.
Bere andria
erretiluen

txiki-txiki...
Hori de bekatu.

Auzoko txakurraz gainera, emaztea hil du zapatariak beraz, horregatik zalantzak, horregatik ikusten zuen mundu guztiak bekatua hor.

Beste bertsio batzuetan ere agertzen da emaztea, baina ostenduago, bigarren planoan: *haren emazte koitadiak hamar maradi pagatu*. Hobeto ulertzen da orain zer diren hamar marabedi horiek... Gizon hutu askok hil behar izan zuen emazte tutsia ere masakre sasoian, jendearen aurrean batzuetan, beti da gauza bera beraz, beti da desberdina.

Irenek jakin zuen halako batean arima-argiei «argi-txakur» ere esaten zaiela leku batzuetan. Usteltzen ari diren gorpuetatik ateratzen diren su txiki horiek dira arima-argiak, argi-txakurrak, paduretan eta hilerrietan agertzen direnak batez ere. Ruandan leku biak leku berbera izatera heldu ziren momentu batean, padurak eta hilerriak. Argi-txakurrak ohikoak izango ziren han orduan, txakur errealak ere bai, gorpuak jatera zetozenak. *Iazko txakur hilak aurten argia* beraz, lurruna ere bai... Argia lurrunaren atzean egoten da batzuetan, lausotu egiten da.

2008ko apirilaren 9an jaio zen Irene Arrias Sasieta eta Ibon Sales Urizarren alaba. Hego-haizea egun horretan ere, hurrengoetan berdin. Umea ez zen Algortan jaio, ama bezala, Gurutzetako ospitalera joan ziren. 4 zenbakia zuen erditze-gelak.

Irene Arriasek indarkeriak alderatzen zituen bezala, kantuen testuak alderatzen zituen bezala, erditze-gelak ere alderatu nahi izan zituen: Begoña Sasietak 37 urte lehenago ikusi zuena eta Irene ikusten ari zena, Gurutzetakoa, Amatasun sailean. Algortako klinika ez zuen Irenek ezagutu, ume-umea zela kendu zuten, baina amak kontatuta zekien nolakoa zen. Ireneren iruditerian zegoen beraz, 70eko hamarkadako altzariak, usainak, zoruak, nola zapaldu zuen medikuaren laguntzaileetako batek odola eta gelatik apur bat barreiatu.

Gurutzetan ikusten ari zena beste kontu bat zela iruditu zitzaion, berriagoa guztia, kalitate eskasagokoa, nekezago zaharkitzen zena, nahiko zaharkitua hala ere. Makinetako botoien inguruan zikin adibidez, higatuta plastikoa, sabaian zulo txiki bi, gelaren alde banatan.

Epiduralaren soseguaren bitartez ikusi ahal izan zuen hori guztia, ahoz gora etzanda, guztiari begira, beste egitekorik gabe. Horrelako sosegu une batean gogoratu zuen Irenek ia 14 urte lehenago postetxean topatu zuen umea. Nola eraman zuen etxera, nola uda, nola ikastola gero. Ikastolatik deitu zuten eguna ere gogoratu zuen, azaroaren 8a. Jaiotzeko zegoen umea ikusten ari zen ume harengan, edo alderantziz, berdin dio, ez dio berdin. Inoiz baino biziago gogoratu zuen, ezin zen bestela izan, momentua ere horretarako, kontrakzioak, epidurala, usainak.

Erizainak hitz egin zion halako batean, gogoratzeari uzteko ahalegina egin zuen Irenek orduan, baina oraindik zeukan irudia buruan. Emagina etortzeko zela esan zioten, Ibonek ere hitz egin zion, ematen zuen bazetorrela, makinak ere zarata handiagoa egiten ari zirela iruditu zitzaion. Kontzentratzen hasi zen, Gurutzeta ospitalean hori, Amatasun sailean.

Egun batzuk geroago, Alangobarriko etxean orduarako, umea lo, izararik gabe, beste amatasun sail bat gogoratu zuen Irenek, berriro, hamargarrenez beharbada, Ruandako Nyamatakoa, nola ez zuen gogoratuko, eliza eta ospitalearen artean zegoena, futbol-zelai-

tik 200 metrora, eraikin bakandua, ospitaletik bereizia.

Hara ere sartu ziren *interahamwe* taldeak, elizara bezala, etxeetara bezala. 300 bat lagun ziren goizean amaetxean, milizianoak heldu baino lehenago: langileak, amak, umeak... Gauerako, lorategian, bost baino ez zirela bizirik geratzen, hori kontatu zuen bost horietako batek. Hilketak nola egin zituzten ere kontatu zuen, xehetasunak, irudiak. Ez da aditzeko erraza, kontakizunaren hasiera normala den arren, gehiagotan entzun izan dena: eraikinera sartzeko erabili zituztela armak, besterik ez, sarrailak zartatzeko. Sartu zirenean, ordea, ez zuten munizioa alferrik galdu nahi izan, hori esan zuen bizirik geratu zen bostetako batek. Aihotz eta makilaz hil zuten batez ere, mailuz ere bai beharbada... Aihotza seguruagoa dela esaten zuten beti.

Ama batzuek lorategira egin zuten salto leihoetatik, baina han ere harrapatu zituzten, gehienak. Hemen hasten da aditzeko gogorragoa dena, Irenerentzat behintzat, umea ekarri eta gutxira. Kontatu zuten amaetxeko ama batzuk seme-alaben gainean etzaten zirela, umeak babesteko, lorategian, baina ama altxatzen zutela milizianoek, umea aihotzaz hil,

amaren aurrean, ama gero. Esaten du Valérie Nyirarudodok, bizirik geratu zen bost horietako batek, ume txikienekin, bularreko umeekin, lanik ere ez zutela hartzen milizianoek, ez zutela batzuetan aihotza ere erabiltzen, hormen kontra kolpatzen zituztela, edo gorpuak pilatuta zeuden lekuetara bota, urrunetik, bizirik.

Alphonse Hitiyaremyek gauza bera kontatzen du, ume txikienak hormen kontra botatzen zituztela, zuhaitzen kontra ere bai. Asmoa zen arin egitea, helduekin baino arinago. Izan ere, umeak ez ziren ezertaz ohartzen, ez zuten ulertzen hil egingo zituztela, ez zuten ideia horrekin sufritzen. Helduekin, ordea, denbora gehiago egoten ziren, erdizka egiten zuten lana, bizirik uzten zituzten odoletan, denbora hartzen zuten azken kolpea emateko, ulertzen ari zirelako, sufritzen ari zirelako. Hilketetan parte hartu zuenetako bat izan zen Alphonse, *interahamwe* taldeen ondoan, aihotzarekin batez ere. Kontatzen du futbol-zelaian biltzen zirela goizetan aginduak aditzera.

Ematen du indarkeria giroetan ohitura handia dagoela umeak hiltzeko, gerretan, soldadu-umeak Afrikan, Amerikan, Europan ere bai. Adalbert Munzigurari, *interahamweek* buruzagi izendatu zutenean, fusila

eman zioten, granada batzuk ere bai. Fusila probatzeko, ume biri jo zien tiroa egun horretan bertan. Esaten du oso berezia egin zitzaiola sekuentzia: tiroak, nola jausi ziren lurrera ume biak zaratarik gabe... «Oso erosoa» izan zela esan zuen, «atsegina ere hartu zuela ia».

Beste kontu bat da aihotza, odola, usaina, edo Ignace Rukiramacumuk kontatzen duen moduan, Birombeko meatzetan ezkutatu ziren 27 tutsiri su ematea. Meatze-ahoa itsutu zuten, sastrakak, etxe abandonatuetako habeak, su eman zieten gero. Erreta hil ziren barrukoak, keak itota batzuk. Ignacek esaten du ametsetan ikusten duela hori guztia askotan, hiltzeko modu hori ez dela naturala. Data zehatza ere gogoratzen du, 1994ko apirilaren 22a, Ireneren alaba jaiotzeko 14 urte zehatz falta zirenean.

Pertsona ugarik hil zuen norbait Ruandan, 1994an, gizon bat, bi, bost, askozaz gehiago ere bai. Milizianoek hil zuten, soldaduek, baina besteek ere bai, militarrak ez zirenek, nekazariek. Élie Mizingek esaten du, sinetsita esaten du, hiltzen ibili ziren asko eta asko, gehienak beharbada, damututa daudela, baina ez egin zutenagatik, hil zituztenengatik, baizik eta egin ez zutenagatik, ez zutelako lana amaitu, ez zituztela-

ko tutsi guztiak hil, ez zutelako genozidioa biribildu, hitz horiekin azaldu zuen. Esan behar da hori, bota behar da hipotesi hori, baina hil zutenetako bat zen Élie, Rilimako kartzelan ere egon zena, ehunka hiltzailerekin, milakarekin. Bazekien zertaz ari zen, egunero entzungo zuen Riliman beharbada. Hamar urte ere ez zuen kartzelan egin hala ere, etxera bidali zuten berehala. Polizia izandakoa zen masakreen aurretik.

2008an irakurri zuen Irenek hori guztia, umea artatu behar ez zuenetan, lo zegoenean, titia libratzen zuenean, euri egunetan. Umea jaio eta 33 egunera egin zuen lo Irenek lau orduz jarraian, baina kontu faltsua izan zen, egun horretatik aurrera ere orduro jarraitu zuelako umeak esnatzen. Handik astebetera, umea lokartzeko korridorean aurrera eta atzera zerabilenean, kantuan, eztanda handi bat entzun zen Algortan. Umea negarrez hasi zen, Ibonek ere galdetu zuen zer. ETAk lehergailu bat jarri zuen Areetan, Algortatik kilometro eta erdira, bi kilometrora, Club Marítimoren ondoan. Klub horretan biltzen ziren aldianaldian enpresaburuen elkartea, politikariak, Neguri ondoan, horri begira egin zuela esan zuen ETAk. Kalte materialak handiak, berregin behar izan zituzten zati

asko. Ez zen hildakorik egon, ia ordubete lehenago eman zuten abisua, DYAko bulegora deitu zuten.

Bost egun lehenago antzeko atentatua egon zen, Legution. Guardia Zibilaren kuartel aurrean jarri zuten lehergailua, furgoneta batean, Areetan bezala. Orduan ez zuten abisua eman ordea, hori esan izan da. Melillan jaiotako agente bat hil zen, beste bi zauritu, larri bietako bat, hondakinen artetik atera behar izan zuten.

Legutiokoa egunkarietan irakurri zuen Irenek, beste atentatu batzuk ere bai, nola atera zuten Arnaldo Otegi kartzelatik abuztuan, nola sartu zuten berriro, beste lehergailu batzuk, torturak, mehatxuak, politikoak. Odola ez zuten erakutsi, ez batekoa ez bestekoa.

Munduko indarkeria ere irakurri zuen Irenek, Palestinakoa, Gazan, Kolonbian, FARC. Uztailaren 21ean harrapatu zuten Radovan Karadzic, psikiatra ikasketaz, odol asko eragin zuena, Srebrenican, gizateriaren kontrako krimenak. Harkaitz Canoren esaldi bat irakurri zuen Irenek horietako egun batean, testu labur batean, indarkeriaren ingurukoa, zer den indarkeria, munduan, historian: «Hiltzaile bat ari da mundu-mapa tolestu nahian» idatzi zuen, «baina odolduak dituenez

eskuak, zikindu egiten ditu mapako eskualdeak, orbandu nahiko lituzkeenak eta nahiko ez lituzkeenak». Irudia zehatza da, ez du laguntzarik behar, *interahamweak*, Mobutu, Stalin, Jorge Rafael Videla ere bai Argentinan, salbuespenak gutxi.

2013ko udazkenean topatu zituzten Argentinako diktadura militarreko artxibo ezezagun batzuk, Aire Armadako eraikin nagusian, zoru azpian, ezkutatuta. Sistematikoki ordenatuta zeuden, kronologiaren arabera, gaien arabera. Zerrendak ere bazeuden, beti egoten dira zerrendak: agintearen kontrako pertsonak, intelektualak, sortzaileak, aktoreak, erregimenari kalte egin ziezaioketenak, beti da gauza bera, askotan. Argentinatik alde egin zuten gehienek orduan, guztiek beharbada, Europara asko. Julio Cortázar ere bazen zerrenda horretan jakina, nola ez zen izango, mundu guztiak daki zer zen Cortázar, zertarako zegoen. Héctor Alterioren izena ere idatzita zegoen, zerrendan, aire-armadako eraikinean, zorupean. Aktore ezaguna Alterio, Algortan ere egon zena ia 30 urte geroago, 2007ko abuztuan, pelikula filmatzen, Irene Arriasen haurdunaldirako hilabete gutxi falta zenean.

Urtebete geroago, urte bi geroago ere bai, alaba zaindu behar izaten zuenetan, bainatu, paseatu, baka-

rrik, Ibon lanean zegoenetan, 14 urte lehenago postetxean topatutako beste ume hori gogoratzen zuen askotan Irenek. Bere umearen keinuetan ikusten zuen, aurpegieran, gogoratzen zuen nola eraman zuen etxera postetxetik, nola igo zituzten eskailerak, lehenengo egunak etxean, egun arraroak, uda gero, uda ere arraroa baina ez hainbeste.

Ikastolatik deitu zuten eguna gogoratzen zuen orduan batez ere, argi gogoratu ere, baina apur bat lausotuta ere bai, ez luke jakingo ondo azaltzen. Irene ez zegoen etxean ikastolatik deitu zuten momentuan, amak kontatu zion gero: nolako larria ikastolako langilearena telefonoan, zuzendaria izan zitekeen, maisuetako bat... Arnasa hartu ezinda jarri zela umea, goizean, lehen orduetan, hori kontatu zioten amari, kolorea ere joan zitzaiola, odol apur bat, ia ezer ere ez... Ezin izan zutela ezer egin, Gurutzetan zegoela, Gurutzetan ere ezin izan zutela ezer egin... Hurrengo egunak, elizkizuna, arraroa elizkizuna bera ere.

Hiltzen zituzten umeen berriak irakurtzen jarraitu zuen Irenek egunkarietan, irratietan, telebistan, ahotsa neutroa. Albisteetan agertzen ziren hildako umeak, gorpuak, euren izenak ere bai, gogoratu nahi izaten zituen gero Irenek, urtebeteren buruan, hiru ur-

teren buruan, baina ezin izaten zuen, laurdena ere ez zuen gogoratzen, zaila zen, oso zaila. Bere umeari begiratzen zion orduan, sofan uzten zuen, berriro hartu, etxeko alfonbrari begiratzen zion, alfonbrako irudi absurdoei, *iazko ume hilak,* iruditzen zitzaion oso lurrun gutxi eragiten zutela, arrea lurruna, hori Ireneren inpresioa ia egunero.

ATZERRIKO EGUNKARIETAN AURKITUTAKO BESTE BI NARRAZIO

Izaretan

Amak ate aurrean itxi du euritakoa, giltza sartu baino segundo batzuk lehenago. Gona busti du euritakoa ixteko mugimenduan, tanta batzuk baino ez, asko ikusten direnak, ordea, gona grisean. Alkandora ere busti du, izkina batean, tantarik lodiena beharbada, eta hezea sentitu du azalean, gerrialdean. Tentsioan jarri du horrek guztiak. Deseroso dago gainera hainbeste gauza eskuetan, poltsa, giltzak, euritakoa.

Sarrailan sartu du giltza orduan eta, atea zabaltzeko mugimenduan, ukitu txiki bat egin dio ateko egurrari euritakoarekin. Uste baino askozaz ere tanta gehiago gelditu da atean inprimatuta, hiru-lauk behera egin dute bernizetik. Horrek ere urduri jarri du ama.

Etxera sartu, hallean euritakoa utzi eta egongelako besaulkietako batean ikusi ditu aita-alabak, aitaren gainean jesarrita umea. Agur lauso bat egin die, gehiago adierazten duena lanetik dakarren aldartea beste ezer baino. Kalerako gauzak bazter batean utzi ditu, geroago eramango ditu logelara, armairura batzuk.

Alabarengana hurbildu da gero, musu eman dio ilea eta lokia elkartzen diren zatian eta berehala hasi da etxeko gauzak antolatzen. Umeak ez dio ezer esan, musua hartu dio, eman ez, aitarekin jolasten jarraitu du. Gutxiago egoten da aitarekin, baina aldrebes izan da atzo eta gaur. Bihar ere berdin jarraituko dute, erdi libre aitak ostegunera arte.

Ama korridoretik mugitzen hasi da aurrera eta atzera, normalean baino arinago, estuago. Aitak agur txiki bat egin dio bekainekin alabarengana hurreratu denean, neurtu nahi izan balu bezala zelako tentsioa ekarri duen etxera.

Umea lotara sartu behar dutela esan du amak, behar baino ozenago beharbada, momentuak eskatzen duena baino urduriago beharbada. Umeak kontra egin dio, ez du lotara joan nahi, egongelan jarraitu nahi du. Sukaldera joan da aitaren belaunetatik jaitsita. Ez daki ondo ibiltzen oraindik, balantzak egiten ditu lantzean behin. Erdi negarrez dago, oihuak ere egiten ditu, oraindik ez du hitz gehiegi esaten, Ohera ez, Ohera ez, antzeko zerbait.

Ama sartu da sukaldera, haserre itxurak egin ditu. Umea hartu nahi izan du logelara indarrez eramateko. Ezin izan du: kontrol barik hasi da umea mugitzen,

hankak, burua. Beso batekin kolpea eman dio mahai gainean zegoen edalontzi bati, lurrera bota du. Barruko ura lauzetan zabaldu da, korridoreko egurrera ere heldu, edalontziko kristala hainbat zati egin da.

Umea izutu ere izutu da apur bat hasieran, isilik geratu da, harrituta, zarata handia egin duelako edalontziak, baina berehala hasi da negarrez berriro, oihuka, indar handiagoz orain, edalontziaren zaratak eta gero. Jarraitu du mugitzen gainera, amari bultzaka. Ortozik dago eta kristal zati bat zapaldu du... Odoletan hasi da berehala, ebakia egin du oin-zolan, baliteke kristal zatiren bat izatea oraindik zaurian. Hortik aurrera umea kontsolatzea ia ezinezkoa izan da, aitak hartu behar izan du besoetan. Ama atzetik ibili zaie zer egin behar duen ez dakiela. Hiru-lau odol tanta jausi dira korridoreko alfonbra gainera.

Minez sendatu dute komunean, odolak uste baino gehiago behar izan du eteteko. Negarrez umea denbora guztian, aitaren gainean baretu da, besaulkian jesarrita, kantuak ere egon dira. Negarrak asko nekatu du umea, errazago joan da ohera, berehala lokartu. Bakarrik geratu dira aita eta ama egongelan.

Aitak normalean baino luzeago begiratu dio amari, tontakeria bat esan, etxera ekarri nahi du... Sumatu

du bulegoan dagoela oraindik, itzuli gabe, baina esandakoak ez dio ezertarako balio izan, lotsagarri geratu da. Hurbildu ere hurbildu da amarengana, musua saiatu du ilean, zikin dauka, berdin dio. Hitz egiten hasi da ama, arduratuta oraindik, baina etxera etorrita apur bat.

Betiko kontuak dira amaren ahotsean, umea batez ere, etxea, dirua ere bai apur bat, lankide bat, bezeroak. Lasaitu egin da aita, ama ekartzea lortu duelako, natural hitz egiten ari delako. Moldatuko zara, galdetu dio amak halako batean, bihar esan nahi dut. Baietz esan dio aitak, ez dela horren konplikatua ere. Zortziak eta laurdenetan esnatuko dut, galdetu dio aitak orduan. Zortzietan hobeto, erantzun dio amak, gauzak trankil egiteko. Umea bederatzietan utzi behar du eskolan, goizegi iruditu zaio zortzietan esnatu behar izatea, baina ez du eztabaidarik nahi, ez orain. Oso gutxitan eraman du aitak umea eskolara, ahaztu egiten zaizkio gauzak.

Isilik geratu diren batean, zalantza egin du aitak: ez daki zelako eguraldia dakarren, ez daki, batez ere, umeari goizean jarri behar dion arropa modua. Amari galdetu dio. Bere buruarekin haserretu da ama, errua berea balitz bezala: ez du umearen arropa prestatu,

zapatak ere ez. Logelara sartu beharko du berriro, korridoreko argia piztuta, armairuak zabaldu, zarata barik, arropa aukeratu, koloreak buruz gogoratzen ditu. Ahaleginik handiena umea ez esnatzeko egin du. Uste du lortu duela, umeak zirkin egin duen arren, ileak burkoan batez ere.

Egongelara itzuli da ama, nekatu itxura du. Badirudi azken betebehar horrek eguneko beste ezerk baino gehiago kontsumitu duela. Eseri orduko, ordea, animatuago hasi da. Ez dio asko iraun ordea, hogei minuturen buruan ohera joan behar duela esan du, biharamunean inoiz baino lehenago irten behar duela etxetik, seiak eta laurden.

Ama ohera sartu denean, aitak egongelan geratzea erabaki du, biharamunean ez duelako goiz altxatu behar, ez oso goiz. Liburua hartu du, baina ez du gogorik. Telebista piztu du. Hala ere, hamabiak laurden gutxiago dira ohera joatea erabaki duenerako. Kostatu egin zaio lokartzea, ez gehiegi ere, ez luke jakingo minututan neurtzen.

Biharamunean, ama altxatu denean, mugimenduak sentitu ditu aitak, atea, bainugelan, ura, euria ari duela ere iruditu zaio. Ez da guztiz esnatu ordea, begiak segundo bakar batez ere ez ditu ireki, baina uler-

tu du oso ilun dagoela oraindik, ez duela merezi. Ama sukaldean gosaltzen ari dela lokartu da berriro aita, uste baino sakonago.

Handik gutxira esnatu da berriro, erdi esnatu, ez luke jakingo minututan neurtzen, ez ditu begiak ireki. Mugimenduak sentitu ditu ostera, berarengandik hurbilago esango luke, gelan bertan. Ez da arduratu, ama imajinatu du armairuren bat zabaltzen, euritarako arroparen bat hartzen. Oraindik goiz dela, hori da pentsatzera baino ez da heldu. Gorputzaren jarrera aldatu du, sakon lokartzen ahalegindu da.

Aitaren ohe ondoan dauden gizon biek estalita daukate aurpegia, ezertarako behar ez duten arren. Zaharra da egurrezko zorua, uste baino zarata handiagoa ari dira egiten. Iruditu zaie beraz gauzak arin egin behar dituztela puntu horretatik aurrera.

Ematen du oso pentsatuta dutela non jarri behar duen bakoitzak eta ondoren egingo dituzten mugimenduak. Gizonetako batek ahoa tapatu dio aitari esku batekin eta bestearekin burua altxatu dio burkotik. Besteak soka sartu dio, oso arin, buru azpitik eta zintzur aurrean gurutzatu ditu mutur biak. Neurri perfektua dauka, fina da, muturretan metalezko heldulekuak bi ditu. Heldulekuetatik tiratu du gizonak ahal izan

duen indar handienarekin, sama inguruan markatuta geratu zaio soka aitari. Asko mugitu da hasieran, baina ahoa tapatu dion gizonak eutsi dio. Ia zaratarik gabe ito dute, ama ohetik altxatu denean baino zarata txikiagoekin. Umeak ez du ezer sentitu gelan.

Gizonek berehala alde egin dute, lasai, ate nagusitik, sartu diren bezala, ondo jantzita doaz. Ez dute ezer lapurtu, ez zuten ezer lapurtu nahi, egin dutena egin nahi zuten. Ezer ez da okertu, gutxitan hau bezain erraz. Egun asko dauzkate orain zereginik gabe.

Umeak ez du ezer sentitu orduan ere, lo jarraitu du, natural, erlojuak zortziak jotzean ere, aitak esnatu behar zuen orduan. Izarak apur bat igo ditu, sorbaldetaraino.

Zortziak eta laurdenak apur bat pasatuta daudenean, etxekoei deitu behar liekeela pentsatu du amak bulegoan, nola konpontzen ari diren jakin nahi luke, minutu bat dauka batzarra baino lehen. Ez die deitu azkenean, paper batzuk ordenatzen eman du denbora hori.

Umea bederatziak bost gutxiagotan esnatu da, bakarrik, behartu gabe. Arraroa egin zaio, eskola egunetan beti esnatzen du baten batek, barneratuta dauka hori, ez du asko pentsatu behar ulertzeko. Ohetik al-

txatu da, dagoen bezala, ortozik, ez du oinetakorik jantzi, galtzerdirik, ez dauka inor halako gauzak agintzeko, logelatik irten da.

Egongelara joan da zuzen, han utzi zituen bezperan aita eta ama, han imajinatzen ditu. Ez daude, argia amatatuta dago, ez atzo iluntzean bezala. Sukaldera joan da gero, harlauzen hotza nabaritu du oin-zoletan. Kristalak gogoratu ditu, zauria, hozkia ere sentitu du, odola, baina sukaldea ere hutsik.

Bainugeletan sartzea erabaki du gero, baina bietako handiena hutsik aurkitu duenean, deika hasi da, Ama, ama, ama. Ematen du urduri ere jarri dela, Aita, aita ere esan du, gogoratu baitu aitak eraman behar duela eskolara. Larri dago beharbada, aurpegian ez zaio igartzen. Bigarren bainugelan ere, txikian, ez dago inor.

Gurasoen logelara sartu da azkenean, ez dago besterik. Atea ez dago guztiz itxita, bultzatu egin du, argi nahikoa sartzen da leihotik, zirrikituetatik. Aita ikusi du ohean, lo dagoela iruditu zaio. Ohera igo da umea, badaki zelan egin, askotan egin izan du, laguntzarekin hasieran, laguntzarik gabe orain.

Aita esnatzen ahalegindu da, ezagutzen dituen hitzak esan dizkio, aurpegia ukitu. Gelditu egin da. Be-

rriro egin du esnatzeko ahalegina: hitzak ozenago orain, aita mugitzen saiatu da, ezker besoa apur bat astindu dio. Hirutan, lautan, zazpi aldiz saiatu da aita esnatzen, errepikapena luzeagoa umeengan. Gelditu egin da berriro, ez daki zer egin... Begirada galduta egin ditu segundo batzuk. Izarekin jolasten hasi da, eskuetan bildu ditu, bendak balira bezala. Marra eten urdin batzuk dituzte izarek.

Ohetik jaitsi da orduan, bere logelara joan. Ilun dago, lehen baino ilunago, ez da argia piztera heltzen. Egongelako leihotik datorren argiarekin moldatu beharko du. Puzzle bat hartu du gero, ate ondoan egiten ahalegindu da, beste guztia ilunegi dagoelako. Denbora luzea egin du gelan bakarrik, uler litekeena baino askozaz gehiago, puzzleak, panpinak, irudiak. Doministikuka hasi da, ortozik oraindik, pijama, eskuak hoztu zaizkio, lepo ingurua, gose da.

Gurasoen logelara sartu da berriro, ohera igo. Aitari gose dela adierazi dio nola edo hala, mugitu egin du, aurpegia ukitu. Ulertu du lehengo gauza berberak egiten ari dela eta ez duela aita esnatuko, lehen esnatu ez duen bezala. Begirada galduta geratu da berriro. Aitaren erlojua hartu du gero, mahai txikian uzten

duena. Ulertu gabe begiratu die zenbakiei, orratzei, mahai gainean utzi du berriz.

Aitari begiratu dio orduan, bekainak, begiak, ahoa, ilea nahastuta dauka. Ezin da jakin umeak zerbait ulertu duen ala ez. Negarrez hasi da, gero eta intentsitate handiagoz... Gosea ere izan liteke, beldurra beharbada, ematen du izarak bihurritzen ari dela. Badirudi zerua apur bat saretu dela, argi biziagoa sartu da gelan.

Izara eta manta azpian sartu da umea orduan, aitaren ondoan, itsatsita ia. Eskuak eta oinak berehala epeldu zaizkio, lodiak dira mantak. Ez da negarrez ari orain, asko nekatu du negarrak, ezin du. Aitaren sama gainean jarri du burua, berehala lokartu da, zaila da minututan neurtzea.

Ez kantu guztiak

Ez da indar handirik behar, hori da pertsona nahasten duena hasieran, ez dela, uste izan den bezala, indar handirik behar. Hamar edo hamabi kiloko zaku bat, hori altxatzea, ez da besterik. Hori da harri handi bat hartu eta lurrean dagoen beste harri baten kontra botatzen duzunean bezala: apurtu egiten da bietako bat, goikoa ala behekoa... Ez da besterik behar, modu naturalean apurtzen dira harriak.

Beste horretarako ere ez da indar berezirik behar, horrek harritu gintuen, erraza dela, edonork egiteko modukoa, ume batek ere bai. Esango nuke ume batek errazago egin dezakeela, ez duelako ulertzen.

– Baina zuk... zuk badaukazu... indarra esan nahi dut...

Ez, jauna, ez nahastu, ez daukat, ez neukan, ez egin kasu itxurari... Egunak jan gabe, badakizue, edo behar den bezala jan gabe. Orduan ere halaxe egon nintzen, behar nuena jan gabe. Baina besteek bezala egin nuen. Besteek inoiz baino hobeto jaten zuten, nik ezin nuen... Baina ez da indarrik behar, benetan, sinistu hori behintzat.

– Buruan indarra beharbada... Bekatuaz ari gara...

Ez, ez gara bekatuaz ari. Zu kristaua zara, neu ere bai, baina ez gara bekatuaz ari... Kontrakoa ematen du, badakit. Kristauak ohituta gaude, denok gara kristauak, denok gara. Baina ez gara bekatuaz ari. Ari gara ohituraz.

– ...

Ni ez naiz etorri nahi izan dudalako... Ama eta arrebak han dauzkat, han beharko nuke. Ez dute behar bezala jaten amak eta arrebek, han beharko nuke eta hona ekarri nauzue.

– Baina ulertzen duzu etorri behar zenuela...

Bada kantu bat gure herrian, ingurukoetan ere bai, guztiok dakigu, baita haurrek ere. Ez da oso luzea... Ez dut kantatuko, ez da lekua hau, baina errezitatu egingo dut.

Haizeak txoria dakar, txoriak haizea
lokatzetan bizi gara
etxeak jausten dira
gure burezurrak jausten diren bezala.

– Ez dut ulertzen zer...

Jakina, jauna, zuek berehala ulertu nahi duzue guztia. Kantuek denbora behar dute. Ez duzue pazientziarik kantuekin... Urte batzuk barru ulertzeko dira kantu batzuk. Ez guztiak.

Eramango nauzue orain, jauna? Han dauzkat ama eta arrebak. Ordu asko dira hegazkinean, bi edo hiru hegazkin beharbada.

– Oraindik ez.

Noiz, jauna? Ama eta arrebak dauzkat han. Hiru anaiak hil zizkidaten. Gogoratu, jauna: «... etxeak jausten dira / gure burezurrak jausten diren bezala». Ez dakit kantuaren itzulpena ondo egin dudan, baina uste dut ondo ulertzen dela.

LAUGARREN ATALA

I. Bulegoa. Deia. Euritakoa

Bestela egun normala izan zen Irene Arriasentzat, abendukoa, betiko deiak, betiko txostenak, mezuak, irakurri beharra, erantzun beharra... Bulegotik inoizko goizen aterako zela pentsatzera ere heldu zen momenturen batean. Lankide gehienek egingo zuten ahalegina apur bat lehenago irteteko. Izan ere, zuzendaria ere kanpoan zen, Frankfurten, lan gutxiko eguna... Ez zegoen arrazoi handirik hamar minutu lehenago ez irteteko, ordu laurden lehenago.

Irene Arriasek ordenagailuan bideo batzuk ikusteko aukera ere izan zuen egun hartan, lanarekin zerikusirik ez zutenak. Ipar Irlandan grabatutako bat, esate baterako, Derryn, 1972ko urtarrilaren 30ean, irlandarrek oso ondo gogoratzen dutena, ondorio asko ekarri zituena: hamalau lagun hil zituzten, umeak asko, 17 urtekoak.

Abade katoliko batek ere hitz egiten du grabazioan, ume bat hiltzen ikusi zuelako egun horretan, bere

ondoan. Umeak hamabost urte izango zituela, hori pentsatu zuen abadeak, hala esan zuen... Ez zuen umea hiltzen ondo ikusi, abadea bera ere korrika zihoan, *I was running too*, baina tiroak jo zuela ikusi zuen, hori bai. David Cameronek berak onartu zuen 2010ean iheska ari zirela tirokatu zituztela soldaduek irlandar katolikoak. Britainiar gobernuak bere gain hartu zuen errua, badirudi hitz hori bera erabili zuela, errua. Ematen du erlijioari asko begiratzen diotela Europako zati horretan: errua, barkamena, gupida... Afrikan bezala baina beste modu batera.

Dokumentalak egin dituzte egun horren inguruan, pelikulak, sarien irabazleak, Sundance, Berlin, kantuak bat baino gehiago ere bai. Irenek ordenagailuko ahotsa apaldu eta kantu zatiak entzutea erabaki zuen, U2, beste talde batzuk. Kontzertuak agertzen ziren batzuetan, pelikularen sekuentziak ere bai. Bideo batean kalashnikov bat agertzen da kantuak irauten duen denbora guztian, besterik ez, Mozambikeko banderan bezala. Irene Arriasi bertigo moduko bat eragiten zion batzuetan pertsonen konplexutasunak, pertsonen sinplekeriak ere bai: kalashnikova bideoan, denbora osoan, besterik ez, kantuaren gainean.

Bulegotik irteteko hogei minutu baino apur bat gutxiago falta zela hasi ziren gauzak konplikatzen, ordea. Ezohiko mezua jaso zuen Irenek ordenagailuan, Lisboatik, ezohiko gauzak eskatzen zizkiona: dokumentu batzuk, zenbaki batzuk, sinadura batzuk. Dokumentuetako bat hutsetik sortu behar zuen, eta horrek bakarrik ordubete baino gehiago kenduko zion. Bulegotik lehenago barik, askozaz beranduago irten beharko zuen.

Une batez ernegatu ere egin zen, azken orduko konplikazio horregatik, otu zitzaiolako ez zuela alaba ikusiko, etxera orduko ohean egongo zela, edo ohera joateko, ezertarako ez... Azken ordu erdia egingo zuten elkarrekin beharbada, loak erreta, ganorazko ezer hitz egiteko moduan ere ez. Hori kenduko zion azken orduko konplikazio horrek, aurretik erabat egun normala izan bazuen ere, lasaia ere bai.

Eskuko telefonoa kargatzen jarri zuen, bulegoaren beste aldean. Kalkulatu zuen azken orduko lan horiekin etxera heldu baino arinago agortuko zitzaiola bateria bestela. Oso motel egiten zituelako enpresako lanak Irenek, bere izateko modua zen, unibertsitatean bezala, azterketetako azken galderak egin barik uzten zituen bezala askotan. Aurreko enpresetan ere gauza

bera, estandarra baino denbora gehiago behar zuen beti lanak amaitzeko... Segurua zen hala ere, akats gutxi, askotan akats bat bera ere ez. Hori zuen alde, inork ezin zion ezer esan, inork ezin zion kargu hartu, ez nabarmen behintzat. Zuzendariak estimatu ere egiten zuen, segurua zelako, langile gutxi zegoelako Irene Arrias baino seguruagoak. Baten bat bai, beti dago baten bat.

Irenek pentsatu zuen halako batean, gogora etorri zitzaion, ordenagailuan idazteari utzi barik betiere, Derryko tiroketa egun horretan, urtarrilaren 30ean, 1972an, lehen urtea bete berri zuela berak, bost egun lehenago. Hori pentsatzen ari zela jo zuen telefonoak. Une horretan bertan izan zen deia, dei arraro hura, azken orduko lan haiek amaitzeko gutxi falta zitzaionean, etxera joateko momentua heltzen ari zenean azkenez.

Telefonoa hartu baino lehenago beste zerbait pentsatzeko astia ere izan zuen. Harrezkero askotan pentsatu izan zuen gauza bera, indarkeriari begira hasi zenetik burutik kendu ezinda ibili zuena. Izan ere, jaio zen urtearen inguruan, 1971n, urte batzuk lehenago, urte batzuk geroago, sinesteko zaila zen sortu ziren talde armatuen kopurua, bazter gehienetan: Baader-

Meinhof, Irail Beltza, Tupamaroak, Angry Brigade, FARC, Sendero Luminoso apur bat geroago. Izen horiek guztiak etorri zitzaizkion gogora telefonoa hartzeko mugimendu labur horretan. Gehiago ere bai, jakina, nola ez, Irlandakoak, euskal herrietakoak bertakoak, ez zituen guztiak gogoan, ez zituen guztiak ezagutzen.

Baina sumatu ere ez zuen egin zer zen azken orduko telefono-dei hori, dei arraro hori. Ez zuen pentsatuko, bestetik, hainbeste informazio eman zitekeenik hain dei laburrean, 40 segundo, 50, minutu bat baino gutxiago betiere. Argi zuen mundu guztiak mota horretako deiak ezin zirela minututik pasatu, hor zegoela muga.

Telefonoa hartu aurretik pentsatu zuen zortzi eta erdietarako egon zitekeela etxean, lehenago ere bai. Uste baino arinago amaitu zituen azken orduko lanak, Lisboatik agindutakoak, gustura geratu zen gainera, hiru-lau zuzenketa eta etxera... Telefonoak jo zuen ordea, arraroa ordu horretan. Zuzendaria bera ere, telefonoaren beste aldean, Frankfurten, harritu egin zen Irene bulegoan topatuta, horren berandu. Badaezpada deitu zuen hara, eskukora deituko zion bestela, pertsonalera. Baina ez zituen azalpenak asko luzatu,

ezin zuen, minutu bat baino gutxiago zuen, eta gauza asko esan behar zion. Argi eta arin esan zion Ireneri ez joateko etxera, ezin zela etxera joan, itxaroten zituela han.

Deiaren ostean, aurreko hormari begira geratu zen Irene Arrias tarte batez. Pentsatu behar zuela iruditu zitzaion, buruari atseden apur bat eman ere bai. Urduritzen hasi zen, mahaitik altxatu, bulegotik ere irten. Beste hiru edo lau langile baino ez zegoen erdiko gelan, askotan geratzen zirenak berandura arte... Atzera sartu zen Irene bulegora.

Etxera ez joateko esan zion telefonoak, ezin zela etxera joan bulegotik irteten zenean, itxaroten zituela pertsona batzuk, han, etxean bertan. Izenak ere eman zizkion: Luis Alzaola, Sarria abizena zuen beste bat. Esan zion zuzendariak Luis Alzaola ez zuela etxean itxaroten izango ziurrenik, inoiz ez zela egoten, bulegoko lana egiten zuela Alzaolak batez ere, paperak. Sarria abizeneko hori joaten zela etxeetara, beste gizon batzuekin, han egongo zirela harrezkero beharbada, Alangobarriko ate aurrean, edo etxe barruan, inoiz ez dela jakiten. Irene Arrias zerrendetan zegoela esan zion zuzendariak.

Bere autoan ez joateko ere esan zion, bazekitela zein zen, marka, modeloa, matrikula, errazago topatuko zutela. Esan zion uzteko autoa aparkalekuan, lankideren batek eramango ziola gero, beste egunen batean, hori zela onena. Autoarena esan zionean, hobeto ulertzen hasi zen Irene... Beldurrarekin batera hasi zen gauza guztiak hobeto ulertzen, ez zekien arren, nola jakingo zuen, zergatik zegoen zerrendetan, zer ziren zerrendak.

Bere buruari zerrendei buruzko galderak egiten hasi zenean erreakzionatu zuen Irenek apur bat. Ezin zen etxera joan, Luis Alzaola, Sarria, beste gizon batzuk bere zain, autoa kontrolatuta. Zuzendariari galdetu zion orduan non zeuden senarra eta alaba, etxean, kanpoan, lagunen baten etxean, gurasoenean. Erantzun zion ez zekiela, ez ziotela esan, ez zela bere ardurakoa, horrelako zerbait erantzun zion zuzendariak deia ebaki aurretik.

Hormari begira geratu zen Irene telefonoa utzi zuenean. Zerrendak, ez zekien zer ziren, imajina zezakeen, askotan irakurri zuen halako zerrendei buruz, beharbada ez zegoen salbuespenik, beti egoten ziren.

Ezer pentsatu gabe eutsi zion une batez gero, iruditzen zitzaion buruari atseden hartzen utzi behar

ziola. Mahaitik altxatu zen, bulegotik irten. Pabilioiko erdiko gela hutsik zegoen ia, lau langile, beranduen joaten zirenak, ordenagailuetan batzuk, paperekin bat. Bulegora sartu zen berriro. Pentsatu zuen Lisboakoen lana amaitu behar zuela beste ezer pentsatzen hasi baino lehen, hiru zuzenketa, hiru txikikeria... Obligazioa sinesten zuen oraindik, obedientzia beharbada, *Befehl eines Vorgesetzten ist Befehl*. Zazpi minututan amaitu zuen.

Etxera nork eramango zuen pentsatu behar zuen orain. Autoa aparkalekuan utziko zuen, hori iradoki zion zuzendariak, ondo iruditu zitzaion. Pabilioian geratzen ziren langileak berrikusi zituen buruan, bulegotik irten barik: Bilbo, Galdakao, Arrigorriaga, Plentzia. Arrigorriagakoa Leioan bizi zela uste zuen, baina ez zekien ziur, ez zuen gehiegi ere ezagutzen... Plentziakoari eskatuko zion.

Ordenagailua amatatu zuen, bulegotik irten zen. Langileetako bat zutunik zegoen orain, jaka hartzen ari zen esekilekutik. Plentzian bizi zenaren mahaira hurbildu zen Irene.

– Autoa ekarri duzu?

Gaztelaniaz galdetu zion, ez zekien euskaraz zekien ala ez, *Has venido en coche*. Esnatzen ariko ba-

litz bezala kendu zituen begiak ordenagailutik lankideak, baietz erantzun zion, segundo batzuen ostean, bazuela autoa, eramango zuela, Algortaraino ezta? Guztiz modu ezaxolan erantzun zion, inork problemarik ez balu bezala, ordu horretan problemak egotea ezinezkoa balitz bezala, munduan ere inongo zatitan. Bi minututan abiatuko zirela esan zion, autoa hurbil zuela.

Bulegora itzuli zen Irene, arin egin zituen gauzak; mesedea egingo ziola lankideak, ez zuela itxaroten eduki nahi. Jaka hartu zuen, lodia, lepoko zapia ere bai, poltsa, euritakoa. Ez zuen egun osoan euririk bota, goizean lainotuta egon arren. Armairu bateko apalean kateatu zitzaion euritakoa, segundo batzuk galarazi zion horrek.

Aparkalekuko lehen autoetakoa zen lankidearena: oso goiz etorri behar zuen, edo zorte handia izan. Ireneren autoa askozaz urrunago zegoen. Irenek begiratu ere ez zion egin nahi, pentsatzen zuelako baten bat egon zitekeela autoa zaintzen. Fikzioa iruditzen zitzaion, baina zerrendarena ere fikzioa iruditzen zitzaion bezala, Luis Alzaola, Sarria... Guztia zen sinesteko zaila, guztiak ematen zuen irreala. Zuzendaria-

ren deia ez zen irreala izan ordea, zuzendaria bera, Frankfurt...

Sekula ez zion zuzendariak lanetik kanpoko ezeri buruz hitz egin, konfiantza ere txikia, adin aldea nabarmena. Gutxitan elkartzen ziren, beti lanaren inguruko zerbait, serioa gizona ia beti, trajea, iluna ia beti. Dei arraro hori orain, zerrendak, autoa, minutu bat baino gutxiagokoa.

Aparkalekura jaitsi zirenean beraz, Ireneri iruditu zitzaion bere autoari begiratzen bazion, lokalizatu egingo zutela, autoa zaintzen zegoena konturatu egingo zela. Ia ezinezkoa zen, pentsamendua ere barregarria, inozoa.

Lankidearen autora sartu ziren. Apenas hitz egin zuten bulegoetatik aparkalekuraino, hotza aipatu zuten, aurreko egunak baino epelago, baina hotza guztiarekin ere. Aparkalekutik atera zirenean hasi ziren esaldi luzeagoak egiten, auto barruan, baina isiluneak ere luzeak. Errepide nagusira sartu eta halako isilune batean konturatu zen Irene: poltsan begiratu zuen, astiro hasieran, txokorik txikienetan gero... Bulegoan utzi zuen eskuko telefonoa, pertsonala, kargatzen geratu zen. Arinegi hartu zituen gauzak, jaka, zapia, euritakoa. Ezin zion lankideari lantokira itzultze-

ko eskatu, berdin zion telefonoak momentu hartan, ez zion berdin. Ohartu zen, une berean, ez ziola Iboni deitu, mezurik bidali. Arinegia izan zen guztia, gauza gehiegi pentsatu behar izan zuen, oso denbora gutxian. Telefonoa aldean eramango zuen Ibonek, kaleetatik ibiliko ziren hura eta alaba beharbada, nora joan topatu zuten agian harrezkero. Hegazkin handi bat ari zen lur hartzen Loiuko aireportuan, oso hurbiletik ikusi zuen Irenek.

Bidea betiko moduan egin zuten, eguneroko moduan, normal, erraz, ez zen kontrolik egon errepidean. Halako zerbait espero zuen Irenek, autoa gelditzea, miaketa, identifikazioa. Tentsio horrekin egin zuen bidaia, azken partea batez ere, Erandio, Leioa, baina ezer ere ez. Algortako sarreran birritan gelditu izan zuten kontroletan urte batzuk lehenago, baina garbi zegoen errepidea orain, auto gehiegi ere ez.

Algortara goiko sarreratik sartzeko eskatu zion lankideari, nora zihoan oso ondo ez zekien arren, ohitura seguruenik. Etxera ezin zuen, amarenera beharbada... Algortako beheko aldetik sartzeko eskatu behar zion agian, etxetik ahalik eta urrunen, baina ez zuen pentsatu, ohiturari jarraitu zion, oraindik sines-

ten zuen etxea normal topatuko zuela, okerren bat zela, nahastu egin zela baten bat.

Alangobarri kalera sartu baino hogei bat metro lehenago uzteko eskatu zion Irenek lankideari. Izan ere, Alangobarrin bertan jaisten bazen autotik, bere kalean bertan, ikusi ahal izango zuten, zain zeudenek, identifikatu. Ez zekien lankidearen autoa kontrolatuta ote zegoen, ez zuen uste. Fikzioa iruditu zitzaion guztia berriz ere ordea, irreala, onirikoa ere bai beharbada.

Hogei metro lehenago atera zen autotik beraz badaezpada ere, eskerrak eman zizkion lankideari, hirulau aldiz. Autoak nola alde egiten zuen ikusi zuen, maniobra osoa. Ematen zuen ez zekiela oso ondo zer egin behar zuen, oinez hasi zen.

II. Algorta. Jendea. Sua

Alangobarriko etxean, hallean, kaleko atetik sartu eta segundo bira, idazmahai estu bat. Bost tiradera, lau txiki eta luze bat. Tiradera txikietan giltzak, garajekoa adibidez, Ibonen gurasoen etxekoak, Begoña Sasietaren etxekoak, bulegokoak, erabili ezin diren beste batzuk, inongo sarrailatakoak ez direnak orain,

bota ez zirenak bota behar zirenean, forma ederrekoak bi Ireneren iruditerian, guztiak alabarenean. Erreminta bat tiradera luzean, erdi ugertua, amaren etxetik ekarri zuena Irenek, aitarena beharbada. Arropa-eskuila, telebistaren jarraibide-orria, fakturak, umea jaio baino lehenagokoak, papera ere horituta, figura apurtu bat. Absurdoa idazmahaia hallean, inoiz ez dute hallean idatzi, inoiz ez dute aulki bat ere jarri idazmahaiaren aurrean, estimatzen dute hala ere. Kandela bi goiko partean, alde banatan, forma irregularreko ispilu bat idazmahaiaren gainean.

Oinez hasi zen Irene Arrias. Berehala helduko zen bidegurutzera, Alangobarrira, berehala ikusi ahal izango zuen etxeko ataria. Aldats gogorra Alangobarri, autoa erdian geldituz gero eskuko frenoa behar duena: goiko partean Ireneren ataria, ia Alangon. Aldatsaren beheko partetik ikusiko zuen ataria beraz, ia egunero ikusten zuen bezala, gogoa zuen, beldurra. Ez zen ezer igarriko beharbada, atari barruan egon zitezkeen zain beharbada, edo etxean bertan, bigarren solairuan, alferrekoa tentsioa beraz. Hogei metro izan zituen hori pentsatzeko, irreala iruditzen zitzaion guztia oraindik hala ere.

Heldu zen kale hasierako biribilgunera orduan, baina aurreko espaloira pasatzea erabaki zuen, etxe ataria hobeto ikusi ahal izateko. Errepidea pasatu zuenean, lurrean marraztutako zebra-bideari begiratu zion, lurrera beti, beste interesik ez balu bezala. Hiru eskola-ume ari ziren kontrako noranzkoan.

Beste espaloira heldu zenean, gora begiratu zuen. Zeharka egin zuen ordea, ez buelta osoa emanda. Etxe ataria hutsik zegoela iruditu zitzaion, atean ez zegoela inor, normala zela guztia, egunero bezala. Zalantzan jartzen hasi zen aurreneko aldiz zuzendariaren informazioa: izenekin nahastu zen baten bat beharbada... Zergatik egon behar zuen Irenek zerrendetan... Informazio okerra beharbada zuzendariari eman ziotena, zuzendariak ulertu zuena.

Atarian ez zuen inor ikusi beraz, baina luzaroago begiratu behar zuela iruditu zitzaion. Poltsan zerbait bilatzen ariko balitz bezala hasi zen. Gelditu egin zen espaloiko bazter batean, poltsan zerbait bilatzeko gelditukо behar balu bezala, oinez jarraitu ezin izango balu bezala. Begirada txikiak egin zituen poltsatik atarira, bat, bi, lau. Gizon bi ikusi zituen orduan harago, informatika-denda baino apur bat lehenago, ataritik 4-5 metrora. Hormaren kontra sorbaldak eta gerria ze-

goen bat, zigarroa. Trajez iruditu zitzaion bestea. Ematen zuen ez zutela etxe atariarekin zerikusirik.

Gizon bat irten zen ataritik orduan, euren etxeko ataritik, ez trajez, baina ondo jantzita. Altua, sorbalda zabalekoa, ez zen etxekoa, seguru zekien Irenek. Beste biengana hurbildu zen berehala, hizketan hasi ziren, tabakoa atera zuen.

Behera begiratu zuen Irenek, itolarri apur bat, ulertu egin zuen, nola ez zuen ulertuko, hiru gizon, zain, atarian, etxe barruan ere bai, gehiago egon zitekeela pentsatu zuen. Aurrera jarraitu zuen poltsa erabat itxi barik, arnasa nahiko desorekatuta, Luis Alzaola, Sarria abizeneko bat, izen guztiak etorri zitzaizkion kolpera. Bankuko kutxazainera heldu zen, abiadura moteldu zuen, han ezin zuten ikusi.

Itxi egin zuen poltsa, euritakoa lurrera jausi zitzaion, oso astiro makurtu zen hartzera. Mugimendu guztiak egin behar zituen astiro orain, ez bazuen arnasa etetea nahi, unerik txarrenean, takikardia. Urte batzuk lehenagotik zekien tentsioarekin lotuta zegoela takikardia, mugimendu jakin batzuekin ere bai... Kontu handiz makurtu behar izaten zen esate baterako tentsioan zegoenetan: orain adibidez, unerik txa-

rrenean, gelditu ezin zenean, etxetik urrundu behar zuenean...

Astiro makurtu eta astiro zutundu zen, euritakoa eskuan orain, kutxazainaren aurrean. Etxetik ahal zuena urrundu behar zuela erabaki zuen... Ibiltzen hasi zen, baina pauso batzuk aurrerago gelditu: gehiago jakin behar zuela iruditu zitzaion halako batean, ezin zuela etxea hain erraz abandonatu, berriro ikusi behar zuela, faltsua zen guztia beharbada: zerrendak, Luis Alzaola, atariko gizonak ere bai. Pentsatu zuen inguratu egingo zuela eraikin taldea eta goiko partetik begiratuko ziola euren etxeari, etxe atariari, Alangotik, aldatsaren goiko partetik, kalearen beste muturretik. Gizonak ere asmatu egin zituela iruditu zitzaion orain, edo gizonen esanahia, informatika-dendaren ondoan.

Mariandresena kaletik sartu zen, haize-kalea beti, ibiltzeko deserosoa, autoak beti pertsonak baino gehiago. Ez zuen kale osoan inor ikusi. Garajeari begiratu zion ezkerreko aldean, han hil zuten José María Lidón epailea 2001ean. Irudi hori etortzen zitzaion Ireneri handik pasatzen zenean: irudi laburra batzuetan, ia ezer ez. Jatetxe italiarrari begiratu zion segituan, askotan bazkaldu izan zuen han, Ibonekin batez ere,

Ibonen gurasoekin behin, garajearen gainean, pasta, lau gazta mota, edateko ura.

Mariandresenatik irten eta Alangora hartu zuen, Alangobarri kalea beste muturretik ikusteko haraino behar zuen. Buruari ezin zion deskantsatzen utzi: zerrendak, kontrolak, zain zituenak. Bere izena zerrendetan egoteko arrazoi batzuk bururatzen hasi zitzaizkion... Beharbada hasieratik pentsatu zituen, baina orain ari zen pentsamendua egituratzen, motiboak, azalpen posible batzuk, baina irreala iruditzen zitzaion oraindik ere. Bururatzen zitzaizkion arrazoi guztiak ez ziren nahiko mota horretako zerrendetan egoteko, kontrolerako, etxean pertsona batzuk zain izateko, hainbeste baliabide, dirua, langileak, hain gutxi balio zuen bat kontrolatzeko. Horrela pentsatzen zuen, Irene Arriasek ez zuela hainbeste balio, apaltasuna ez zen faltsua, ez zuen zertan. Astiroago ibiltzen hasi zen Alangobarriko beste muturrera heltzeko metro gutxi falta zenean.

Espaloi horretan bertan hil zuten José Ramón Morán polizia urte batzuk lehenago; metro batzuk aurrerago, *ABC* egunkariaren arabera. Irenek zapaldu egin zuen, seguruenik, odol putzua egon zen espaloi zatia momenturen batean, gau hartan... Oso astiro ari

zen ibiltzen orain: metro batzuk aurrerago ikusiko zuen euren etxeko ataria, lehen baino hurbilago, gizonak, trajeduna, zigarroak, aurpegiak ere bereizi ahal izango zituen beharbada, Sarria abizeneko bat.

José Ramón Moránek jo zion azken tiroa Eustakio Mendizabal *Txikia*ri, horregatik hil zuten urte bi geroago, Algortan bertan, apirilean biak, eguna ere antzekoa. Hilabete batzuk geroago, metro batzuk beherago harrapatu zuen auto batek Ireneren amama, Marina Zabala. Irudi hori ere beti etortzen zitzaion burura Ireneri errepide hartatik pasatzen zenean, espaloi batetik bestera. José Ramón Moránena gutxiago gogoratzen zuen, inoiz. Odol putzuak askotan ikusten ziren orduan harlauzen marretan, erretenetan... Idatzi izan da oso ohituta zegoela jendea, harategien aurreko espaloietan bezala.

Kristalezko apal batzuk hallaren amaieran, halla eta jangela banatzeko. Apalen gainean figurak: opariak gehienak, Kubatik, India, Australia beharbada. Ez dira gustura begiratzeko modukoak, berdin dio Ireneri, ez dio berdin, han daude, hautsa kentzen die, ez beti. Argazkiak ere bai: Ibon, Irene, umea, marko desberdinak, adin desberdinak. Liburuak beheko apalean, etxeko beste apaletan sartzen ez direnak, handiegiak,

nobela grafikoak batzuk, atlasa. Telefonotik saldu zizkioten batzuk Iboni, engainatuta. Telefonoa beti hartzen dute Irenek eta Ibonek, atea beti irekitzen dute. Sarraila berria jarri zuten urrian.

Pauso batzuk eman zituen Irenek espaloitik. Uste baino lehenago ikusi ahal izan zuen euren etxeko ataria, 4 zenbakia, Alangobarri. Ez zegoen gizonik orain, ez atarian, ez informatika-dendan, kaletik ere ez zebilen jenderik. Faltsutasun sentsazioa areagotu zion horrek: dena asmatu zuen, ez zegoen zerrendarik, Luis Alzaola, Sarria, fikzioa guztia.

Zalantza egin zuen orduan, atarira gehiago hurreratu ala ez... Berehala ulertu zuen inozoa zela, gizonak etxe barruan egongo zirela inon egotekotan, zergatik egon behar zuten kalean. Ez zekien zergatik ari zen etxeari begira, geldirik, espaloian: etxetik urrundu behar zuen. Baina etxeari apur bat gehiago begiratu nahi ziola erabaki zuen halako batean, ez zuen ulertzen zertarako.

Alde egitea pentsatzen hasi zenean, etxeko atea zabaldu zen indarrez. Lehengo gizon bera atera zen, jaka, sorbaldak, bufanda granatea, zapia ere izan zitekeen. Aurpegia nahiko ondo ikusi ahal izan zion Irenek, Sarria zela sinistu zuen.

Ireneren tentsioari beste tentsio kolpe bat gehitu zitzaion. Ez zuen mugimendu arinik egin nahi, nabarmenegia izango zen, jende gabe zegoelako kalea... Ikusi ahal izango zuen Sarriak, gizon hark, erraz, identifikatu egingo zuen. Astiro mugitu zen, zeharka begiratu zion gizonari.

Auto batera sartu zen Sarria orduan, atari aurrean. Ez zuen motorra piztu, ez zuen autoa abiatu. Irenek ez zuen ondo ikusten, baina iruditu zitzaion paperak hartzen ari zela, bolantearen aurreko partean zeudenak, hartu eta utzi. Arinago hasi zen Irene ibiltzen, gizonaren begiradatik kanpo nahi zuen. Iruditu zitzaion autotik atera zela Sarria eta etxean sartu. Ez zegoen seguru, ez zuen atzera gehiegi begiratu nahi. Gasolindegi parera heldu zen Irene, Basagoitira pasatu zen, semaforoa, zebra-bidea, autobus-geltokia.

Basagoitin behera birritan edo hirutan begiratu zuen atzera oraindik, baina iruditu zitzaion ez zuela inor atzetik. Ez zekien zer egin orain, nora joan, arin erabaki behar zuen. Leku itxi bat behar zuen, hormak, amaren etxea, ez zeukan besterik. Ez zuen lagunen etxeetara joan nahi, seme-alabak gehienek, ez zituen nahastu nahi. Ama nahastuta zegoen lehendik ere, ama zelako, Begoña Sasieta zelako. Amarekin egongo

zen gaur, Iboni deitu, elkartu, gauzak egituratu. Begiratu beharko zuten nola zeuden telefonoak.

Basagoitin lau lagun ikusi zituen kontrako noranzkoan, baina ez zuen inor ezagutu. Bera baino gazteagoa zen mutil bat begira geratu zitzaion ordea. Arin ari zen mutila Basagoitin gora, baina ez ahal zuen bezain arin. Ikusten zen arinago joan zitekeela eta ez zuela nahi, ez zuela nabarmendu nahi. Ulertu zuela iruditu zitzaion Ireneri: mutilak ere ezin zuen etxera joan, ez zekien oso ondo zer egin behar zuen... Ez zioten elkarri ezer esan, ezin zioten elkarri ezer esan... Baina gogoeta horiek faltsuak iruditu zitzaizkion Ireneri segituan berriro ere, fikzioa, absurdoak: mutil hori ez zen inor, Irene Arrias inor ez zen bezala.

Amaren etxera joango zen badaezpada hala ere. Gaua amarekin, biharamunean etxera, Alangobarrira, lanera gero. Ahalegina egingo zuen biharamunean umearen bila joateko eskolen ostean, lan normalaren ostean. Ulertu zuen natural pentsa zezakeela oraindik, buruaren parte bat garbi zuela beharbada.

Tellagorri plazara heldu baino lehen sartu zen eskumatara. Errepidea pasatu zuen gero, aurrera egin Torrenen, amaren kalean. Merkatura heldu baino lehen begiratu zuen amaren etxeko atarira aurrene-

koz, 60 metrora, 70era. Konturatu zen mugimendu handia zegoela amaren atarian, inoiz ez zuela hainbeste jende ikusi etxaurre hartan, are gutxiago ordu horretan, gau betea, abenduan.

Iruditu zitzaion, halako batean, baten bat ari zirela indarrez ateratzen etxe ataritik. Ezin izan zuen zehaztu emakumezkoa ala gizonezkoa, nor, auzoko bat, gaztea... Baina distantzia horretara, 60 metro, 70, ez zuen behar bezala ikusi agian... Edo txarto interpretatu zuen, beharbada, ikusten ari zena: ez ziren inor ateratzen ari, are gutxiago indarrez.

Geldirik egon zen Irene une batez, begira, ez aurrera ez atzera. Amaren etxe atarian zeudenen arteko hiru gizon bera zegoen lekurantz hasi ziren ibiltzen orduan, nahiko arin, seguru. Ondo jantzita zeudela iruditu zitzaion, bat izan ezik. Lehengo tentsioaren gainean beste tentsio kolpe bat sentitu zuen Irene Arriasek berriro ere.

Ez zekien bere bila zetozen, izan zitekeen. Iruditu zitzaion, ordea, zaila zela distantzia horretan inor identifikatzea. Apur bat aurrera egin eta Juan Bautista Zabala kalera zihoan tunelean sartu zen badaezpada. Sumatu zuen gizonak ez zirela tunelean bere atzetik

sartu, baina ezin zuen ziur esan. Argi geratu zitzaion, guztiarekin ere, ezin zela amaren etxera joan.

Juan Bautista Zabala kalean bikote edadeko bat ikusi zuen, trajez gizona. Maleta txiki bat zeramaten, bakarra, txikiegia bientzat, gurpilen gainean arrastaka gizonak. Arinegi zihoazela iruditu zitzaion Ireneri, aurpegiak ere larrituta. Emakumea aurrera begira, oso zurrun lepoa. Neba-arrebak izan zitezkeela pentsatu zuen Irenek, espresioa bera.

Une batean gizonak maleta zorutik altxatu zuen eta airean hartu, gurpilak erabili gabe, zarata gehiegizkoa irudituko balitzaio bezala, hori pentsatu zuen Irenek. Martxa moteldu zien horrek, gizonak hirurogei urte ere izango zituelako, emakumeak apur bat gutxiago, lumak jakan, lepo inguruan, gutxi, ez nabarmenegi ere. Haiei arreta gehiegi eman gabe jarraitu zuen Irenek aurrerantz, ardoen biltegia egon zen espaloitik. Atzera begiratu zuen beste behin, badaezpada ere, neska gazte bat, liburuak eskuan.

Batzokia inguratu zuen Irenek, taberna itxita. Hori ere arraro egin zitzaion... Izan zitekeen atseden eguna, baina izan zitekeen Batzokikoek ere zerbait jakitea, dena jakitea, telefono dei bat hartu izana ordubete lehenago, Irenek bezala. Beste aukera asko ere

bazegoen, bazitekeen hasieratik jakitea dena... Esaten izan da inportantea dela informazioa mugitzea, mugitu ahal izatea, edonork ezin duela normalean.

Taberna aurrealdean ez zegoen inor, bulego etxearen aurrean ez zegoen inor, baina bulegoen leihoetako batean argia ikusi zuen. Argiak aldaketak egiten zituen, baten bat ariko balitz bezala lanpara baten aurretik pasatzen, jende asko balego bezala lanpara aurrean, batzar bat esaterako.

Batzoki atzeko patio ondora heldu zen berehala, futbolerako erabiltzen zenera, saskibaloia, esku pilota, bankuak ere bazeuden, izkinetan. Irene Arriasek ordu asko egin zituen han txikitan, gaztetan, asteburuak. Dantza taldean ere egon zen, bi aste, hiru, ez zitzaion gustatu. Kanpalekuetara joan zen, udetan, Aste Santuan, Gabonetan. Aspaldi ez zen Batzokira sartu, ez tabernara, ez patiora, bulegoetan sekula ez zen egon... Oso urrun ikusten zuen orain, ia egunero pasatzen zen aurretik, 20 urte baino gehiago ziren sartu barik.

Gurasoak biak EAJkoak, hango mendi-taldera sartu zuten Irene, izekoak ere EAJkoak, osabak, lehengusu batzuk, ez guztiak, ez osaba guztiak ere. Umetan berdin zion Ireneri norekin joan kanpalekuetara, ez

zion berdin. Hitz egin ere, politikaz hitz egiten zuen natural 10 urterekin Irenek, ume guztiek, lagunekin, familiakoekin... Ez da munduan leku asko izango, 10 urteko umeak politikaz hitz egiten, kalean, eskolan, etxean, baina uste baino gehiago beharbada, Palestina, Afganistan, Irlanda. Politikaz hitz egiten dute umeek hor, leku gehiagotan ere bai, leku askotan, hildakoez, presoez. Estatu Batuetan ez da gerrarik egon XIX. mendetik, jendea modu partikularrean hiltzen dute, baina Walt Disneyk berak ere 16 urterekin joan nahi izan zuen gerrara.

Francoren administrazioak eraikina lapurtu zion EAJri, urte batzuk geroago, gerra ostean. Eskola jarri zuten, *Escuela Nacional*. Baloreak ere mutur batetik bestera irakasten ziren urte batzuetan eta hurrengoetan: historia, hizkuntza, geografia. Atlasak ugertu egiten ziren hala ere, horitu, ez ziren horren erraz aldatzen. Irenek Batzokiko patioa inguratu zuen, saskibaloian egiteko saskien atzeko burdinak ikusi zituen.

Aurrera jarraitu zuen, baina atzera ere begiratu zuen lantzean behin. Kaleak bihurgunean zeraman ordea, eta ezin zuen garbi ikusi atzetik baten bat zetorkion. Arin ari zen, baina gehiegi nabarmendu gabe. Mojen ikastetxe parera heldu zenean, 20 bat urteko

mutil bat ikusi zuen beste espaloitik korrika, supermerkatu berriaren ondotik. Hori ere ez zen normala, astegun arrunt batean, edan gabe, atzetik inor izan gabe. Saltoka ariko balitz bezala egiten zuen korrika gainera, moteldu ere egiten zuen abiadura noizik behin atzera begiratzeko, askozaz arinago joan zitekeen. Manifestazioetako korrika egiteko modua gogorarazi zion Ireneri. Aurpegian larritasun handirik ere ez, ardura bai. Aurrera jarraitu zuen Irenek, astiroago, ordurako bazekien atzetik ez zuela inor.

Pintura-dendara heldu zenean, baina, beste gizon bat ikusi zuen korrika aurreko kaletik, metro-geltokitik Kirikiño aldera. Metro batzuk atzerago emakume bat, korrika txikian... Bikotea izan zitekeen, elkarrekin joan zitezkeen. Normalean korrika ikusten ez diren pertsonak iruditu zitzaizkion, gizonak kilo batzuk sobera ere bai, baina emakumea baino arinago korrika hala ere. Ez zirudien atzetik inor zutenik. Iruditu zitzaion Ireneri guztia ari zela arrarotzen Algortan, Algortako zati hartan.

Bikotea ikusteak geldiarazi egin zuen Irene. Telletxe zen beharbada joateko lekurik txarrena, 70eko hamarkadan bezala, 80koan: han grisak, polizia nazionalak... Orain ere baten bat zegoen han, efektu bera era-

giten zuena, Luis Alzaola, Sarria, Alzaolak bidalitakoak. Baina nor zen Luis Alzaola, noren aldekoa, orain indarrak lausoagoak zirela iruditzen zitzaion. Telletxerantz zihoan Irene eta joateko lekurik txarrena izan zitekeen...

Segundo gutxira, ordea, jende gehiago agertu zen Telletxetik, normal, aurpegi larriturik gabe: eskolaumeak, gazte bat, kirol-poltsa. Bikote bat ere bai, paseoan zirudiena, solasaldi naturala. Telletxetik zetozen guztiak, lasai asko. Horrezaz gainera, hiru-lau pertsona ikusi zituen Irenek Telletxera sartzen, metrogeltokira bidean, Sarrikobasotik, lasai horiek ere. Ez zuen ulertzen batzuen lasaitasuna eta besteen larritasuna, nahasian, zerbait ez zetorren bat.

Irenek erabaki zuen ikusi behar zuela zer zen Telletxen, zergatik ikusi zituen hiru lagun korrika, zergatik zetozen beste batzuk normal, lasai ere bai. Kantoira heldu zenean, astiroagotu egin zuen pausoa. Argi ikusi zuen bazter hartatik mugimendu handia zela metro-geltoki inguruan, 50 metro baino gehiagora. Ez zen normala, ordu horretan, asteguna. Izan zitekeen metro helduberri bat, baina ezetz iruditu zitzaion Ireneri. Metroak heltzen zirenean, berehala libratzen zen geltokia, norabide guztietara jendea, Torrene, Amezti,

Villamonte, Sarrikobaso, Salsidu. Metro inguruan pertsona asko zegoen pilatuta orain ordea, ez zen normala, asteguna, iluna abenduan. Pertsona batzuk noizean behin aldentzen ziren jende multzotik, baina berehala itzultzen ziren, mugimendu urduriak denak. Irenek argi zuen ez zuela hurbildu behar.

Irene Arriasek ulertu zuen erdiko kaleetatik urrundu behar zuela, neguan eta astegunetan jende gutxi zebilen kaleetara joan behar zuela orain. Algortako beheko alderantz hasi zen.

Orduan ikusi zuen bere burua galduen. Ordura arte etxe inguruan ibili zen, amaren etxe inguruan... Beheko kaleetara sartzen bazen, urrundu egingo zen, imajinatu ere ezin zuen egin nora joan behar zuen, baina ez zen beste modurik, ez zuen Irenek beste modurik irudikatzen. Salsidutik jaitsiko zen, Fadura pentsatu zuen, ez zekien zergatik, ez zekien nola, baina jende gutxi ibiliko zen Faduratik ordu horretan, ia inor ez, horregatik hasi zen harantz.

Salsidun behera arinago mugitu zen, aldats beherak ere laguntzen zion, ez zen nabarmen geldituko normala baino abiadura handiagoa hartzen bazuen. Batzuek esaten zuten handik jaitsi zela Eustakio Mendizabal *Txikia* ere hil baino une batzuk lehenago.

Beste bertsio bat ere bazegoen, beste leku batetik jaitsi zela... Irenek bertsio biak zituen buruan, baina Salsidukoa iruditzen zitzaion sinesgarriagoa, bidea luzeagoa izan arren, ilogikoagoa izan arren, Itsasondokoa zelako Eustakio Mendizabal, ETAko fronte militarreko arduraduna, ez zelako beharbada Algortan lehenago egon.

Villaondoeta kaletik hasi zen jaisten Irene, Salsidu bera baino aldats pikoagoa beharbada. Kale tristea Villaondoeta, ordu hartan, ordu guztietan, zabala izan arren, zuhaitzak eduki arren alde batean. Guztia zeukan kale egokia izateko, baina ez zen. Jendez ere kamutsa beti, hori interesatzen zitzaion orain Ireneri... Arinagotu egin zituen pausoak, luzatu, iruditu zitzaion ezin zuela inork ikusi, inor ez zela konturatuko, ia korrika bazihoan ere. Hiru aldiz begiratu zuen atzera, aldatsaren hasierara: ez zuen inor atzetik, hori pentsatu nahi zuen, baina begiradak ez ziren zehatzegiak ere. Komunera joateko beharraz ere ez zen ordura arte ohartu, erraz eutsi zion. Korrika hasteko gutxi falta zuen.

Aldatsaren erdia pasatu zuenean entzun zuen lehenengo eztanda. Geltokia baino apur bat gorago izan zela iruditu zitzaion, Alangon beharbada. Beste sasoi

bateko eztandak gogoratu zituen, baziren urte batzuk bonbarik gabe. Berehala pentsatu zuen ez zela lehergailu bat izan, ezin zela, istripua beharbada, gasolindegia, kamioiren bat, gasa. Carrero Blancorena izan zenean ere, poliziak gauza bera pentsatu zuen, errepidea bera lehertu zelako, barruko hodiak, gasa pentsatu zuten lehenengo momentuetan, Irenek bezala orain. Atzera begiratu zuen, ez zuen ezer ere ikusi, ez zeukan inor jarraitzen. Eztandako lekuan ez zen ezer ere ikusten, kerik, argitasunik, aurrera jarraitu zuen.

Beste eztanda bi entzun ziren segundo batzuk geroago ordea. Nahiko handia bat, txikiagoa bestea, hurbilago, Sarrikobason izan zitekeen, beherago ere bai. Orain zalantzarik ez Irenek, apropos lehertu zituzten, ez zen gasa, gasolindegi bat, hori ematen zuen, gogorra lehenengoa, txikiagoa bestea, edo urrunagoa beharbada. Hiru lehergailu minutu batean, Algortan bertan. Ez zuen gogoratzen hiru eztanda hain denbora laburrean inoiz, bata bestearen atzetik. Egon ziren beharbada, Irenek entzun ez arren, ez zuen gogoratzen...

Argi zegoen, beraz, eztanda gehiago egon zitekeela, egongo zela, Irenerengandik hurbilago beharbada. Beste tentsio puntu bat gehitu zion horrek, aurretik zi-

tuen tentsioen gainean. Algorta lehertzen ari ziren orain, zaila zen jakitea nork, arrazoia. Zati batean ez zen eztanda gehiago entzun, korrika ari zela ohartu zen Irene.

Berehala heldu zen ikastola ondoko parkera. Irene umea zenean putzua eta sasia han, askozaz gehiago ez, intsektuak, sorangilak, zapaburuak uretatik atera eta hil egiten zituzten. Begiratu ere ez zion egin parkeari, aurrera jarraitu zuen, segundotan heldu zen Fadurarako tunelera. Handik hurbil, metro batzuetara, hil zuten Eustakio Mendizabal 42 urte lehenago, horregatik aldatu zioten izena lekuari 1980an, Txikia plaza. Berriro izen bera, berriro gertakari bera, 1973koa, Txikia hil zutenekoa. Minutu gutxi batzuk baino ez zituen egin Algortan Eustakio Mendizabalek, tren-geltokitik Fadurako errepideraino, tiroa, Basurtuko ospitalea, arrasto asko utzi zituen hala ere. Izen berria debekatzen ahalegindu zen Gobernu Zibila orduan, ordea, 1980an bertan. Espero zitekeen, terrorismoaren apologia, 1975a baino lehenago terrorismoa existitu izan balitz bezala, edo terrorismo bakarra egon izan balitz bezala, edo bi, hiru, lau terrorismoren artean bakarra debekatu behar balitz bezala. Ezin izan zuten aldatu, ez dago argi zergatik.

Fadurarantz jarraitu zuen Irene Arriasek handik. Ez zuen eztanda gehiago entzun, zarata berezirik ere ez. Gizon bat atera zen taberna batetik, zerbait galdetu nahi balu bezala. Irenek ez zion kasurik egin, aurrera jarraitu zuen.

Ez zebilen auto gehiegi ere errepide nagusitik, Fadurakotik, baina tunela erabiltzea erabaki zuen, errepide azpikoa. Beste tunel bat, bigarrena gaur, laburra, segundo gutxitan zegoen kanpoan. Futbol-zelaiko atera arteko espaloian ere ez zegoen inor, isiltasuna goiko kaleetan baino askozaz itxiagoa. Fadurako aparkalekura joatea erabaki zuen, auto gutxi egongo zen, pertsona gutxiago. Kiroldegiak ez dira gauez erabiltzen, hori pentsatu zuen. Atzera begiratzen jarraitu zuen hala ere.

Atzean ez zuen inor ikusi, baina burua jiratu zuenean, eztanda handi bat entzun zen gorago, Sarrin beharbada. Segituan beste bi edo hiru eztanda, Algorta erdian seguruena. Ordura arte Irenek ezagututakoa baino askozaz gehiago zen hori... Egundo ez zen jarraian hainbeste eztanda izan, seguru zegoen orain. Beste zerbait zen hori, handiagoa, ematen zuen Algorta lehertzen ari zirela. Ideia txiki hori pentsatzeko astia izan zuen ozta-ozta, beste leherketa batzuk en-

tzun zituelako, lau baino gehiago. Zuhaitz baten ondoan gelditu zen, enborraren kontra eskumako sorbalda, alferrekoa zela ulertu zuen arte.

Posizio horretatik Algortako goiko partea behar zuen lekura begiratu zuen. Orain bai: kea, ke-zerrendak, leku bitan. Hirugarren batean ere ikusi uste izan zuen, baina ilunago, beltzago. Lau eztanda gehiago izan ziren gero, Irene zuhaitzaren ondoan zegoela. Bitan argitasuna ikusi zuen leherketaren une berean, kea gero. Kiroldegiko aparkalekurantz jarraitu zuen.

Igerilekutik atera berri zen andre bat ikusi zuen urrunetik. Arin zihoan, autora sartzera. Irene ikusi zuen.

¿Qué pasa? oihukatu zion Ireneri. Ez zen erantzunaren zain geratu. Irenek ere ez zuen erantzuteko asmorik, ez zekien, ez zuen hitz egin nahi. Autora sartu zuen andreak kirol-poltsa, Areeta bidera abiatu zen.

Aparkalekuan ez zegoen beste inor, baina autoak asko. Horrek esan nahi zuen edozein momentutan ager zitekeela baten bat. Irene Arriasek gutxien behar zuena zen hori, ez zuen inork ikustea nahi. Ez zekien nor ezagutzen zuen Luis Alzaolak, nor Sarriak... Erraza zen, dei bat: Faduran dago. Autoan hiru minututan

hel zitekeen edonor Alangobarritik, bi minututan ere bai.

Fadurako atzeko partera joan behar zuela pentsatu zuen, autorik ez zen leku batera. Ibiltzen hasi zen, baina buelta hartu zuen une batean, Algortako goiko parteari begiratu nahi zion berriro. Ez zen eztandarik, baina sua ikusten zen orain garbi puntu batean. Casino ingurua zela kalkulatu zuen, beste tentsio puntu bat. Ez zuen imajinatzen zer ari ziren lehertzen, leku publikoak, etxe partikularrak, ama, Ibon, umea, nerbio-hariak erretzen zituela pentsatu zuen.

Aurrera jarraitu zuen aparkalekuaren paretik. Gobela gaineko zubira heltzeko zegoenean, aparkalekuaren amaieran, auto baten galga entzun zuen, aparkalekuaren beste puntan: soinu zorrotza, baten batek autoa biolentzia handiz gelditu izan balu bezala. Buelta hartu zuen, gehiegi pentsatu gabe, zaratei begiratzeko ohitura Irenek. Ez zen autoa, furgoneta luze bat; motorra eteten ari zen momentu hartan. Irene ez zen ohartu segundo batzuk lehenago ondotik pasatu zenean, baina haren antzeko beste hiru furgoneta zeuden aparkalekuan. Berdinak ere izan zitezkeen, horren urrunetik ez zituen ondo ikusten. Aparkalekuko txoko berean zeuden hirurak, laugarrena orain.

Hiru ate zabaldu zituzten, gidaria atera zen, gidariaren ondokoa. Atzeko partetik ere lau-bost lagun irten ziren. Gidariak ez baina beste guztiek zerbait zeramaten eskuan. Errepidea korrika pasatu zuten guztiek gero eta etxe artera sartu, Algortako goiko parterantz. Erritmo horretan, pentsatu zuen Irenek, lau minututan ziren Telletxen. Furgonetakoek ez zuten atzera begiratu, hori eskertu zien. Fadurako atzeko partean ez zen inor bizi, ordu horretan ezin zen inor ibili.

Zubiaren beste aldean zegoela, beste furgoneta bat ikusi zuen aparkalekura sartzen. Iruditu zitzaion aurrekoa baino astiroago zetorrela, baina furgoneta guztiak zeuden izkina berean aparkatu zuen. Ez zuen Irenek gehiago ikusi, Fadurako frontoien atzeko partetik sartu zen. Atsedena behar zuela iruditu zitzaion, ahalegin fisikoagatik baino gehiago tentsioagatik, tentsio geruzengatik. Petril txiki batean eseri zen, lurrean ia. Euritakoa askatu zuen: oihala bustita zegoen eskua eduki zuen lekuan. Ez zen euririk, zerua ere garbi.

Berriro ibiltzen hasi zenean, Berangora joan zitekeela pentsatu zuen, baina kontua zen ez zituela bideak zehatzegi ere ezagutzen. Ez zekien zer topatuko zuen Berangon gainera, beti izan da herri delikatua. Errugbi-zelaiaren parean zegoenean konturatu zen

frontoien atzealdea zela lekurik onena beharbada, ilunena ere bai: jende gutxi, auto gutxi, argi gutxi. Gauerako behintzat, ikusiko zuen biharamunean, argia hasi baino lehenago betiere.

Frontoien atzeko partera heldu eta burdin hesia saltatu zuen, kiroldegi barrura sartu zen. Kanpoan jende gutxi bazebilen, barruan inor ez, ateak itxita harrezkero. Frontoietako hormatzarraren kontra jarri zen, zutabe baten ostean. Argi gutxi han, iruditu zitzaion landareekin nahasten zela bere arropa, ilunean, errepidetik pasatzen zirenek ere ezin zutela ikusi. Errepide txikia zen guztiarekin ere, estua, auto gutxi... Zalantza zuen aurpegiarekin, ordea: azalaren kolorea oso zuria, igarri ahal zion baten batek. Ilea zabaldu zuen masailetatik orduan, azkura egin zion, ile urdindu batzuk ikusi zituen. Hezetasuna sentitu zuen hanketan, poltsa gainean eseri zen.

Eztanda gehiago entzun zuen, sakabanatuagoak orain. Izan zitezkeen 20 minutu eztanda barik, isiltasuna arraroa, eztandak ere motelagoak. Ireneren tentsioak bueltak eman zizkion buruari, Ibon ekarri zuen burura, umea, ama. Hamarrak eta bost, eztanda gutxi, ia ezer ez. Tentsio-geruzak urtzen zituen, be-

giak itxi egin zitzaizkion, loaldi laburra, arin ireki zituen begiak.

Bizikleta bat pasatu zen errepidetik hamaikak laurden gutxiagotan. Atezuan jarri zen Irene mugitu barik... Handik ordu erdira zalantzan jarri zuen bizikleta ikusi izana ere, ezer ez zelako bestela mugitzen, eztandarik ere ez zen. Hankak besoekin babesten zituen, gonatik behera batez ere, hor hotza zorrotzen. Hankak apur bat epeltzen zituenean, loak hartzen zuen, loaldi laburrak betiere. Hotzak esnatzen zuen, zarata txikiek. Iruditzen zitzaion, bestetik, geruzetan pilatutako tentsioak kolpeak ematen zizkiola lantzean behin, eta horrek ere esnatzen zuela, dardara txiki batez, ilea masailetan zabalduta, ile urdindu batzuk, azkura.

III. Estartak. Sukarra. Odola

Ormazatik igo zen Irene Arrias. Ilun eguna oraindik, ez erabat, baina ez zuen behar bezala argitu. Tosu estartatik sartu zen berehala gero. Hara heldu nahi zuen, Tosura, inguruko estartetara, iruditu zitzaion inon baino jende gutxiago egongo zela estartetan. Fa-

durara agertuko zirela langileak, hori pentsatu zuen Irenek frontoiko atzeko partean zegoenean, kiroldegia egunero erabiltzen zutenak joango zirela, zortzietan, bederatzietan, ezin zuela han jarraitu. Ormazatik estartetara igo baino ordu erdi lehenago irten zen Faduratik beraz, salto egin zuen hesi gainetik, oso ilun oraindik, gona apur bat trabatu zitzaion metaletan.

Tosun ez zebilen inor noski, han egongo zen zain, ezkutatuta ahal bazen, sastraketan, hesien ostean beharbada, hori zen pentsatu zuena Faduran eserita, frontoien ondoan, esnatzen zenetan, tentsioak esnatzen zuenetan. Handik, estartetatik, entzun ahal izango zuen eztanda gehiago ote zen Algortan, ikusi ere ikusiko zuen zerbait. Estartetako etxeetan galdetzera ere ausartuko zen beharbada... Ez hasieran, ez lehenengo orduetan, baina arratsaldean beharbada, iluntzean, baserriren batean galdetuko zuen, txaletetan ez zen ausartzen. Algortatik urrunago zegoen estartetan Faduran baino, baina ez urrunegi ere: bezperako eztandak bazeuden, entzun egingo zituen.

Asun batzuen ondoan igo zuen gona, pantiak jaitsi, barruko arropak, makurtu egin zen, bigarren aldia zen bulegotik irten zenetik. Beste egoera batean sinetsi ere ez zuen egingo, hainbeste ordu, birritan baka-

rrik. Jan eta edan ere ez zuen ezer egin, horrek lagunduko zuen. Bestela ere ez zen Irene asko jan eta edatekoa... Sabelak abisuak eman zizkion gauean hala ere, goizean ere bai, Faduratik estartetara. Gainerakoan igarri ere ez zion egiten goseari, tentsioak gehiago ahal zuen oraindik beharbada.

Egoteko leku bat topatu behar zuela ulertzen zuen, horma baten ostean, hesi bat, zuhaitzak, inork ez ikusteko moduan, edo oso pertsona gutxik ikusteko moduan. Etxe erre bat ikusi zuen berehala Tosun bertan: teilatua jausita zati batean, baina zuela gutxi abandonatua seguruenik, pertsiana batzuk nahiko berriak. Ateak itxita zituela ikusi zuen, leiho batzuk apurtuta, baina oso txikiak pertsona bat sartzeko. Txoko bat zeukan ordea bazter batean, laneko gauzak gordetzeko seguruena: egurra, sokak, motorren bat, auto baterako lekurik ez, zutabe bat erdian. Zikin zegoen, galleta paketeak, patata frijituak. Ematen zuen umeak egoten zirela han, gazteak beharbada, etxea abandonatu eta gero, baina aspaldikoak plastikoak, lokaztuta, basatan. Apur bat barrurago koltxoi bat, txikia, oso pertsona txiki batentzat, oso zikina. Hurbiltzera ere ez zen ausartuko Irene beste egoera batean... Zapatarekin kolpe bat eman zion orain: bigunegia.

Zain egoteko leku ona iruditu zitzaion, baina arinegi topatu zuela pentsatu zuen Irenek, egongo zela leku hoberik beharbada, garbiagorik, altuagorik, Algorta zati bat ikusteko modukoa, eztandak berriro hasten baziren. Eztanda berriak non eta zelakoak ziren jakin nahi zuen, kea ote zegoen, sua, zein partetan... Etxe horretako txokoan ez zuen ezer ere ikusten, entzungo zuen arren, usaina ere gogorra.

Estartetatik jarraitu zuen, Martiturritik igo zen. Perunera heldu zenean, sorpresa ere hartu zuen: hango etxe gehienak berriak, edo berri itxurakoak, txaletak asko, zainduegiak. Iruditu zitzaion ez zitzaiola komeni inguru hori, ez zekien seguru zergatik. Bide osoan ez zuen gordeta egoteko lekurik topatu gainera, ez etxe errea baino hoberik.

Epelago zegoen eguna, guztiz argituta orain. Estartaren beste muturrean ate bat zabaldu zen orduan, garajekoa, apurka, bakarrik, autoa atera zen. Irenek buelta hartu zuen, aurpegia ez ikusteko moduan makurtu zuen burua, ileari masailetatik jausten utzi zion, jakako lepoa ahal bezain beste igo, behera egin zuen hurrengo estartatik.

Autoa oso hurbiletik pasatu zitzaion, ukitzeko moduan ere bai, baina Irenek kalkulatu zuen gidariak

ezin izan zuela ikusi. Gidariaren ondokoak aurpegiaren zati bat ikusi ahal izan zion agian, gidariaren ondoan baten bat bazihoan, Irenek ez zekien. Ulertu zuen, ordea, ezin zela balantzaka ibili, baterik bestera, itzuli behar zuela etxe errera, hango txokora, hango usainera.

Garbiagoa iruditu zitzaion txokoa bigarrenez ikusi zuenean, usaina ez horren gogorra ere. Oinak non jartzen zituen oso kontuan hartuz sartu zen barrura. Horma baten kontra jarri zuen sorbalda eta besoaren parte bat gero, alboz. Atseden minimoa hartzeko modu bat, ez zuen gauza gehiegi ukitu nahi.

Minutuak, ia ordu osoa pasatu zenean, hankak tolestu eta makurtuta jarri zen, horma ez zen beste ezer ukitu barik. Inguruari begiratu zion baina batez ere lurrari, oin azpian zuenari. Harri zapal bat hartu eta inguruko zorua garbitzeko ahalegina egin zuen. Ordu bi baino apur bat gutxiago egin zuen behera begira, zoruari. Ia etxeko egin zitzaion azkenean, urteak balira bezala ezagutu zuenetik, konfiantza hartu zion. Eguerdi partean jesarri ere egin zen, hotz zegoenik ere ez zitzaion iruditu. Ez zen eztanda gehiago entzun.

Alangobarriko etxean halla pasatu eta egongela, hormarik gabea, aterik gabea, zabala. Bitan banatuta,

jangela alde batean, erabiltzen ez dena, egon behar ez zuena beharbada. Mahaia erdian jangelak, traba egiten duena alde batetik bestera pasatzeko, balkoira joateko. Mahai gainean aldizkariak, gutunak, gutun-azalak, publizitatea, usb bat, giltzak, irakurri gabeko liburuak, irakurriko ez direnak beharbada, *Moroak gara behelainopean?,* Varujan Vosganian, *El tío Anghel*, zapiak, medikuen informeak, erradiografiak.

Iluntzera arte egon zen Irene Arrias etxe errean, antzeko jarreran, hormaren kontra, jesarrita, alde batera begira, bestera, ordu asko, ez zuen eztandarik entzun. Sabeleko likidoek kolpeak eman zizkioten, goizeko erdiko partean, eguerdian, arratsaldeko minutu jakin batzuetan. Eztanda bat izan zitekeen zarata entzun uste izan zuen bazkalondoko orduetan, baina beste zerbait izan zela erabaki zuen azkenean, itsaso aldetik beharbada. Lotan ere gelditu zen birritan, hirutan, hotza gorabehera. Haizetik gordetzen zuten hormek, atzeko partean zuloa egon arren. Haize ukitu txikiak sentitzen zituen, kanpoan gogor.

Iluntzean jarri zen zutunik, belaunak gogortuta, gerria, hotza. Salto batzuk egin zituen, kolpeak eman zizkion bere buruari, izterretan, besoetan, sorbaldetan, mugimendu arin batzuk egin zituen lurreko zikin-

keriak zapalduz. Irten behar zuela erabaki zuen, baten bati galdetu, zer izan zen aurreko egunekoa, zer zen orain, nortzuk, zergatik. Ondo pentsatu behar zuen nori galdetu, ezagutu zezakeen baten batek. Iruditzen zitzaion etxe zaharretara joan behar zuela, ez zekien ondoegi zergatik. Haizetara irten zen.

Estartetatik gora hasi zen, behera ezin zuen, trenbideak mozten zituen bideak. Ez zebilen inor, argia ere uste baino gutxiago. Bazter batera hurbildu zen hustera berriro. Harrigarri egiten zitzaion, ezer jan eta edan gabe... Makurtu egin zen, ez zuen gehiegi ezkutatu behar, iluna, sasi txiki batzuk. Gona behar den moduan jartzen ari zela, gerrian apur bat bilduta zuenean oraindik, emakume batek hitz egin zion, atzean:

– Zer behar duzu?

Ilunetik atera zen andrea. Orain aurpegiaren zati bat bereizi ahal zion Irenek, bular aurrean gurutzatuta besoak, begiak ere ilun, ahoa oso itxita. Gaztelaniaz esan zion, Qué necesitas, baina hitzak ebakitzeko moduagatik euskaraz jakin zezakeela iruditu zitzaion Ireneri, edo oso urrunekoa zela bestela. Ideia hori jende askorekin izan zuen askotan, adineko andreekin batez ere.

Hainbat ordutan beratutako tentsioak bueltatu zitzaizkion Ireneri orduan, segundo batean, lotsa ere bai, makurtuta egon zelako une batzuk lehenago, biluzik gerritik behera. Andreak mugimendu guztiak ikusi zizkion, ez zuen zalantzarik, beste norbaitek ere bai beharbada. Ez zekien zer erantzun behar zion, nola, baina gaztelaniaz jarraitu zuen badaezpada ere.

– No, gracias. Perdón.

Etenik gabe esan zituen hitz guztiak. Andreak ez zion konfiantzarik ematen, ez zion eman nahi ere. Haren etxeko atetik hurbilago zegoen Irenerengandik baino, besoak bularren aurrean gurutzatuta, oso estu, ahoa ere estu, begiak erdi itxita, iluna arren. Hala ere, Irenek galdetzea erabaki zuen... Ikusi egin zuen andreak harrezkero, identifikatu egin zuen identifikatu behar bazuen, galtzeko gutxi beraz. Una cosa, esan zion Irenek. ¿Qué fue lo de ayer?

Andreak begiak apur bat zabaldu zituen, ez gehiegi ere, galderak eskandalizatu izan balu bezala. Atzerantz begiratu zuen, etxeko aterantz, hitz egiteko besteren baten baimena behar zuela iruditu zitzaion Ireneri. Ezer ere ez zekiela esan zuen halako batean, horretaz ez zekiela ezer ere, No sé nada, yo, de eso no sé nada. Esku bat askatu eta lepoko gurutzea erabili

zuen atzamar artean. Erdizka eman zuen buelta gero, etxera sartzeko keinua, ematen zuen hizketa amaitu nahi zuela baina ez zegoela guztiz ziur. Irenek ulertu zuen zalantza hori aprobetxatu behar zuela.

– ¿Algo de comer tiene?

Andreak berriro egin zuen zalantza... Ondo jantzita Irene, garesti ere bai, poltsa, euritakoa, guztiari begiratu zion. Igartzen zen ez zela hura guztia andrearen parametroetan sartzen, ahoa ere apur bat zabalik zuen orain.

Etxeko atea ireki zen orduan, argi apur bat, goibela. Gizon bat irten zen handik, andrearen adinekoa, zaharragoa beharbada, bizarra txarto eginda, zatika, alkondara kanpotik. Ogi zati luze bat zekarren, zabala ere bai, botila bat ur eskumako eskuan, erdia baino gehiago beteta, etiketarik gabe, zaharra, mailatua. Andreari eman zizkion gauza biak gizonak, Ireneri emateko. Atzera sartu zen etxera, ez zuen atea itxi.

Irenek ura edan zuen andrearen aurrean, ez gehiegi ere, hotz zegoen, botila bueltatu nahi izan zion gero. Andreak ezetz esan zion buruaz, Zuretzako, Para ti. Euskaraz lehenengo, gaztelaniaz gero, Irenek ulertu izan ez balio bezala. Arraro egin zitzaion Ireneri aldaketa hori, ez zuen susmatzen zein azalpen izan

zezakeen. Andreak buelta hartu, etxean sartu eta atea itxi zuen. Barruko kisketari eragin zion gero, Irenek argi entzun zuen.

Gaua hobeto pasatu zuen, lo ere gehiago. Askotan esnatu zen, hori bai, askotan jarri zen atezuan. Sabela egokiago zuen, ogiarekin gutxika ari zelako. Bestelako zaratak sentitu zituen tripetan, baina aurreko egunekoak baino erosoagoak... Guztiarekin ere, nekatuago jaiki zen biharamunean. Tentsioa, pentsatu zuen, bigunago gorputza ere. Kolpeak eman zizkion bere buruari berriro.

Erabaki zuen ez zela egun osoan aterako. Iluntzera arte, pentsatu zuen, jende gutxiago zebilen arte. Jakin behar zuen zer zen aurreko eguneko guztia, naturalago galdetu behar zuen. Oso luze egin zitzaion eguna, ordea, makurtu, zutundu, apur bat ibili, lau metro.

Iluntzearen lehenengo minutuak sumatu zituenean, irteteko prestatzen hasi zen, zutunik, atetik hurbil. Luze iritzita ordurako, bigarren eguna estartetan. Uste baino argi handiagoa zegoen kanpoan ordea, ordu erdi gehiago itxaron behar izan zuen beraz, guztiz ilundu arte. Besoak atzera mugitu zituen, errotazio-

ak sorbaldetan, kirola egiten zuenean agintzen zieten bezala.

Aurreko hormak eta estartako bidea ilunarekin lausotzen hasi zirenean, arnasa hartu zuen Irenek, laster irtengo zen. Ondo pentsatuta zeukan ordurako nola galdetu, nondik bilatuko zuen jendea, etxeren baten atean ere joko zuen beharbada. Baina eztanda handi bat entzun orduan, gutxien espero zuenean, handik minutu batera beste bi, Algorta partetik. Guztia aldatu zuen horrek... Ez zen irtengo, makurtu egin zen, zutabearen atzean, zikinkeria lurrean, inon baino gehiago, berdin zion. Hogei minutu baino luzeago eztandak. Ogia gau horretan bertan amaitu zuen.

Hirugarren egunean aurrekoetan baino hotz handiagorekin esnatu zen Irene. Ariketa fisiko batzuk egin zituen, korrikaldi baten simulakroa ere egitea lortu zuen. Segituan hartu zuen tenperatura gutxienekoa.

Goizean ez zen eztandarik egon, eguerdian ere ez... Iluntzean ere ez bazegoen, irten egingo zen. Sabela berriro ere halamoduz, apur bat nahastuta, amaitu egin zuen geratzen zitzaion ura. Iruditzen zitzaion landareetarako erabiltzen zutela botila hura, ez edateko, plastiko zapore apur bat ere bai.

Hotza eta haizea gorabehera, estartetan zegoenetik ez zuen euririk egin, eskertu behar zuen hori, ez zekien teilatuak eutsiko zion. Ez zeukan urik orain ordea; euria eginez gero, hartu ahal izango zuen... Gorde egin zuen botila.

Iluntzean ez zen eztandarik egon. Bederatziak arte itxaron zuen Irenek, irten egin zen, gorantz egin zuen. Martiturritik hasi zen, Uri estartan egin zuen apur bat aurrera, baina buelta eman zuen Perunetik sartzeko. Iturrikane ikusi zuen, ez zen sartu, aurrera jarraitu zuen. Momenturen batean ez zekien ondo zein estartatan zegoen...

Etxe bateko atzeko mandan txakurren batentzako lekua ikusi zuen orduan, bueltan txakurrik ez ordea. Platerean jatekoa zegoen, ore zuri bat, arroza beharbada, purea, ez zuen uste, okela zatiak tartean agian.

Bazter batean makurtu zen Irene. Ikusi nahi zuen pertsonarik agertzen zen, txakurra atzetik aurrera zebilen... Leihoetan ez zegoen argirik, baina ordu laurden baino gehiago egon zen begira badaezpada ere, makurtuta, ostenduta. Ez zuen ezer ere ikusi.

Berarengandik bost metrora zegoen hosto handi bat hartu zuen. Hesia ere ez zen altuegia, gona ia gerriraino altxatuta saltatu zuen, txakurraren platererai-

no joan zen. Eskuaz hartu zuen arroza, okela zatiren bat, oso txikiak, ilarrak. Hostoan bildu zuen guztia, hotz, likatuta ere bai. Etxetik uste baino arinago irten zen.

Estartatik ibiltzen hasi zenean, bi pertsona ikusi zituen, urrunetik, gizonezkoak biak, trajez iruditu zitzaion. Pentsatu zuen ez zela komeni haiei galdetzea, ez zekien zergatik. Trajea, jaka luzea, keinuak egiteko modua, ez zien oihukatu nahi, orrazkera, ibiltzeko modua bera ere. Tosuko etxera itzuli zen Irene beste bide batetik.

Txakurrari hartutakoa jan zuen belauniko. Hasieran gogorra egin zitzaion, hotza, zaporea. Bost zati ahoratu zituenerako natural jaten jarraitu zuen. Apur bat gorde zuen biharamunerako, goizerako, eguerdirako, harri baten ostean.

Lehenengo loak oso arin harrapatu zuen, hamaikak ere ez ziren izango. Askotan esnatu zen, askotan lokartu, lehen ametsak ez zituen gogoratu. Esango luke txakurrak ikusi zituela ametsetan, ez zegoen ziur. Ez zitzaizkion txakurrak bereziki gustatzen.

Laugarren egunean apur bat alditxartuta jaiki zen lurretik, sabela nahastuta. Txakurrarena, pentsatu zuen. Iruditu zitzaion ez zuela txakurraren jatekoa

hartu behar izan, irentsi behar izan. Giharrak ere bigunduta zituen, hori ere sabelarena izan zitekeela pentsatu zuen, mina gerrian, beste juntura batzuetan. Laugarren eguna etxera joan barik, laugarren gaua, hotza, atsedena ere behar modukoa ere ez, jatekoa. Zutundu zenean, apur bat zorabiatu zen, berriro jarri zen belauniko. Mugimendu jakin batzuk egiten zituenean, areagotu egiten zitzaion botagura... Asko makurtu behar izan zuen eusteko, bularra belaunak ukitzen ia. Ordubete baino gehiago egin zuen horrela.

Berriro zutundu zenean, zorabioa txikiagoa izan zen lehenengo segundoetan, baina begi aurrean zuritasun bat nabaritu zuen ibiltzen hasi zenean. Atzera makurtu behar izan zuen bazter batean. Hirugarren aldiz zutuntzeko asko pentsatu zuen, beldurra ematen zion, beldurra hartu zion zorabioari, han, bakarrik, Tosuko etxean. Ahoan zapore arraroa, txakurraren jatekoarekin zerikusirik ez zuena.

Eguerdia baino minutu batzuk lehenago hasi zen apur bat hobeto sentitzen. Gorputza arteztu eta goragalea ez zen horren argia. Mugimendu absurdo batzuk egin zituen gero gorputzaldia neurtzeko... Nahasita zuen sabela, baina ez gehiegi ere, ez botatzeko moduan. Zutunik jarri behar zuela iruditu zitzaion. Zutu-

nik arraro zegoen, baina ez zen zorabiorik behintzat. Hango barruko giroa izan zitekeela ulertu zuen, horregatik sentitzen zuela burua arraro, egurastu behar zuela, haizetara irten, etxe ondoan beharbada, urrunegi joan gabe. Kanpora egin zuen.

Kanpoan pauso batzuk egin zituen gora eta behera. Alditxartuta zegoen baina barruan baino normalago, argiagatik beharbada. Bihotza azkarrago sentitu zuen une batean hala ere... Urduri jarri zuen horrek, zorabioa hasi zitzaion berriro... Etxearen kanpoko horman jarri zuen besoa, burua besoaren kontra, begiak itxita, makurtu egin zen, minutu batzuk egin zituen horrela. Ahots bat entzun zuen atzean orduan, estartatik.

– ¿Estás bien, *señe*?

Tentsio arraro bat eragin zion horrek, arin altxatu zuen burua, begiak ireki, atzera begiratu. Adineko andre bat, atzerago beste emakume edadetuago bat. Bertako etxeetan bizi zitezkeen, paseoan ibiliko ziren bestela, seguruena, arropa ere horretarako... Aurpegi txarra zuela esan zioten Ireneri, zerbait behar ote zuen.

Aurrerago zegoena Irenerengana hurbildu zen gehiago, baina ez zen ukitzera heldu. Bestea mugitu

ere ez zen egin. Irenek ezetz esaten zuen buruarekin behin eta berriro, ez zuela ezer behar. «Ez» esatea ere lortu zuen, oso ahots finez. Ez zuen gehiagorako indarrik, ezin zien ezer esan, ezer azaldu. Beldur guztiak joan zitzaizkion ordea, emakumeen itxura ere, aurpegiak, betaurrekoak, baina handik aldentzea nahi zuen orain, botagura.

Betaurrekoak mugitu zituen begien aurrean andreak, hobeto begiratu behar izan balu bezala, Irenerengan gauza berriren bat ikusi izan balu bezala. Atzera begiratu zuen gero. Gaztelaniaz jarraitu zuen Irenerekin:

– Sasieta zara zu... Ez zara? Ez da Sasieta hau, ala? –beste andreari esan zion–. Ama Sasieta... Noren alaba zara zu? Miren, Iciar, Begoñarena? Begoñarena behar duzu zuk... Edadeagatik. Begoñarena, ezta, Carmen? –atzera begiratu zuen–. Zer daukazu, *seña*? Nahi duzu baten bati deitzea?

Irenek ezetz esan zien ahal izan zuen moduan. Ezin zuen gehiegi ere hitz egin, ez zuen hitz egin nahi. Aitzakiak jarri zituen, hobeto zegoela, ia ondo, ia guztiz ondo. Pauso batzuk eman zituen kontrako noranzkoan, joan behar zuela, berandu helduko zela, norabaitera joan behar balu bezala. Emakumeek aurpegi

arraroekin agurtu zuten, ematen zuen ez zutela sinistu, berdin zion Ireneri, ez zion berdin. Emakumeen begiradatik kanpo zegoen lehenengo lekuan makurtu zen, botagura inoizko modu gogorrenean berritu zitzaiolako. Korrokada txiki batean arroz zati batzuk ahoratu zitzaizkion. Ondo eutsi zion.

Minutu batzuk egin zituen horrela. Emakumeak urrun zeudela kalkulatu zuenean, etxera itzuli zen Irene, txokora, makurtzera. Tanta txiki batzuk sentitu zituen, zerutik, iruditu zitzaion ez zuela asko botako. Azala berotuta zuela ulertu zuen.

Etxe barruan jesarrita hobeto sentitzen hasi zen, ordu txarrak pasatu arren. Sabelak bakea eman zion azkenean. Birritan zutundu zen, zorabio minimorik ere ez. Ezinegon beroa zuen hala ere, masailak, lokiak, iruditzen zitzaion sukarra izan zitekeela.

Ordu asko izan zituen pentsatzeko: goragalea, zorabioak, andreak. Ama ezagutzen zuten, ez gehiegi ere... Zalantza egin zuten noren alaba zen Irene, baina ematen zuen familia ezagutzen zutela. Poztu zuen horrek Irene alde batera, ia bost egun eta gero, lasaitu egin zuen, pertsona ezagunak... Une batean, baina, beste muturrera aldatu ziren Ireneren pentsatzeko moduak. Ulertu zuen emakume haiek ezagutu

egin zutela, identifikatu, bazekitela non zegoen, zer behar duzu, señe. Jende gehiagok jakingo zuen non zegoen Irene Arrias, arratsalde hartan bertan, biharamunean. Iruditu zitzaion, beraz, ezin izango zuela askozaz denbora gehiago egin han, beste leku bat bilatu beharko zuela, estartetan bertan beharbada, baina urrun.

Estartetatik kanpora ez zekien oso ondo nora joan zitekeen, nola egongo ziren ondoko herriak, Berango, Urduliz. Ez zuen urrunegi ere joan nahi hala ere, Ibon, umea, ama ere bai, askotan erabiltzen zituen buruan. Etxetik joateko prestatzen hasi zen halako batean.

Iluntzerako zerbait falta zen oraindik, baina ilun eguna ordurako. Izan ere, zaparrada itxia bota zuen ordubete lehenago... Teilatuak itogin lauso batzuk zituela ikusi zuen Irenek, erabiltzen ez zituen lekuetan ordea, zorte hori izan zuen. Hasieran ez, baina zaparradaren zarata handitu zenean ohartu zen: botila, ura behar zuen. Kanpora atera zuen botila, horma baten kontra jarri, eusteko harri bat hurbildu zion. Nahiko bete zen, apurka edaten hasi zen Irene.

Gora egin zuen iluntzean estartetatik beste behin, baina aurrekoetan baino urrunago joan nahi zuen, joan behar zuen. Martiturri, Perune, Zientoetxera

heldu zen. Hondartzarako errepidea han, auto asko, gehiegi, ez zitzaion komeni. Halako batean futbol-zelaia gogoratu zuen Irenek, errepide hartan bertan, apur bat aurrerago sartuz gero, estarta batetik, Murutik uste zuen. Inoiz egon zen, aspaldi, urteak, lehengusuen partiduetan... Zelaiak txoko asko zituela gogoratzen zuen, aldagelak, entrenamendurako beste zelai bat, zuhaitzak ere bai beharbada, hori ez zuen hain argi gogoratzen. Faduran pasatu zuen gaua ere gogoratu zuen, kiroldegian. Futbol-zelaira erabaki zuen beraz... Euria hasi zuen berriro apurka orduan. Euritakoa zabaldu zuen Irenek, baina eskuetara jausten zitzaizkion tantek azala mintzen ziotela ohartu zen.

Berehala heldu zen futbol-zelaira, uste zuena baino hobeto gogoratzen zuen. Atea itxita zegoen, baina zailegia ere ez barrura sartzea, nahiko ilunduta ordurako. Urratu bat egin zuen pantietan, harritu zen nola ez zuen ordura arte egin. Sumatu zuen azalean ere zauria egin zuela, izterrean, ez zirudien odolik zuenik. Joko-zelairaino joatea ala ez zalantza egin zuen.

Bidetik ondo eutsi zion, baina zelaira heldu zenean hasi zen sukarra argiago sentitzen... Ez zitzaion iruditzen altuegia ere zenik, 37 gradu, 37 eta erdi, baina

argi zuen sukarra zela. Gorputza bigunago sentitzen hasi zen orduan.

Etxe zahar bat erabiltzen zen aldageletarako, txarto zaindua, pintura, teilak. Ateak itxita zeuden noski, baina atarian ezkaratza zeukan, ez zen euria sartzen, sabai txiki bat, nahikoa Irenerentzat. Petril baten ostean eseri zen, uste baino babestuago: haizeak ukitu ere ez zuen egiten.

Sabeleko nahasiak eta sukarrak gosea kendu zioten. Ur apur bat edaten zuen lantzean behin, aho-zapore ugerra zeukan. Iruditu zitzaion ezin izango zuela han denbora larregi egin, entrenamenduak egongo zirela, jendea sartuko zela, baina pentsatu behar zuen nora joan zitekeen estartetatik irten behar bazuen... Sukarra aho-sabaian igartzen zuen beste inon baino gehiago.

Estartetatik kanpora joateko leku asko pentsatu zituen, Urduliz ez zuen txarto ikusten, Unbe ere bai, Butroe. Hara heldu behar zuen ordea, eta ez zituen ondo ezagutzen lekuak, bideak, erdizka dena... Ez zituen ezagutzen, noski, estartak bezala, Algorta bezala... Dena dela, hobeto egon behar zuen edonora joateko, sukarrik gabe behintzat. Junturetan min sikuak

sentitzen zituen batzuetan, ez beti; jasanezinak oso gutxitan, segundo gutxikoak.

Beste leku batzuk ere pentsatu zituen, Getxo barrukoak ere bai, Azkorri, Arrigunaga. *Malakateak* ere gogoratu zituen Irenek, tunelak, Ollarretxen hasten zirenak, Bilboko ur zikinak eramateko erabili zirenak, urak itsasora eramateko erabili zirenak aurreko mendean, zati batean. Bilbotik Algortarako hodiak beraz, itsasorainokoak, pertsonak zutunik sartzeko modukoak. Ate handi batzuk zituzten, behar baino askozaz handiagoak, *malakateak*, tunelak konpontzera sartu behar zenerako... Baina itxita zeuden noski, urteak, urak ez ziren handik eramaten itsasora orain, ez ziren ezertarako erabiltzen, inor ez zen sartzen. Irenek ez zekien hara sartzeko modurik izango zuen, sarraila apurtzeko erraza izango zen, atea, inoiz ez zion begiratu, baina estartetatik hurbil zegoen *malakateetako* bat... Horrezaz aparte, Algorta erdian ere gordetzeko lekuren bat ez ote zen egongo pentsatzen hasi zen Irene... Lotan geratu zen.

Horrela pasatu zuen egun osoa, erdi lo, erdi itzarrik, ur apur bat, sukarra, aho-sabaia, berriro lo. Ohitura zeukan ordurako hankak jaka azpian sartzeko, zabala jaka, beroa, eskertu egin zion bere buruari. Al-

kandorari kendutako oihal zati batez kentzen zituen mukiak, begietako likidoak ere bai.

Zarata batzuek esnatu zuten iluntzean, gau betea ere izan zitekeen. Ez zion erlojuari begiratu, ez zuen eskuen posizioa aldatu nahi, ez zuen mugitzeko gogorik. Estartak oso isilak izaten ziren gauez, egunez ere bai... Ematen zuen korrika ari zirela batzuk, oso urrun ere ez, pertsona bat baino gehiago, oihuak, zarata gogorrago bat, ez eztanda ere, baina larria, arina. Hitz batzuk ulertzeko ahalegina egin zuen Irenek, ezin izan zuen, ahots desberdinak, larrituagoak, haserreago, apalagoak, estuak guztiak. Tentsio lauso bat eragin zion horrek guztiak. Une batez barrundatu zuten estartetaraino heldu zirela, laster sartuko zirela futbol-zelaira. Erraz aurkituko zuten Irene, baina sukarrak ez zion tentsioari indartzen uzten, giharrak ere bigun. Lokartu egin zen berriro.

Egunak egin zituen Irenek futbol-zelaian, ezer jan gabe, ura, zarata gehiago entzun zituen estartetan, oihuak, egunez ere bai. Hitz batzuk identifikatu zituen, orain ez zuen zalantzarik. Estartetara heldu ziren, baina Irenek ez zeukan indarrik handik irteteko, han itxarongo zien, zelaiari begira, aldageletan, petrilaren ondoan, sukarra, giharrak, lo eta edan, leherketak lan-

tzean behin, Alangobarriko korridorean koadroak, Holandan erositakoak, kopiak, markoak ere merkeak, Ibon eta umea korrika korridoretik, oihuka umea. Ibonen zazpi pauso korridoreak, umearen hamaika, barreka umea. Ezkerretara gurasoen logela, gutxien erabiltzen zena etxean, lo egiteko, garbiena. Umeak ez zuen gurasoen ohean lo egin nahi, ez zuen goizetan hara sartu nahi, arraroa hori ere, kontrakoa entzun izan da beti, ume guztiek nahi izaten dutela. Gaixorik zegoenean soilik, orduan bai, eskuak hotz, eskuak beroegi, sukar desberdinak, aurpegia amaren ahoari itsatsita, aitarenari, usain desberdinak, desatseginak guztiak, musker ohea.

Ez zekien Irenek zenbat ordu egin zituen futbol-zelaian, zenbat egun, baina begiak zabaldu eta apur bat hobeto zegoela iruditu zitzaion. Ez zuen min zikin hori sentitu betazaletan, edo askozaz txikiagoa. Alde batera mugitu zen, belauniko jarri, zutunik zegoen gutxira. Etxetik bereiztu zen, uste baino arinago gorputza, junturak, ez betiko moduan baina solbentzia halako batez. Pauso batzuk eman zituen, zorabiorik ez, burua apur bat lausotuta hala ere.

Joko-zelaitik zazpi bat metrora zegoenean, gizon bat ikusi zuen belarretan, zelai erdian gutxi gorabehe-

ra. Ez zen klubeko langilea, hasieratik ulertu zuen Irenek: janzkera ere arraroa, futbol-zelai batean. Behera begira zegoen, zerbaiten bila, eta ez zuen Irene ikusi. Beste gizon bat ere bazegoen, geroago ohartu zen, zelaiaren beste aldean, kontrako kornerraren inguruan. Ondo jantzita, bufanda, zapia balitz bezala jarrita, behera begira hura ere.

Gehiegi nabarmendu nahi gabe, aterantz egin zuen Irenek, etxeko hormen ondotik, hormak ukitzen ia, mugimendu arinik egin gabe, gizonei begira betiere. Argi zuen orain alde egin behar zuela, topatu zutela lekua, gehiago etorriko zirela.

Atea zabalik zegoen, indarrean irekita itxura batean. Estartetara irten zenean igarri zuen hankak bigun zituela, ahalegin itzelik ere ezin zuela egin. Ahotsak entzun zituen, korrikaldiak, kolpeak... Iruditu zitzaion gero eta hurbilago zituela... *Malakateena* probatu behar zuela ulertu zuen orduan, tuneletan sartu, han pentsatuko zuen zer gero, nora.

Uriko estartatik sartu zenean, atzera apur bat begiratu eta Perunetik baten bat korrika zetorrela iruditu zitzaion, zarataka, baina ez zegoen seguru ere. Ahal izan zuen bezain arin egin zuen, uste baino lehenago heldu zen *malakatera*. Bultzada eman zion atea-

ri, kolpe bat, ez oso gogorra, atearen zati bat jausi zen barrurantz: 30 zentimetro koadroko lauki bat, ate osoa laukiz eginda egongo balitz bezala... Handik bultzatu eta erraz zabaldu zen atea. Harrigarri egin zitzaion lehenago inork ireki ez izana, horren erraz, umeek, gazteek. Barrura sartu zen.

Ilun zegoen barruan, irregularra zorua, gauza zurrunak zapaldu zituen, bigunak ere bai. Atetik urrundu behar zuela iruditu zitzaion, barrurago sartu behar zuela. Zenbat eta barrurago sartu, ordea, hobeto ikusten zuela konturatu zen, kontrakoa behar zuela ematen zuen arren. Bidea erraz ibil zezakeen, ez zuen ulertzen nondik sartzen zen argia...

Kolpe bat hartu zuen Irenek aldakan orduan, bere ondotik zerbait pasatu izan balitz bezala. Gehiegi ibiltzen ari zela iruditu zitzaion halako batean eta gelditzea erabaki zuen, argi gutxien zegoen bazter batean. Gurutzatu egin zituen besoak bular aurrean.

Minutu batzuk egin zituen horrela, baina zaratak entzun zituen etorritako bidetik berriro, urratsak, ahotsen bat ere entzun uste izan zuen. Atzetik iruditu zitzaizkion mugimendu guztiak, eta argi ulertu zuen aurrera egin behar zuela, lehen baino arinago beharbada. Konfiantza hartu zuen, gehiegi agian, estropezu

egin, aurreraka jausi zen, eskuak jarri behar izan zituen zoruan. Ezkerreko eskuan min arraroa hartu zuen, kezkatu ere egin zen, hango ugerra... Ez zekien odola egin zuen, ez zuen ikusten, zerekin hartu zuen min hori ere ez. Eskua bustita zuen, hango zoruko urak izan zitezkeen, odola ere bai. Aurrera jarraitu zuen, larrituta, eskuagatik gehiago atzekoengatik baino. Ez zuen berriro estropezurik egin, argi zabalago bat ikusi zuen hogei bat metrora.

Argira hurbildu zen Irene. Ikusi zuen zuloa zegoela tunel zati batean, sastrakek nahikoa estalita, pertsona bat sartzeko modukoa hala ere. Asun batzuk, hosto zabalak, zurtoin finekoak guztiak ere, erraz apurtzeko modukoak, erraz atera zitekeen handik.

Imajinatu ere ezin zuen egin Irenek non zegoen, ordea. Luzaro ibili zen tuneletik, hori iruditzen zitzaion, Andra Mari eta itsaso artean edonon. Zalantza egin zuen handik irten ala ez... Gehiago hurbildu zen zulora orduan, hosto batzuk baztertu zituen, baina ez zen gehiegi ere ikusten, sasi gehiago baino ez, belarra. Kolpe batzuk entzun zituen kanpoan orduan, metalikoak. Tentsioa eragin zion horrek, pentsa zitekeen baten bat egon zitekeela han.

Ez zen beharbada aukerarik onena irtetea, pauso bat egin zuen atzera, tunel barrurantz, baina berritu egin ziren tunel barruko zaratak orduan, lehen baino askozaz argiago, ahotsak, pausoak, linterna argiak ere ikusi uste izan zuen.

Ulertu zuen ez zuela beste erremediorik, sasiak apartatu zituen, hostoak apurtu, baztertu ahal izan zuen guztia, kanpora irten zen. Sastraketatik erdi zorabiatuta atera zen, asunen errea sentitzen zuen, aurpegian, besoetan... Gona trabatu zitzaion, pantiak, jaka... Guztietatik libratu zenean, arropa orekatzeko ahalegina egin zuen.

– Hamen kontuz ibil ber da...

Esan zion beragandik lau bat metrora zegoen gizon batek. Hitz egiteko moduari erreparatu zion Irenek, lagundu nahi ziola iruditu zitzaion, oso modu egokian esan zion esaldia, kontuz ibiltzeko, ahotsa ere familiakoa egin zitzaion, lehengusu batena, osaba batena. Makurtzeko esan zion, makurtuta ibili behar zela han. Ezkerrean beste gizon bat zuela ohartu zen Irene, eta biak zeudela makurtuta, biak antzera jantzita. Berdin makurtu zen Irene bera ere.

Gizonetako batek keinua egin zuen orduan eskuaz, aurrera joateko aginduko balie bezala. Beste gi-

zonak kasu egin zion, eta Irenek ere ulertu zuen ezin zuela besterik egin. Makurtuta ibili ziren hirurak, aldats txiki bat igo zuten. Galean zeudela ikusi zuen Irenek, dorrearen ondoan, itsasoari begira, labarrean. Ez zen haizerik, hotza aurreko egunetan baino apalagoa.

Dorre ondoko bateriara hurbildu ziren gero. Beste hiru gizon zeuden han, antzeko arropekin, aurpegiak ere antzekoak: bat etzanda, beste biak jesarrita, paper bat irakurtzen bietako bat. Irene ikusi zuenean, berehala altxatu zen paperekin ari zena, salto batean. Ez zen guztiz zutundu, ordea, makurtuta hurbildu zen Irenerengana.

– Eskerrak heldu den...

Ireneri begira esan zuen hori gaztelaniaz, baina besteentzat hitz egin zuen. Sorbaldatik hartu zuen gizonak orduan Irene, suabe, eroso, eta aurrerantz eraman, kanoia zegoen lekurantz, kanoi ugerra, luzea, itsasoari begira. Irenek inoiz ez zuen kanoi modu hori ikusi, jesarlekua zeukana tiratzailearentzat atzeko aldean, metal berberaz egina, kanoiari lotuta, pieza bera balitz bezala, kanoia, jesarlekua, tiratzailea. Tiratzailearen lekuan jesartzera gonbidatu zuen gizonak Irene, keinu natural baten bitartez, emakumea heldu arte tiro egiteko inor egon izan ez balitz bezala, Irene

balitz bezala mekanismoa ulertzen zuen bakarra. Errespetu falta iruditu zitzaion Ireneri orduan uko egitea, tiroa nola jotzen zen ez zekiela azaltzen saiatzea, alferrik egon zirela itxaroten. Begira zituen beste gizon bi ere, oso gazteak biak, aurpegiak oso antzekoak.

Kanoian eseri zen Irene beraz, erosoa jesarlekua, kontrakoa zirudien arren, metalezkoa zen arren, oinak pausatzeko lekua ere bazuen. Eskuen parean botoi batzuk ikusi zituen, palanka txiki batzuk, ugertuta guztiak, lokatzez. Iruditu zitzaion Ireneri haiei eraginda ere kanoiak ez zuela ezer ere egingo, ez tirorik, zirkinik, urteak abandonatuta egon izan balitz bezala. Heldulekuei oratu zien ordea, seguru: gizonari adierazi nahi zion bazekiela zer egin behar zuen, nola.

Gizonak esan zion itsasoari bota behar ziola, itsasoari tiro, ezer ikusi ez arren, ekialdera beti, eskumara, handik sartu nahi zutela, Algortara, Bilbora. Esan zion hogei minuturik behin jotzeko tiroa, hogeita bost minuturik behin, pongamos veinte minutos, veinticinco. Gaztelaniaz egin zion.

– Italiarrak, esaten dute, greziarrak, barku greziarrak, errumaniarrak. Nik ez dut sinesten errumaniarrena, itsasotik errumaniarrak... Italiarrak seguru...

Oraindik ez dira honaino sartu... Ez dute hil nahi... Ez die merezi... Zuk tiro itsasoari, hogei minutu, hogeita bost...

Guztiari baietz esan zion Irenek, gizonak sosegua hartzea nahi zuen, urduri gizona. Tiro egiteko mekanismoa prestatzen ariko balitz bezala egin zuen Irenek. Alde egin zuen gizonak, besteekin bildu zen.

Bakarrik gelditu zenean, botoiei begiratu zien Irenek, palankei. Erdi ezabatuta zeuden botoien gaineko letrak, ezin zuen bakar bat ere irakurri. Lokatza garbitzen ahalegindu zen, baina lokatzarekin batera letrak ere nahasten zituela iruditu zitzaion.

Itsasoari begiratu zion gero, nahiko harrotuta, barkurik ez, urrun ere ez. Ireneren begiak ere ez ziren perfektuak ordea, miopia arrastoak, baina erraz igarri ahal zuen ez zela barkurik. Atzera begiratu zuenean ohartu zen besteak ez zeudela berari adi, inor ez zela konturatu oraindik ez zuela tirorik jo. Lasaitua hartu zuen, berriro jarri zen aurrera begira.

Bere eskuman beste kanoi bat zegoela ikusi zuen orduan, berearen antzekoa. Jesarlekuan gizon bat, gaztea, Ireneri begira, baina begiak oso itxita, betazalak erditik behera ere bai, aurpegi lokartua, lausoa. Irene begira zuela konturatu zenean, aurrera begira

jarri zen gizona, kanoiari heldu eta tiro egin zuen itsasora. Irenek argi bizi bat ikusi zuen beste kanoian, aurreko muturrean, baina tiroaren hotsa motela izan zen, arropak igurztean entzuten dena baino askoz gehiago ez, praken hankek elkar ukitzen dutenean esaterako. Arraroa egin zitzaion Ireneri, leherketa bat espero zuen beharbada, baina aldi berean horrek azaltzen zuen zergatik ez zuen ordura arte tiro-hotsik entzun. Gazteak esan zion:

– Italiarrak...

Irenek ez zuen jakin zer erantzun, atzera begiratu zuen berriro. Jakin nahi zuen besteek zerbait ikusi ote zuten, konturatu ote ziren ordurako Irenek ez zekiela kanoia erabiltzen. Hiru gizon baino ez zegoen orain atzean, mahai baten bueltan eserita, egurrezko mahaia, egurrezko aulkiak, ez zuen ulertzen nondik atera zituzten. Kartetan ari ziren, Ireneri begiratu ere egin gabe. Kexatzen ari ziren, laugarrena falta zitzaiela, kartetan behar den moduan egiteko. Ari ziren hala ere, oso sartuta partidan.

Ezkerreko hankan zerbaitek ukitu ziola sentitu zuen orduan Irenek. Behera begiratu zuen: txakur txiki bat, ile sarrikoa, ez zuen ulertzen zelan ukitu zion belaunetik gora. Katez lotuta zegoen, emakume bat

ondoan, katea eskuan, paseoan. Berrogeita hamar urte baino gehiagokoa andrea, ondo jantzita baina mendiko botak. Barkamena eskatu zion Ireneri eta aurrera jarraitu zuen.

Kartetan ari zirenen ondotik pasatu zen segundo batzuk geroago. Gizonek aulki librea seinalatu zioten, eurekin jokatzera gonbidatu zuten, laugarrena falta, eseri behar zuela, batek besotik ere heldu zion. Emakumeak oso mugimendu finez askatu zuen besoa, behartu gabe, ernegatu gabe, esan zien ezin zela geldi-tu, txakurrak libratu egin behar zuela oraindik, etxerako asko falta zuela. Gizonek aholkatu zioten orduan ez joateko bide hartatik, italiarrak lurretik ere hurbiltzen ari zirela, handik, bide hartatik hain zuzen, errumaniarrak, magyarrak, serbiarrak. Emakumea sasi batzuen ostetik desagertu zen.

Irenek kanoiari begiratu zion berriro, botoiei, palankei, ez zion antzik ematen, edozein saka zezakeen, asmatu egingo zuen halako batean. Baina ulertu zuen txarrerako ere izan zitekeela, leherketa bat, sua, kea, gas toxikoak. Ez zuen ezer ukitu eta beste kanoikoari begiratu zion, harena kopiatu ahal zuen beharbada... Iruditu zitzaion, ordea, lehen baino urrunago zegoela beste kanoia, hazpegiak ez zizkion horren argi ikusten

orain gizonari. Ez zuen ulertzen zelan mugitu zuen kanoia bakarrik, laguntza barik. Gehiegi ere ez zuen pentsatu.

Ez zekien hogei minutu pasatu ote ziren agindua eman ziotenetik, hogeita bost minutuak. Tiro bat eginda izan behar zuen ordurako beharbada, bi ere bai, 20 minutu, 25, denbora ezin zuen modu naturalean kalkulatu.

Pertsona baten oihuak entzun zituen atzean orduan. Buelta eman zuen, kanoiaren eserlekuan bertan. Atzean gertatzen ari zena inork baino hobeto ikusi behar zuela iruditu zitzaion... Lehengo hiru gizonak zeuden atzean, mahai berean eserita, baina ez zeuden kartei adi, burua altxatuta zeukaten, ekialdera begira. Handik oihuka zetorren gizon bati begira ari ziren hirurak, oso adi. Beste guztiak bezala zegoen jantzita ekialdetik zetorrena, antzera behintzat, baina untxi baten burua zekarren eskuan. Untxi normal batena baino askozaz handiagoa burua, ia pertsona batena bezalakoa, ez hainbeste ere. Besoaren eta saihetsen artean zekarren bilduta, pilota bat balitz bezala, futbolekoa, errugbikoa, eskubaloikoa, pentsatu zuen Irenek.

Halako batean, untxiaren burua eskumako eskuaz hartu eta mendebaldetik trostan zetorren beste gizon bati bota zion, indarrez. Mendebaldeko gizonak oso modu egokian harrapatu zuen. Bularraren kontra jarri zuenean, ordea, untxiarena baino, pertsona baten buruaren itxura gehiago zuen, ume batena. Beste kanoiko gaztearen aurpegiaren antza zuela iruditu zitzaion Ireneri une batean. Kanoikideari begiratzeko burua jiratu zuen orduan: ez zegoen.

Mendebaldeko gizonak ekialdekoari itzuli zion burua berriz, oso pase egokia. Baina ekialdekoak hartu zuenean, garbi ikusi zen ostera ez zela pertsona baten burua, ume batena... Untxia zen berriro, edo untxi eta txakur baten arteko nahasketa beharbada, belarriak ere laburragoak.

Nabaritzen zen, bestetik, denbora gutxi zela burua gorputzetik banandu zutenetik: odola zuen lepoan, freskoa, samatik. Ekialdeko gizonaren alkandoran orbanak uzten ari zen, oso biribilak, zigilua balitz bezala, alkandora zurian.

Mahaikoek jesartzeko eskatu zioten ekialdeko gizonari, eurekin jokatzeko, bat falta zutela. Ezetz esan behar izan zien gizonak, egiteko bat zuela... Mende-

baldeko gizona seinalatu zuen orduan, harekin joan behar zuela, itxaroten zegoela.

– Eutsi hau.

Untxiaren burua jarri zuen mahai gainean, laugarren jokalariak beharko zukeen lekuan. Alde egin zuen gero mendebaldeko gizonarekin. Mahaikoek kartak banatu zituzten eta untxiaren buru aurrean ere jarri zituzten lau.

Partida hasi orduko, ostera, zaratak hasi ziren mendebaldetik, leherketak, oihuak, kolpeak. Kartak eta aulkiak harrika bota zituzten mahaikoek orduan... Hiruretako batek oihu egin zion Ireneri, uzteko kanoia, etortzeko. Irenek ez zekienez zer egin, nora joan behar zuen, gizona harengana hurbildu eta besotik heldu zion. Kanoitik apartatu zuen.

Korrika hasi ziren makurtuta gero. Irenek mendebaldera begiratu zuen, pertsona asko zetorren handik, aldrak, urrun oraindik baina arin, ezin zuen argi ikusi, korrika ari zen, makurtuta. Italiarrak, pentsatu zuen Irenek, serbiarrak. Novak Djokovicen aurpegia etorri zitzaion burura, pentsamendu absurdoa.

Tuneleko zulora heldu ziren, Irenek tuneletik irteteko erabili zuenera. Asunak apartatu zizkion gizonak, handik sartzeko esan, etorritako bidetik joateko, tune-

lean ez zegoela inor ere. Irenek ezin zuen ulertu nola jakin zezakeen gizonak tunelean ez zegoela inor ere, ezin zen jakin. Gizonak esan zion estali egingo zuela zuloa handik sartu eta gero.

– Italianok tunelera sartu zedittezan.

Irenek ez zion azken hori ulertu, berdin zion, ez zion berdin. Zulotik sartu zen, atzera egin zuen tunelean. Egia zen barruan ez zela ezer ere entzuten.

Luze ibili zen, ilun, etorritakoan baino bide laburragoa egin zuela iruditu zitzaion hala ere. Beste zulo bat ikusi zuen halako batean, handiagoa, pertsona bat ateratzeko bestea baino askozaz errazagoa, sasi gutxiago, asun gutxiago, eskuaz apartatu gabe ere atera ahal izan zen. Buruan kolpea hartu zuen goiko adar lodiago batez.

Estartetara irten zen, lainotuta eguna. Begiak ohitu zituenean, ohartu zen futbol-zelaiaren ondoan zegoela berriro. Arraro egin zitzaion, ez zen logikoa, ez zuen gehiegi pentsatu. Neke guztia etorri zitzaion orduan kolpera, sukarrarena, tentsioarena, korrikaldia, kanoia. Belauniko jarri zen, estarta bazterreko belarretan, behera begira. Tripa nahasita berriz, zorabioa sentitu zuen belauniko ere. Belarretan etzan zen, ez zuen zalantzarik egin, belarra heze zegoen arren.

Gonan sentitu zuen bustia batez ere, barruko arropetaraino busti sentsazioa, jakan ez hainbeste.

Irenek ez zekien zenbat denbora egin zuen jarrera horretan. Nekatuta zegoen, gaixorik ere bai, uste baino gehiago. Esku batek besotik heldu zion halako batean... Eskuaren zabaleragatik eta egin zion presioagatik gizon batena zela ulertu zuen, gizon handi batena. Lurretik altxatzen lagundu zion.

– Irene Arrias?

Irenek baietz esan behar izan zion, ez zeukan besterako indarrik. Ulertu zuen nor zen, zertara zetorren, ez zuen kontra egiteko modurik, erabaki zuen ez ziola kontra egingo.

Gizonari begiratu zion orduan, ondo jantzita; beste gizon bat ere ikusi zuen atzerago, altuagoa, zabalagoa. Esan zioten eraman egin behar zutela, etxe batera, ez urrun, Alzaolak tema handia izan zuela. Azken hori esan zuten moduagatik ematen zuen inork ez zuela ondoegi ulertzen Alzaolaren tema.

Eramaten utzi zien Irenek, ez zien kontra egin, ulertu zuen ezin zuela. Auto batean sartu zuten, Zientoetxen.

IV. Gelak. Minak. Pantailak

Autora sartu zutenean ohartu zen Irene begiak erdi lausotuta zituela, buruari ere ezin zion eutsi, bueltak, beste mota bateko zorabioa. Aurrera begira jarri zen, puntu zehatz batera. Hiru gizon zeuden autoan, gidaria eta beste bi, Ireneren alde banatan. Irenek ez zien begiratu ere egin, aurrekoaren garondoari baino ez, ezin zuen burua jiratu, hori uste zuen.

Iruditu zitzaion ez ziola bidaian eutsiko, konortea galduko zuela, botaka egin, zerbait, ez zekien seguru zer, bihotza ere arraro, arnasa. Nahiko ondo tratatu zuten autora sartu arte.

Bidea ez zen luzea izan, oso laburra beharbada, besterik iruditu zitzaion Ireneri. Eskertu egin zuen autotik irten zirenean, haizeak on egin zion, ez gehiegi ere. Bide estu batetik eraman zuten, behera begira Irene... Harri xehez eginda bidea, landua, harri zuriak, zainduta. Gehiegi zainduta zegoela pentsatzera heldu zen Irene. Eskailera batzuk etxeko atearen aurrean, ate handia.

Iluna etxea barrutik, egur asko, korridoreak, alfonbrak ere ia beltzak. Gela handi batera sartu zuten gero, etxeko korridoreak baino argiagoa, oso argia ere

bai, min eman zion begietan. Gela oso ondo jantzita zegoela iruditu zitzaion Ireneri lehenengo momentuan: ohea, besaulki bat, mahaia, aulkia, ispilua, koadroak, leiho handi bi, leihateak ere izan zitezkeen, alfonbrak lurrean, izarak eta tapakiak ohean, ohe-estalkia ere bai, berde desberdinetakoa, ohe-burua ere egurrez, egur ona ematen zuen, landua. Irene apur bat harritu zen, erosoegia guztia, oso pentsatuta, diru asko.

Zapatak kentzeko esan zioten. Ohean eseri zen, lan handia zapatak kentzea, asko kostatu zitzaion. Gizonek pausoak egin zituzten atzera eta aurrera... Irenek ezin zien belaunetatik gora begiratu, bueltaka hasten zitzaion burua altxatzen zuenetan. Gizonen arnasaldi kolpeak entzuten zituen, itxaroten nekatuta zeudela iruditu zitzaion, baina ezin zuen beste ezer egin, sorbaldak min ematen zion zapatetatik tiratzen zuenean.

Jaka ere seinalatu zioten kentzeko. Hasi zen Irene, laguntzea erabaki zuten gizonek. Oso modu egokian lagundu zioten jaka kentzen, oso modu delikatuan. Irene ohartu zen orduan egunak egin zituela jaka kendu gabe, egun asko, bulegotik irten zenetik. Arin sentitu zuen gorputza pisu hori barik, azal modu bat

kendu izan baliote bezala, deseroso ere bai. Iruditzen zitzaion organoren bat babesten ziola arropa horrek, giltzurrunak, gibela, birikak. Pentsatu zuen berriro jartzeko eskatuko ziela, ez zien azkenean eskatu, ez zuen gehiegi pentsatu.

Ohea zabaldu zion bietako batek. Orduan ikusi zituen Irenek izarak, zuriak eta berdeak, tapakiak, asko, berde ilunagoak. Ondo pentsatuta zeuden kolore guztiak, negu-negurako jantzita ohea. Keinu bat egin zion gizonak Ireneri, delikatua nahi zuena, uste baino zakarragoa. Irenek kasu egin zion, ezin zuen besterik egin, ohera sartu zen. Ez zuten tapatu, Irenek berak egin zuen, min hartu zuen atzamarretan, hotz zituen. Atetik irten ziren gizon biak.

Iruditu zitzaion zorabioa asko apaltzen zitzaiola etzanda, baina begiak itxi zituen badaezpada ere. Soin-adarrak epeltzen sentitu zituen, tapaki asko, jakaren falta ahaztu zuen. Loak hartu zuen, nola ez zuen hartuko, ametsak, sukar apur bat.

Ordu asko egin zituen lo, hori iruditu zitzaion. Esnatu egiten zen lantzean behin, ez zituen begiak zabaltzen, berriro lo, askotan egin zuen. Batzuetan argitasuna ere sumatzen zuen betazaletatik eta begiak zabaltzera ausartu zen halako batean: min hartu

zuen, buru barruan ere min. Berriro itxi zituen, berriro lo, ametsak, batzuk oso ondo gogoratu zituen.

Iruditu zitzaion egunak ere egin zituela lotan, argia, iluna, gaua, beharrizana ere izango zuen, estartak, tunela, Tosu, kanoia, futbol-zelaia. Ematen zuen sukarra ez zela guztiz joaten, beti sentitzen zuen hondar bat, arnasan batez ere. Begiak gehiagotan irekitzen hasi zen, gelako argia oso gogorra iruditu zitzaion, apurka ohitu zen.

Beso bat atera zuen tapaki azpitik, apur bat agondu, gelari begiratu zion. Erretilu bat ikusi zuen alfonbran, ohearen ondoan, ogi zatiak, ura, pernil apur bat, fruitu lehorrak, gazta. Irenek ez zion sabelari erreparatu aspaldi, gose hondakin bat erne zitzaion orain. Edan egin zuen, ogia, pernil zati bat. Erantzun arraroa egin zion sabelak, atzera etzan zen.

Sabela baretu zitzaionean, loak hartu zuen berriro, luze orain ere, tapakietatik kanpora besoak ordea. Esnatu zenean, askozaz hobeto sentitu zuen bere burua, nabarmen, sukar apur bat oraindik beharbada, erraz kontrolatzekoa. Ohean jesarrita ez zuen zorabiorik izan, ezta zantzurik ere.

Erretiluko gehiena jan zuen orduan, astiro hala ere: ulertzen zuen ezin zuela oraindik gehiegikeriarik

egin. Fruitu lehorrak irenstea kostatu zitzaion batez ere, ura arinegi amaitu zen. Zutunik jarri zen Irene.

Hormak, besaulkia, mahaia ukitu zituen. Kalitatea ona, hori iruditu zitzaion... Koadroak ez ziren kopiak, ez zekien onak ziren ala ez, hainbesteraino ezin zen heldu.

Ateraino joan zen gero. Ez zekien norbait egongo ote zen beste aldean, zaintzen beharbada, logikoena izango zen, baina probatu behar zuen. Indar gutxi egin zuen eskuaz, gutxi baino gutxiago, baina berehala nabaritu zuen itxita zegoela, milimetro bat ere ez zuelako behera egin. Segituan apartatu zen handik.

Leihoetara egin zuen orduan: handiak leihoak, pertsiana bakoak. Ez zitzaion Ireneri logikoa iruditu atea itxi eta leiho haiek libre uztea. Izan ere, ohetik ikusita, leihoek ez zeukaten burdin hesirik, argi gehiegi sartzen zen.

Errezelak erretiratu zituen: lehen solairua, ez oso altua, belarra behean, zuhaitzen bat, harrizko mahai bat, aulkirik gabe, zeru asko ikusten zen. Erratuta zegoen, ordea: sare bana zeukaten leihoek, zulo askoz, zulo txikiz, baina material berezi batekoa... Metala ematen zuen, baina gardena zen, argiari atzera eta

aurrera pasatzen uzten ziona, trabarik gabe, distira desatsegin batzuk ere egiten zituena lantzean behin.

Leihoa zabaldu zuen Irenek, erraz, pvc normala. Sarea nolakoa zen ikusi nahi zuen, ukitu nahi zuen, izango zuen zuloren bat behartzeko modukoa beharbada. Eskua luzatu zuen, baina konturatu zen sarea burdinaren antzekoa zela, zurruna, ez zela modurik. Bero zegoen gainera, bero baino gehiago ere bai: mina hartu zuen atzamarrean Irenek, ke apur bat atera zela iruditu zitzaion. Orban marroi bat ere utzi zion atzamar luzean... Izan zitekeen eguzkiak berotu zuela sarea, egun osoan... Ez zuen uste, zerbait gehiago zen hori, ematen zuen horretarako zegoela prestatuta, erretzeko, ez ukitzeko. Ez zen berriro ausartu.

Hotza sentitu zuen Irenek halako batean, leihoa zabalik, jakarik gabe, tapakirik gabe. Gustura zegoen leihotik begira: zerua, hodeirik ez, hodei gutxi behintzat, belarrak, hostoak, tentsiorik gabe orain, baina hotza sentitu zuen, eta ez zuen beste makalaldirik nahi, berriro. Epela berreskuratzea erabaki zuen, ohera itzuli behar zuela iruditu zitzaion, tapakietara. Lokartu egingo zen berriro seguruena, lo-ordu gehiago behar zuela iruditu zitzaion.

Ohera sartu zen beraz. Uste baino gehiago kostatu zitzaion epela, oso apurka hartu zuen tenperatura, ez nahi beste gainera. Loak hartu zuen guztiarekin ere... Argi batek esnatu zuen segundo gutxira ordea, flash moduko batek, foku batek. Berehala ohartu zen gela osoan zegoela argi intentsitate handi hori, betazalen ostean laranja sentitu zuena, baina oso zuria berez.

Ez zuen hura ulertu, nondik zetorren, zer zen, ez zuen jakin nahi ere, ez zuen gehiegi pentsatu. Tapakiak igo zituen, berriro lo lauso bat... Musika ozen bat entzun zuen orduan, desatsegina, zaratak batez ere, kolpeak, metalak, kirrinkak. Loa galarazi zion, burua ere altxatu behar izan zuen, gelan ez zen inor. Argia gero eta gogorragoa zen, ezin izan zion eutsi, begiak itxi zituen.

Zarata harekin ezinezkoa iruditu zitzaion arren, pentsatu baino arinago ohitu zen eta lokartu, lo sakonegia ere ez. Apur bat bildu zen gero beroari hobeto eusteko.

Minutu bat bera ere ez zen pasatu Irenek min handi bat sentitu zuenean gorputzaren zati askotan, ziztada bat, begiak irekiarazi zizkiona eta arin mugitzera behartu. Ez zekien zer zen, ez zuen ulertzen be-

rriro ere. Tapakiak baztertu zituen, ohean zerbait zegoen begiratu, koltxoian. Ez zuen ezer ere ikusi, ez zuen ulertzen.

Berriro etzan zen, hobeto pentsatzeko. Tapakiak apur bat igo zituen, ez goraino, besoak kanpoan. Beste ziztada bat orduan, aurrekoa baino gogorragoa... Salto batean altxatu zen, ohearen izkina batean jesarri, oinak alfonbran, erretiluaren ondoan. Bigarren horretan ulertu zuen: deskarga, elektrikoa, oheari, berari.

Ulertzen hasi zen Irene, halako batean, apurka, zertan ari ziren, baina beste gauza batek ere larritu zuen. Irene ohean sartu, begiak itxi eta segundo gutxira hasten ziren, argia, zarata, deskargak... Ikusi egiten zuten, ikusten zuten nola ixten zituen begiak, nola mugitzen zen, zer nahi zuen, berdin zion, ez zion berdin. Agobiatu ere egin zuten kamerek une batean.

Zutundu egin zen, hara eta hona hasi zen gelan, ondoegi jakin barik zer egin nahi zuen, kontzienteegi oraindik begira zituela. Ohitu behar zuen, bazekien ohituko zela. Leihora hurbildu zen, errezelak baztertu zituen baina ez lehen bezain nabarmen, apur bat, adar batzuk ikusteko beste, zeru zati bat. Kanpoko argiak lasaitu egin zizkion begiak, barruko argiarekin al-

deratuta askozaz apalagoa, on egin zion, estartak gogoratu zituen. Leihoak hotza gogorarazi zion, jaka hartu zuen, jantzi. Eroso sentitu zen jakarekin, etxe baten barruan, inoiz ez zuen ordura arte egin.

Komunak ez zeukan aterik, hori gela normal batetik bereizten zuen bakarra. Bainuontzia normalak baino dotoreagoa: botoiak tenperatura egokitzeko, metal horiak eta zuriak dutxak, gurpil bat intentsitateak aukeratzeko. Bainuontziko zoruak errail moduko batzuk ere bazituen, erdian irekiera bat uzten zutenak, sakonegia beharbada. Irenek adineko pertsona bat pentsatu zuen, baten batek lagunduta, gurpil-aulkia, indar bako hankak, zaintzaileak. Imajinatu zuen seme-alabarik gabeko andre bat, ilobarik gabekoa, katolikoa seguruena, koadroren batek motibo erlijiosoak zituen. Emakumea zela imajinatzen zuen Irenek nahitaez, koadroak, hormen kolorea, errezelak.

Ohe ondora itzuli zen, berriro probatu nahi zuen. Izan ere, konturatu zen ez zela deskargarik egon jesarrita egon zen aldietan, etzanda baino ez. Jesarri egin zen, aurrera begira jarri, begirada galduta, baina hamar segundo baino lehenago jo zion deskargak, jesarrita orain beraz, izkina batean, izterrak erre zizkion, salto batean zutundu zen. Adarjotzea ere iruditu zi-

tzaion, orain ez ziotelako loa galarazi behar, jesarrita zegoela jo zioten, bazekiten jarrera horretan ez zuela lo egingo.

Berria zen hori beraz, beste maila bat. Pentsatu zuen orduan benetan hasi zirela orain, handik aurrera hasiko zirela benetan, Ireneren gauzarik oinarrizkoenak trabatzen hasiko zirela, mina, biguntzen, deusezten. Ikusi zuten ondo zegoela, makala joan zitzaiola... Berriro makaltzen hasiko ziren beraz, husten, beste makalaldi mota bat.

Urduri hasi zen gelatik ibiltzen, eguna iluntzen errezeletatik kanpora, argia berdin gela barruan. Zaratek etenaldi batzuk egin zituzten, berriro orain, ozen. Bekokiaren ezkerraldean buruko mina hasten sentitu zuen Irenek, alde horretako begia bustita.

Irenek ez zekien zenbat denbora egin behar izan zuen horrela, sosegurik gabe, atzera eta aurrera, zutunik, orduak, ordu asko. Pentsatu zuen besaulkian egin beharko zuela lo. Ohituko zen argira, zaratara, oheko tapakietako bat hartu zuen. Besaulkian eseri zen, baina berehala ohartu zen uste baino inozoago ari zela: deskarga batek altxatu zuen besaulkitik ere, nola ez zuen altxatuko, nola ez zuen lehenago pentsatu, min arraro bat utzi zion izterraren goiko partean.

Buruko mina zuen oraindik, ezin zuen argiegi pentsatu, atzera eta aurrera ibili zen gelatik berriro, tapakia eskuetan. Alaba sartu zitzaion buruko minen artetik, oso bizi gogoratu zuen, tapakia eskuan ibiltzen zelako umea ere askotan, etxean, korridoreetan, egongelan. Nekea buelta hartzen ari zitzaion Ireneri.

Korridorearen amaieran, eskuman, Alangobarrin, umearen gela. Idazmahaia izkina batean, liburuak, arropa gehiegi, armairuetan, kanpoan. Zorua argiunerik gabe, pilotak, puzzleak, ez jatez gustaten, ama, antzar-jokoa, andrakilak, domino piezak, oin inbenta dozu ipuin hori? Guste jatzu? Oinetako desberdinak ere lurretik, eztulak, ez, antibiotikorik ez, orain egin behar duzuena da logela ondo egurastu, *orear bien la habitación*. Eztulak, barreak, nahasita, botaka ere bai ohean bertan, koltxoia ere zikin, jaki gutxi botatakoen artean, mukiak batez ere.

Ordu batzuk geroago ulertu zuen Irenek gelako zoru osoa ezin zela elektrifikatuta egon, alfonbra gainean egin zezakeela lo. Beste tapaki bat hartu zuen ohetik, ez zuen jaka kendu, zoruan etzan zen. Lehen minutuetan ez zen deskargarik egon, ematen zuen asmatu egin zuela, poztu egin zen, buruko mina ere bareago, begiak itxi zituen.

Sudurrean normalean baino hotz handiagoa sentitu zuen hala ere momentu batean, masailetan ere bai. Haize-korronte batek jotzen zion atzetik eta aurretik, garondotik, belarrietatik, gero eta indartsuago, gero eta hotzago. Tapakietan barrena ere pasatzen ari zela sentitu zuen apurka, gorputz osoa hoztu zitzaion minutu gutxian. Hozkailu handietako inpresioa zuen, haize-korrontea, ezinegona. Zutuntzea eta ibiltzea erabaki zuen.

Zutunik ohartu zen haize-korrontea ez zebilela gela osotik: orkatiletan sentitzen zuen orain, belaunetara ere ez zitzaion heltzen. Zutundu eta segundo gutxira gelditu zen haizea gainera. Oinak hotz geratu zitzaizkion hala ere, ariketa batzuk egin zituen epeltzeko. Horma baten kontra jarri zuen sorbalda bat gero, ukondoa, pentsamenduak hondakinak.

Irene komun-ontzian jesarrita zegoela sartu ziren gizonak gelara, betaurrekoak gelako argirako, beste arropa bat. Komuneraino sartu eta eurekin joan behar zuela esan zioten Ireneri. Berehala altxatu zen komun-ontzitik, ahal bezain arin igo zituen arropak, trabatu egin zitzaizkion.

Gizonak aurrean eta atzean zituela irten zen gelatik Irene. Korridoreetan eta eskaileretan argia apala-

goa izatea eskertu zuen. Solairu bi jaitsi zituzten, soto batera ulertu zuen Irenek. Ireneren gela lehen solairuan zegoen, seguru zekien, sotoak behar zuen, beraz, bi solairu beherago, eskailerak ere meharragoak. Okerrena imajinatzen hasi zen orduan, kolpeak, ukituak, itoak, bazekien zer ziren sotoak beti. Benetakoa orduan hasiko zela pentsatu zuen halako batean, nola ez zuen pentsatuko. Arnasa natural hartu gabe jaitsi zituen eskailerak, azken laurak, azken biak.

Ate baten aurrean gelditu ziren, eskua behartu gabe jo zuten gizonek egurrean, sartzeko esan zuen ahots batek. Barrura egin zuten, baina ez zen Irenek imajinatu zuena, ezta antzik ere: zine partikular bat, hogei besaulki, hogeita bost, pantaila handia aurrean, zortzi metro koadro, hamar. Pelikula bat ari ziren proiektatzen, hasita, jatorrizko hizkuntzan, azpituluak.

Gizon bat zegoen azken-aurreko ilaran jesarrita. Pantailaren argitan ikusi ahal izan zuen Irenek, nahiko ondo bereizi ere bai, argia motela izan arren: ondo jantzia, ondo orraztua, begiak ere nobleak, karratuak, egokiak sudurra eta ahoa ere, eskuak kokots azpian gurutzatuta zituela iruditu zitzaion, bietako bat behintzat.

Aurreko ilaretara eraman zuten Irene, bigarren lerroko bigarren besaulkian eserarazi zuten, pantailari begira. Ez zuen, beraz, gizona aurrez aurre berriro ikusi.

«Sendatu egin gara...»

Oso ahots egokia zeukan. Gaztelaniaz egin zion, baina Ireneri iruditu zitzaion Algortakoa izan zitekeela, ingurukoa, ez oso urrunekoa.

«Ez dakit. Oraindik ez. Ez dakit.»

Pantailan errepideko taberna bat ikusi zuen, ostatu bat beharbada, Estatu Batuetan seguruena, pelikularen koloreak oso apalak.

«Bakarrik sendatu zara. Sukar handia ekarri zenuen. Baten batek zerbait eman nahi zizun, zainetatik sartu... Badakizu... Ezetz esan nien. Lotan sendatu zara. Gorputzak sendatu behar du pertsona, gure aitak esaten zuen. Gorputz inteligenteak... Osaba medikua gure etxean, aitaren anaia, lehengusu bat ere bai...»

«Eskerrik asko.»

«Gorputz inteligentea zurea, argi genuen, mundu guztiak ez dauka... Kaletik ikusten dira, gorputz okertuak, puztuak. Adina ere badaukazu, okertzeko, koipe

zatiak hartzeko, inoiz ez dituzu hartu. Zure historia klinikoa ere ona, ia perfektua... Ez da erraza...»

«Ez dakit. Bai...», Irenek ez zekien zer erantzun behar zion.

«Zure kardiologia kontu hori. Hori baino ez. Horri tiratu ahal diogu.»

«Ez da gaixotasun bat.»

«Klaro, klaro... Gorputz inteligenteak... Buru inteligenteak dauden moduan... Hori mundu guztiak ulertzen du, buru argiak daudela, inteligenteak, edo buru normalak, edo ezertarako ez direnak ere bai... Hori argiago ikusten da, pertsonak lehen hitza esaten duenetik, ikasketetan... Bizitzaren laurdena baino gehiago ikasten, ikasketa akademikoa esan nahi dut. Hor zalantza gutxi uzten da, ondo definitzen dira buruak, zein den baliokoa, zein ez... Bada salbuespenen bat, alde batera, bestera... Gutxi...»

«Gutxi baino gehiago». Irenek ez zuen esan zuena sinisten.

«Ez duzu zugatik esango...»

«Ez. Ez dakit...»

«Zure espedientea, unibertsitatekoa, 90eko hamarkadako 50 onenen artean, Deustun. Zeuk ere ez duzu jakin hori beharbada, datu hori...»

«Ez.»

«Burua ere ona beraz, ona baino hobea ere bai, beste maila batean Irene Arrias. Hori esaten dute, mundu guztiak esaten du, txostenetan, enpresan ere bai, askotan irakurri izan dut... Hala da, Irene?

«Ez dakit. Nola esango dut nik...»

Gizonak eten bat egin zuen, luzea iruditu zitzaion Ireneri. Pantailari arreta handiagoz begiratu zion: azpitituluak ez ziren elkarrizketa guztietan agertzen, batzuetan bai, beste batzuetan ez... Modu arbitrarioan, iruditu zitzaion.

Aktorea ostatu batean orain, besoak hutsik, goiko arroparik gabe. Bere burua tatuatzen ari zen, orratz arraro batez, argazki batzuei begiratzen zien. Ondo ezagutzen zuen pelikula Irenek, kasualitate handia iruditu zitzaion... Zenbat pelikula, zenbat zine-urte, hura jarri zioten. Desatsegina egiten zitzaion bisualki, tatuaiak, lekuak. Birritan ikusita zeukan.

«Ez harritu pelikulagatik. Ikusi duzu... Ez da hain arraroa... Hemen proiektatuko ditugun pelikula guztiak ikusi dituzu. Erratu egingo gara baten batekin beharbada... Ez dut uste. Ez dut uste gehiegi erratuko garenik...»

Pelikula aldatu zuten pantailan orduan. Alemana entzuten hasi zen, azpititulu batzuk, aktoreak oihu moduko bat egin zuen. Filmak jauziak egiten zituen aurrera, aingirak, Danzig, elizak.

«Zergatik Ruanda, Irene?»

«...»

Irenek ez zekien zer erantzun, harritu egin zuen galderak, nola ez zuen harrituko. Ez zekien zer zekien gizon hark, zer zekiten, baina iruditzen zitzaion ez zutela jakin behar, ezin zutela jakin. Ruanda ez zuen ia inorekin komentatu, ingurukoekin beharbada, ez askorekin.

«Zer da Ruanda, Irene?»

Eten bat egin zuen. Ikusi zuen Irenek ez zuela erantzungo, ez zekiela zer erantzun. Beste tonu batekin hasi zen.

«Errazago: hiriburua, Irene, Ruandakoa?»

«Kigali.»

«Eta unibertsitatea, handiena?»

«Butare...»

«Zenbat hil zituzten 1994an, Irene?»

«Milioi bat. Tutsiak. Hutuak ere gero... Errefuxiatuak...»

«Ikusi duzu, Irene? Asko dakizu... Ruandaz... Gehiegi ere bai. Hori pentsa dezake baten batek... Eta seguruena gogorra irudituko zaizu, hangoa, han egin zirenak, hiltzeko moduak ere bai...»

«Bai...»

«Normala da, erraza da hemendik, zure Algortatik... Egon zara Ruandan, Irene? Badakit ezetz, badakigu. Unibertsitatean zeunden 1994an, zelako buruko minak, Irene, 1994an, azterketak, amaren bazkariak...»

Irenek keinua egin zuen burua jiratzeko, iruditzen zitzaion gizonaren aurpegia ikusi behar zuela une hartan. Hobeto pentsatu zuen, ordea, ez zuen lepoa mugitu ere egin. Jarraitu egin zuen gizonak.

«Baina konplikatuagoa da zurea, Irene, ez da Ruanda bakarrik: Baader-Meinhof, Sendero Luminoso, Angry Brigade, Irail Beltza... Guztiari begiratu diozu zuk... Hainbat lekutan irakurri duzu nola bahitu zituzten Irail Beltzekoek Municheko olinpiadetan Israelgo kirolariak. Enpatia moduko bat ere bai, esango nuke... Irene? Enpatia apur bat, Irene?

Ez zuen erantzun.

«Baina ez zenuen enpatia bera izan, seguru nago, seguru gaude, horren ondoren Mossadekoek erantzun

zutenean, Irail Beltzekoak bilatu eta hil zituztenean... Hori uste dugu...»

Eten bat egin zuen. Paperak.

«Armeniako Nemesisekoak ezagutzen dituzu, Irene? Seguru... Gauza bera egin zuten, Mossadekoek egin zuten gauza bera, baina turkiarrekin, armeniarren genozidioa lagundu zuten turkiarrekin: Europa osotik bilatu eta hil. Armeniarrekin enpatia gehiago beharbada, ezta, Irene? Hori esango nuke... Mossadekoen gauza bera egin arren, berbera, asmoa, ideia.»

«Ez dut hori ezagutzen... Armeniarrena...»

«Berdin dio... Milgram ezagutzen duzu, hori badakit, Milgramen ikerketak ere bai. Adolf Eichmann eta Milgram, ezta? Lotuta doaz... Obeditu baino ez zuela egin, hori esan zuen Eichmannek Israelgo epaiketan, horregatik hil zuela, horregatik erraztu zituela hilketak, esparruetan, gas-ganberetan...»

Isildu egin zen. Irenek Eichmann gogoratu zuen.

«Baina berriro sartu zen Mossad. Berriro Mossad, Irene. Bilatu zuten Eichmann, Argentinan aurkitu, bahitu, Israelera eraman. Hor Mossadekoa ez zaizu hain txarto irudituko beharbada... Dena oso erlatiboa, ezta, Irene? Mossad bai batzuetan, beste batzuetan

ez, baina agenteak berberak, asmoak, egiteko moduak... Konplikazioa, ezta, Irene?»

Isildu egin zen tarte batez gizona, ematen zuen Irenek horri erantzutea nahi zuela. Pelikulan berriro agertu ziren azpitituluak.

Aztoratuta Irene, apur bat zorabiatuta ere bai, datuak, Milgram, Eichmann, Ruanda, lo falta, ez zekien nola erantzun, ez zekien zer entzun nahi zuen gizonak.

«Ez dakit...»

«Hara. Horra. Irene Arrias... Ematen du gauza asko jakinda ia ezer ez dakizula. Hori da... Zure Algortatik...»

Haserre puntu bat igartzen zitzaion gizonari orain, ez gehiegi ere. Ematen zuen oso ondo zekiela tonuari eusten, Ireneri haserre apur hori erakutsi nahi izan zion, besterik ez. Jarraitu egin zuen.

«Zenbat aldiz hitz egin duzu Afrikaz, Hego Amerikaz? Estatu Batuetan egon zara, Mexikon, hortik behera inon ez. Zure Algortatik... Gogoratzen duzu nola jan zituzten japoniar batzuek pertsonak gerran? Horretaz ere hitz egin duzu...»

«Bai.»

«Ba berdin dio: hori ez da pertinentea... Ikusi duzu inoiz kalashnikov bat? Badakit ezetz, badakigu. Iaz hil zen asmatu zuena, duela bi urte beharbada, hiru, Mikhail Kalashnikov... Jakin duzu hori? *Iazko asto hilak aurten lurruna*. Askotan esaten duzu esaera hori, ezta? AK-47, jakin duzu duela gutxi hil dela...?

«Ez.»

«Zergatik ez Sierra Leona, Irene? Edo Hegoafrika, Somalia?

«...»

«Zergatik Ruanda?»

Irenek ez zuen erantzun, ez zekien zelan. Luzeago aritu ziren, gizona batez ere: datu gehiago eman zituen, guztiak ere inoiz Irenek ibilitakoak, berri batzuk ere bai. Oso zehatz hitz egiten zuen.

Une batean, ordea, gizonak ulertu zuen Irenek ez zuela asko hitz egingo, ezin zuela beharbada, aztoratuegi zegoela, gauzak ulertu behar zituela hitz egiten hasi baino lehenago. Gelara itzultzeko baimena eman zion orduan, baina Zergatik Ruanda, galdetu zion berriz aretotik irten aurretik. Gelan horri buruz pentsatzeko aholkatu zion. Bueltako bidea askozaz laburragoa iruditu zitzaion Ireneri.

Gelan argiak jarraitzen zuen, intentsitate bera, baina musikarik ez, zaratarik. Bakarrik utzi zutenean, ate ondoan geratu zen Irene. Ez zekien zer egin behar zuen, non jarri, burua nahasita oraindik, gizonaren ahotsa, galderak, komentarioak.

Leihoetarantz joan zen, han sosegatzen zen ondoen, belarra, zuhaitzak, zeru zati bat. Eguna ote zen ikusiko zuen, gaua, ez zekien... Errezelak apurka erretiratu zituen, baina ezin izan zuen kanpokoa ikusi: pertsianak jaitsi zituzten, metal itxurakoak, beheraino, zulorik txikiena ere ez. Modu instintiboan begiratu zuen leihoaren alboetan, pertsianak altxatzekoa bilatu zuen, ondo zekien arren ez zela pertsianak altxatzera ausartuko. Gelaren erdian jarri zen gero guztiari begira.

Pentsatu zuen galdeketaren ostean gauzak aldatuta egon zitezkeela, beste jarrera bat hartuko zutela beharbada, utziko ziotela lo apur bat egiten, lasaitzen, behar zuen. Irenek galderaren bati erantzutea nahi bazuten, utzi beharko zioten lasaitzen, atsedena, lo apur bat behintzat. Horrela pentsatu zuen, iruditu zitzaion logikoa zela, ez zuen zalantzarik egin, ohean jesarri zen. On egin zion koltxoiaren bigunak. Ez zen deskargarik, ez zuen ezer sentitu, etzatea erabaki

zuen. Burkoa hotz zegoen, berehala epeldu zen. Ikusi zuenean posizio horretan ere ez zegoela deskargarik, asmatu egin zuela pentsatu zuen, aldaketa zegoela, galdeketa aurretik eta galdeketa ostean. Tapakiak belaunetatik gora altxatzen hasi zenean, ordea, kolpea jo zion, deskarga, aurrekoen modukoa. Berehala altxatu zen, ez zuen ulertzen, ez zion buruak ematen.

Gelatik pausoak egiten hasi zen, pauso absurdoak. Bular artean antsia moduko bat zuen, itoa, ez zekien deskargak eraginda, nerbioek, lo ezak, egoerak. Hankek behar bezala eusten zioten, baina bigun. Apur bat lasaitu zenean, horma baten kontra jarri zuen sorbaldetako bat, koadro biren artean, Tosuko etxean egon zen moduan, beste ezer ukitu gabe.

Begiak ixten ari zitzaizkiola sentitu zuen orduan. Haize korronte bat nabaritu zuen orkatiletan orduan, leuna guztiarekin ere, doi-doi igurzten ziona hanketako azala, baina ez zena nahikoa loa galarazteko. Iruditu zitzaion topatu zuela leku bat, han ezin ziotela ezer egin. Besoak bularren aurrean gurutzatu zituen.

Argia amatatu zen orduan, erabat, pertsianen artetik ere ezin zelako argirik sartu. Begiak irekiarazi zizkion horrek Ireneri, logikaren kontra. Aldaketa handie-

gia iruditu zitzaion, begiak zabalik behar zituela pentsatu zuen.

Lehen minutuetan ez zen ezer ere gertatu, atezuan egon zen, begiak zabalik. Baina masailean zerbaitek ukitu ziola sentitu zuen halako batean, esku bat, atzamar batzuk, likatsuak, izerdituak, ez zekien, ez zuen ezer ere ikusten. Eskuak mugitu zituen aurpegiaren aurrean, uxatu egin nahi zuen masaila ukitu ziona, edozer zela ere. Arin mugitu zituen eskuak, ez zuen ezer ukitu.

Eskuak mugitzeari utzi zionean, segundo gutxira, lokia ukitu zion beste zerbaitek, ilea, ezpainak ere bai. Bustia sentitu zuen ezpain ertzetan, samatik jaisten ere hasi ziren. Irene bere gorputza kolpatzen hasi zen orduan... Ukitu haiek baztertu nahi zituen, baina zail egiten zitzaion: parte bat kolpatzen zuenerako, mugitu egiten zen ukitua, gero eta nabarmenagoa, arropa gainetik orain.

Intziri txiki bat egin zuen Irenek, kuzkurtu egin zen, bere baitan bildu, bularrak belaunen kontra, hankak oso itxita. Argiak piztu ziren une batean, piztu eta itzali, ez betiko intentsitatean, baina gauzak ondo ikusteko moduan. Irenek zalantzarik gabe ikusi ahal izan zuen orduan ez zela inor bere inguruan. Urduria-

go jarri zuen horrek, logikaren kontra. Berriro amatatu zituzten argiak gero, berriro erabat ilun. Zango-bizkarrei heldu zien lehen baino gogorrago.

Berehala hasi ziren ukituak berriro. Orain ez zien kontra egiten Irenek, burua belaunetan, aurpegia. Nabarmenagoak ukituak, arropetatik tiratzen zioten, beso bat ateratzea lortu zuten, jakatik kanpo, gona apur bat igo zioten behetik, apur bat jaitsi goitik, leku guztietara heltzen ziren, Irenek ez zuen ulertzen nola. Estututa sentitu zituen birikak, tripa, nahasita, arnasa ere desorekatuta.

Gelditu egin ziren ukituak halako batean, askozaz gehiago ezin zutenean egin. Denbora asko egin zuen Irenek jarrera berberean, ito berberarekin, tripak. Ohartu gabe lokartu zen gero, posizio horretan, baina oihu moduko batek esnatu zuen. Iruditu zitzaion oso denbora gutxi egin zuela lo, minutua, segundoak. Gizon biak zituen aurrean, jarraitzeko eskatu zioten. Gelatik irten ziren.

Zine-gela berera eraman zuten Irene, besaulki berean eserarazi. Aretora sartu zirenean, hutsik topatu zuten, ez zegoen aurreko eguneko gizona. Pelikula bat pantailan, zuri-beltza, soldadu batzuk etzanda, armak, ahotsik gabe, hauts harrotuan ikusten ziren eztandak.

Bigarren Mundu Gerra ematen zuen, ez zitzaion Vietnam iruditzen, Korea. Estatubatuarrak aktoreak seguruena, aurpegiak zikin, hori ematen zuen zuri-beltzean.

«Pentsatu egin duzu?»

Asaldatu egin zuen ahotsak. Gelan bakarrik zegoela uste zuen, seguru zekien bakarrik zegoena. Ahotsa aurrekoan baino hurbilago sentitu zuen ordea. Atzera begiratzeko keinua egiten hasi zen, baina ez zuen begiratu azkenean, berriro pentsatu zuen ezin zuela, ez zeukala horretarako baimenik. Tanke baten zati bat ikusi zuen pantailan.

«Ez... Ez dut... Ez dakit. Ez.»

Irenek tatarrez hitz egin zuen, pentsamenduak, ideiak, ezin zuen gehiago egin, buruak ez zion ematen. Pantailan eztanda handi bat, aurrekoak baino handiagoa.

«Ulertzen dut... Zer? Txarra tratua? Goian? Esan diet ez...»

«Ez, tratua ez. Ez dakit. Zorabiatuta nago.»

Eten bat egin zuen gizonak, Ireneri denbora eman nahi izan balio bezala, lasaitzeko, artezteko, burua ekartzeko zine-gelara, hogei, hogeita bost besaulkikora. Minutu bat, ia bi isilik.

Irenek ez zuen pelikula ezagutzen, hori uste zuen. Gizonak aurrekoan esan zion pelikula guztiak ikusi zituela... Umetan beharbada, gaztetan, ez zekien. Jarraitu egin zuen gizonak.

«Gogoratzen duzu A.J. Bellamy?»

«Ez». Zalantza egin zuen Irenek. «Ez dakit. Ezagun egiten zait. Ez dakit nondik.»

«Unibertsitate irakaslea. Queensland. Australia. Ez?»

«...»

«Haren liburu bat irakurri zenuen, ingelesez, zati bat beharbada, ez osorik beharbada. Dakidanagatik, dakigunagatik, nazka apur bat ere eman zizun. *Just Wars* liburua, bidezko gerrak, noiz den gerra bidezkoa, noiz ez, sailkapenak, definizioak. Orain bai?»

Baiezkoa egin zuen Irenek buruarekin, gizonak ikusi egin zuen.

«*Combatant* eta *non-combatant*... Gogoratzen duzu? Noiz hil daitekeen pertsona bat gerran zigorrik gabe eta noiz ez: emakumeak eta umeak inoiz ez... Soldaduak, agintariak... Nola sailkatuko zenituzke zuk, Irene?»

«Ez nituzke... Uste dut ezin dela. Ez zait iruditzen...»

«Klaro, klaro... Hortik kanpora zaude zu... Kanpora baino gehiago ere bai: hortik gora zaude zu... Ez da gerra arautu behar, egon ere ez du egon behar, zertarako gerra, ederra ideia, noblea. Zure mundutik esan daiteke, erraz, Algortatik, Alangobarritik, ideien mundua, soseguarena, oso biribildua dena.»

Eten bat egin zuen, ahotsa aldatu.

«Guztiari begiratzen diozu zuk, Irene, ondo dakit nik hori, ondo dakigu... Horretan nire antza daukazu, oso antzekoak gara horretan... Seguru ikusi duzula, konturatu zarela... Baina horretarako ez da oso argia izan behar, zure buruaren erdiarekin nahikoa, laurdenarekin... Seguru ikusi duzula beti egon izan dela, gerra esan nahi dut, leku guztietan, historian, idatzitakoan, historiaurrean. Esaten da jaio diren guztiek ikusi dutela gerraren bat, gerra asko, hurbilago, urrunago... Hori ulertuko duzu, ezta, Irene, arrazoizkoa da, beti egon izan dela eta beti egongo dela...»

«Hori da lehenengo gezurra...»

«Gezurra, klaro... Ariketa bat egin ahal dugu, Irene, jolas bat... Erraza da, ez arduratu, berriro egongo garelako ideien munduan, zure munduan...»

Eten txiki bat egin zuen.

«Erraza da jolasa, Irene, ez arduratu: pentsa dezagun, momentu batez pentsa dezagun, ardura hori daukazula zuk, agintariarena, gobernuan zaudela, herrialde batean, nazio batean, handiagoa, txikiagoa, berdin dio... Zer egingo zenuke horrekin? Esan nahi dut: soldadu guztiak kendu? Hori egingo zenuke? Armada osoa? Armak eurak?»

«Baina... Ez dut nik... Pentsatu behar da... nola...»

«Nola... Hori da... Armak, adibidez. Zer egingo zenuke armekin? Apurtu? Erre? Lurperatu, Dro jeneralak bezala? Saldu? Baina zure ideia nobleen munduan ezin izango ziren saldu, ezta? Arazoa beste bati pasatzea hori... Ez da noblea: etika, morala... Baina armak ere dirua dira, eta gure ariketan, gure jolasean, horren ardura ere baduzu, diruaren ardura, ezin duzu bota...»

«Ez nuke botako...»

«Dena dela, hori guztia egin eta gero, soldaduak kendu, armada, egitura, armak ere bai..., inguruko batek, hurbilekoak, urrunekoak, berdin dio, inguruko estatu batek, militar batzuek, adibidez, erabakitzen badute halako batean zure ardurako pertsonak, zure herrikoak, zureak hiltzea, bortxatzea, fusilatzea, gasganberetan sartzea... Orduan lanak, ezta, Irene? Nola erantzun orduan? Zer? Beste estatu bati laguntza es-

katuta beharbada? Beste armada bati? Baina hori ere ez da zure ideia nobleetan sartzen, ezta, Irene?»

«Ez. Ez dakit. Ez.»

«Eta beti egon dira zoroak, Irene, agintariak, militarrak... Beharbada ez dira zoroak. Zer dira? Ez dakit... Besteena nahi dutenak beharbada, diruak, jabetza, interesak ere bai... Beste zerbait ekarriko dieten interesak, lausotzen diren interesak askotan, nahita, nahi gabe. Beti egon izan dira, Irene, eta beti egongo dira, erraza da hori ulertzea, onartzea, ezta, Irene?»

«Ez... Ikasi egiten da hori ere. Ikasi egiten da... Dena. Alde batera eta bestera. Ikasi... Zorabiatzen ari naiz.»

Pauso batzuk sumatu zituen Irenek atzean eta andre baten eskua ikusi zuen gutxira bere masailaren ondoan, baso bat ur. Hartu egin zion, apur bat edan, bekokian jarri zuen hotz zegoela sentitu zuenean. Bere onera etorri zen, ez erabat.

«Hobeto?»

«Bai.»

Oraindik segundo batzuk egin zituen gizonak isilik. Pantailan gizonezko bi ari ziren hizketan, ahotsik gabe, uniformean.

«Baina RFP besterik da, ezta?»

«RFP?»

«Ondo ezagutzen duzu RFP, Irene... Ez hasi orain... Tutsien hori, Irene, tropak, armada, atzerrian prestatu zutena, Ruandara sartu zena 1994an, Paul Kagame, militarrak... Bai, ala?»

«Bai.»

«Hori besterik da, ezta? Armada hori desberdina da, beharbada, ezta? Hilketak gelditu zituzten, 1994koak, genozidioa gelditu zuten, horregatik da desberdina armada hori... Zure buruan ere, seguruena, desberdina da armada hori, ezta, Irene? Onerako beharbada...»

«Onerako...? Beharbada... Ez dakit. Kontua da gero...»

«Bai... Gero... Egia da... Esaten dute astakeriak gero, egia da, tropek, soldaduek, hori esaten da, hildako asko, egia... Beraz, armada bat onerako izan daiteke orain eta txarrerako gero... Ez dakit nola biribilduko duzun ideia hori zure buruan, Irene, ideia perfektuak, nobleak... Iruditzen zait balantza asko egiten dituzula, gehiegi, ezta, Irene?»

«...»

«Zergatik nahastu dituzu Ruanda eta ETA, Irene?»

Beste behin harritu zuen galderak, dena zekien, dena zekiten. Harrezkero ez zion bere buruari galdetzen nola jakin zezaketen... Pelikula aldatu zuten orduan, audioarekin orain baina oso apal. Viggo Mortensen aktorea pantailan, zubi bat... Berehala identifikatu zuen filma.

«Zergatik Ruanda eta hau?»

Irenek ez zekien nola erantzun, burua garbi izan zuenean ere ez zukeen jakingo. Isilik geratu zen gizona. Etxe baten aurrean aktorea orain, semearekin, deserrotua etxea, griskara.

«Zutundu zaitezke?»

Baietz erantzun zion Irenek, zutundu egin zen. Gizonak berak lagundu zion gelaraino, ez zien besteei deitu, Ireneren atzetik beti. Ez zuen zorabiorik sentitu, tentsioa bai. Iruditzen zitzaion oso hurbil zuela gizona atzean. Gelako atea arin zabaldu zuen, gizonak itxi zuen gero, astiroago, giltzak, pausoak. Gelan beste argi mota bat.

Erretilua ikusi zuen Irenek alfonbran, aurrekoan bezala, leku berean, jatekoak ere antzekoak, fruitu lehorrak, solomoa, gazta, jogurt txiki bi, ogia. Apurka jan zituen zati batzuk. Gose larririk ere ez, zorabioaga-

tik jan zuen gehiago, makalaldiagatik, pentsatu zuelako on egingo ziola. Tripak ez zion gehiegi ere onartu.

Leihoetara hurbildu zen gero, beti egiten zuen moduan, astiro, orduak zituen ezer egin gabe egoteko. Ikusi nahi zuen pertsianak altxatu zituzten, zerbait aldatu zen... Errezelak ere astiro erretiratu zituen, baina leku berean zeuden pertsianak, beheraino, zulorik txikiena ere ez. Abaildura moduko bat Irenek orduan, ez ziolako antzik ematen denborari, erlojua ere desagertu egin zitzaion eskumuturretik, gaua, eguna. Minutu batzuk egin zituen errezela atzamar biren artean.

Berriro itzuli zen gelaren erdira. Lanpara bakar bat zegoen piztuta, ohe ondoko mahaian, txikia, argia ere oso apala. Irene ohartu zen halako une batean pizteko eta amatatzeko botoia ere bazuela. Pentsatu zuen orduan lehenengoz kontrolatu ahal izango zuela argia, eta aldaketa zela hori. Aldaketa handia iruditu zitzaion izan ere, handiegia.

Hurbildu egin zen, makurtu, botoia sakatu... Ez sinesteko modukoa iruditu zitzaion argia amatatzea. Beste aldera sakatu zuen gero, piztu egin zen. Hirulau aldiz errepikatu zuen, sinesteko zaila egiten zitzaion, lelotu egin zuen botoiak une batez.

Garbi zuen orain zerbait aldatu zela. Ulertu zuten, beharbada, lo egin barik ezin zuela Irenek gauza handirik esan, koordinatu. Atseden minimo bat utziko zioten beharbada, burua behar bezala ordenatzeko, orekatzeko... Lanpararena gonbidapen moduko bat bezala ulertu zuen Irenek, ohera sartzeko, epela, loa ere bai, gutxienekoa. Hala ere, denbora luzea egin zuen lanparari begira, oheari begira, tapakiak, izarak, musker kolorea, zutunik. Bueltaka hasi zitzaizkion gauza asko buruan orduan, gizonaren ahotsa, Ruanda, ETA, Baader-Meinhof, Limako txakurrak, Kigalikoak, ume erreak. Zutunik hori guztia, lanparari begira.

Ohean jesartzera ausartu zen. Apur bat okertuta gorputza, pisua izter baten gainean jarri zuen... Deskargak jotzen bazion, beste izterra eta parterik mingarrienak libratuko zituen. Izan ere, beldurra hartu zion deskargari, merezi zuena baino gehiago beharbada. Minutu asko egin zituen horrela... Apurka lasaitu zen ordea, ohitu, ikusi zuen ez zela deskargarik, ez zela egongo. Normal eseri zen, baina ez zen oraindik etzan.

Etzan eta tapatu aurretik hasi zen gozatzen, hartu ahal izango zuen atsedena aurretik gozatzen. Kalkulatu zuen egunak zirela, ez zekien zenbat, asko, lo egin

barik, etzan barik, beharrizana handia zuela, hori pentsatu zuen. Biriketan mina sentitzen hasita zegoen, lo falta seguruena, bular barruan batez ere, leku guztietan. Sumatzen zuen, gainera, birikak baino zabalagoa zela min hori, eztarrian ere bai, hankak oso bigun, besoak.

Pentsatu zuen gauzak behar bezala egin behar zituela lotan geratu baino lehen: altxatu egin zen, komunera joan. Inoiz baino argiago sentitu zuen komunontziaren eta ohearen tenperatura desberdintasuna, hotzikara ere bai, ohera itzuli zen berehala. Berriro eseri zen, berriro izter baten gainean, minutuak, lasaitu berriro... Normal jesarri zen azkenerako, ez zen ausartzen etzatera oraindik.

Berrogei minutu baino gehiago egin zituen jarrera horretan. Zine-gelan esandako batzuk berritu zituen, osorik batzuk, erdizka. Gogoratzen zuena berehala ahazten zuen, esaldi zatiak etortzen zitzaizkion. Izaren zati berdeak ukitu eta sinistu zuen ez zela deskarga gehiago egongo.

Etzan egin zen azkenean. Ahalik eta gutxien ukitu nahi zuen koltxoia hala ere: belaunak gora, gerria bihurrituta, lepoa apur bat altxatuta, atezuan, deskargari begira. Lasaitzen hasi zen apurka, jarrera natura-

lagoa hartzen, epela, betazalak ere apur bat beheratu zitzaizkion. Ez zuen lanpara itzali, ez zion lo egiteko enbarazurik egiten. Ez zuen itzali beldurra zielako ukituei, ondo gogoratzen zuelako sentsazioa. Tapaki guztiak jarri zituen, besoak gorputz aurrean gurutzatu, gora begira, lokartzen hasi zen.

Amets txiki bat eginda zeukan zerbaitek esnatu zuenean, aurpegia ukitu zion zerbaitek. Begiak zabaldu zituen, lanpara itzalita zegoela ikusi zuen. Ukitua ez zen aurreko aldikoak bezalakoa, artifizialagoa orain, plastikoa beharbada.

Segundo batzuk geroago, ordea, esnatu eta berehala, minutu batera beharbada, presio bat sentitu zuen aurpegi osoan, plastikoa itsatsi balitzaio bezala... Gero eta zailagoa Irenek arnasa hartzea, ematen zuen zimur guztietara itsatsi zitzaiola plastikoa. Ahalegina egin zuen kentzeko, baina ezin izan zuen milimetro bat ere bereizi, itsatsita zuen, ito sentsazioa. Gorputza ere ezin zuen mugitu, konturatu zen zerbaitek heltzen ziola gerritik. Itoa bular barruan, ahoan, sudurrean, birikak. Konortea galtzeko jarri zen momentu batean, ezin zuen gehiago, baina plastikoa berez bereizi zitzaion.

Ukondo gainean jarri zen Irene, arnasa ahal izan zuen moduan hartu, ahal izan zuen beste. Negarrez hasi zen, tripa azpiak bigundu zitzaizkion, negar arraroa egin zuen, lasaitu egin zen apur bat gero. Baina arnasa berdindu ahal izan zuenean, ez erabat, berriro itsatsi zioten plastikoa aurpegira. Ezin zuen sinistu, itoa berriro, lehen baino okerrago beharbada... Asko mugitu zen ohean, ahal izan zuena, zarata arraro bat saman. Iruditu zitzaion azken itoa zela hura, baina berez kendu zen plastikoa orduan berriro. Bost aldiz gero gauza bera.

Gelako atea zabaltzearekin batera, aurreko aldietako argia piztu zen, intentsitate handikoa, mingarria begietan. Irenek ez zekien lo egon zen ala ez, begiak itxita bai, irudiak buru barruan, baina ez zekien lo egin ahal izan zuen. Lo urduria gehienez ere, gutxiro esnatzen zuena, atseden gabekoa, hori zen sentsazioa.

Gizon biak sartu ziren gelara orduan. Altxatzeko esan zioten Ireneri, berriro jaitsi behar zuela. Irenek ahal izan zuen moduan eseri zen ohean, asko kostatu zitzaion, min handia gerrian, saihetsetan. Presio handia sentitzen zuen bular barruan, erdian, erditik ezkerrera... Bazekien zer zen, zer izan zitekeen, min ematerainoko presioa, arnasa ere kostata. Hankak eta be-

soak ere ez ziren betiko moduan mugitzen, hankak batez ere, ezin zuten, indarra. Irenek asko pentsatu behar zuen nola mugitu behar zituen, askotan egiten zuen estropezu hala ere, zutunik jarri zenean ulertu zuen.

Korridoreko argiak lasaitua eman zion beste behin ere, baina eskailerak jaisten nabaritu zuen ondoen burua lehertzeko zuela, handituta edukiko balu bezala, kolpeka odola, lokietan, aurreko partean ere bai, bekain gainean. Ez zuen ulertzen nola ez zen konturatu ordura arte.

Aurrekoetan baino askozaz gehiago kostatu zitzaion zine-gelara heltzea. Makurtuta zihoan, aurrerantz, sorbalda bat bestea baino beherago; iruditu zitzaion bularreko mina apaldu egiten zitzaiola jarrera horretan. Askotan egin zuen estropezu, hormen kontra jartzen zituen eskuak. Gizonek ez zioten behin ere lagundu, altxatu, ez zioten ezer esan, arinago joateko ere ez.

Zine-gelan betiko gizona, zutik baina beste aldera begira, jakaren atzeko partea baino ezin zion Irenek ikusi. Aurrera jarraitu zuen, betiko lekura, oso astiro orain ere, eta besaulki-ilaran sartzera egin zuenean, okertu egin zela esan zion gizonetako batek, aurreko

ilaran sartu behar zuela, bigarren ilaran, bigarren besaulkian. Kasu egin zion Irenek, baina estropezu egin zuen lehen besaulkiarekin, min handia belaunean. Aurreko besaulkian jarri zituen eskuak lurrera ez jausteko. Ukondoak tolestu zitzaizkion, baina jausi gabe eutsi zion. Pentsatu zuen hobeto egongo zela jesarrita, hala sinistu zuen lehenengo momentuetan... Ez zegoen hobeto, inondik ere: itoa, arnasa, presioa bularrean, berdin, antzera.

Pantailan pelikula bat, ingelesez, azpitituluak portugesez. Pelikulako koloreak oso argiak, zurien tonu guztiak, Irenek oso arin identifikatu zuen. Harrigarri egiten zitzaion nola pentsa zezakeen horretan, nola bereiz zezakeen bere buruak pelikula hori beste guztietatik, halako egoeran, burua, gorputza, itoa. Guztiarekin ere, sekuentzia bat baino gehiago jarraitzeko modua izan zuen.

«Txarto, ezta?»

«Bai...», ahotsa guztiz pobretuta zuela ohartu zen Irene.

«Zerbait behar duzu?»

«Ez.»

Sumatzen zuen Irenek ezerk ez zizkiola minak arinduko, gizonak eman ziezaiokeen ezerk, itoak, pre-

sioak bularrean. Medikua behar zuela, ospitalea beharbada, sentsazio hori zuen, ezin zuen beste ezer erabili buruan.

«Gauza gehiegi, ezta, Irene?»

«Zer gehiegi...?»

«Gehiegi: Berlin, Londres, Mosku, Mosku barrukoak, NKVD, Lubianka, Bukarest, Esmirna, Erevan... Uste duzu dena ulertu duzula, Irene, dena ikasi duzula?»

«Ez...»

«Baina dena ikasten da. Aurrekoan esan zenuen... Zuk oraindik ez duzu ikasi, bidean zaude beharbada, zure mundu noblean hori pentsatuko duzu beharbada, apurka egin behar dela, ikasi, ulertu, prozesu horretan zaudela pentsatuko duzu beharbada...»

«Ez dakit, nik...»

Irene ohartu zen zenbat eta gehiago hitz egin, orduan eta okerrago sentitzen zela, arnasa, itoa, zerbait apurtuko balitzaio bezala barruan, bularrean, beherago, lehertu. Asko kostatzen zitzaion hitz bakoitza, isiltzea erabaki zuen.

«Dena ikasten da. Zeuk esan zenuen. Eta ikasten denean, irakatsi. Eta alderantziz. Beharbada ez duzu horretan pentsatu... Guk bai. Pentsatu duzu horretan, Irene?

«Ez.»

Ez zekien zeri erantzun zion ere, ez zuen pentsatu. Berdin zion orain, gehiago zegoen bere gorputzari begira, gorputz barruari, leherketei. Iruditu zitzaion odola sentitzen zuela ezohiko bideetatik... Ezkerreko eskua altxatu zuen, ezkerreko lokia ukitu.

«Denbora asko egiten duzu umeekin, ezta, Irene? Alabarekin, lagunekin... Ahal duzun denbora gehiena, ezta, hori da zure asmoa, ezta, Irene?»

«...»

«Asmo noblea, hori da, nola ez, Irene, nola ez... Eta dena ikasten da. Batez ere umetan. Baina umeek arin hartzen dituzte urteak... Berehala daukazu hogei urteko alaba, Irene... Eta gauzak ulertzen hasiko da noski. Baina umetan ikasi duenetik ulertuko ditu gauzak, horri tiratuko dio gauzak ulertzeko. Dena dago bideratuta, hala ematen du, alde batera, bestera... Kontua da nork bideratzen duen... Horretan, Irene? Pentsatu duzu horretan?»

«...»

«Umeak ez dira hain ume beharbada, ezta, Irene?»

Pantailako pelikula zeharo ilundu zen orduan. Azpititulu zatiak irakurtzen zituen Irenek, portugesez,

lantzean behin. Ez zuen, ordea, atzeko gizonaren arrazoibidea jarraitzen, ezin zuen, zatiak aditzen zizkion, guztiz ulertu gabe.

Pelikula kendu zuten halako batean, konturatu balira bezala pantailari adiago zegoela Irene gizonari baino. Pantaila zuri, gizonaren ahotsa argiago. Irenek ez zekien zertaz ari zen hitz egiten orain, nondik zetorren, baziren minutu batzuk...

«... Tolkien 14ko gerran; Lobo Antunes kontrakoa. Ulertzen duzu portugesa, Irene?»

«Apur bat.»

Beste zerbait jarri zuten pantailan. Ez zen pelikula orain: grabazio normal bat, kamera sinple batez, eskola batean, umeak, irakasleak. Mahaiak ez zeuden gela itxi batean, lorategia ematen zuen, belarra, zuhaitzen bat, eguna ere ona, eguzkia. Guztira 10-12 ume, irakasle bi, gazteagoa bat, 50 urtetik gorakoa bestea. Ez zeukan azpititulurik, inork ez zuelako ezer ere esaten, aditzeko moduko ezer ere ez, umeen zarata baino ez, barre batzuk. Irakasleak isilik, kamerari begira noizik behin.

Umeak binaka, hirunaka hasi ziren fokatzen gero, mahaiaren bueltan eserita. Gizona isildu egin zen orduan, beren-beregi seguruena, Irene pantailari adiago

egoteko. Inpresioa zen umeak gustura zeudela, barreka gehienak, kamerari adi batzuk.

Grabazioaren lehen minutua betetzeko segundo gutxi batzuk falta zirenean ikusi zuen Irenek alaba lehenengoz, argi, oso argi, nahi izango zukeena baino argiago, 10-12 ume haien artean, mahaiaren bueltan eserita, belarretan. Irakasleak ez ziren alabaren irakasleak, ikastolakoak ere ez... Umeak ere ez ziren alabaren gelakoak, adinekoak bai, baina oso desberdinak, arropak, orrazkerak. Lorategia hobeto ikusi zen une batean, Irenek ulertu zuen ez zuela ezagutzen, seguru zen ez zela sekula egon. Berriro agertu zen alaba pantailan orduan, gustura ematen zuen, pozik ere bai, umeekin hitz egiten zuen, irakasleekin, natural.

Itoa inoizko bizien berritu zitzaion Ireneri, bularreko presioa. Zutunik jarri zen, aurreko besaulkietan jarri zituen eskuak, burua aurrera, alabarengandik hurbilago egoteko beharbada. Zorabioa ere handia, aurrekoak baino handiagoa, arnasa etenda, kolpera, ia guztiz. Orban zuri batzuk ikusi zituen begien aurrean, laino modu batzuk, begien bazterretan hasi eta erdira ixten ari zirenak, ia ikusmen osoa zuritu arte. Hankak bigundu zitzaizkion orduan, indarra galdu,

guztiz, lurrera jausi zen, besaulkien artean. Egurrezko zorua ikusi zuen hurbiletik, harik eta laino zuriek begi osoa hartu zioten arte. Hortik aurrera ezer ere ez. Hortik aurrera ezer ere ez baino askozaz gutxiago beharbada.

Algorta, 2009-2014